HARIAK

YOSEBA PEÑA

Yoseba Peña

Hariak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

http://susa-literatura.eus/ebook

© 2018 Yoseba Peña
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2018ko urria
Edizio hau: 2018ko urria

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Birramamari eta haren alabei.
Koldori eta Beatrizi.
Gurasoei.
Amonari.
Pellori.
Elisari.

irene

1

Alaben ate azpitik argirik ez; lotan behar zuten. Trapua hartu eta zirri-zarra hasi zen marmolezko harraska zurixkan. Nahiz eta plazatik ahotsen marmarra igo, kanposantua ematen zuen etxeak. Hozten ari zen bakailaoa patatekin, Joxeren afari kuttuna; ama-alabek baratxuri-zoparekin konformatu behar.

Paretaren kontra bota zuen trapua. Non demontre zegoen? Gaueko hamarrak ederki pasata! Horrelakoetan, aitarekin gogoratzen zen Irene. Arrazoi izango ote zuen azkenean? Urte asko lehenago, Zarauzko senargaia egin zuela aitortzean, epelak aditu behar izan zizkion:

– Ez dut alaba arrantzale alfer baten atzaparretan utziko.

– Baina, aita, ez du ulertzen. Joxe ez da arrantzalea...

– Ze ote dakizu bizitzaren berri! Langosten moduan harrapatu zaitu, zurezko otarre horietako batean. Hori nahi al duzu?

Bat-batean lotsatuta, trapua lurretik hartu eta plater batekin estali zuen bakailaoa. Udal batzar inportante bat... baita zera ere! Joxe mekanografo xumea zen arren, idazkari-plantak egitea maite zuen. Ate guztien kisketa izanda, nola galduko zuen Urriza alkate berriaren kontrako zera hura? Hainbesteko iskanbila nafarra zelako eta ez herriko semea... faborez. Karlistek jakingo zuten zein jarri; ez al zituzten hamaika kontzejaletatik zazpi? A, baina ezin Joxeri argudio hori eman, purrustada ederra bueltatuko zion-eta: “Ez duzu ulertzen, ez zara *zauztarra*”.

Beharrik ere ez. Ados: hogeita hamahiruko hauteskundeetan, karlistek baino boto gehiago atera zuten jeltzaleek herrian. Eta? Parlamentua aukeratzeko egin ziren, ez kontzejalak. Madrilek udal hauteskundeak antolatu arte, hogeita hamaikako emaitzek agintzen zuten, alegia, karlistek. Baimen berezia al zeukaten *zauztarrek* hori ez ulertzeko?

Bonbilla itzali eta balkoiko barruko ateak ireki zituen, kristalezkoak. Leiho-ateak, berriz, egurrezkoak ziren, marko barruan xafla horizontalak zituztela. Burdinazko maratila batek lotzen zituen kanpoko paretarekin albo banatan. Gauero bezala, plaza kuxkuxeatzeko aprobetxatu zuen askatu eta itxi bitartean.

Kioskoa zeukaten etxe parean, udaletxea eskuinean. Momentuz lasai zegoen, argi guztiak piztuta eta gazte-multzo bat atariko arkupean erretzen. Aurreko asteko istilu latzak zirela-eta, sarrera debekatu zieten hemezortzi urtez azpikoei.

Irene ezkerrera ez begiratzen saiatu zen, alferrik. Hotel Otamendi: zenbat serenata entzun zituen leihotik aurreneko udaran! Eta beheko Gran Cafe Reina Victorian zenbat merienda. Joxeren irudia etorri zitzaion gogora, eguerdiro Gran Cafeko terrazan eserita, oihal merkeko trajez eta liburu bat irakurtzen poeta erromantikoaren airez. Inuzentea, Joxe. Eta bera. Biak. Ezpainak estutu zituen.

Hotza. Apalegi iristen zen balkoiraino ekonomikako epela eta tokilla estutu zuen. Amaren oparia: *écharpe du Cachemire* bat, leuna, gozoa, beroa...

Kristalezko ateak itxi zituen. *El Día* egunkaria hartu eta *Euskal Orria* bilatu zuen, euskarazko bakarra. Irrikaz errepasatu zituen herrietatik bidalitako kronikatxoak, Zarauzko zerbaiten bila. Do maiorreko denbora-pasa xaloak ziren, pianista hasiberrientzat. Munduak, berriz, do minorrean jotzen zuen: dramatiko, heroiko, sentibera.

Pauso isilak pasilloko lur hotzean. Alaba nagusia azaldu zen, hanka-hutsik eta kamisoia besterik ez soinean. Bularrekorik gabe, nabarmenago sumatzen zitzaizkion emakume forma berriak. Eta ilea: goi-goian ibiltzen zuen mototsa; bitxia zen haren adats argi eta luzea solte ikustea.

– Zer dun, Bego?

– Ama... margaritekin egin behar dut dantza –lotsaz baina tinko.

Margaritekin? Etxean jeltzaleak ziren, ez tradizionalistak. Agudo ahaztu zituen *Maiatzeko Loreak* eguneko negarrak: prozesioko atzealdean atera behar izan zuen nazionalisten beste alabekin batera, neskatxa karlistek leku onenak kenduta. Sei urte lehenago eman zuen izena Mariaren Alabetan, komunio handiaren ondoren. Hango lagunek jan ote zioten burua?

– Ea aitak zer esaten duen. Neronek galdetuko zionat; orain segi ohera.

Beste bataila bat Joxerekin; gozoa jarriko zen! “Karlista zerri horiek dantza eta politika nahasten dituzte” botako zion gutxienez. Zer uste zuen, batzokiko poxpolinak Gabonetako kabalgataren parte zirela?

Bi hilabete ez ziren alaba gazteak haiekin ateratzea eskatu zuela, eta denak txoratzen. Irene ez, on-

doegi ezagutzen baitzuen Joxepi: ba omen zuen dantzarako sena, eta gogotsu ari zen. Noiz arte, ordea? Ezin jakin harekin; pulamentu eskasagorik! Baietz laster gurasoak leku txarrean utzi.

Dantza-soinekoen kontua ere bazegoen: patroiak kopiatu, moztu, moldatu... dena Irene *neskameak* egin behar; ez zituen gau gutxi dantza-soinekoak josten emango. Gainera, oihalak garesti baino garestiagoak ziren. Joxeren trajeak bukatua zuen urteko luxuen dirua; hurrengo neguan, Ireneren txanda izango zen: aja-aja eginda zeukan berokia. Aurrezteko, txakur txikiak ere ari zen mesanotxean pilatzen.

Diru madarikatua. Gaur bezala gogoratzen zuen Joxe tinko hitza ematen, ezkontza-egunaren biharamunean: “Sei mila duro eskatu dizkidate etxea erosteko. Momentuz alokairuan jarraituko dugu, baina oposizioa ateratzen dudanean...”. Oposizioa... ederra ziria! Tratatzen hasi orduko iragarri zion Joxek udal-idazkariko azterketak gainditzear zegoela; urteak joan, urteak etorri eta mahai gainean segitzen zuten paperek, hautsa pilatzen.

Sei mila duro. Begoren kapritxoari esker, beste erremediorik ez zuen izango: beste bi neguz jarraitu

beharko zuen Irenek nola edo hala eskale-beroki grisa adabakiz konponduz.

Garrasiak kalean. Tximista baino azkarrago itzuli zen balkoitxora. Leiho-ateko bi xafla mugituz ikusi ahal izan zuen agertoki osoa. Gazte abertzaleak, giza-legea zeharo ahaztuta, kontu eske ari zitzaizkien irten berriei builaka. Atean geratu zen Urriza, kohorte tradizionalistaren babesean, kopeta luzea atzeraka orraztuta eta kezka disimulatuz.

Giza horma batek inguratu zituen karlistak. Zulo bat induskatzen saiatu ziren; besteek, eutsi. Karlista batek, Manterola zinegotzi ohiak, nonbait nazkatu, eta lurrera bota zuen bultzada batez parean zeukana. Hamaika besok heldu zioten Manterolari. Zurrunbiloan, gizon batek jendearen gainean salto eginez sekulako muturrekoa eman zion.

Amatxo maitea: Anjelmari Izeta! Joxeren lagun-laguna, gizon jatorra, aukeran ahoberoegia. Erotuta al zegoen?

Urriza alkateak keinu bat egin zion Haundiyari eta han hasi zen kankailua belarrondokoak partitzen: idiaren indarraz gain, haren burua ere bazeukan. Emaz-

teak, berriz, burua sobran. Brigida *Plantxadora* zeritzen orain. Irenek, ordea, ederki gogoratzen zuen bere neskamea izan zela herrira iritsi zenean, kaleko putzuen gainean ere jartzen zela señoritak zapatak busti ez zitzan, eta begira orain, handikeriatan.

Lotsagabe halakoa... bezperan, enkarguak egin ondoren Irene etxeratu zenean, hara non atzetik igo zitzaion bestea, irribarretsu eta losintxari, marmeladapoto bat oparitzera, desertuko idoloak baino faltsuagoa.

– Hitz egingo al dun nire alde Hotel Otamendiko gobernantarekin? Maindireak lisatzen dituena, Agerreko andre gaztea, begizkoak jota omen zegon ohean, larri eta ezin hilik.

Irene aho zabalik: nola ausartzen zen hitanoa erabiltzera? Igualetik igualera! Aldaketa ederra Irene herrira iritsi zenetik; hamasei urte edo ehun igaro al ziren?

Guardia zibil bikotea bat-batean. Liskarra epeldu eta bi bando azaleratu ziren, aurrez aurre; tarteko lubakian, gora eta behera animoak hozten, zein eta Azpiroz alkate karlista ohia eta... Joxe! Ministro-airez, ga-

rrantzitsu. Hobe zuen txorakeriak alde batera laga eta etxera lehenbailehen igotzea, nahikoa arazo bazeuzkaten eta.

Karlistek Circulo Tradicionalistarantz desfilatu zuten. Joxe olatu abertzalean murgildu zen batzokirantz, eta Anjelmari Izeta besarkatu zuen, Paulino Uzkudun garaitu izan balu bezala.

Hoztuta sartu zen ohera Irene. Manta pisutsuaren azpian, Errusiako tundra; beranduegi alabei jarritako adreilua berreskuratzeko.

Kla-kla, kla-kla, logelako leiho-ateek dar-dar egin zuten haizearen astinduz. Betiereko otsailean bizi zen: udaberriaren esperantzaz, jakinda neguko txarrena etortzear zegoela.

Sei mila duro; nondik, Jauna, nondik?

Kla-kla, kla-kla, langostek pintzekin bezala. Gauaren dirdiran, otarreko zumeen tankera hartu zien leiho-ateen xaflei.

Hasia zen kaiolen garaia: astea bete aurretik, hamabi gazte jeltzale atxilotu zituen Guardia Zibilak.

2

Maite zuen Xaleseneko usaina. Lehen kolpean, bakailao gazituak hartzen zuen sudurra, xerra beltzak mostradorearen gainean zintzilik zeudelako. Ondoren, mirariz bezala, arpegio sotil bat: kafea, kuminoa, kanela, Lagarto xaboia, karameluak...

Sabai alturaino zeuden beteta paretetako apalategiak: kristalezko potoak, latak, zakutxoak, botilak... den-denek letra ederrez idatzitako prezioa azpian zutela. Ultramarinos baten produktuez gain, oihalak ere saltzen zituzten; denda hondoan zeuden, telefonoaren ondoan, egurrezko mahai trinko baten gainean zilindroetan bilduta.

Irene barruratu zenean, Paki koinatak irribarre egin zion, dendako bata urdina itxi ezinik tripatzarra zela eta. Zazpigarren hilabetean, txarrena pasatua zeukan. Lau aldiz umea galdutakoa, ordea, inoiz baino beldurtiago zebilen, inoiz baino santujaleago. Kolore txarra zuen; halere, aukerarik ez ezer galdetzeko, Miren Xalesek sartu baitzuen beste bezero batzuekin izaten ari zen elkarrizketan:

– Eta hiri zer iruditzen, Irene? –astebetea zen hamabi gazteak atxilotu zituztenetik aurreko udalbatzan alkate jauna iraindu zutelakoan. Lapurren pare iluntzean etxetik eraman, lapurren pare kamioi batera igoarazi eta lapurren pare giltzapetu zituzten Ondarretako kartzelan–. Batzokia antolatzen ari den jaialdiarekin askatuko al ditinagu?

– Dudarik ez.

Behin eta berriro galdetzen zion iritzia Xalesek, behin eta berriro txepelkeriaren bat erantzun Irenek. Etxean, lasaiago, hamaika argudio bururatzen zitzaizkion, hamaika iruzkin puntadun. Ez, ez zeukan Mirenen abilidadea. Hark *El Día*-ko *Euskal Orria*-n idatzi ohi zuen, antzezlan batekin sari bat eman zioten, hitzaldiak ematen zituen... Zer egiten zuen ondo Irenek?

Elkarrizketa sutsuan kontzentratu zen. Goxoa zegoen herria; nahiz eta jeltzaleen buru gorenek egunkariak dantzan jarri eta alderdiko diputatuei ere laguntza eskatu, neska-mutil gaixoak kieto itzalean. Lau egunez, sei, astebetez. Injustizia handiagorik!

Bezperan komentatu zuen Joxek anaia bizkiarekin. Joxeren kopia zen Xebas aurpegian; maneretan, berriz, Paki emaztearen bizkia ematen zuen.

Batera bazkaltzen zuten bi familiek Irenerenean eta beste gairik ez zuten gizonek, politika eta politika, demoniozko Azaña lodikote hura egunero mahai bueltan izango balute bezala.

Batzokiak demostratu nahi zuen herria gazteekin zegoela: otsailaren 25ean, igandean, meza nagusiaren ondoren, poxpolinek dantza egingo zuten herriko plazan txistularien doinuan, gero bertsolariak eta, arratsaldean, hizlariak batzokian eta euskarazko antzerki bat.

Xalesek kobratu ohi zuen dendan, biltzeko paperean kontuak idatziz. Dirua jaso ondoren, ahizpei keinu bat egin eta besotik hartu zuen Irene, kaleraino laguntzeko.

– Gauza bat eskatu behar dinat.

Eta ikastolarena bota zion, aspaldi ari zirela beste maistra baten bila Miren Garaterekin batera jarduteko eta hura Ondarretako gazteetako bat izatea seinalea zela, Irenek Beasaingo mojetan ikasia zuela, ederki egingo zuela, Emakume Abertzale Batzan beste izenik ez zela aipatu eta mesedez onartzeko.

– Pentsatuko dinat –harrotuta.

– Senarrak adina irabaziko dun ia-ia.

Plazerezko zirrara batek zeharkatu zuen. Sei mila duro. Nola hartuko zuen Joxe burugogor horrek?

Handia izango zen Joxepiren estreinaldia, herri osoaren aurrean. Joxeri adituta, bazirudien batzokikoek horretarako propio prestatua zutela jaialdia. Egia esan, edozein aitzakia ona zen karlisten inguruan bereak eta bi botatzeko. Hango biraoak... taberna-zuloan bezala, alaben aurrean. Joxe!

Irenek bi egun zeramatzan hausnartzen. Irrikan zegoen ikastolan hasteko, baina nola, senarra umiliatu gabe? Ondo ezagutzen zuen. Edo ez; azkenaldian, gero eta sarriagotan iruditzen zitzaion ez zuela batere ezagutzen gizon hura.

Joxepi sukaldean jirabiraka ari zen afaria bukatu ordez; gutxi behar zuen! Ederra parea: segituan desagertu ziren biak, aita lagunengana eta alaba egongelara, auskalo zer dantza entseatzera. Sukaldean, Bego bakarrik geratu zen amari laguntzen.

Aurreko astean, halako batean, Irene bigundu eta baimena eman zion Begori margaritekin dantzan hasteko. Neska-kontuak besterik ez ziren; Joxek ulertuko zuen, momentu egokian harrapatuz gero.

– Neronek ere dantza egin behar dut igandean, meza ondoren.

– A, bai? –platerak harraskan pilatzen. Meza ondoren bazen, arazo bat gutxiago: Joxek ohitura zuenez batzokira joateko, beharrik ez aldez aurretik dena kontatzeko.

– Soinekoak ordurako bukatzeko astia izango duzu?

Arnasari eutsi zion Irenek: lo gutxiko astea zeukan aurretik, beste bat.

Itxaron. Ez al ziren Joxepiren egun, ordu eta leku berberak?

Kaleko atean jo zuten, etxe osoa txikitu beharrean. Xebas zen, begiak erotuta:

– Paki umea galtzen ari da.

Zinkunegi mediku jaunarekin batera iritsi ziren. Maindireak odoletan blai, buru-belarri ari zen Maria Etxetxiki emagina. Neskatxo bat atera zuen: zazpikia, hilda. Bosgarrena.

Mesanotxean, kartoizko maletatxo bat zegoen zabalik, umea janzteko prest: arropatxoa, mantak, artilezko oinetakoak... Pakik gauez gau josiak, aurreko umeentzat gehienak. Batzuk zeharo bukatuta, beste batzuk erdizka, segun noiz galdu zuen. Hilkutxa isil eta

hotz bat zen etxebizitza, noiz eta bost haurrekin biziaz gainezka egon behar zuenean.

Epaiketaren zain dagoenaren moduan bukatu zitzaion Ireneri dantzaldien astea. Itxaropena jarrita zeukan larunbat arratsaldean: alabak lagunekin kalean, Joxek ikaragarri maite zuen emazteak pare bat orduko siestatik esnatzea, batik bat goxo esnatzea. Izerditu ondoren, biluzik geratzen zen gizona, harropuzkeria eta bestelako keriak erantzita, entzuteko prest, arrazoitzeko, eraikitzeko. Aspaldiko Joxeren moduan.

Misteriotsuak dira, ordea, Jainkoaren bideak: larunbatean bertan, goizean goiz, mandatua pasatu zieten Beasaindik, ama bisitan etorria zela Frantziatik eta bazkalondoan joateko. Otsailean? Normalean, udara arte ez zen agertzen.

Joxepi jaio aurretik ere, abisatu gabe etorri zitzaien gurasoen etxera bisitan joateko agindua. Ezer gertatu izan ez balitz bezala. Bukaeran, aitak billete sorta potolo bat eman zion enpresako gutun-azal batean eta horrela finkatu zen tradizioa: nahieran gortera deituta,

poltsikoa bero bidaltzen zituzten bueltan, batzuetan lau hilabeteko alokairua ere kitatzeko adina.

Halere, iraingarriak ziren propinak. Limosnak. Nahiz eta ederki etorri, nahiz eta jaiotzetik zegokionaren zati bat besterik ez izan, ispilua jartzen zioten parean.

Ohiturari jarraituz, aitaren txoferrak jaso zituen. Bozina aditzean jaitsi eta meza nagusiko arropaz desfilatu zuten, txukun eta ondo orraztuta. Tira, txukun: Irenek amona zaharra ematen zuen, beroki higatua soinean. Baietz amak zerbait esan.

Joxe tente-tente eseri zen txoferraren bizkarrean zegoen lekuan, solemne, jakinda herri osoa ari zela automobil eleganteari begira.

– Egin aitonarena, aita! –Joxepik, txikitan bezala.

– Eulogio Gar-mendia Gar-cia nauk; sue zaukeat zainetan!

Txoferrak ere gustura egin zuen barre. Joxe arraio hori! Eta bestea aitarengana joaten bazen kontuarekin? Eskolara bueltan sentitzen zen Irene, azterketa batera lezioa gaizki ikasita. Ordubete geroago, haurtzaroko etxaldea agertu zenean, mirarik ez. Trantzea lehenbailehen bukatzea nahi zuen.

Barrutik baztertu zuten jardineko atetzarra. Kotxetik ateratzean, Joxek besoa eskaini zion, Zarauzko malekoitik paseatzean bezala, periodikoetako argazkietakoak bezain serio. Koitadua: ze hutsal sentitzen zuen bere burua diru hotz haren magalean.

Neskame gazte batek berokiak hartu zizkien, beste batek egongelaraino gidatu. Gazte-gazteak biak. Ama zain zegoen, hain maite zuen diva mozorroan: harribitxiak lepoan, eskumuturretan eta behatzetan, zetazko soineko urdinxka zoragarria, zapata altuak eta begi berdeak pintatuegi. Ile luzea solte zeraman, ze inbidia! Bego ekarri zuenetik, mototsari lotuta bizi zen Irene, herriko beste emakumeen modura. Astirik ez bere burua zaintzeko, sosik ere ez.

Amak muxua emateko sorbaldetatik heldu, aurpegia hurbildu eta ezpainekin atera zuen hotsa: mua, mua, mua. Kikilduta zeuden Bego eta Joxepi, lotsalotsa eginda. Opera-kantaria Parisen, politikarien laguna, artisten intimoa. Larrua behar zen! Kolpe zorrik jo gabe ematen zuen eguna, senarraren kontura.

Eta otsoa aipatuta, non ote? Ez zituen familiako zera haiek batere maite edo, agian... Auskalo. Emaztea bisitan izanda ere, berdin-berdin jarraitzen zuen lantegian goizetik iluntzera, astelehenetik igandera.

Hogeita hamaikan promulgatu zuten dibortzioaren legea, zergatik ez zuten...?

Hitz eta pitz ari zen amona Anette, neskatilak liluratzeko borrokan: soinekoa Italiako ze jostunek egin zion, harribitxiak ze dendatan erosi, zapatak... Laguntxoak balira bezala tratatzen zituen, eta tuntun haiek, hasierako ezinegona joanda, aho zabal-zabalik aditu, sorginduta.

– Irene –amak, erre eta ahoskera frantsesa nabarmenduz. Pianoa seinalatu zion dotoreziaz.

Obeditu beste erremediorik ez. Gorroto zuen haren antzerkian aktore izatea, baina are gehiago gorroto zuen amak frantsesez egitea. Kontraesan guztiak nabarmentzen zizkion palazio hark, orbandutako arantzak berriro mugitu.

Isats-piano beltzera hurbildu zen, okasiorako aretoaren erdian kokatuta. Eskala batzuk jo zituen behatzak berotzeko eta plazerak disolbatu zizkion beste sentimendu guztiak. Maite zuen fondo akoltxaturaino sakatzea, soken bibrazioak petxu barruan igartzea. Pianoan beste pertsona bat zen.

Mesdames et messieurs, voici Anette du Peyrer kantari famatua. Muturrean kokatu zen, infinitura begira, inspirazioa jasotzen. Bat-batean Lurrera itzulita,

irribarre egin zien biloba eta Palais Garnierreko ikusleei:

– Carmen-en habanera: *L'amour est un oiseau rebelle*. Barka, otoi, xinpletasuna. Orkestra arras handi batekin kantatzekoa da –eta Ireneri, frantsesez erosoago jarraituz–: Ea aurrekoan baino hobeto ateratzen zaizun, ma ange.

Beharrezkoa al zen? Nola nahi zuen ondo jotzea etxean pianorik ez bazuten?

Bukatzean, txalo-zaparrada eta publikoa zutik; amona Anette zeharo hunkitu zen. Joxepi sorgin hori miresmeneko txistuak jotzera ausartu eta aitaren begirasuna jaso zuen. Orduan agertu zen aitona Eulogio. Arrantzalea argi eta garbi baztertuz, bilobengana jo zuen eskola-inspektore baten antzera galdekatzera. Bizpahiru minutu bakoitzarekin. Gero, Luis XV.a estiloko komoda ireki zuen: marfilezko kutxatik bi puru aukeratu zituen, bat suhiari luzatu. Ume txikien irrikaz onartu zuen kaikuak, umiliazioa zela ohartu gabe.

Beste bi aria: Pucciniren *O mio babbino caro* eta Rossiniren *Una voce poco fa*, lehenengoan begirada sumindu eta guzti, Irenek konpas bat nahasteagatik.

Begoren begi irekiak harrapatuta, konplize aldameneratu zitzaion amona:

– Musika laket zaizu, *chérie*?

Bilobak txintxo baietz buruaz.

– Piano bat opari egingo dizut, ba –aitonak–, familia oneko ingeniari bat aurkitzeko. Abokaturik ez, entzun? Horiek ez dute batere lanik egiten –neska motzak, zer esan ez zekiela, amari begiratu zion lotsatuta–. Horri kasu eginez gero, beste sardina-zale batekin bukatuko duzu.

Audientzia ixtean, berokiak itzuli zizkieten. Ohiko ekitaldia falta, ordea: aitak bulegora gidatu zuen Irene. Hantxe ematen zien paga Mecanizados Garmendiako langileei, banan-banan, eta haien modura itxaron behar izan zuen poltsa zabalik. Billete-sorta txukun zeukan lotuta espartzu-sokatxo batez.

– Azken hau zerorrentzat –100 pezetako billetea erakutsi zion sartu aurretik–, beroki berri bat egiteko.

3

– Justorum animae in manu Dei sunt, et non tanget illos tormentum mortis –hasi zuen sermoia pulpitutik Don Melitonek–: Jaungoikoaren esku daude justuen arimak eta heriotzaren tormentuak ez ditu ukituko. Nire entzule maiteak, egia falta da munduan. Egia: zer gauza beharrezkoa den jakiteko...

Ireneri ez zitzaion Zarauzko parrokia gustatzen. Ezkontza eguna gogoratzean, harri koxkor batean biltzen zitzaizkion erraiak. Hasieratik jakin zuen gurasoak ez zirela agertuko, eta halere, lehen bankuan itxaron zuen tripak jaten. Santiago aurkitu zuen erretaulan, erromesen pordoi eta kapelari esker, hanka-hutsik. Otoitz egin zion debozioz, hasten ari zen bide hartan laguntzeko. Ondoko bankuan, Joxeren aita eta haren anaiak aurpegi serioz eta harrituta, deseroso traje zakarretan, esku gogortuak izter gainean, eta Joxe atzera eta aurrera elizako pasilloan, lehoia kaiolan bezala, bikario jauna lasaitu beharrean, sartzen ziren fidelak sorpresaz ikusmiran, ezkontza bat desorduetan, andregaia negarrez, senargaia haserre, irain

pertsonaltzat hartu zuen ez joatea, zertarako gehiago itxaron, ez ditugu behar, Brigidaren irribarre pikaroa, monagilloak laurdenak jo zituen eta bikario jauna sakristiatik irten zen kasulla zuria soinean, zirt edo zart egin beharra dugu, bestela meza nagusiarekin nahastuko zaigu.

Zirt edo zart. Hau urratu edo hori. Joxeren amorrua ikusita, lehen aldiz estutu zion barrutik zalantzaren hotzak, nor hartuko ote zuen senartzat, hanka sartzen ari ote zen.

Leporaino beteta zegoen eliza. Atzealdean, nor bere familiako sepultura gainean, emakumeak, aulki baxuetan. Majo beteko zuen poltsa sillerak falta ziren aulkiak alokatzen, egun handietan bezala.

Aurrealdeko bankuetan gizonak, ezkerrean jeltzaleak eta eskuinekoetan karlistak. Enbidoa jasota, ez ziren kikildu batzokikoak: hordago handira eta eutsi dantzaldiaren datari. Ze harro abiatu zen Joxe goizean etxetik! Dotore-dotore, ondo orraztuta eta bizkarra tente, konturatu gabe Joxepi baino are urduriago zegoela Bego. Zer esango zuen margaritekin dantzan

ikustean? Gai zen gaixoari plaza osoaren aurrean belarrondoko bat emateko.

Irenek ederki kostata jantzi zizkien trajeak alabei. Demoniozko pañelua! Ilea gantxoz bete behar izan zien ondo eusteko. Paki zen horretan artista, baina etxean zegoen, leiho-ate guztiak itxita ilunpean, inor ikusi nahi ez zuela.

Berandu bukatu zuten. Beti presaka leku guztietara! Ezkaratz parean, elizatik alde eginez bezala, Miren Xales eta Arantzazu Barrena topatu zituzten, zein baino zein apainduago, batek beroki urdin iluna soinean eta besteak krema. Aurreko azaroan, beraiekin joan zen Irene botatzera, lehen aldiz bizitzan eta Estatutuaren alde. Senarra Inurritzako eskolan zegoen interbentore; bezperan brodatu behar izan zizkion presaka "EAJ-PNV" letrak igandetako jakan, eta ikurrina txiki bat josi.

– Nora zoazte hain elegante! –Irenek, patxada antzeztuz.

– Badakin udaberri bukaeran ospatuko dugula IV. Olerti Eguna herrian –Xalesek–, gure Lizardi zenaren omenez. Bilera zaukanagu Donostian dena prestatzeko.

Euskaltzaleak elkarteak antolatzen zituen Olerti Egunak, urtero leku batean: 1930ean Errenterian Jautarkolen omenez, 1931n Tolosan Arreseren omenez... Jende argiarekin ibiltzen ziren Xales eta Arantzazu, haizea bezain libre. Behintzat ez zioten ikastolaz eta erabakiaz galdetu, baietzaren seguru. Hain erraza balitz!

Hotel Otamendiko gobernanta leiho batean ari zen plaza kuxkuxeatzen. Irenek kasu egin zion eskuaz, alde egin aurretik. Brigida.

– Jaungoikoak, bere errukitasun neurrigabean, bi gauza utzi zituen mundua salbatzeko: liburu bat eta gizon bat. Jesus salbatzailearen kondaira dugu liburua, Ebanjelio santua –Joxeren buru rubioa Anjelmari Izetarengana hurreratu eta txutxu-mutxuan hasi ziren–. Guztiok ezagutzen duzue gizona, leku guztietan dagoelako: apaiza da. Bera behar da jaiotzan, bera behar da heriotzan –Xebas, berriz, txintxo adi, burua penan murgilduta; bost seme-alaba lurperatuak zituen apaizik gabe–. Eta gezurra non, gure etsaia han. Horregatik diotsuet odolezko uholde batean itotzeko zorian dagoela lurbira guztia. Egungo erresumek daukaten izaera zaharra hankaz gora jarri dute batzuek. Sozialistak, anarkistak, nazionalistak... –brausta esnatu

ziren eliztarrak– Kristorengandik aldendu dira, herri guztiak beldurrez eta ikaraz dauzkatela. Idatzita dago Jaun Egileak zer esan zion Israelgo herriari, lurbira horrelako mataza handian korapilatuta zegoela: non parcat oculus vester neque misereamini. Ez ezazue inoren errukirik izan, hil itzazue denak. Denak! Zaharrak eta gazteak, emakume, neskatxa eta umeak, baina ez ezazue hil bere kopetan hau daramana, gurutzearen seinalea –irribarre txiki batek ihes egin zion don Melitoni, jeltzaleak seinalatzen zituela–: Ai, nazionalistak... Zuen profeta faltsua gehiago maite duzue Eliza amaren esanak baino. Bekatu zitalagorik! Egia ahaztuz, bizkarra eman diozue Ebanjelioari. Argi ibili! Lehenengo bekatua izan ohi da egiten zailena; behin bat eginez gero, errenkadan datoz besteak. Zein izango da zuen hurrengo bekatua? Zein izango da zuen hurrengo gezurra? Enbarazu egiten diozue Jaungoikoaren nahiari, baina tempora bona veniant!

Pulpitutik jaistean, eztulak ere ez ziren aditzen.

Irteera solemnea: don Meliton irribarre beatifikoaz, monagilloak gurutzearekin eta karlistak prozesioan. Ez zen giro; senarrarengana jo zuen Irenek, lagunekin

muturtuta berriketan ari zela. Begiekin erregutu arren, kasurik ez. Azkenean, besotik tiratu behar izan zion:

– Denek batera egin behar al dute dantza?

– Gureek bai, behinik behin –gogaituta.

– Bego margaritekin dantzatzekoa da.

– Hala al da? –ustekaberik ez. Nork esan zion?–. Zerorrek eman diozu baimena, eta zerorrek konpondu –Anjelmarirekin aldendu zen.

Ahoa itxi zuen Irenek garrasi egiteko gogoa iren-steko. Txepel, makal, harroputz halakoa...

Kostata iritsi zen plazara; alarguna ematen zuen inurritegi hartan. Udaletxe aurreko erdia erabili ohi zen dantzarako, kioskoraino, eta hantxe zegoen parro-koa pozik, eskuak otoitzerako bilduta, eta margaritak posizioan tenk musikaren zain, tartean Bego apain-apaina, dantzari-gona, mantala eta txalekoa distira-tsu.

Poxpolinak Otamendi hotelaren aurreko erdian errefuxiatu ziren, kezka bizian. Joxepik, berriz, lasai zi-rudien.

Hasi ziren tradizionalisten txistulariak kioskotik, baita brausta isildu ere. Liskarra eskaileretan: Haundi-ya erdi-erdian jarri zen, besotzarrak zabalik txistulari jeltzaleei sarrera blokeatzen. Batzokiko batzuek oihu-

ka erantzun eta karlista gehiago azaldu ziren, denak arrazoiz gainezka, denak sutan. Urakanaren bihotzean, Florentina Azkue, Ireneren lagun bat: Brigida Plantxadora zakar baztertu eta karlista baten txistutik tiratu zuen, Brigidak berari iletik heldu aurretik.

Ahotsa altxatu zuen don Melitonek: *Aita gurea, zeruetan zaudena...* Zirkuko lehoiek, beste erremediorik ez eta atzaparrak otoitzerako erabili behar izan zituzten. Karlisten txistulariak keinuka jarri ziren ados: bukatzean, segi jotzen. Jeltzaleen lerroetan ere, mugimendua: Florentina Azkue desagertu eta kioskoaren atzean berpiztu zen, Sanson seme nagusiaren ondoan. Ezizena ez zen kasualitatea: hamabost urterekin, morrosko handi bikaina zen, planta ederrekoa. Amaren aginduz, txistulari abertzaleetako bat jaso zuen leporaino. Bi gizonen artean aireratu zuten bestea, Otamendi hotelera begira. Giza hesi batek erdibanatu zuen plaza.

Lau txistuak txioka, dantzan hasi ziren bi taldeak, ahal bezala. Berdin zion: zenbat eta nabarmenago akatsa, orduan eta sutsuagoa txalo-zaparrada; horixe lehia. Irenek, bihotza plazaren modura, txandaka ikusi nahi, baina bandoz aldatzean gaizki hartzen zuten denek.

Joxepiri begira zegoela sumatu zituen bulkadak: bi gizon mutur-joka, bati sudurretik odola zeriola. Baketzera sartutakoak gerran bukatu eta zurrunbilo ikaragarri bat sortu zen: oihuak, zartadak, ile-tiratze bortitzak...

Txistuak mutu, tiro-hotsak makurrarazi zituen bizkar guztiak. Guardia Zibila.

Irenek alaba bat eskutik hartu, bestea bilatu, eta ezkaratzean babestu zituen arrastaka, oihartzuna isildu ezinik. Gerra etxe parean.

Bazekien, gainera, Hotel Otamendiko gobernantari zer esango zion Brigida Plantxadora karlistaz.

4

Eguerdian, plazara sartu orduko, zalapartaka hartu zuten umeek kamioi koxkorra. Mecanizados Garmendia. Txoferrak, zeremoniaz jaitsita, larruzko pitillera atera zuen alkandorako patrikatik. Ea señorita Begoña Larrañaga Garmendia non bizi zen, eta mila esku zikin biratu ziren irrikaz Irene atera berri zen balkoitxorantz.

Piano bat! Kamioiaren atzealdean, maindireekin babestuta eta hamaika sokaz eutsita. Ia bertan urtu zen, burua ametsez beteta: nahi zuenean jo, arratsaldeetan eskola pribatuak eman... Bizitza alde azkenean.

Plaza-ertzetik zetorren Paki, ttipi-ttapa burumakur eta beltzez. Amona bat. Harekin batera Bego; eskolatik joan zitzaion lanera bila, inork agindu gabe. Horrelakoa zen, beti besteren sufrimendua apaltzeko adi. Gainera, oso lotuta zegoen izebarekin: ume-umetatik eraman zuen hark bederatziurren, bijilia, gau-mezetara... Eta birritan Ezkioko Ama ikustera ere, hango agerpenak gezurretakoak ote ziren zabaldu aurretik.

Begok aurpegiera zimurtu zuen: mukizu begiluzeen erdi-erdian zegoen ahizpa. Hurbildu, eskutik heldu eta tiraka igo zuen etxeraino.

– Ama, pianoa! –Joxepik, sukaldera saltoka sartzen–. Aitona Eulogiok esan zuen!

– Egongelan ikusi arte...

Eta arrazoi: udaletxetik haien etxera hiru pauso zeudenez, senarra konplotaz jabetu, eta bueltan bidali zuen kamioia, ez zutela limosnarik behar. Bazkaltzera iristean, txintik ere ez: alaben protestei entzungor, mahaian eseri zen periodikoa leitzeko.

Irene sutan zegoen; komeriak oihukatzen ez hasteko berekoi hutsa zela, bere harrokeria zela-eta kenduko ziela alabei aukera eder bat... Ez al zuen txintxotxintxo onartzen Eulogiok emandako dirua?

Pakirenganako errespetuz isildu zen, baina gauean, biak bakarrik egonda, asto beltzarenak botako zizkion. Piano hura bueltan ekarri behar zen.

Bizkia bost minutu geroago agertuta, Joxek ez zion esertzeko ere astirik eman:

– Sanjurjo amnistiatuko ditek –sardexka platerean iltzatu eta ahora eraman zuen.

– Ze esaten duk? –Xebasek–. Estatu-kolpearen ondoren fusilatu nahi, eta orain libre? Zenbat egin dik kartzelan? Bi urte ere ez!

– Putakume galanta duk Sanjurjo, baina...

– Joxe! –Irenek.

– ...politikan ez zegok gauza errazik. Fusilatuz gero, monarkikoek kanonizatu egingo liketek. Errege destronatua bazaukatek eta, gainera, santu bat ematen bazaiek...

– Idiakezentzat ez zenuten ba ez fusilatzea, ez kartzela eskatzen–Irenek, haserreagatik ahotsa dardaran.

– Hara bestea! –senarrak–. Ez da gauza bera zoritxarreko istripu bat eta Espainia osoa mehatxatzea, inondik inora.

– Istripua al da gizaseme bat trintxarekin sastatzea?

– Egoskorra zara, gero! Sanjurjok ez zuen bakarrik Errepublika kenduko. Gure bila etortzekoa zen, Estatutuaren etsaia da eta.

– Anaia babesten ari zen Idiakez –Xebasek–; Gatxagak eraso egin omen zion...

– Gatxaga... ale ederra! –Joxek–. Abertzale hasi, karlista egin eta, azkenaldian, ezin atera Circulo Republicanotik! Bazkide ere ba omen zuan, pentsa!

– Non geratzen da bosgarren mandamentua? –Irenek. Sentimendu kontrajarriak zeuzkan Idiakezi buruz. Epaiketan, lekuko batzuek espainolez ez zekitenez, ez omen zuten galdeketa ulertu eta fiskalak nahi zuena egin zuen haiekin. Biktima politikotzat jo zuten arrazoiz jeltzaleek, euskararen kontrako iraina. Era berean, argi zegoen Gatxaga gizajo hura hil egin zuela liskar batean. Arotzaren trintxa batez sastatuz.

Joxek zaldien moduan arnasotsa atera eta seltz-sifoia hartu zuen.

– Bota, aita! –Joxepik. Basoa eskaintzean, ogia irauli eta ahuspez geratu zen. Pakik hozka egin zion beheko ezpainari.

– Seltz-ura eta arrautzak, etxeko jaunak –Joxek, eta gizonen basoetan bukatu zuen. Emazteari erakutsi zion sifoi hutsa, hark buruaz baietz esan arte.

– Joxepi –Pakik, ahul–: jarri ezan ondo ogia, Ama Birjina negarrez ari dun eta.

Parrokiako kanpaiak laurak jo gabe, koinataren oihua plazatik:

– Irene!

Bihozkada txarraz atera zen balkoitxora.

– Hator agudo! Hire anaia konferentzian.

Migel? Urtean hiruzpalautan egiten zuen hots Xaleseneko telefonora, ama etorri zela abisatzeko. Biharamunean zen Parisa itzultzekoa, ordea. Agurtu nahi ote?

Kale Nagusia hartu zuen presaka, Paki mutu atzetik abiadurari eutsi ezinik. Xalesenean, bi bezero eta etxeko guztiak adi.

– Bai?

– Irene? –Migelek–. Aita eta ama hil dira, gaur goizean. Auto istripuz.

– Jesus, Maria eta... Baina... Nola?

– Esan dizut. Bihar arratsaldean da hileta, parrokian. Etorri seiak eta laurdenerako.

Pakiren arrain-begi tristeak; ezin haren aurrean negarrez hasi. Naturaren legea zen gurasoak semealaben aurretik joatea; koitadu hark, berriz, bost aldiz...

Arnasestuka irten zen kalera. Pakik besarkatzean hasi zitzaion uholdea.

Komeriak Beasaineraino iristeko; alde ederra aitaren txoferrarekin! Donostiara trenez, hango geltokian Goierrikoa bilatu, itxaron...

Herrian, parrokia bidean, txutxu-mutxuak: don Eulogiok automobila bere kasa hartzen omen zuen lehen aldia, Ataungo luze hartan zuhaitz baten kontra jo, akats mekanikoa omen...

Hilda ere ez ziren errua leporatzera ausartzen.

Ordu laurden bat berandu elizan; Migel muturra luzatuta. Keinu egin zion arrebari aurreneko bankuan jar zedin, bere aldamenean; Joxe eta alabak atzean, seme eta Encarnacion emaztearekin. Hark inoiz ikusitako mantelinarik ederrena zeraman buruan, beltz-beltza eta haizea bezain gardena.

Primerisimako hileta: hamaika apaiz, dirutza kandeletan, kantu-sorta bikaina, hiru meza batera... Bikarioak sentitu egin zuen sermoia: gizon langilea, eskuzabala, zintzoa. Ama aipatu ere ez.

Zenbat ordu eliza ilun eta hotz horretan. Zarautzera joan arte, triangelu batean atxilo bizi zen: etxetik eskolara, eskolatik parrokiara. Pianoa zuen mundua sumatzeko zirrikitu bakarra.

Zaldi-kotxean eraman zituzten hilkutxak kanposanturaino, segizioan ordena tinko mantenduta. Pan-

teoia irekita zegoen. Hilkutxak sartu eta itxi ondoren, atean geratu ziren anai-arrebak. Migel ministroen antzera: flanelazko traje grisa, beroki fina patrikan zapi eta guzti, antezko zapata ilunak eta handikien sonbreroa. Zerikusirik ez Joxek eskuan biribilduta zeraman txapel beltz arruntarekin.

Hainbat gizon igaro zitzaizkien paretik, halako sonbreroak erantzita. Migeli eskua eta doluminak eman, hark zerbait egokia xuxurlatu eta inportante aldentzen ziren. Edadetuak gehienak, seguru asko aitaren lagun edo sozioak.

Gaixoa ama. Baketsua zen Maule sorterriko hilerria: belarra, hartxintxarra, harresi ttipiak, liliekin apaindutako hilarri zaharrak. Horren partez, monumentutzar zatar hura, zutabe handinahitsuak, marmol hotza.

Bukatutakoan, gurasoen etxera joatea agindu zion anaiak, hango gauzak konpontzera: trago txarrak, zenbat eta lehenago, hobe. Alabak eta Joxe jardinean, aitaren bulegoan giltzapetu zen Migel. Irenek amaren gelara jo zuen, oinak arrastaka, mamu baten moduan. “Altxa hankak! Zuzen ibili! Ixo!”. Aitaren oihartzunak.

Soineko, zapi eta oinetakoetan ortzadarra. Ezin jantzi, baina limosnan emateak lotsa ematen zion. Lu-

rrean pilatu zituen, erretzeko. Beroki gorri eder batek jo zion begia. Odolaren kolorea: pasioa, bizitza. Hartu eta sudurrera gerturatu zuen beldurrez: usainik ez. Ohe gainean utzi zuen.

Presaka erdibanatu zituen harribitxiak, armairubarrenak miatu. Larruzko esku-poltsa batean topatu zuen bere txikitako argazkitxo bat, urrezko markoan. Azpian, liburu bat: *Madame Bovary. Moeurs de province*.

Beroki gorriarekin estali eta Migeli egin zion hots. Ematen zuen gorpuen zatiak ari zirela banatzen.

Lorategira irtetean, etxea agurtu zuen betiko: zertarako itzuliko zen, ba?

– Egon lasai –anaiak, atetik–. Laster irakurriko dugu testamentua.

Automobila bide erdian aparkatuta zeukan; aitaren txoferra ondoan firme, uniforme berriaz. Migelen etxetzarra bostehun metrora zegoen; Irene ez zen tutik ere esatera ausartu, Joxek edozein ergelkeria botako zuelakoan.

Bueltan, zenbat eta urrunago, orduan eta bareago. Negar egin zuen azkenean. Eguzkia kentzen zion horma eroria zen, bai, baina orain bidea libre zuen haizeak ere nahi adina jotzeko.

Zarautzera iristean, tren-geltokitik aditzen zen festa. Ahaztuta zuten! Aurreko astean, kartzelako neska-mutilak artean atxilo, herriko lehenengo greba orokorra antolatua zuten batzokikoek. Gobernadoreak amore eman eta, handik gutxira, gazteak askatzeko agindua eman zuen.

– Zergatik ez dugu Paki ongietorrira eramaten? –Joxek, Zigordia eta San Frantzisko kaleko bideguru-tzean geldituta–. Ea behingoz elizatik ateratzen den.

Irenek baietza eman zuen buruaz. Inuzentea; abia-tu eta bi pausotara, Joxek norabidez aldatu zuen, urru-tiko ezagunei irribarrez:

– Segi lasai, oraintxe bertan noa.

Alabek ere kale: Joxepik katuen antzera nasa za-paldu bezain pronto; Begok baimena eskatuta.

Koinata konbentzitu eta plazara joan ziren. Pakik besotik hartu eta Irenek ez zuen bihotzik izan askatze-ko. Aita, ama, Beasain. Mojak, pianoa, liburuak. Bizitza bidea bada, bereak kiribilak egin zituen zeruan, bu-kaeran koinatarekin bat egiteko lurrean.

Jendetza kantari: *Jaiki, jaiki euzkotarrak laster dator eguna; sortaldetik ageri da argi goxo biguna.*

Bere aurrean bildurtuta ihes dihoa iluna, ihes dihoa iluna...

Han Arantzazu Barrena, han Miren Xales eta ahizpak, Miren Garate besarkatzen. Beste mundu batean bizi ziren haiek. Ikusle hutsa zen Paki eta baita Irene ere, haren aukera galduta. Erantzunik eman ez zuenez, Emakume Abertzale Batzak beste emakume bat hartu omen zuen ikastolarako: gaztea, polita, argia. Labaderoan aditu zuenetik, ezin Xalesekin lehen bezala jokatzea lortu eta agian bere irudipena izango zen, baina Xales ere antzera zebilen.

Kalejira osatu eta batzokirantz jarri ziren martxan. Ezin haien atzetik ere joan: koinatari ez zitzaion egokia iruditu bere egoeran; etxera itzuli behar zuen. Halere, ez zuen besotik askatu. Bidean, Urriza alkatearen etxeak ondo itxita zeuzkan leihoak, kontrako oihuak geratzeko edo. Berrogei metro egin ez eta bonba lehertu zen. Eztandak lurrera bota zuen Irene, belarrietan makilakada jasota, non zegoen ere ez zekiela eta estura arrotz batek barrutik hartuta. Paki aldamenean zetzan uzkurtuta, sabel hustua besarkatzen eta burutik odola zeriola nazareno baten moduan, ahoa zabaltzen eta ixten arrainek lehorrean bezala, baina Irenek ezin aditu, zorabiatuta, joanda, eta esku bat zoruan

jartzean, kristal-pusketek ziztatu eta ahurra odolaz bete zioten, juxtu alkatea ezkaratzetik erotuta irteten ari zela, alkandora hutsean ilea otzandu gabe eta pistola bat eskuan, seguru asko marruka, eta segituan agertu ziren korrika gizon gehiago, samur baztertu zituzten koinatak, berehala begiluzeen artean Joxe eta Xebas, izugarri larrituta, auskalo ez ote zieten esan emazteak lehertuta hil zirela.

5

Goizean goiz zabaldu zen bidean Zarautz zeharkatuko zutela eta, hamarretarako, greba-egunean bezain hutsik zeuden fabrikak, langile gehienak plazan, txistulariak, ezpata-dantzariak... Abuztuko Amabirjinaren egun handia ematen zuen.

Udaletxeko fatxadak lau zutabe potolo zituen, tenplu erromatarren antzera triangeluan bukatuta. Goiko solairuan zegoen balkoia, zutabeen arteko bost hutsunetan enkajatuta eta, momentu hartan, jendez lepo.

Sukaldeko balkoitxora atera zen Irene, alabekin estutuz ez zirelako hirurak sartzen.

– Etorri gurera, emakume! –Antonia lagunak, aldameneko eraikinetik–. Hobeto ikusiko duzue eta!

Berez, urrutiago zegoen haren etxea udaletxetik, baina hango miradoreak! Zalantza-plantak egin zituen Irenek onartu aurretik. Antoniarekin batera antolatutako txokolatada ederrean egona zen olabeagatarren palazioan. Banco Guipuzcoanoko zuzendaria zen Patxi etxeko jauna eta bistan zegoen: pasillo zabalak, aretoak, Vatikanokoen pareko altzariak... Eta dena txukun-

txukun, goizeko hamaikak ez ziren arren. Zer ikusirik ez Ireneren kobazuloarekin, Joxepi urakanaren opari.

Ai, Joxepi! Ezin arrastoan sartu. Azkena, San Inaxio martxarena. Udaberrian, letra berri bat ekarri zuten batzokikoek herriko umeek abesteko. Euskara ederragoan idatzita zegoen, adibidez, “Lur” esan beharrean, “Ludia”, eta horrelakoak. Ba, Joxepi temoso hark, ezetz, ez zuela nahi. Hango negarrak! Non eta batzoki erdi-erdian. Oparien bitartez konbentzitu behar izan zuten. Iritsi da uztailaren azkena eta ekin dio umeabesbatzak ereserkia kantatzeari: *Iñaki / Jainkoak bialdua / Ludian izateko / Josuren gudarien burua...* Koru harmonikoaren atzetik, ordea, ahots burlati bat hitz zaharrekin kanka-kanka: *Inaxio / gure patroi haundia / Jesusen konpainia*... Joxepi!

Oroitzapenen amorrua disimulatzen saiatu zen Irene, Antoniak ez zezan pentsa berarekin lotura zeukanik. Han pianoa! Udarako arratsaldeetan, leiho irekietatik behera jaisten ziren Itziar eta Arantzazu Olabeagaren sinfoniak, zerutik bezala. Bego zaharregia zen hasteko eta Joxepi...

Antoniaren aldamenean atera zen balkoira petxua handituta. Erregina eta markesa. Jendetzaren oihuak zirela-eta, ezin aditu diputatuek esana. Lehen Mon-

zon, gero Irujo. “Gora Euzkadi askatuta!” bukatu zuen hark ukabila estutuz, eta plazak aho batez erantzun. Esquerra Republicanako diputatuak aurkeztu zituen, haiei hitza emateko.

Ez zen kasualitatea katalanak han egotea: Sabino Aranaren hilobia bisitatzera zeramatzaten PNVkoek, haiekiko solidaritatean utzi baitzuten jeltzaleek parlamentua, protestan.

Diputazioetan nork agindu zen arazoaren muina. Joxe eta Xebas ez ziren konturatzen: hiru urte ditxosozko Errepublika ekarri zutela eta, artean hauteskunde probintzialak egin ez zirenez, Madrilek aukeratzen zituen hango mandatariak, Madrilen interesak defendatzeko.

Argi geratu zen *Ardoaren gerra*n. Lehen ministroaren tronua eskuratu bezain pronto, buru-belarri hasi zen desegiten Lerroux eskuindarra ezkerrekoek aurretik egina, adibidez erreferendumean aprobatutako autonomia estatutua. Gutxi balitz, iragarri zuten ardoaren arantzelak igo behar zituztela, eta han bota ziren gainera euskal udal pila bat, Donostiako alkate sozialista buru. Joxek zioen ardoaren arantzelak omen zirela udalen aurrekontuen erdia eta handik matxinada; Xebasen arabera, berriz, Madrilek autonomia estatu-

tua gelditzearekin nahikoa ez eta kontzertu ekonomikoa kendu nahi zuen.

Probintzia defendatuko zuten taxuzko diputazioek; txakurrak, ordea, zaunkarik ez jabeari eta udalek bilerara deitu zuten gobernuarekin zuzenean negoziatuko zuen ordezkaritza aukeratzeko.

Gobernuak debekatu arren, bilera egin, egin zuten, baina hala moduz, udal ordezkari gutxik ekidin baitzituzten errepide-kontrolak eta Poliziaren trabak.

Horixe ari zen gogoratzen diputatu katalanetako bat udaletxeko balkoian. Jendetzak eman zion oihartzuna bukaerako oihuari: “Visca Catalunya lliure! Visca Euzkadi lliure!”. Ondoren, txistulariek negarpuntuan jo zuten *Agur, Jaunak* eta, denak autoetara igota, sekulako txalo eta aupaden artean abiatu zen segizioa ikurrina eta senyera erraldoi bik osatutako arkuaren azpitik.

Parentesia itxita, sentipen deseroso bat utzi zuten plazan, irreala izan ote zen, zapore gazi-gozo bat. Lanera itzuli beharra zuten, bizitzak berdin-berdin jarraitu zuen. Edo horixe uste zuten.

Ordu bata laurden gutxitako kanpaia: Joxe iristear eta, artean, mahaia atondu gabe. Geroxeago etorriko ziren Paki Begorekin eta Xebas. Azkena beti, Joxepi. Hain zaila al zen enkarguetatik zuzenean etxeratzea? Ez al zuen ama itota ikusten?

Udararako, etxebizitza alokatu zioten koinatuek Madrilgo jaun bati, eta Joxerenean zeuden geroztik. Brigida Plantxadorak egin zituen bitartekari-lanak eta, egiak esaten hasita, sardinak latan bezala bizi ziren bi familiak, lan guztia Ireneren bizkar zegoela.

Kalean, marruak: “¡Viva España!”; etxeko eskaileretan, burrunba. Ate-danbateko basatia: ikusiko zuen Joxepi sorgin horrek! Sukaldera, berriz, Bego sartu zen, zuzenean balkoitxoraino.

– Udatiarrak, ama!

Berrogei edo berrogeita hamar lagun, trajea zein albornoza soinean, batzuk serio demonio beso faxista altxatuta, besteak kalejiran irribarretsu. Ipar kaletik zetozen, udaletxerantz. Balkoitik zintzilik jarraitzen zuen ikurrin batek, goizeko ilusiotik arrasto bakarra.

– ¡Muera la República!

Paki iritsi eta haiekin estutu zen balkoitxoan:

– Han don Cesar Mendoza! –haien apopiloa seinalatuz. Gizon iharra zen, kaskamotza eta antiojo beltz

potoloen azpian sudurluzea–. Eta han andrea, doña Maria del Rosario, beti ondoan. Baietz komunean ere bakarrik ez utzi! Lepotente halakoa... Infanteen antzera jantzita zaraman semea. Ematen din Gran Hotel osorik hartu duela, itsasoari begira hamar neskame eta guzti. Baita zera ere: esan nionan Florentina Azkuek lagunduko ziola arropa garbitzen eta lisatzen... horixe egiten diten kanpotarrek, ezta? Ba doña Maria del Rosariok ezetz, misterio handiz. Seguru nagon gauerdian joaten dela Salbideko labaderora, eta gero etxe barruan zabaldu. Lepoa egingo niken!

Ez Irenek ez Begok erantzun zioten. Ahoberokeria baino, inkontinentzia zen Pakiren arazoa.

Iritsi zen inbasioa udaletxe ateraino eta hango langileetako bat irteten harrapatu. Larrua jokoan, bidea libre utzi zien. Joxe barruan egongo zen; gai zen heroiarena egiten hasteko.

Plazan, taldetxoetan sakabanatu ziren hitz eta pitz. Don Cesarrek txorien moduan mugitzen zuen burua, alde batetik bestera bixi aldatuz, emaztearen ondoan.

Balkoiko ateek kraska, eta lauzpabost udatiar atera ziren. Ikurrina bota eta Espainiako banderatzar bat zabaldu zuten, Primo de Riveraren garaiko hori-

gorri itsusia, piper potoa. Behekoak txaloka eta bibaka hastean, goikoek besoa jasoz erantzun zieten.

Kale Nagusitik agertu zen Joxepi; eskerrak! Ezkaratzera sartu zen, noiz eta hainbat mendigoizale gazte korrika zetozenean, alkandora hutsean. Zuzenean jo zuten faxistengana.

– Ama, Sanson Azpeitia!

Izua don Cesarren aurpegian. Florentinaren semeak zakar baztertu eta lurrera bota zuen belar ebakia bezala, antiojoak baldosetatik arrastaka. Madrildarra lau hankatan saiatu zen haiek aurkitzen, itsumustuan: kolpe-dantza hasita, txiripaz ez zioten burua zapaldu. Doña Maria del Rosario aingeru baten moduan sartu zen ero guzti haien erdira; antiojoak mimoz hartu eta senarra besotik gidatu zuen enbatatik kanpora.

Irene alabaren aurrean jarri zen, barrurantz bultzatzeko. Eskerrak neskak besterik ez zituen mundura ekarri.

Udazkenak ere, lasaitik gutxi. Idiakez santuari epaiketa errepikatu eta libre irten zen. Milaka lagun zeuzkan zain Getarian; Gabriel goiaingeruari ez zioten

ongi-etorri beroagorik egingo. Euforiko etxeratu zen Joxe, alaba nagusia hiltzaile hari entregatzeko gai zela. Bego koitadua, emakume-gorputz barruan artean ume.

Eta Espainia aldean, zaharrak berri: anarkistak eta sozialistak armak pilatzen ari ote ziren, iraultza... Dendetan eta labaderoan beste konturik ez. Urriko greba, halere, ez zuen inork horrela espero. Goiz batean hasi zen eta udaletxera sartu gabe jo zuen Joxek batzokira, Beristain udal idazkariarekin eta Anjelmari Izetarekin batera. Irenek normal bidali zituen neskak eskolara, enkarguetara irten aurretik. Jainko maitea: txakurrik ere ez Kale Nagusian! Beldurtuta, etxera bueltatu eta juxtu hartu zituen alabak, pozak txoratzen eskola itxita zegoelako.

Arratsaldean, Joxepi ohi bezala bakarrik bidali nahi ez eta harekin eskutik hurbildu zen jela-fabrikara; puska bat nahikoa, pertz handi batean jarrita jana ez galtzeko. Erregearentzat Espainiako ateak bezain itxita zegoen.

Pakik kontatu zion herria oso-osorik geratu zela. Antoniak, gerra-hotsa aditu zela irratitik Asturias aldean. Florentina Azkuek, Mondragon matxinatu zela.

Freskerako azken gauzekin inprobisatu zuen afaria. Joxe azaldu ere ez; batzokian ibiliko zen mundua salbatzen. Etxekoak, hor konpon.

Bat-batean, sukaldeko bonbilla itzali zen. Kandelak bilatu zituen armairuan, txikitan bezala pizteko. Izu-zirrara: eta bitartean norbait sartzen bazen? Non arraio zegoen Joxe arlote hori haren premia zeukatenean?

Auskalo ze ordutan etxeratu zen; berandu. Eta lehenengo argiekin, gosaldu gabe demoniozko batzokira. Egia da gauza handirik ez zegoela ahora eramateko: esnezaleak baserrietatik jaisteko beldur, okindegi eta denda guztiak itxita... mahai-zati bat jan beharko! Puskak hobeto aprobetxatzeko, otordu guztiak koinatuekin egitea erabaki zuten.

Hurrengo egunean, labaderoan aditu zuen politikari inportanteren bat atxilotu zutela Mondragon aldean, herriak Errusia ematen zuela.

– Hango Santa Agedako balnearioan egin zinan ederra zerak! –Florentinak. Eta kantatzen hasi zen–: *Hil da Canovas, fuera Canovas! Pikaro gaizki eziya, galdu zituen gari-zelaiak, gailendu zaio sasiya*...

– Viva Angiolillo! –kastillana batek, ezkerreko ukabila altxatuta. Beti isilik, senar anarkista omen zuen.

Salbide Txiki baserrian bizi zen Florentina, kaletik gertu. Ireneri etxera laguntzeko esan eta marmita-erdi esne eman zion. Horri esker, arratsalde osoa jardun zuten koinatek ahiak prestatzen, eta kroketak biharamunerako. Despentsan, sei patata eta lur lehorra.

Emakume-eskuadroiak ikusten ziren, denda batetik bestera ateen zirrikituetatik barrura begira. Urdaiazpiko-hezurrekin egositako zopak laster bihurtu ziren ur bero huts. Egoera ez bazen laster bere onera itzultzen, arratoien ehizan hasiko ziren sukalde askotan.

Patatak ere agortu eta Pakiren azkenekoekin osatu zuten laugarren eguneko bazkaria: garbantzuak. Denak mahaian zain zeudela agertu zen Joxe; lapikoa ikusi, muturra okertu eta kalera itzuli zen berriro. Xebasek ezin disgustua disimulatu: horrelakoetan berak hartzen zuen min gehien.

Garbantzuen salda afaldu ondoren, ohean itxaron zuen Irenek luze, senarra noiz etorriko.

– Gabon –Joxek, damu-ahotsez. Ondotxo zekien noiz eskatu barkamena!

– Gau on? Bihar zer jatekorik ez.

– Eta?

– Nola “eta”?

– Kezka handiagoak dauzkat! Kataluniako Errepublika aldarrikatu dute... bo, ez duzu ulertzen.

Biluztu eta muturtuta oheratu zen, hormara begira.

Burua zorrozten omen du barauak: eguerdian, esperantza jarri zien alabei plateretan; gauza tristeagorik! Aukera bakarra zeukan: Miren Xales.

Utikan lotsa, utikan erreparoak; tripak orroka zelatatu zuen ezkaratzean sartzen harrapatu arte. Bixibixi sartu zen haren atzetik; Mirenek salto eman zuen beldurrez.

– Jexus, emakume!

– Barkatu... –eta eztarrian trabatu zitzaizkion hitzak. Ez zen erregutzeko jaio; mila aldiz nahiago goseak jota hiltzea! Nola erori zen hain baxu? Ezin zien, baina, alabei hori egin. Amorruak eztanda egin zion barruan; zeini bota, ordea, desgrazia guztien errua?

Xalesek eskua hartu zion goxo:

– Orain ez. Etorri hadi gauerdian.

Ireneri malkoz bete zitzaizkion begiak. Hain nabarmena zen bere beharra?

Xebasekin hurbildu zen, kontu handiz serenoa saihesteko. Lakari bat babarrun eta zaku bat patata jaso zituzten ordainetan, eta informazio baliotsua: ze baserritan ari ziren haragia saltzen.

Eguzkia irten aurretik abiatu zen Xebas bizkiaren bizikletan, bai eta sei haragi-puska handirekin etxeratu ere, trapuetan bilduta: nahiz eta txahalaren lepoaldekoa zen, solomilloaren pare ordaindu behar izan zuten. Irene trapuak bihurritu eta bihurritu ibili zen, odol-tantak frijitzeko. Ez ahal zen amesgaizto hura bukatuko!

Mondragonen, politikaria erail omen zuten: karlisten diputatuetako bat zen Espainiako Kongresuan, Oreja jauna. Eta, Asturiasen, iraultza komunista piztu omen zen. Edo sozialista. Madrilek armada osatu eta Afrikako heroiari eman omen zion ardura, Franco jeneralari. Kanoikadak, tiroak, batailak. Hildakoak. Fusilamenduak. Ez Frantzian edo Alemanian, Gerra Handian bezala: gerra-hotsa kostaldetik zetorren. Etxe aldamenera iritsi gabe ere, egun gutxian erakutsia zien norberaren txarrena azaleratzen zuela. Artaldea borrokan, otso-festa. Orain bazekiten.

Pilarika egunean hasi zen atertzen. Dendak zabalik, Joxek etxean afaldu zuen aspaldiko partez, emazte eta alabekin. Gero, Joxepi geratu zen amarekin harrikoa egiten, inoiz ez bezala pentsakor:

– Egia al da guardia bati petardoa jarri diotela buruan? Eta apaiz bat goitik behera ireki dutela txerrien moduan?

– Joxepi –doinu serioz.

– Ama... gu nazionalistak gara?

– Gu euskaldunak gaitun.

– Eta Begoren lagunak?

Akabo! Tranpa hori?

– Haiek ere euskaldunak ditun... baina beste ideia politiko batzuk zauzkaten.

– Karlistak?

– Horixe. Baina euskaldunak, igual-igual.

Udaberrian, une batez eman zuen Olerti Eguna zela-eta adiskidetuko zirela tradizionalistak eta abertzaleak; espejismo hutsa. Ados, udalbatzak jaso zituen idazle eta euskaltzaleak, Urriza alkateak euskararen aldeko hitzaldia eman eta kale bati Lizardiren izena jarri zioten, baina koskak urrun zeuden berdintzetik.

Alabak baietz buruarekin, lasaitu gabe. Nondik zetorkion bat-bateko interes hura? Hamaika urte pasa-

txo zituen; bere okerren argitan eta Begoren itzalean, oso gutxi ezagutzen zuen Irenek sortzen ari zen pertsonatxoa.

– Erdaldunak zerura al doaz?

– Jakina! Baldin eta merezi baditen; nork esan din kontrakorik?

– Eta komunistak?

– Guztiok. Tira, segi ezan ohera!

Margaritak ziren Begoren lagunak, tradizionalista sutsuak. Nola sentituko zen Joxepi ikusita ahizpa perfektua arerioekin lerratu zela? Bata abertzalea, bestea karlista, *Euskal Orria*-n agertutako narraziotxo haren antzera: Mirentxu eta Loretxo izeneko bi lagun, nor bere bandokoa.

Nazka ematen zuen politikak, nazka manifestazioek, nazka estura sentitzeak, indultuek, gezurrek. Ez, maitasunak salbatuko du gizona, eta horixe kontatu beharra zegoen, maitasunezko istorio bat, politika santuaren gainetik. *Euskal Orria* irudikatu zuen, bere testua erdi-erdian. Neska abertzalea eta mutil tradizionalista.

Zirrara sabelean. Gaztetan, esku ona zeukala zioten mojek... Eta harrokeria bekatua zela; Miren Xalesek ere idazten zuen, baina urrun zegoen haren trebe-

ziatik, urrun haren bizimodutik. Antonia behar zuen faro, ama perfektua izatea. Orduan, zer dela-eta begiratzen zion bihotzak Xalesi?

Pixka batean utzi zion amesten bere buruari, horixe besterik ez baitziren, amets inozoak. Begira bestela zer gertatu zen ikastolako maistra-lanarekin, ez zela gai izan Xalesi ezer ere erantzuteko. Auskalo zergatik; Joxeri aurre ez egiteko? Aukeratu behar izanez gero, Joxe umiliatu ala berak lan egin, argi zeukan lanean hasiko zela, inongo eskrupulurik gabe. Orduan, zer zen? Bertigoa? Beldurra saiatze hutsari?

Negarrez hasi eta burkoan iltzatu zuen aurpegia. Izeta eta Joxeren barre-algarak plazan; garaiz zebilen lo-plantak egiteko.

6

Berri onak, azkenean, 1935ean! Estalita eraman arren, Pakiren sabela geroz eta puztuago zegoen. Bigarren hilabetean kontatu zion Ireneri, pozaren pozez negarrez. Bihotzerre handiak zituenez, ume iletsua aterako omen zen. Irenek irribarre egin, baina ez zion erantzun. Goiz edo berandu hasi beharko zuen gaixoak berria lau haizetara zabaltzen eta begiratu errukitsuei aurre egiten.

Joxe mendigoizaleekin Aralarren asteburu-pasan, Irenek hitzeman zien neskei kostara hurreratuko zirela goizeko zortzietako mezatara joan aurretik. Kosta: hasieran, bitxia egin zitzaion zarauztarrek “plaia” esateko ibiltzen zuten hitza.

Eguzkiarekin esnatu, plazara jaitsi eta hots egin zioten Antoniari. Emakume ona zen, zeukan diruaz alarderik egiten ez zuena. Irenek, berriz, zeharo ahaztuta zeukan premiarik gabe bizitzea zer zen.

Aurreko Gabonetan, momentu batez eman zuen lortuko zutela. Ostirala izan zen inozente-eguna eta anaiaren txoferra agertu zen poltsa bat bete billete ze-

karrela. Mecanizados Garmendiaren dibidendoak omen; hamar mila pezeta, billete-mordo eder bat.

Ederki ari zen Bego eskolan, laster bukatuko zuen. Donostiako akademiaren bat ordaindu ahalko zioten: mekanografia, kontabilitatea... ez zedila amaren moduan otarreren batean preso geratu. Eta soineko berri bat Joxepirentzat. Eta bazkari polita denontzat leku dotore batean.

Txoferraren atzetik jaitsi zen Joxe diruarekin eta Irenek pentsatu zuen bertan hilko zela: nora zihoan etxekalte hori? Alferrik joan zen haren bila: inork ez zekien non zegoen. Ihes egin ote zuen? Zulo berriak estaltzera joan ote zen? Beste erokeriaren bat?

Batzuetan, gogoa zuen... Ukabilak estutu zituen, pentsatze hutsak ikara ematen zion.

Bihotza arin-arin itzuli zen etxera eta, alabei tutik ere esan gabe, gelan gorde zen. Bi ordu geroago agertu zen senarra, harrotuta.

– Gurea da etxea.

– Hamar mila pezetarekin? –amorruak ez zion ia hitz egiten uzten.

– Patxi Olabeagak kreditua eman dit.

– Kreditua!

– Hipoteka, emakume. Bost urte pixka bat estu eta kitto.

Pixka bat estu; beldurra! Oposizioarena aurpegiratu nahi zion, hiletarena, alabak bazterrean uztea...

– Zenbat ordaindu duzu? Sei mila duro?

– Gehiago.

– Zazpi?

– Ez galdetu. Gizonak egiten ditu bere zorrak eta gizonak kitatu.

Alabengana ihes egin zuen; Irenek ez zion hilabetez hitz egin.

Antonia-eta noiz jaitsiko, ditxosozko kantarekin tematu zen Joxepi:

– Ardoa eranda mozkortzen naiz, pipa hartuta txoratzen naiz...

– Joxepi –ahapeka, baina gogor.

– Kortejatzian lotsatzen naiz, nola demontre biziko naiz?

– Joxepi! Neska sorgin horrek... Mozkortzearena itsusia dun; zenbat aldiz esan behar dinat? –isildu gabe, Joxepi txistuka hasi zen–. Txistua jotzea ere bai! Ez ahal dun ahizparengandik ikasiko!

Alabekin agertu zen Antonia, oilaloka eta txitak, apain eta formal-formal. Semeak etxean; Joseba hamazazpi urterekin ba omen zen nor batzokian eta Iñaki, anaia nagusiaren ezpalekoa.

– Haundiyarena entzun al duzu? –Antoniak.

Ramon Jauregik 1921ean irabazi zuen Haundiya ezizena. Rotetatarrek ingurumariko frontoirik handiena eraiki zuten haien sagardotegiaren atzean. Inauguraziorako, pilotariak, erremontistak, harri-jasotzaileak eta bi borrokalari ekarri zituzten, haietako bat Masetti ospetsua. Ezetz inork garaitu borrokalariak, 600 pezeta jokoan. Ausart-andana irten zen; Masetti eta bestea txandaka joan ziren inozoak menderatzen. Barre ere egin zuten Ramon aurreratu zenean, *kaxero* kankailu bat, alkandora barratua eta blusa beltza soinean. Horrelakoek presaz jotzen zuten aurreneko kolpea; Masettik eskua harrapatu eta hura bihurrituz belaunikatzen zituen, minez oihuka eta erreguka. Handikotea, berriz, zain geratu zen, hartz handi eta ergel bat. Masetti konfiatu eta publikoari egin nahi izan zion keinu bat. Morroskoak bat-batean belarri batetik bizkor harrapatu eta bestean Jesukristoren zartakoa eman zion. Zerraldo erori zen mila konbateren garailea eta, ikusleak orroka, ia ez zen aditu Roteta zaharrak garrasika es-

kaini zizkiola beste hogeita hamar duro bigarren borrokalariarengatik. Alferrik: ordurako hanka egina zegoen.

Brigida emazteak ez zion dirua eskuan berotzen utzi, edateko gai zen eta: “Bukatu da ostiralean bizitzea”. Plantxadora-ogibidea ikasteko erabili eta ganbara txiki bat erosi zuen Zigordia kalean, juxtu plantxak sartzeko adinakoa. Senarra okindegirako kontrata zezan eskatu zion Roteta jaunari eta Erreustaneko etxean jarri ziren bizitzen, okindegiaren gainean, hango morroien moduan. Etxebizitza oso bat haientzat bakarrik; ederra aldea!

– Agidanez atzo, izerdi-patsetan zegoela, Txilikuko iturria hustu omen zuen astakilo horrek. Okurritzea ere! Etxera heldu eta braust erori zen lurrera. Zinkunegi medikua eraman dute goizean, alferrik; hanka bat beste munduan omen dago.

Itsasoari begira aditu zuen pasadizoa Irenek, alabei begira. Hoteletako neskameekin batera ari ziren baineroei korruan heltzen, esku-katean, baineroak haiengandik barrura tiratzen zuela poliki-poliki. Ur-ertzean, egurrezko T handietan, albornozak jabeen zain. Begorena apain zintzilikatuta; Joxepirena hala-hola, felpazko gerrikoa uretan.

Zergatik ziren hain ezberdinak? Auskalo, eta momentu hartan ez zitzaion axola. Amaren liburua topatu zuenetik, gorputzaldi arraroa zeukan. Kasualitate gutxi tiradera-fondoan agertzea. Hilabete haietan guztietan, behin edo behin azaleratua zen beste zerbaiten bila ari zela, eta beti eragin zion zirrara; auskalo noiz orbainduko zitzaion zauria. Ordurako argi zeukan: ama urrunak marka handiagoa eragin zion aita hotz eta zorrotzak baino.

Liburu dotorea zen, azal gogorrekoa, berdexka, izenburua urrezko moldeetan. Zabaldu eta, lehenengo orrian, eskaintza bat. Ziztada. Trazu fin, sofistikatuetan, "*Paris, Anette, au clair de la lune. P*." Pierre? Pascal? Philippe?

Hogeita hamazazpi urte bete behar zituen Irenek. Berandu baino lehen, amona egingo zuen Begok. Konturatu gabe, bizitzaren erdia joanda.

Lehenengo orrira saltatu eta hasi zen irakurtzen: "*Nous étions à l'Étude, quand le Proviseur entra...*". Eulogioren aitzinean besterik ez zen ama *xiberera* zaharrera gibeleratzen, bestela beti frantses dotorez. Hortakotz, bazirudien Anette bera ari zitzaiola istorioa kontatzen, eta zeharo irreala zegoen Charles Bovaryren klasekide baten paperean. Bere burua bultzatu

behar izan zuen jarraitzera, frantsesa artean arrotza egiten zitzaiola.

Charlesen bilbea eten ondoren hasi zen Emmaren haria eta orduan murgildu zen Irene zeharo kontakizunean. *Madame Bovary c'est moi*: ama ari zen hizketan, bizitza espartarrean bihozgabetuta, zaporea aurkitu ezinik, desengainuan kaiolatuta. Handik ihes egin zuen, gatz eta piperraren premian, pasioz existitzeko irrikaz. Madame Anette. Eta Madame Irene?

Leiho garbien moduan, distantzia pixka bat hartzean, liburua argazki bihurtu zen: Zarautza iristean bihurtu nahi zen pertsonarena. Edo bihur zatekeena, amarekin Parisa alde egin izan balu, nerabe triste eta bakartia zela eskaini zionean.

Etxerako orduan, beti berdin, Joxepi falta. Non zegoen ume demonio hori?

– Hire ahizpa? –Begori nahi gabe errieta-tonuaz. Antoniaren aurrean, gainera, haren modu dotoreaz saiatzen zen alabei zuka egiten.

Malekoira seinalatu zuen Begok: ahizpa marrubizko izozki erraldoi bat ari zen miazkatzen, haien zain. Irenek trasteak beso batean zamatu eta malekoiko

arranpa igo zuen bixi-bixi, eskua zabalik. Joxepik metro batzuk ihes egiten zion irribarrez, izozkiko tantak zehaztasunez miazkatuz.

– Txakur txiki bat aurkitu dut malekoian.

– Neronek emango dinat txakur txikia! Goazeman etxera, berandu egingo zaigun-eta elizarako!

Udatiar gutxi zeuden herrian, gutxiegi gauza onerako, aurreko iraileko istiluak zirela medio. San Fermin pasatu eta Karmenak iristear, marea izan ohi zenak hiruzpalau tanta besterik ez. Zer egingo zuten? Altzarigintza lur jota eta herriko beste industriak hutsaren hurrengoa, turisten diru-iturria lehortuz gero, desertuan baino jende gutxiago geratuko zen azkenean Zarautzen.

Gainera, etortzen zirenek ondo lotuta zekarten poltsa. Don Cesarrek eta doña Maria del Rosariok martxorako bidali zuten mandatua. Bertaratu eta bota ez zioten, ba, Pakiri erdia ordainduko ziotela! Eta irentsi egin behar; beranduegi beste apopilo batzuk bilatzeko.

Turista batek atentzioa eman zion Ireneri: emakume gazte bat Munoako miradorean, zoriontsu, malekoi gainetik hegan bezala. Aingeru bat. Frantsesa izan behar zuen itxuragatik: goizeko ihintza bezain freskoa,

cloche kapela estu-estua, guardasola, gazazko soineko horia, begizta handi bat eskote lotsagabea apaintzen eta, *cloche*-aren azpitik, Louise Brooks-en moduko *garçonne* orrazkera ausarta.

Arratsaldean, hiru erabaki handi. Bat: jostunarenera eraman zuen amaren beroki gorria, *zoragorria* Joxepiren hitzetan, konpontzera.

Bi: Paki ausartu ez zenez, Xalesek moztu zion ilea. Pelikuletako emakumeen antzera, motz. Urteak ziren ez zela eder sentitzen; Joxeren hasierako harrera hotza ederki berotu zen gauean. Labaderoan ere, lagunak txundituta eta mesfidati; Irene, besteak bezala gobara-harri gainean belaunikatu zenean zirri-zarra hasteko, lasaitu eta betiko berriketara itzuli ziren.

Eta hiru: *Madame Bovary* euskarara ekartzen saiatuko zen. Liluratuta goraipatu zion proiektua Xalesi, eta hark ezetz, *Madame Bovary* iparrorratz hartuta, zerbait berria jos zezala, euskaraz. Zer, baina?

Zinkunegi medikuak, batzokiaren presidentea zenez, botikarik garestienak errezetatzen omen zizkion Haundiyari. Don Segismundo Gantxegirengana jo omen zuen Brigida Plantxadorak. Karlisten buruzagia

zen Gantxegi zaharra, eta Haundiyak lanak egiten zizkion noizean behin.

Bi egunez itxaron zuen patriarkak don Lucio Martinez de Luna galeno famatua bidali aurretik, Baños Calientes hoteleko aspaldiko bezeroa. Bastoi garestia airean bueltaka gerturatu zen Erreustanera, mukizu zorritsuen segizioa atzetik. Begirada jakintsu batez diagnostikatu zuen Haundiya: gaztetan paraje malapartatu haietan toreatzen egokitu zitzaion gripe espainiarra. Atzera egin eta ahora eraman zuen traje-jakaren goiko poltsikoan zeukan zapi zuria. Etxekoek berrogeialdian geratu beharko zuten.

Auzoa, izututa. Brigida Plantxadora eta Manuelito semea etxean atxilo, janaria sokaz igotzen zieten, buru-otarre batean sartuta, haietako aurrena noiz hilko.

Manuelito gizajoa. Mehea eta eskasa, herriaren umoreak ez zuen Txikiya izendatu. Sotila bezain krudela izan zen bataioa: Manueletik Manuelitora, ergelen kanpaitxoa lepotik dilin-dalan. Beste pasadizo batek ez zuen asko lagundu. 1935eko ekainean Corellan batzekoak ziren Espainia guztiko karlistak: desfileak, mitinak eta indar-erakustaldia, baina haraino bidaiatu behar. Zarauzko gehienak don Segismundoren

fabrikako kamioietan garraiatu zituzten, uniformeak eta txapel gorriak ezkutuan, gobernadore zibilak haien ekitaldiak debekatzen baitzituen. Gantxegik eskarmentua eman nahi zion Isidro seme errebeldeari haien baserri baten maizterraren alaba haurdun uzteagatik: Haundiya, Manuelito eta Silvino, herriko beste gazte bat, eramatera behartu zuen bere kotxean. Circulo Tradicionalistan geratu ziren goizeko lauretan. Isidro burrunbaka ordu erdi berandu iritsi zenerako, Manuelitok eta Silvinok lokaleko bandera erraldoia jaitsia zuten paretatik, masta eta guzti. Kopilotuaren aldean lotu zuten masta, leihoak jaitsita ateek erdian osatzen zuten zutabean. Isidro ez zen mugitu; ezin inork kopilotuko lekura sartu. Haundiya atzean enkajatuta, Silvinok hartu zuen azken lekua, janaren otarraren ondoan. Alferrik begiratu zion Manuelitok Isidrori, aitari. “Ez zegok lekurik”; Silvinok muturrean atea itxi eta ziztu bizian abiatu ziren. Praka luzeak jarri zizkioten aurreneko eguna zen, okasiorako propio josiak. Brigidak gerrara arte gorde zituen eta majo damutu zitzaion orduan.

Manuelitok berak oihukatu zuen leihotxotik aita joan zitzaiela, Jainkoaren izenean lur ematen utz ziezaien. Eztabaida sutsua Zinkunegi eta don Lucioren

artean ea gaitza kutsatu zitzaien; azkenean, don Lucioren mehatxuak garaile: beste hiru egunez beilatu behar izan zuten hilotza, kiratsa kaletik usaintzen zela.

Epea beteta, sei gizonen artean garraiatu zuten gorputzarra eskaileretan behera, *rigor mortis*-a ordurako laxatuta, baina, kabitu ezinik, buru eta hankekin hormen kontra jo eta jo. Hain itsusia geratu zen defuntua, non elizan tapa itxi behar izan zioten hilkutxari. Hori bai, segundako hileta-ospakizuna espero zuen jendeak eta primerakoa izan zen. Nola ordaindu zuen Brigidak, ezin jakin.

7

Urte batzuk baziren Arantzazuko Amaren egunean erromeria dantzatzen zela Inurritzako belazeetan, den-denak jantzi tradizionalak soinean. Besteak beste, Flores Kaperotxipi pintorea eta Xales bera ibiliak ziren hasiera haietan apaindutako gurdi-lehiaketa antolatzen eta ederki errotu zen tradizioa: San Pelaiotan udararen teloia altxatu eta Arantzazuko Amarenean jaitsi.

Begok baimena eskatu zuen erromeriara lagunekin joateko eta mesedez angelusaren ondoren etxeratu ahal izateko, arratsaldeko seietan eguzkia jo eta su baitzebilen artean. Aitak bigarrenari ezetz eta amatxok ezkutuan baietz, jakinda Joxe ez zela Iñurritzaraino iritsiko. Halere, baldintza bat jarri zion alabari: iluntzen hasitakoan lagun batekin itzultzea, ez bakarrik.

Loratua zen udaran alaba: moja izan nahi zuela aipatzetik, lagunen besotik helduta Munoan desfilatzera. Aldaketa latzagorik! Lagundu egin nahi zion metamorfosian, ez zedin bera Beasainen bezain bakarrik

sentitu. Inbidia-punttu bat ere bazuen: hain izan zuen motza nerabezaroa!

Meza nagusiaren ondoren, Joxepi eraman zuten Pakik eta biek Iñurritzara, txukun baserritarrez jantzita. Gazteak, lehengo lepotik burua: bando batean mutilak barre-algaran, komisioak erositako mutil-ardoko barrikari tragoka; parez pare neskak, distantzia segurura taldeetan dantzari eta txori urdurien moduan zelataka.

Urrutian begiztatu zuten Bego, beti neskatxo beltzaran bat ondoan. A ze parea, printzesa eta neskamea. Kaletarrak ziren kuadrillakoak; nondik atera zen txiki ezezagun hura? Hasia al zen sekretuak gordetzeko garaia?

Pakik gogoratu zuen azkenean: Karmele Ibarbia *Lanpernas* zen, Inurritzako arrantzalearen alaba. Etxebeltz baserrian omen zegoen neskame, auzoan bertan, horregatik hurbiltzen zen hain gutxi kalera.

Galanki nekatu ziren txistulariak eta soinujolea, eta giro bikaina jarri zuten. Bostak aldera abiatu ziren kalejiran herrirantz. Ez denak, ordea: kuadrillakoak agurtu zituen Begok, baina ez beldurrez, baizik eta esperantzaz. Konpainia bazeukan, gainera, Karmele Lanpernasek bertatik bertara baitzeukan etxea. Ez zeu-

den bakarrik: trikitilari batzuk, dantzari ugari eta auzoko gehienak geratu ziren, mutil-ardoko barrikari bukaera emateko. Hainbat eta hainbat mutil pozak jota bazeuden ere, Silvino beti tente. Simon Iruretagoiena zen ponte-izenez eta aitona Silvinorengandik jaso zuen ezizena.

Urruti egonagatik, erne zegoen Bego, hark zer egingo. Goizean, mutilak bitan begiratu eta dardaran jarri zizkion belaunak. Motza da, ordea, pobrearen poza. Kanpai-hotsak *aimarikoa* joaz: hogeita hamahiru bider dilin-dalan, Jesukristoren edadea; festarenak egina zuen. Ia gaua zen, eta buelta egin behar.

Mutilak ganadu-feriarako bide-bazterrean jarrita, ardien antzera bildu ziren azken neskak, aurreko iji eta ajak zeharo hoztuta. Trago latza edo goxoa, zeinek lagunduko herriraino.

Artaldea urduri. Lau neskak adostu eta abiatu dira kementsu; segituan atera zaizkie zazpi edo zortzi bele segika. Badoaz beste bost neska, gero hiru, eta, itsasoko olatuak elkarren atzetik bezala, haien itzalean agertzen dira beti mutil-lerroak, zer gerta ere.

Larri dago Bego, erabaki ezinik. Azken-azkena geratuko ote zen? Karmelek bultzatu zuen eta, ibiltzen hasita, ezin atzera egin. Silvino ikusi gabe, beldur ga-

lantak estutzen zion bihotza. Halako batean, kamioan aurrera zihoala, konpainia sumatu zuen aldamenean.

– Etxeraka? –Sanson Azpeitia zen.

– Bai, berandu da eta.

Linternaz zabaltzen zuen bidea mutikoteak, biak mutu. Atzean, gero eta urrutiago, Iñurritza eta ametsak. Agur, Silvino.

Ez zen batere ergela Sanson. Madoz zumardian, zuhaitzek ilargia estaltzean, kasualitatez itzali zitzaion linterna. Gerrian jarri zion besoa, beregana erakarri eta Begok banatzeko saiakera lotsatiegia egin zuen, beldurrez.

Etxeko ezkaratz parean, neskak “bihar arte” presaka xuxurlatu, eta saltoka joan zen eskaileretan gora. Sanson ez zen errezelotan gelditu: tabernara egin zuen korri, garaipenagatik lagunei txakil-ardoa, basoerdi bana, ateratzera.

Luze itxaron zuen Irenek, zeharo ilunduta baitzegoen. Alaba kezkatuta zetorren, gainera, baina ez berandutzeagatik.

– Ondo? –ekonomikan esnea berotzen jarrita.

– Bai, bai; primeran pasatu dugu –irribarre faltsua nabari–. Ohera noa; nekatuta nago.

Irenek, umea zela, ama izan nahi zuen handitan, berearen absentzia betetzeko. Bazekien zer zen ona alabentzat eta amorrua ematen zion erabaki okerrak hartzen ikusteak. Gezurra esan ondoren bidali zuten Eba paradisutik. Ez al zen Bego zilbor-hestea eteten ariko?

Sukaldeko bonbilla itzali, eta egongelara joan zen ilunpean. Leihoa zabalik, mahaiko paperak bibratzen ari ziren. Zer ari zen ezkutatzen alaba? Mutil bat. Etxekoek onartuko ez zutena. Zergatik?

Zirrara. Joxeren El Doradora sartu zen. Horrela deitzen zion sekretuan Irenek, ezkontzean gela hura ditxosozko oposizioa ikasteko erreserbatu eta, geroztik, bazirudielako haren sarrera ez zuela inoiz aurkitzen.

Mahaia biluztu ondoren, orri zuri bat kokatu zuen. Xales, Olerti egunak, Euskaltzaleak, Madame Bovary. Pelikula eder bat zen; bazen garaia zinemako butaka utzi eta pantaila barrura salto egiteko.

Pare bat egunen buruan, Sansonek abisua bidali zuen Begoren bila pasatuko zela bazkalondoan. Aitak onartu eta neskak ez zuen ihesbiderik ikusi. Lore delikatu baten moduan tratatu zuen Sansonek; harrigarria

zen hain handia izanda halako manera finak izatea. Izozki bat erosi, malekoian paseatu eta bost-bostetarako itzuli zuen.

Ez zuten harremanaz hitz egin. Urriko beste hamabi egunetan errepikatu ondoren, ofizial bihurtu zen. Paki txoratzen, Florentina Azkue liluratuta eta Joxe pozik, Sansonek miretsita hitz egiten ziolako. Azkenean, Begok amore eman zuen: ze eskubide zeukan kexatzeko? Txintxoa zen mutila, debozioa zion.

Halere, izututa ateratzen zen paseoetara, egunen batean Silvinorekin topo egingo zutelakoan. Ez zen gertatu eta eskerrak, Begok ezingo ziolako negarrari eutsi.

Negua sartu, Gabonak ospatu eta osaba-izebarenera aldatu zen, Pakik ezin baitzuen etxeko lanik egin haurdunaldiko tripatzarra zela-eta. Agate Deunaren bezperan erditzearen minak sumatu eta Bego bidali zuen koinataren bila. Bide motza zen: Santa Marina kaletik, segi plazaraino eta hantxe.

Korrika abiatu, baina kieto geratu zen Kale Nagusiko izkinan, ehiza-txakurren moduan. Urrutitik zetozen barre-algarak eta festa-hotsak. Torre Luzea pasatuta, Egañareneko hormaren kontra, senargaia ikusi zuen

mozkor erdi abesten erdi oihuka, beste bi arloterekin beso-katean.

Etxerantz jarraitu zuen Begok, tximista batek jota bezala. Alkandora aterata! Balantzaka!

Bizkiak egongelan, Maria Etxetxikik azkenean atera zion Pakiri ume bat bizirik. Indartsua, negartia, iletsua. Mutila. Haurrak baino negar gehiago egin zuen amak, aieneka San Antoniori eskerrak ematen. Andoni jarriko zioten.

Begok, berriz, arlote lotsagabea besterik ez zuen gogoan. Ito egiten zen. Zirt edo zart, goizean bertan eman zion despedida. Etxekoek ulertu ez bazuten ere, Lazaroren larruan sentitu zen, hildakoen artera itzulia.

Udaberriak urtu zion barruko lutoa. Txintxo lagundu zion aitari Aberri Egunean balkoia ikurrinarekin apaintzen eta, ekaineko lehenengo igandean, familia osoa igo zen Pagoeta mendira. Meza jendetsua egin zuten aurreko urtean jarritako gurutzearen ondoan eta gero, erromeria. Jeltzaleak ziren bertaratutako mutil gazteak. Jatorrak eta onak; ez Begok nahi zuena, ordea. Bazekien hilaren bukaerako San Pelaiotan izango zuela beste aukera bat.

Azken Juizioari baino luzeago itxaron ondoren, Iñurritza aldera itzuli zen lagunekin, apain-apain igande-

tako soineko berria jantzita, aurreko Arantzazuko Amaren eguna gogoan. Jo eta ma geratu zen iristean. Lehengusu txikiak zirela jakin arren, ezin espero Karmele Lanpernas Silvinorekin hizketan aurkituko zuenik. Eta kasu egin zion Karmelek eskuarekin; hurreratzea beste erremediorik ez zuen izan Begok, mitxoletak bezain gorri.

Aurkeztu eta berriketa pixka bat egin lehengusuek, Bego estatua bihurtuta aldamenean. Gertutik, are berdeago zeuzkan begiak Silvinok. Hura joandakoan, barre egin zion Karmelek:

– Ezkontzara eramango naun, ezta?

– Ai, neska... –zer esan jakin gabe, barruan mila tximeleta.

Eguna eman zuen gaueko aukeraketa gogoan. Partitzeko momentuan, adarrean lerrokatu ziren txorikumeak. Karmele Lanpernasek eman zion seinalea; Begok disimuluan aitaren egin eta aurrera. Dar-dar batean altxatu zituen begiak: pixka bat harago zegoen Silvino, lagunekin elkarri zirika, axolagabe.

Hurbil zegoela, Manuelito agertu zen. Haundiya hil ondoren, Orioko lantegian hartu zuen peoi don Segismundo Gantxegik eta gizon-itxurak egiten ibilia zen, biboteko lau ileak eskuaz orraztuaz.

– Gau on, Begoña.

Erantzunik ez. Euritan bezala, burua jaitsi, besoak estutu eta segi. Bestea, egoskor esku-linternarekin bidea markatuz.

– Nahi al duzu etxera laguntzea?

– Ez –eta beste alderantz biratu zuen. Gizajoa atzean geratu zen, bi letratako masailekoak izoztuta; denentzako feria onik ez.

Barreka jaso zuen dama Silvinok.

– Ondo pasa al duzu?

– Bai; ederra joan da.

– Etorri, gauza bat erakutsi nahi dizut eta.

Besotik galai hartu eta bidegurutzera eraman zuen. Han ez zion askatu, ezta Begok nahi ere. Kamioa seinalatu zuen:

– Urtetakoak eta Urdanetakoak handik etortzen dira. Ea aurkitzen ditugun...

– Aurkitu zer?

– Orain ikusiko –barre bihurria. Bide ondoko sastraken artean miatzen jardun zen pixka batean–. Hara! –hiru pare abarketa atera zituen, lokarriekin txukun bilduta–. Alpargatak eskuan jaisten dira baserritarrak, ez zikintzeko; hauek joan-etorrirako ibiltzen dituzte.

Linterna galtzetan gorde eta bota egin zituen bat, bi eta hiru pareak ilunpetara.

– Kostatuko zaie bilatzen!

– Zergatik...

– Normalean, txiza egiten diegu gainean. Goazen!

Eskutik hartu zuen eta neskak ez zuen gorputzeko lurrikara apaltzen asmatu. Gau beltza zen; Silvinok beste eskua ere hartu, erakarri eta muxua eman zion ezpainetan. Zirrara behatz-puntetaraino, zerraldo erori behar zuen.

Ama berriro zain sukaldean. Hari gau ona eman eta ohera joan zen bi sekretuak isilduta. Zoriona borborrean eta loak hartu ezinik, oroitzapenetan oliotanta potoloa zen txizarena.

8

Arratsalde batean, Brigida Plantxadora bisitan. Senarra hil ondoren, Erreustaneko etxebizitza laga eta Zigordia kaleko ganbarara joan behar izan zuten bizitzera, lisatzeko plantxak zirela-eta lekurik ez zutela. Eskean al zetorren?

– Ze moduz hago? –Brigidak.

– Ondo, eta zuek? –hika egitea saihestu nahi zuen kosta ahala kosta.

– Zera batekin natorren, proposamen batekin. Gure Ramonen lagun baten bitartez, aukera atera zaidan altzari-fabrika batentzat brodatzeko. Zati txikiak ditun, etxean erraz egiteko modukoak. Semeak materiala ekarri, bukatutakoak eraman eta ordainketaz arduratuko luken. Alabak hirekin batera jardunez gero, baietz senarrak baino gehiago irabazi.

Irene, ustekabeak mutu. Larrua behar zen, gero, etxera etorri eta brausta hori botatzeko. Bego Donostiako akademia garesti batera bidali nahi zuela imajinatuko al zuen? Nola zekien Migel anaiak ez ziola artean 1935. urteko dibidendoa bidali?

– Ondo pentsatu eta lehenbailehen erantzun, bestela beste bati eskainiko zionat.

Joxeri, jakina, txintik ere ez, nekatuta baitzegoen harekin borrokatzeaz. Borroka antzuak ziren, gainera, uretan ibiltzea bezalakoak. Begoren urteak zirela-eta, adibidez, bezperan ohean aipatu zion olabeagatarrek jatetxean ospatu ohi zituztela. Senarra isilik, Irenek lo hartu zuen Gran Hotel edo Hotel Miramarrekin ametsetan.

Nahi bai! Egun seinalatuan, aberats-planta asko, baina turisten hondartzari bizkarra eman eta trenbideaz bestaldera gidatu zuen familia. Azken Portuko bentara, baserritar guztien artera.

Kasualitatez, bertan zegoen etxeko seme nagusia, Basarri bertsolaria. Bizkiak berehala hurbildu ziren agurtzera, Xebas haren lagun ona eta Joxe mundu guztiarena. Emakumeak mahai batean eseri ziren; segituan etorri zitzaien Maria etxekoandrea. Irene irribarrez hartzen saiatu zen, hark ez baitzuen ezeren erru-rik.

– Gure seme gazteak sardinak ekarri ditu gaur goizean. Juli, etorri!

Joxepiren adinekoa zen mutila, altua eta zabala, ezkerreko masailean mantxa gorri handi bat zeukala.

– Zer duzu aurpegian? –Joxepik.

– Ama astotik erori zen nitaz haurdun zegoela –gorria aurpegi osora zabalduta.

Sukaldera itzuli zirenean, Irenek errieta egin zion alabari. Lotsagabea!

– Txirrita joan zaigunetik, hauxe da gure txapelduna, Uztapiderekin batera –Joxek, mahaira etorrita–. Isil-isilik zaudete; Calvo Sotelo ikusi duzue, ala?

– Zerri hori aipatu ere ez nire aurrean! –Xebasek–. Amak miaztu gabekoa...

– Ito egingo haiz! –Joxek, barrez.

– Ito? Ez ahal dik suge pozoitsu horrek mihian kosk egingo!

– Lasai, motel: estatutuarena eginda zegok, baietz aurten aprobatu. Lapurtzen besterik ez zakik eskuinak, Lerrouxek demostratu dik. Ez dituk itzuliko, ikusiko duk. Ezkerrarekin aurrera aterako diagu estatutua; hogeita hamaseia gozoa izango duk.

– Ez zakiat, ba. Espainian anarkiak agintzen dik, Gil Roblesek horretan arrazoi –Xebasek–. Tira, guretzat, hobe. Errepublika zenbat eta okerrago, orduan eta gertuago gu Kubatik.

Irenek eskua jarri zion senarrari besoaren gainean:

– Alabak, faborez... –ez ahal zuten momentu batez politika alua ahaztuko?

– Eta? Emakume Abertzale Batzan emango dute izena noizbait, hobe lezioa ikasita joatea.

Akabo, ba! Eskolako notarik onenak lortuak zituen Begok. Zer egin zuen Joxek? “Zorionak” ziztrin bat. Zorionak!? Harri azpietatik atera ezak dirua, motel! Comercio ikasi nahi zuen Begok; ama takigrafia edo mekanografiarekin ere pozik.

Gaixoa Bego. Han, txintxo-txintxo isilik, Andoni txikia besoetan. Umeak lehengusinari titia bilatu eta neska gorritu egin zen. Alde ederra, bular oparo haiek eta ez Irenerenak, esperantza bezain eroriak. Laster amona.

Ez, Begok bere aukera izango zuen; amak emango zion. Behar izanez gero, senarraren bizkarrean jardungo zuen Brigidarekin lanean.

Lotan zegoen, Joxe batzokitik etxeratu zenerako. Poz-pozik sartu zen ohera, muxuka eta laztanka, gehiago nahi zuenean bezala.

– Izetak esan dit laster izango direla hauteskunde probintzialak –ardo-hatsaz– eta badakizu Izetak beti daukala informazio ona. Diputaziora eramango dute

Beristain; ezetz asmatu zeinentzat izango den haren udal idazkari postua?

– Oposiziorik egin gabe?

– Eta, Jainkoa lagun, bizitza osorako.

Lapurtzea zen meriturik egin gabe postua okupatzea. Eta lastima, soldata eder hura pasatzen uztea.

– Non jarriko zenuke pianoa? –besarkatu egin zuen, eta Irenek utzi–. Villa bat ez, baina bizpahiru urte barru, etxebizitza handiago bat erosteko moduan izango gara, agian neskame bat zuri laguntzeko...

Sinetsi nahi diren gezurrak dira goxoenak. Amaz oroitu zen, Beasainez, liburuez.

Joxek nahi zuena eskain zezala; erabakia hartuta, pixka bat libreago sentitu zen.

San Fermin bezperan, afari bitxia: Begok zerbait nahi zien eskatu, susara dagoen behia baino aztoratuago baitzebilen. Postrean, aingeru-aurpegiz atera zuen patrikatik egunkariaren orri-muturra: Arantzazuko Amari bisita egiteko erromesaldi jendetsua, bi larunbaten buruan, uztailaren 18an.

– Periodiko deitzea ere! –Joxek–. *La Constancia* hau karlisten panfletoa da. Artaldean joango dira; Joxe Biz-

kiaren alaba ez da haiekin nahastuko. Erromesaldia egin nahi baduzu, zatoz nirekin.

– Ez da justua! –aurpegi zuriz.

– Ez erantzun aitari! –Irenek inertziaz, eta segituan damutu. Txintxoa zen alaba, ikasle ona. Haren alde hitz egingo zuen–: Ea, ba. Pentsatu al duzue...?

Joxek eskuarekin moztu zion, Begori amorratuta begira:

– Gauza bat esango dizut: Silvinorengandik urrun nahi zaitut, aditu? Tiroka jardun da gainerako errekete gazteekin Azpeitia aldean. Ez da parte onekoa; egunen batean, disgustu latza emango du.

Alaba negarrez altxa eta korrika sartu zen logelan, ateari danbatekoa emanda. Joxek begirasun gogorra bota zion emazteari, ezer aurpegiratzeko beharrik gabe.

Hurrengo ostiralera arte betiko moldean jarraitu zuen Begok, otzan eta esaneko. Noizbait ulertu horrek ere ez zuela Arantzazura eramango eta muturtu egin zen. Joxepi handi bat zirudien, baina irmoagoa, leherkorragoa. Aitak pultsua onartu eta kalera irten gabe zigortu zuen. Asteburu osoan. Zapatuan, ohituraren kontra, periodikoa erosi ondoren etxeratu zen, egun osoa atxilotuarekin emateko. Hura tentsioa! Gauean,

andreari aitortu zion ezin zuela gehiago, eta biharamunean Irenek zaindu beharko zuela.

Astelehenean, don Cesar Mendoza-eta iritsi zirenez, Xebas, Paki eta Andoni txikia ere Irenerenean. Xalesenean komentatu zuten beste sozialista bat tirokatu zutela Madril aldean, asaltoko teniente bat. Etxean ere nahikoa liskar; Madril urrun zegoen eta bost egun falta ziren Arantzazuko larunbaterako.

Gertuago harrapatu zuen hurrengo erailketak; Xebas papera bezain zuri etxeratu zen bazkalorduan:

– Calvo Sotelo garbitu ditek.

– Ze esaten duk? –Joxek. Eta emazteen kezka ikusita–: Egon lasai; hildako bat baino gehiago behar da zerbait serioa pasatzeko.

Uztailaren 18a, erromesaldiaren larunbata. Begok, asteazkenetik histerian, negarrez hasi zuen eguna. Sukaldean denak kabitzen ez eta otorduak egongelan egiten zituzten. Paki eta Joxepi bazkarirako mahaia prestatzen, Bego eta Irene bakarrik suertatu ziren sukaldean.

Ulertzen zuen alabaren mina. Alde batetik, lagundu egin nahi zion; bestetik, mutil hori ez zitzaion komeni, eta ez Joxek esaten zuelako. Gazteegia zen

Bego, burua hotz izan behar zuen ondo aukeratzeko, amak egindako akats berdina ez errepikatzeko.

Harraskan ari zen gaixoa, eskuak baino bustiago masailak. Amak burua laztandu zion:

– Zer dun? –ea hitz eginez arintzen zitzaion pena.

– Silvinok lagun falangistak dauzka eta Donostian egon da, Calvo Soteloren aldeko hiletan. Artzain Onaren katedrala txiki geratu... omen da: Maura ministro izandakoa, Romanoneseko kondea... denak han –nolatan ezagutzen zituen izen horiek?–. Bukatutakoan, gazteek pasilloa osatu dute falangisten agurra eginez. Irten dira manifestazioan eta, Loiola kalean bertan, asaltokoak zain. Hasi dira oihuak eta bultzadak, jendea haserre, Silvinok buila egin die guardiei eta beldurtu egin naiz... –begi gorrituak ezkutatu zituen.

– Nola “beldurtu egin naiz”?

– Neroni ere joan naiz –barkamenik ez. Pausa–. Hasi dira tiroka eta Silvinok besoekin babestu nau. Abiatu gara korrika. Espaloian botata, mutil gazte bat. Eskuak odoletan, ezin mugiturik. Saiatu da tentetzen eta, bat-batean, lasaituta bezala geratu da. Hiltzen ikusi dut, ama, aditu? Hiltzen...

Zerk ematen zion amorru handiagoa, Begok bere kabuz erabakiak hartzeak edo oker har-

tzeak?Besarkatu egin zuen. Bera baino altuagoa zen, emakume koxkor bat. Nolatan ausartu...?

Bazkaltzera eseri ziren; ezin hasi, ordea: non demontre zegoen Joxe? Berandu zetorren. Ireki zen, azkenean, etxeko atea eta Joxeren alpargata-hotsa pasilloan, serio demonio Xebasengana:

– Franco matxinatu omen duk.

9

Kaleko atea zabalik utzi zuen Begok, histeriko:

– Karlistak atxilotzen hasi dira Zinema frontoian! Defentsa Batzordekoak!

Defentsa Batzordea: izen arranditsuagorik! Florentinak-eta erraztasun ikaragarria zeukaten hitz berri horiek ikasteko, baina errepikatzeak ez zien batere beldurrik gastatzen. Milizia. Mauser. Paseoa. Junker. Haien beharra zegoela onartzean hasiko ziren gerra galtzen.

Gerra. Larunbatean lehen kanoi-hotsak, eta astelehenean eratu zituzten batzordeak, autoak konfiskatu... Urriza alkateak ihes egin omen zuen zinegotziren batekin; alkatea eta kargu berriak izendatu zituzten berehala. Mundu berri bat zen, legeak eta ohiturak egiteke. Greba orokorrak arlote alferrez bete zituen bazterrak, beti helmuga zehatza izatearen plantak eginez. Horiei bost axola janari-eskasia; ez zuten harririk irauli beharko otorduak osatzeko, 34an bezala.

Zaintzak antolatu ziren leku estrategikoetan, eta gizonak harro paseatzen ziren gora eta behera, esko-

peta zahar haiek sorbalda gainean. Itxurakeria: beldurrik eza, balentriak egiteko irrika, ausardia erakusteko beharra. Kemenik ez, ordea, onartzeko gizasemeak akabatzea zela helburua.

– Joseba Olabeagak esan du herriko karlistek armak ezkutatzen dituztela –alabak, negar batean.

Antoniaren semea. Ezin al zuten gizon bat aukeratu Defentsa Batzorderako? Sutsuki ari omen zen ditxosozko armen bila; ariko ez zen, ba, hemezortzi urterekin! Dena lau pistola zaharrengatik.

– Don Melitoni zeharo lotsagabe galdetu eta, gero, herritik bidali omen du.

Horregatik egiten al zuen negar? Etxean ere gerra, Espainiakoa gutxi balitz bezala. Iluntze batean, ahuldu eta senarrari aitortu zion manifestazioarena. Asto beltzarenak bota zizkion Joxek alabari eta honek duin jasan zuen. Geroztik, hitzik ez haien artean.

– Don Segismundo Gantxegi ere atxilotzen saiatu dira –alabak, bere onetik zeharo aterata–, Villa Marciaraino joan zaizkio bila.

Denok erotuta, bai. Hamaika kolumna omen zetozen Nafarroatik Gipuzkoara, Aiako Harritik barrena, Mola zakur zikin haren agindupean.

Kasualitate ustela; Joxe behin itzuliko goiz etxera eta juxtu momentu horretan. Alabak lepora egin zion salto:

– Borghetto villan gorde da don Segismundo, Silvino eta semeekin batera; hil egingo dituzte, lagunduiezu, bonbardatu nahi omen dituzte... –garrasi batekin buelta eman zuen kalera irteteko. Bi gurasoen artean heldu behar izan zioten.

– Bonbak? Nahi bai Batzordeak! Egon lasai, gaztelu bat da Borghetto; ez zaie ezer gertatuko.

Begiratzera joan zen, badaezpada ere, eta bueltan emakume guztiak topatu zituen egongelan arrosario santua errezatzen, Silvinoren hilotza beilatzen ariko balira bezala. Apaltasun faltsuaz eman zien gerra-partea: Gantxegik gotortuta jarraitzen zuela, batzordekoek bera aukeratu zutela negoziatzeko.

Hurrengo bi eguneko saiakerek ez zuten kazikearen irmotasuna batere samurtu eta, azken arratsaldean Joxe zapi zuria makilan hurbiltzen ari zela, tiro egin zioten uxatzeko, nafarrak etorri arte eutsiko ziotela oihuka.

Biharamunean, heroia eguzkiarekin kaleratu eta luto-aurpegiz etxeratu zen handik gutxira, familia go-

saltzen ari zela. Begok duintasunez garbitu zuen ahoa, esne-katilua baztertu.

– Goizaldean jo omen diete erasoa CNTko anarkistek eta UGTko sozialistek, Defentsa Batzordearen baimenik gabe. Tiroketa latzak izan omen dira; azkenean, sartzea lortu dutenean, Gantxegiren bi gizon besterik ez dituzte topatu, Silvino hori eta Antton Legazpia. Nola Aiatik datorren harakin bat...? Horixe da Legazpia. Besteek tunel batetik egin omen dute ihes eta anarkistak zurrumurrua zabaltzen ari dira batzokiko kotxe batek hartu omen dituela. Esatea ere! Legazpiari elizkizunak eman dizkiote.

Astero etortzen zitzaien etxera haragia saltzera. Zerk bultzatu zuen tiroka hastera?

– Eta Silvino? –Begok, ahots-hari batez.

– Ondarretako kartzelan.

Alabari segundo batez aurpegia argitu, segituan ilundu, eta, aulkia burrunbaka atzera arrastatuz, tentetu zen. Aitak ukondotik heldu zion haserre:

– Fusilatzea nahiago al duzu? Horixe nahi zuten eta UGTkoek. Lanak Ondarretara eramaten! Han, behinik behin, babesean egongo da –Bego alferrik saiatu zen askatzen–. Eta ahaztu kartzelara jana eramatea; ezta okurritu ere, aditu? Milizianoak erotuta dabiltza,

ez Jainkorik, ez legerik. Mokadu goxoegia zinateke haientzat! Zure moduko neska gazteak, erabili ondoren, bide bazterrera botatzen dituzte tiro bat buruan. Gerran gaude, ea behingoz konturatzen zaren!

Begok duintasunez konpondu zuen blusa.

– Hobe tiroa buruan.

Aitaren belarrondokoak belauniko bota zuen, txundituta. Negarra natural hasi zitzaion irteten, barru-barrutik. Joxek, aitzakiarik edo kontsolamendurik topatu ezinik, herio batean egin zuen alde. Hain zen erraza hitz batez konpontzea...

Toldoak konfiskatuta, kostak basamortua ematen zuen, biluzik. *El Día* kendu eta *Frente Popular* izeneko beste periodiko batek ordezkatu zuen. Halako baikortasun zeremoniatsuaz xehatzen zituen berriak: erasoak, kontra-erasoak, bonbardaketak... Zenbait irratik eliza eta komentu erreak aipatzen zituzten, moja bortxatuak, apezpiku atxilotuak.

Buzo urdinengandik urruntzen ikasi zuten. Dendetan, nahi zutena hartu eta paper-mutur ziztrin bat ematen zuten ordainetan. Kamioikadaka igarotzen

ziren gora eta behera errepidean, beti pozik, beti kantari, beti harroputz.

Euzko Gudarostea. Irenek birritan aditu behar izan zuen zer zen ulertzeko; gizonek besarkadetan hedatzen zuten berria. Euzkadi defendatzea, aberria, denok Azpeitira izen ematera. Loiola jarri omen zioten izen zarauztarrez-eta eratutako konpainia bati.

Xebasek, argi: izena eman behar zuen. Bizkiari proposatu eta Joxek ezetz: gerran ez zela bakarrik soldadurik behar eta herrian geratuko zela. Eskerrak. Ez ziren zeharo antzuak Borghettoko joan-etorriak. Beste baliente batek ere uko egin zion gloriari, Anjelmari Izetak: ez omen zeukan sasoirik fusila aldean korrika ibiltzeko.

Gizon bikain asko joanda, Joxe aitzaki-maitzaki hasi zen etxean geratzen, sukaldean enbarazu egiten, pasillo erdian, ohean etzanda sabaira begira. Beste gerra bat.

Xebas gudari joan eta gutxira, plazan andre bat builaka: “Señora Paki! Señora Paki!”. Doña Maria del Rosario zen; etxera igo eta, semea lurrean utzi gabe, parean belaunikatu zitzaion Pakiri, eskuak otoitzeko jarri-

ta. Aita santuaren aurrean bezala makurtu zuen burua, kopeta lurreraino: buzo urdin batzuek don Cesar atzeman omen zuten *paseoa emateko*.

Zalapartak ekarrita, alkandora galtzetan sartu gabe agertu zen Joxe. Non zegoen lehengo gizon lerden eta alaia? German semetxoa hurbildu zion doña Maria del Rosariok.

– ¡Ayuda!

Pentsatu gabe kaleratu zen Joxe. Andre koitaduak, haren atzetik korrika irten aurretik, umetxoa jarri zion besoetan Pakiri. Hitzen beharrik ez, biak baitziren ama.

Andonik sei hilabete, Germanek bi urte; jaio izana beste errurik ez.

Iluntzean itzuli zen Joxe:

– Batzokiko bi gudariri esker geratu ditut, kanposantuko bidean gora zihoazela. Etxean laga dugu; gudariek zaintzan emango dute gaua.

– Eta bihar? –Irenek.

Senarrak keinu itsusia egin zuen lepoaz.

– Egon lasai; gehienez, kartzelan sartuko dute.

– Kanposantuko bidean gora? –isilune ozena–. Aditu: joan Florentinarengana, haien baserriko zuloren batean gordeko du-eta.

Kale-baserria ez izan arren, Salbide Txiki oso gertu zegoen kaletik. Milizianoei ez zitzaien bururatuko han begiratzea.

Gauerdian oheratu zen Joxe. Florentinak ukuilura sartu zuen don Cesar; ikustekoa omen zen udatiar fina txerrien artean.

Barre egiteko gogorik ez, ordea.

10

Segituan erori zen Beasain, Gipuzkoan aurrenetako lekua. Telefonoa eta telegrafoa lehenengo biktimak, Migelekin komunikatzerik ez; auskalo onik iritsi ote zen liberazioraino edo tradizionalista askori bezala zerbait itsusia gertatu ote zitzaion. Zer moduz egongo zen haien txikia? Haren amandrea zen Irene, baina, hiletatik, behin ere ez zuen ikusi.

Frontekoa baino are latzagoa zen atzealdeko borroka: ilarak edozein gauza lortzeko, diru-kezkak, beldurra aldeko gizon armatuei, beldurra kontrarioei. Eta begirasunak. Emakume-eskuadroiak.

Goiz batean, Getariako Arratoiaren atzetik azaldu zen *Cervera* akorazatua: har metaliko erraldoi bat, arratoitik zenbat eta urrunago, orduan eta handiago, ia badia osoa hartzeraino. Kate-txakurren gisara ainguratu zuten Donostiako bidean eta handik bota omen zituen hirira hainbat bonba. Izua lehertuta, anarkista edo sozialista edo batek daki noren talde bat Ondarretako kartzelan sartu, eta eskuindar mordo bat utzi zuten paredoian oinak hoztuta. Atxilotutako zarauztar

guztiak onik irten omen ziren; Begok, halere, negarsaio luze-luzea egin zuen, kontsolaezin.

EAJk Monteagudoko villan kuartel nagusia jarrita, han jarduten ziren goizetik gauera Xales eta Juanita ahizpa, zer agindu ere. Haien bitartez hasi ziren Irene-eta gudarien alkandorak josten. Brigida Plantxadoraren eskaintza gerraren kean lurrunduta, zerbait behar zuen alabak etxean lotzeko, bizitzak egoskor arrastatzen baitzituen kalera: udara zen eta ikusi nahi zuten, aditu, sentitu.

Egunak mapa bihurtu ziren. Matxinoak Tolosan. Matxinoak Frantziako mugan. Matxinoak Irunen. Hura ere eroritakoan, erretira antolatzen hasi ziren errepublikanoak. Nonbait, Donostia defendatzeko modurik ez eta defentsa Mendizorrotz - Zarateko Benta - Ernio lerroan finkatu zuten.

Arratsalde batean, bandoa jo zuen pregoilariak: biharamunean, goizeko seietan, herrian geratutako gizon guztiak Azpeitiko errepidean aurkeztu behar ziren, Orio aldean lubakiak induskatzeko. Joxe lehertuta eta eskuak babaz beterik itzuli zen, egun santu osoa palari ekin eta ekin, Sanson Azpeitiarekin batera. Hark bai sasoia!

Errekrutatzeko adinean zegoenez, beldurrak bizi zuen Florentina, eta ez zen bakarra: Brigida Plantxadorak praka motzetan omen zeukan semea etxean, giltzapean.

Errefuxiatu-tantak korronte bihurtu ziren eta, faxistek Donostia hartu aurreko gauetan, marea. Istorio lazgarriak zekartzaten: bahiketak, bortxaketak, hilketak. Faxistentzat nahikoa omen zen susmoa gizon bat fusilatzeko. Gudarien emazteak herritik bidaltzen omen zituzten.

Gehienak emakumezko eta umeak ziren, koltxoia buru gainean eta hiruzpalau poltsa aldean. Baserritarrak, langile xumeak, Donostiako jende fina, euskaldun ugari. Kostan hartzen zuten hotel, hondarra goxoagoa baitzen lurreko harriak baino. Bonben alarma instalatu zutenetik, herrikoek ere eman zituzten pare bat gau haiekin, zeru beltzari begira, hegazkinen orroaren zain.

Gero eta luzeagoak ziren trenak; ezagunak alde egiten hasi zirenez, kaleko aurpegi gehienak, arrotz. Beste herri batean bizi ziren. Goiz edo berandu, Zarautzera ere iritsiko ziren matxinoak.

Iluntze batean, Joxek harro ekarri zuen Euzko Gudarosteko ofizial bat. Inprobisatutako kuartelak leporaino zeudenez, ohe bat behar. Irenek begiekin kiskali zuen: nolatan sartu etxera hain planta oneko mutila? Ez al zen konturatzen Bego bere buruarentzat ere arriskutsua zela?

Egongelan jarri zituzten alabak, Paki eta umearekin; ofiziala, nesken logelan. Azaña presidentearen pare omendu zuen senarrak: despentsako gutizia-hondarrak, aitak oparitutako azken purua, Xebasen patxarana, eta tabakoa, etxe osoa ketzeko adina. Afaldu ondoren, gizonak hizketan geratu ziren, koñak botila eta bi baso lagun.

Irene ohean lo hartu ezinik, burrunba urrunengatik. Abuztuko Amabirjinetan bezala, baina etxafuegoen partez, bonbak, bum, bum-bum-bum, bum. Irun errauts-pila bat omen zen; Zarautz ere kiskalduko al zuten? Haien herentzia guztia zen etxea, haien etorkizuna.

Eguzkiarekin joan zen ofiziala. Irene, etxeko atea aditzean, maindireak aldatzen hasi zen. Errazago lan egiteko, ohea mugitu eta ezkutuko izkribua topatu zuen, labanaz-edo marratua: “Santiago Uriz, 1936-09-

09”. Arantzazuko Amaren eguna zen. Xales, Iñurritza. Beste bizitza bat ematen zuen.

Hiruzpalau egun geroago, Xales bera bisitan, isilik inoiz ez bezala, etsian. Sukaldera gonbidatu eta ekonomika piztu zuen kafea egiteko. Ez zion aitortu aurrezteagatik asteak zirela senarrak besterik ez zuela hartzen; Joxek ere ez zekien. Nola jakingo zuen? Penatan gordeta bizitzea askoz errazagoa zen kalera irtetea baino, bizirik jarraitzeko borrokatzea baino. Hidalgo minduaren plantak egiten zituen, mundua ulertu ezinik, eta gero, nola edo hala, platera beteta.

Miren maitea: hogeita hamahiru urte dagoeneko. Ederra ez bazen ere, hazpegi erregularrek indarra ematen zioten, seriotasuna, xarma.

Fardeltxo bat zekarren, paperean txukun bilduta. Ireneri eman zion irekitzeko: Xalesek berak 1931n edo jasotako oparia zen, larruzko koaderno bat. Emailearen izena edo asmoa behin ere argitu gabe, maiz komentatua zuen nobela bat zegoela orri zurietan, norbaitek noiz azaleratuko.

– Herorrek atera beharko dun, Irene.

– Nik? Zer esan behar dinat, ba? –idazteko proiektua hasi ere ez zuen egin, bizitzari jarraitu ezinik. *Madame Bovary* ere... azalekoagorik! Ume-jolasak ziren

haren penak. Letretatik urrun ari ziren erabakitzen munduko gauza garrantzitsuak.

– Argazki bat izango dun –Xalesek–. Orain aterata ez zionagu zentzurik bilatuko, baina hemendik hogei urtera gogoratzen lagunduko zigun, zer ginen, zer sentitzen genuen. Herorrek idatzi; betikotu ezan gure ahalegina, gure mina. Bestela, alferrik ari gaitun sufritzen.

– Eta hi?

– Juanita eta ni Eusko Jaurlaritzarekin batera goazan, laguntzera. Gaur dun ebakuazioa.

– Mitinak eta?

– Oheak –irribarre nekatuaz–; norbaitek egin behar.

Atarian elkar besarkatu eta eskaileretan behera murgildu zen ilunpean. Hotza egiten zuen ezkaratzean, hezurretaraino sartzen den horietakoa.

Xebasen berririk gabe, Pakik ez zuen bakarrik Bilbora alde egin nahi. Antonia, berriz, goiz batean, plazara atera eta kotxe batean sartu zen alabekin, maleta ziztrin bana zeramatela. Irenek saltoka jaitsi zituen eskailerak, negarrez besarkatu zuten elkar. Txarrena pa-

satu arte, Aizarnazabalgo baserri batean geratuko ziren. Bitartean, familia sakabanatuta: semeak Frantziara ihes egitekoak ziren; senarrak segurtatu nahi zuen Banco Guipuzcoanoko dirua Bilbora iristen zela.

Joxe lasai zegoen: haiek ez zeukaten beldurtzeko arrazoirik, ez zuten ezer egin. Koinataren aurrean isildu arren, frontera joan ez izana erabaki egokia izan zen. Pare bat hilabeteren bueltan baretuko zen ekaitza, eta gero, errutinara buelta. Pakik eguna ematen zuen leihotik zelataka.

Eguzki-izpi bakarra, Beasaingo atso bati esker: don Migel Garmendia jauna, tailerra arma-fabrika bihurtuta, txapel gorria buruan paseatzen omen zen indioilarra baino harroago.

Matxinoak Usurbilen. Orio aldean. Hurreratu ahala, herrien partez, auzoak aipatzen hasi ziren notiziak, zerrenda luzatzeak mehatxua atzeratuko zuelakoan. Laster irtengo zen azken trena.

Orio erortzear zegoen iluntzean, oso berandu oheratu zen Joxe. Andrearengana hurreratu eta besarkatu egin zuen. Ardo-kiratsa zerion, tristezia. Azken gaua

izan zitekeen. Etorkizuna inoiz baino gehiago zegoen etortzear.

– Goizean sartuko dira –Joxek, xuxurlaka, burua Ireneren beso artera bultzatzen– eta ez naiz herria defendatzeko adina gizon izan.

Haserrearen beroa sumatu zuen Irenek. Gerra madarikatua hasi zenetik, bere esku geratuak ziren bi familiak. Xebasek errazena egina zuen, tiroak jotzera joan, eta Joxe traba besterik ez zen izan. Nork bilatu zuen jatekoa? Nork mantendu alabak onik? Halere, ezin hori senarrari esan, behea joko luke eta.

– Bizitza salbatu zenion don Cesarri.

Senarrak arnasa bota zuen, erdi barrez edo:

– Badakizu zergatik erreparatu zioten CNTkoek? Argentinako kontsula oporretan zegoen Etxe Urdina-n. Gerra hasi eta gutxira, Argentinako bandera zintzilikatu eta Argentinako lurra zela deklaratu zuen, inork ezin zuela sartu. Defentsa Batzordekoek amen eta, jakina, inguruetako karlista guztiak hara korrika. Don Cesar ere saiatu zen, andrea eta semearekin. Nonbait, hangoei nahikoa handi iruditu ez, eta bidali egin zuten. Atean bertan omen zeuden CNTkoak, papurren zain. Eskerrak Florentinak gorde zuen! Ikustekoa zen

don Inportante han, txerri artean... Orain neronek eskatu beharko diot, ba, lekua.

– Ez duzu ezer ere egin.

– Ba omen dago zerrenda bat...

– Gezurrak!

Emaztearen gainean jarri zen animoso. Kuleroak zakar jaitsi, baina hasteko modurik ez: kemena bezain biguna. Koltxoian etzan zen, aurpegia burkoan iltzatuta eta negarrez, lo hartu arte. Orduan igo zituen kuleroak Irenek.

Orioko zubia dinamitaz puskatu zuten. Leherketak leiho guztiak jarri zituen dardaran. Hainbat kamioneta igaro ziren erretirako gudari eta milizianoez lepo, porrota mozorrotzeko nekatuegi. Tren bat bete zuten, mendekua bezain luzea, eta hura joandakoan, isiltasunak konkistatu zuen herria.

Milizianoek elizei su ematen omen zietenez, gizon apurrak bildu ziren parrokia aurrean, Joxe tartean. Han gordetzekoa zen Anjelmari Izetarekin, faxistak etortzean. Etxeko besteak sukaldean zeuden, arrosarioari bueltaka.

Urrutitik kotxe bat ziztu bizian. Plazatik igaro eta parrokia inguruan geratu zen. Balkoiko leiho-ateak ere itxiak, Irenek tentuz ireki zituen kristalezkoak, egurrezko xaflen artean begiratzeko. Ezin ikusi, ordea, parrokiaraino.

Joxe builaka protestatzen, hiruzpalau miliziano mehatxuka eta, azkenik, don Meliton bidaltzean bikario geratutako don Luis oihuka:

– Sua ematen badiozue, ni barruan nagoela izango da!

Defentsa Batzordekide baten ahotsa: Joxe Leon Mitxelena. Bere hitz irmoak, milizianoen erantzunak amorruz, kotxeko ateak danba-danba, motorra berriro abiatu, badoaz, hizketa lasaiaren zurrumurrua, kamioi bat pizten eta Getariarantz iraungi ziren hots guztiak.

Balkoitik urruntzeko astirik gabe, beste kotxe bat Donostiako errepidetik. Udaletxe parean frenatu, eta lau gizon jaitsi ziren gasolina-bidoi handi bat garraio. Udaletxeko sarrera bortxatuta, haietako bat kanpoan utzi zuten, harroputz erretzen. Korrika irten, eta kotxean ihes egin zuten ziztu bizian.

Irenek atzera egin zuen, eta eskerrak: eztanda izugarri batek txikitu zuen mundua, eta harekin batera, balkoiko kristalak. Hamaika pusketa sakabanatu ziren

airean, lurrean, etxeko guztiak oihuka, Andoni txikia marraka, Irene hauts zurixka batek estalia.

Negar batean, Bego eskobatzen hasi zen, jaso ondoren ere histerikoki zoru garbia trapuaz belauniko igurzten. Joxepik maitekor besarkatu zuen, ahizpak trapua utzi arte. Irenek balkoiko marko hutsak itxi zituen. Kristalak jarri beharko zituzten... dirua bilatutakoan.

Udaletxea sutan. Joxek eta auzoko batzuek aurre egin zieten garrei, ondoko eta plazako eraikinetara zabal ez zitezen.

Klank: argindarra moztu zen; ilunpea sukaldean. Paki eta Bego angelusa xuxurlaka hasi ziren, eta besteak gogotsu batu. Behinik behin, infernuko suen kraska ezkutatzen zuten.

Berehala etorriko ziren faxistak, eta Joxe burugogorra elizan. Jakingo al zuten ez zela miliziano bat?

11

Erreketeen kamioiak. Barreka eta kantari etorri ziren. Oihuka. Bizardun gazte bikainak ziren, gurutze, estanpa eta *detenteak* ikusgai, baina inoiz entzundako biraorik gogorrena prest ahoan. Bat-batean, onddoak udazkenean bezala haziak ziren Espainiako banderak plazako balkoietan, udaletxea beltz-beltza.

Ordubete eta Joxe agertu ez. Bi ordu. Jainkoari esker azkenean etxera sartu, eta kafea eman behar izan zioten hitza berreskura zezan. Txiripaz ez omen zituzten paredoian jarri; eskerrak Don Luisek haien alde egin zuen!

Irene ausartu zen irtetera hurrengo egunetan. Xalesenekoa itxita, Laguntasuna kooperatibara jo zuen. Herria erori aurretik, ederki jaisten zituzten begiak orain kokotsa jasotzen zutenek, eta alderantziz. Labaderoan, Florentinak amorruz xuxurlatu zion militarrek komandantzia instalatu zutela Narrosko jauregian, markesak berak hala eskatuta. Eta, Aizarnazabaletik itzultzera behartuta, Santa Klarako komentuan atxilotu zutela Antonia, separatista izatea eta beste hamai-

ka deabrukeria leporatuta. Hiru alabak bakarrik zeuden etxean, ume bat eta bi neska koskor, gainera hain apain...

Gaixoa Antonia; Florentinak jana eramango zion arratsaldean, ez baitzioten papurrik ere emango.

Irenek ez zuen etxean ezer aipatu. Bazkalostean, erosketen otarrea sukaldeko mahai gainean jarri eta zer janari sartu hasi zen pentsatzen.

Bota-hotsak eskaileretan, norbait ate joka. Izututa ireki eta soldadu batek zakar baztertu zuen. Bost ziren. Ofiziala egongelara joan, mahaia eta sei aulkiak seinalatu eta paper batean apuntatu zituen. Soldaduek burrunbaka eraman zituzten, *kanka* edozein bazterretan jotzen zutela.

Senarra ez zen logelatik irten. Zutik itxaron zuen, burua etsita, umea zigorraren zain bezala. Besteak joanda ere ez zen luze bere onera etorri.

Armairuan gorde zuen otarrea Irenek. Pixka batean.

Biharamunean, Florentina falta labaderoan. Eta hurrengoan. Hirugarren egunean, Brigida Plantxadorarekin kointziditu zuen. Liberazioak ez omen zion bel-

durra askatu, jarraitzen baitzuen Manuelito semea praka motzekin mozorrotzen.

– Florentina Azkue ikusi al dun, Brigida?

– Santa Klaran zegon, sedizioagatik –eta zuzenegi begiratu zion–. Eta hi, argi ibili. Agian salatu egingo haut.

– Ni? –bihotza geldi–. Ez... ez dinat ezer egin.

– Eta?

Brigida joandakoan, zurrumurruak: soldadu batzuk Salbide Txikira ganadua konfiskatzera joan eta Florentinak kargu hartu omen zion haien artean zegoen herriko seme bati. Hark salatu eta gauerdian eraman omen zuten Santa Klarara, arrastaka. Bazeuden beste hamar emakume han.

Etxeko atean, irribarre egiten saiatu zen Irene. Egongela itxita zeukaten; txikiagoa ematen zuen eta oinetakoek oihartzuna ateratzen zuten. Joxe logelan topatu zuen, ohe gainean eserita eta horma zurira begira.

– Antonia eta Florentina preso dauzkate Santa Klaran. Otarre bat eraman behar diet.

Esnatu bezala egin zen senarra:

– Ez.

– Gosez akatuko dituzte... –Joxek buruaz egoskor ezetz–. Eta Paki eramaten badigute?

– Ez dute eraman, ezta?

– Han banengo, biak etorriko lirateke!

– Inuzentea zara, gero! Ez litzateke inor ere joango.

Sukaldera itzuli zen lasaituta, baina bera ere harrituta Joxeren agindua otzan onartzeagatik. Bere buruari errepikatu zion egina zuela ahal izan zuen guztia.

San Migel gauean, Itziar Olabeaga kalean harrapatu eta ilea larru-arras moztu zioten. Koitadua; hain ile ederra! Munstro bat ematen omen zuen, burua handituta. Ahizpak frai Garmendia frantziskotarraren laguntza lortu zuen, gaitz erdi: errizino-olioa ematekotan ziren, soinean eginda Munoan denen barregarri jartzeko.

Haien aitarik gabe ere atzera zegoen irekirik Banco Guipuzcoano. Goizeko zazpietarako, errazionamendu kartillarena baino luzeagoa zen hango ilara. Irenek mila pezeta atera nahi zituen, aurreztutako bi mila eskasetatik. Joxe lanean hasi arte... Laster hipo-

teka ere kobratuko zieten eta etxean pare bat txakur handi besterik ez.

Eguerdira arte zain egon ondoren, laurehun pezeta eman zizkioten. Gehiago ezin; halere, oilasko eder bat erosi zuen. Pakirekin gogotsu lumatzen ari zela, bota-hotsak, eta, atean, etxe osoa botatzeko moduko kolpeak.

– ¡Arriba España! ¡Registro!

Tiradera guztiak lurrera, koltxoiei buelta, arropan miatzen ibili... Joxe zutik logelan, soldaduek galtzontzillo bat jarri zioten buruan.

Ofizialak Irenerengana jo zuen nagusikeriaz. Beste bat zen, berrogeiak pasatutakoa, bibote txikia, ilea gominaz atzerantz kaskoa eginez. Francoren idazkaria ematen zuen.

– Irene Garmendia de Larrañaga? –buruaz baietz erantzutean, paper bat eman zion, makinaz idatzia.

– ¿Y usted? –Pakiri.

Andoni ia besoetatik erori zitzaion, izututa.

– Mi cuñada, señor –Irenek.

Goitik behera aztertu zuen. Isilunea. Takoiak dandaka batu eta ateko bidea hartu zuen.

Krimen bakarra zekarren paperak, Irenek egindakoa: separatista. Eta zigorra: zortzi mila pezeta, biharamunean Narrosen entregatzekoak.

Nesken aurrean negarrik ez. Paki, dardara zelaeta, ez zen gai lumak behatzekin hartzeko. Irenek eskua jarri zion gainean, laztandu. Kontsolatu egin nahi zuen: “Jainkoak estutu, baina ito ez”. Ezin, ordea.

Eguzkia irten aurretik, jende-andana Narros parean. Neguko hotzean itzal gorrak tente, denak beltzez jantzita zeuden eta Irene koitaduak beroki *zoragorria* soinean. Kaskamotz errebeldearekin batera, nabarmentzen zen. Kolore berria: *beldurgorria*.

Ezagutzen zituen jardin zabalak. Irail bukaeraren bueltan, markesak txokolatada antolatu ohi zuen herriko umeentzat udara agurtzeko. Juxtu garai haietan. Orduko algara eta pozetik, takoikada eta armen txilinera. Urtebeteko amildegia.

Bulego ziztrin batera sartu zuten. Behe-lainoa: etxera joan zitzaien bigarren ofiziala haritzezko mahaitzarraren atzean eta soldadu bat idazmakinan, biak zigarro baten ipurdiarekin hurrengoa pizten. Xalesen idazmakina. Ze harro erosi zuen Donostian...

Ofizialak patxadaz aletu zituen espedienteko karguak: gudarientzako alkandorak josi, alaba poxpolina,

senarra batzokian, Emakume Abertzale Batza, koinatua gorri-separatistekin hilda.

Koinatua...? Ziztada sabelean. Eutsi, hitzak besterik ez ditun.

– Emakume, ez zenekien? –Nafarroako espainolez–. Horrela bukatuko dute denek. Ordaindu.

Irenek billete-sorta atera, ofizialak zenbatu.

– Daukagun diru guztia da –ahots-hari batez–. Ezin dugu kontutik atera.

– Konfiskatuta, apuntatu –idazkariari–. Eta beste mila pezeta.

– Beste isun bat? Ez dut ezer...

– Kontribuzio boluntarioa.

– Ez zaigu dirurik geratzen...

Ofizialak gerturatzeko keinua egin zion. Esku txikia zuen, azazkalak garbi eta txukun moztuak. Eskumuturretik heldu zion Ireneri, estutuz: ezkontza-eraztunaz gain, jaspe bat zeukan, amarena.

– Saldu –eta behatz potoloarekin laztandu zizkion behatzak irribarrez, bat, bi, hiru segundoz.

Zorabiatuta aurkitu zuen irteerako bidea, negar batean pasatu ilarako begi jaitsien aurretik. Plazan esnatu zen, kolpetik esnatu ere: lau soldadu, haien ezkaratzetik ateratzen. Noren etxetik?

Eskailerak ikusi ere ez: etxeko atea zabalik, koltxoiak lurrean, lapikoak, paperak, arropa. Alabak? Joxe? Paki!

Egongelan topatu zituen, munduaren erdi-erdian. Alabak Paki besarkatzen, Joxe leihotik zelataka. Andoni, katuka, trapu batekin ari zen jolasten.

– Paki hartzera etorri dira, ama! –Joxepik salto egin zion gainera. Hamahiru urte zituen, emakumetxo baten pisua–. Andonirekin igo da goiko eskailburura eta han geratu da soldaduak hemen bila ari zirela... Gure Andonik ez du txintik ere esan –Begok lehengusua hartu zuen lurretik, umetxoak barre-algaraka eskertu.

– Sabinak ez igotzeko gehiago esan dio.

Goiko bizilaguna zen. Batzokikoa, bi seme Bizkai aldean borrokan. Ordura arte, etxepean senideak bezala izan ziren.

Xebasena. Esan. Nola?

Maisu-maistrak aldatuta, Eskola Nazionalak ireki zituzten, eta Joxepi bidali behar. *Cara al Sol* kantatu

beharra omen zegoen goizero, patioan formatu, ilara militar zuzen-zuzenetan. Bego etxean, Pakirekin, Joxerekin. Bi aste ez zutela kalea zapaltzen.

Diru zikina. Gehiago exigituko ote zioten? Udarako errenta zor zieten Pakiren apopiloek; bazeukan eskatzea. Nahikoa estura pasatutakoak ziren herria hartu arte, baina, geroztik, ordaintzera etorri ez izana ere... Eta amaren harribitxiak saldu? Nori, baina? Aita santuari berari, ahal izanez gero. Kontribuzioa ordaindu ezean, Santa Klaran sartuko zuten.

Errazionamendu kartillarekin arroz-apurrak besterik ez, ogi gogorra. Noiz jan zuten gatzarekin azkenengoz? Ezin ohitu gosez akabatzen bizitzera. Auxilio Sozialera jotzen ari omen ziren asko, goseak hil nahi ez bazuten. Hura lotsa!

Orduak mantso zihoazen: ilaraz ilara, borrokaz borroka. Egunak, berriz, azkarregi. Eguerdi batean, etxera bueltan, Kale Nagusitik sumatu zuen tentsioa. Plazan, kamioitzar bat jendetzak inguratuta. Atzealdean, gizon eta gazte mordo bat zegoen, hala moduz eserita. Joxe! Ai, ama!

Sigi-sagan egin zuen aurrera jende artean, esfortzuz, gero eta masa trinkoago batean bultzaka, sena-

rraren azpian kokatzeraino. Altuegi zegoen eskua eman ahal izateko.

– Gerrara garamatzate –Joxek, irribarre mingotsez–. Boluntario.

Aldamenean, Sanson Azpeitia. Hark ama askatu nahiko zuen, baina ze arrazoi Joxek? Erotuta al zegoen?

Abiatu zen kamioia eta Irenek pentsatu gabe jarraitu zion jendetzarekin batera. Senideak ziren. Joxe bezalako boluntarioei etxeraino joan omen zitzaizkien bila.

Enkarguen zerrenda errepasatu zuen, aitzakia bila. Ezin aurre egin alaben begiradei.

12

Goxo-goxo esnatu zuen Joxepi. Senarra ez zegoenetik, elkarrekin egiten zuten lo. Alaba orrazten hasi zen: aurreko neguko soinekoa zabal geratzen zitzaion. Hamahiru urterekin hazten ez bazen, noiz?

Joxepi sukaldera joan zenerako, dena mahai gainean: ura, ogi gogorra eta, plater batean, bezperan lortutako intxaurrak, oskolik gabe jateko prest. Erreketeekin batera ari zen Joxe, baina horrek ez zien etxekoei askorik lagundu: bat gutxiago zirenez, kartilla mehetu zieten. Soldadu-paga ziztrina, gainera, osoosorik kentzen zieten kontribuzioa ordaintzeko.

Paki etorri zen umearekin, gero Bego. Mamu isilak, aurpegi luzeak. Joxepi joan eta handik gutxira aditu zuten zalaparta eskaileretan. Botak. Paki izoztuta, zuri, izerditan. Igotzen ari ziren. Lehenengo eskailburua, bigarrena.

Atean jo zuten, kanoikaden moduan: bum, bum, bum. Koinatari begiratzeko bihotzik ez; Xebasena esatera etorriko ote ziren? Herritik bidaltzera?

Ireki egin zien. Harroputz desfilatu zuten sukalderaino; ordurako, ederki ezagutzen zuten etxea. Arropa zintzilikatuta zeukaten barruan, umearen fardelak, gonak, blusak, soinekoak. Esku zikinekin soken alde batera bultzatu eta sukaldeko mahaia eraman zuten, aulkiak. Soldadu bat gelaz gela joan zen bonbillak askatzen:

– Separatistek ez duzue irakurtzeko beharrik.

Seltz-sifoia ikusi zuen armairu gainean, aspalditik hutsik. Irribarre egin zuen, hartu.

Takoi martzialak atzera plazan. Paki negarrez hasi zen.

Brigidari etxetik ihes egin omen zion Manuelitok tertzioetan izena emateko. Don Cesar Mendozak, ordea, ditxosozko asma zela-eta, ezin izan zuen izena eman Espainia salbatzeko. Horren ordez, Falangeko bulegoa ireki eta, egun batetik bestera, herriko buruetako bat bihurtu zen. Errentari zegokionez, lehengo lepotik burua. Beasaindik ere berri gutxi, are gutxiago dibidenduaren inguruan.

Hamaika alkandora urdin azaldu ziren kalean. Bat baino gehiago, preso egon ondoren, agudo txapela al-

datu eta gorria jantzita ibili zen sutsuki guardiak egiten karlistekin.

Urriza alkatea itzulita, lanean jarraitu zuen udalak. Lanpostua mantenduko bazuten, astebeteko epea eman zieten udal-langileei itzultzeko. Bilbo aldean edo gudari zebiltzanei ere bai. Irene lasai zegoen, Joxe haien soldadua baitzen; zerbaitetarako balioko zion!

Bazegoen Gracia izeneko kastillano bat, guardia zibil erretiratua eta liberazio aurretik bakea predikatuz ibilitakoa. Denbora falta izan zitzaion, gero, trikornioa berriro eskatzeko! Hark eraman zien etxera karguorria: ... Jose Larrañaga Egaña ... lanera itzultzeko espedientea ... soldata etenda ... jarduera politiko-sozial separatistak ... zortzi egunen buruan erantzun beharko duzu.

Alferrik Graciari esatea boluntario zegoela. Nagusikeriaz erantzun zion, kontzientzia garbi izanez gero, ez zuela arazorik izango errekurtsoan.

Uztailetik, zenbat ordu gauero sabai ilunera begira! Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi. Luze eta, aldi berean, motz. Zortzi egun horietan ia ez zen oheratu. Altzari faltan, harraskaren ondoko marmol gai-

nean zirriborratu zituen hamaika argudio errekurtsoan jartzeko, mantetan bilduta eta eztulka, kandela guztiak urtu zituen arte.

Narrosera joan beharreko goizean, seietan hasi zen bere burua apaintzen. Kamisoia erantzi eta ispiluko amona aztertu zuen. Aldaken hezurrak. Bular eroriak. Begi-zuloak. Pubiseko ile gristua. Eta buruan, artean ezin mototsa egin. Jan gabe, nola luzatuko zitzaion, ba? Atso horietako bat ematen zuen, gaztetasuna berreskuratu nahian munstro bihurtzen direnak.

Jantzi egin zen. Azkena, Pakiren berokia. Zakarra. Gainera, txikia zuen, eskumuturretatik sartzen zen hotza eta, halere, ez zen gorria erabiltzera ausartzen. Irten aurretik agertu zen Paki, begiak puztuta. Jakingo al zuen Xebasena? Besarkada bat. Hitzik ez.

Goizeko zazpietan antzeztu zuten guardia-aldaketa Narrosen. Geroago, ofizial bat agertu zen erretzera, dotore-dotore, jaka zabalik, harroputz. Guardiako soldadua konturatu eta disimuluan tentetu zen. Ofizialak buruarekin agindu zion ateraino gertura zedin. Irenerengana.

Anjelmari Izeta zen.

– Zerori hemen, Anjelmari?

–Ixo, emakume –xuxurlaka–. Erotu al zara? Fuera –Irene ez zen mugitu, harrituta–. Zer nahi duzu, biok galtzea?

– ¿Quién es, Izeta?

Anjelmarik eztarria garbitu zuen urduri. Atzerantz joan zen pauso batez, Ireneri begiratu gabe.

– La mujer de un nacionalista, mi capitán.

Besteak ke-bafada osatu, eta epelera itzuli zen.

Irenek ateko barroteei heldu zien:

– Errekurtsoa aurkeztu behar dut; Joxe depuratu dute –paperak luzatu zizkion.

– Vete y no vuelvas.

Ez itzultzeko? Hain erraza balitz!

– Zerorrek entregatuko al duzu, Anjelmari? Faborez...

Paperak hartu, kapote azpian sartu eta guardia-postura itzuli zen.

San Tomas egunean ikusi zuen Florentina, urrutian, Santa Marina kalean. Ile zurizko amonatxo bat, kontsumitzeraino argalduta, konkortuta. Irenek Txerrikaletik sartuz saihestu zuen.

Oparirik gabeko Gabonak. Pakik ez zuen Xebas aipatzen; ez zuen ia jaten, juxtu-juxtu Andoniri titia emateko adina. Gehienetan, nahikorik ez eta txikiak marru egiten zuen; uretan samurtutako ogi-pusketak ematen zizkioten. Kartillak, berez, esne kondentsatua aurreikusten zuen bularreko umeentzat, baina ezin haiek etxeko kartillan sartu. Ez ziren existitzen, eta hobeto horrela.

Arratsalde batean, Xalesen koadernoari erreparatu zion. Gauean, mesanotxe gainean saiatu zen idazten. Tinta bota, luma busti. Gertatzen ari zena kontatu nahi zuen; burura, ordea, beste gauza bat etorri zitzaion: Karmele Lanpernas, tren-geltokiren batean, agian Bilbon. Ama janari-ilarara joan eta maleta baten gainean utzia zuen eserita. Bonba bat, abisurik gabe. Oihuak, kea, arropa guztia sakabanatuta, maleta-puskak han eta hemen eta, erdian, Karmele lurrean botata, ahoz behera, burua margariten txapel zuriak estaltzen ziola.

Hankak Begorenak ziren. Oinak. Eskuak. Gorpua.

Koadernoa itxi zuen, baina ez zitzaion gogotik joan.

Bitxia zen kaleko isiltasuna. Haren altzoan, are deigarriagoak ziren batzuen barreak, agurrak, vivas-

pañak, banda-saioak ez dakit zer hiri konkistatutakoan, soldaduen takoikadak, bota-hotsak, desfileak... Irene etxe barruan ere ibiltzen zen begiak jaitsita. Etxe barruan, batik bat.

Beste emazte batzuek gutunak jasotzen omen zituzten, denetan izenburu berdina: “¡Arriba España! En campaña, a... ıı Año triunfal”. Joxeren berririk ez. Hiltzen bazen, esango al zieten? Errekurtsoaz ere ez zekiten ezer.

Harribitxiak Brigidari eramango zizkion. Hark jakingo zuen nori saldu. Soineko zahar baten barruan zeuzkan, belusezko bi poltsatxotan josita. Ez zion batere penarik eman hariak mozteak. Brigidaren etxe aldamenera hurbildu zen, kasualitatea antzeztera. Hiru ordu geroago, ia ilunduta, han jaitsi zen, buru-otarrea soldadu-arropaz beteta. Bazeukan lana.

– Brigida, hirekin hitz egin nahiko niken... –parean geratu zitzaion, lepoa tinko otarreari eusten–. Zera... Gauza batzuk saldu nahi ditinat eta herorrek agian...

– Ze gauza?

– Harribitxiak –izerditan ari zen, hotzak hotz–. Asko gaitun etxean eta kartilla...

– Kontuz hitz egin.

– Ez, ez, ez naun esaten ari gutxi ematen digutenik, baina... Hi ere ama haiz; badakin.

– Ezin dinat lagundu –eta mantso-mantso biratuta, martxa egin zuen. Irenek samur eutsi zion besotik.

– Faborez. Ez dinagu ezer ere –malkoek ihes egin zioten–. Ia bederatzi mila pezeta ordaindu beharra zauzkanat –bere burua estutu behar izan zuen jarraitzeko–: isuna eta kontribuzio boluntarioa. Bankuan mila ere ez zeuzkanagu eta Joxe...

– Eman eta ikusiko dinat. Zaila zegon... –poltsatxoak hartu zizkion errukiz.

Errukia; marka da! Herrira iritsitakoan gona-barrena usaindu ere ez zion batek.

Ikusiko ote zuen inoiz dirurik?

Hiru egun geroago joan zitzaion etxera Brigida, billeteak eskuan. Irenek eskale-eskua jarri arte itxaron zuen: ehun, berrehun, hirurehun, laurehun, bostehun, seiehun eta zazpiehun pezeta jarri zizkion, eta ehun atzera hartu.

– Nire ahaleginagatik.

Joan zenean, ezin ate itxitik aldendu, Brigidak nahi zuena lortuta.

13

Otsaileko bigarren astean, bando-joleak izen-zerrenda luze bat irakurri zuen, herria utzi behar zuten emakumeena. Frankisten eremua zeharkatu oinez, berrogei edo berrogeita hamar kilometro fronteraino, lubakien artean pasatu eta han... Jainkoak jakin.

Paki.

Irene korrika kaleratu zen, negar batean. Madoz etorbidean gora konturatu zen Pakiren berokia zeramala, azkenaldian bezala. Bareak jota iritsi zen Villa Marciara. Bi metroko hormak egurrezko atetzar sendoa zuen. Jo eta morroi ezezagun batek ireki zion. Faborez Don Segismundorengana eramateko. Gizonak baietz buruaz eta urrats mantsoaz, mantsoegiaz, gidatu zuen etxalderaino, pauso bat eta beste bat, baserritarren patxada madarikatuaz, astun, Paki herritik bidaltzen ari ziren bitartean. Andoni txikia.

Jardin ederreko belarra detailez moztuta, arrosalandareak inausten ari ziren udaberrian eztanda egiteko. Morroiak eskailera hasieran utzi eta Gantxegi jaunaren alaba batekin itzuli zen, bi zaharretan moja ez

zen harekin. Pasabide erdian jarri zitzaion. Ireneren erreguak handikeriaz aditu ondoren, bertan itxaroteko agindu zion, aita bulegoan zegoela.

Bat. Bi. Hiru. Lau. Bost minutu. Pakiren berokiak erre egiten zuen. Harrera-gela ikusten zen, marmolezko eskailera. Don Segismundo Borghetton gotortu eta ihes egin arren, ez zuen ematen gauza handirik konfiskatu ziotenik udaran. Koltxoiak, akaso.

Azkenean, Gantxegiren alaba bueltatu eta bi eskailera-maila jaitsi zituen. Adinkideak ziren.

– Gure aitak ezin du ezer egin; hiritar xume bat besterik ez da.

Ederki asko zekien hark Joxe nor zen, Borghettoko hartan egindakoa, non zegoen orain. Aurrean belaunikatu zitzaion Irene, eta kopeta oinetakoen gainean jarri.

– Senide bat galtzeko arriskuan egotea zer den badakizu... utzidazu faborez telefonoz hots egiten.

Besteak bigarren behatza eraman zuen ezpain estuetara. Atea leun bultzatu eta egongela argitsu batera eraman zuen: egurrean apainduta, hiru sofa luze zituen. Telefonoa, horman.

Operadorea. Hots egiteko por favor Beasaingo don Migel Garmendiari. Ideiak ordenatzen saiatu zen

anaiari tragedia laburtzeko, jakinda operadoreak kontu handiz apuntatuko zuela esandakoa.

Emazteak hartu zuen, baina esplikatzeko astirik eman ez:

– Jainkoaren esku zaudete –gaztelera martzialean–. Otoitz egin eta damutu.

Korrika atzera, doña Maria del Rosariorengana, musu-truk bizi ziren Pakiren etxera.

– Lagundu, Jainkoarren –trakets irten zitzaion–. Koinata herritik bidaliko dute.

– Lotsagabe halakoa! Nola ausartu zara nire etxera eskean etortzera?

Muturrean itxi zion. Gorroto trinko beltza sumatu zuen, atea puskatzeko premia, oihukatzeko, iletik hartu eta urdanga alu hura leihotik behera botatzekoa, ahal izanez gero semearen atzetik, gehiago sufri zezan.

Ahoa itxi eta mina murtxikatu zuen.

Bueltatu zenerako, ia Getarian zeuden emakumeak. Paki, Andoni txikia, maleta bat, berokirik gabe, Xebasena jakin gabe. Alabak itsasoari begira zeuden, errefuxiatuen begirada berdinarekin, dena galdu ondoren.

Ez, haiek ez zuten galduko. Eskuetatik tiraka arrastatu zituen etxerantz.

Labaderoan esan zioten Joxe ikusi zutela soldadu jantzita, Narrosera sartzen. Joxepiren urtebetetzea baino hiru egun lehenago, martxoaren 7an. Azkenean berri on bat. Elkarrekin ospatzerik izango al zuten?

Korrika itzuli eta urrutitik ezagutu zuen, parrokia pareko izkinatik plazarantz biratzen. Zeharo argalduta. Zahartuta. Pasatzean, arribaespañaka altxatzen ziren emakumeen eskuineko besoak, trena joandakoan barrerak bezala. Negarrez zetorren, paper batzuk eskuan. Bere eskela.

Mesanotxean paperak utzi eta ohe gainean etzan zen botak ere erantzi gabe. Mutu. Irenek biluztu egin zuen, bakean utzi. Errekurtsoaren erantzuna jasotzera ekarri zuten frontetik. Negatiboa. Erruduna.

Eguerdiko hamabiak ziren. Gauean, Irene oheratzean, lotan jarraitzen zuen; berdin goizean. Hamarrak aldera esnatzea erabaki zuen. Logelan, kargatuta zegoen airea; gizon arrotz bat.

Platerean jarri ziona irentsi zuen, ogia ere bukatzeraino. Aste osokoa. Bego elizan eta Joxepi eskolan, ba-

rruak hustu zituen: besteek “aitona” deitzen ziotela, erasoetan azkena iristen zela babesera, txiripaz zegoela bizirik, etengabe umiltzen zutela, gudari ibilitako asko frankistekin joatera behartu eta leku latzenetan sartzen zituztela. Umeen modura hasi zen negar-zotinka, ezin zuela frontera itzuli, bazitekeen Xebasekin elkarri tiroka jardun izana, ez zuela hil nahi.

Pixka bat lasaitu zenean, eskua hartu zion emazteari, begiak erotuta:

– Bihar goizean hartu behar dut trena, frontera itzultzeko. Haiek konturatu gabe, salto egingo dut martxan. Frantziara pasatuko naiz.

– Eta gu?

Begiak kliskatu zituen Joxek, harrituta. Deseroso. Urduri.

– Abisua bidaliko dizuet etortzeko.

Begorekin agurtu zuen senarra geltokian, Santa Klarako komentuaren parean. Hantxe jarraitzen zuen Antonia gaixoak. Alaba etxean lagata, enkarguak egitera joan zen, enkarguak edo. Brigidaren ezkaratz paretik pasatzean, nor eta Manuelito irten zen, ezkerreko eskua benda zuri batean bilduta.

Elkanoko Etxeberri baserriko esnezalea merkatutik zetorren astotik tiraka; erraz konpondu ziren. Arantzazuko Amabirjinaren urrezko domina saldu zion Anjelmari Izetaren emazteari. Amandrearen jaiotze-oparia zen, ezkontza-eraztunarekin batera geratzen zitzaion azken gauza baliotsua. Apur horiekin nahi zion Joxepiri urtebetetzea gozatu. Hamalau urte: non geratua zen neskatxo mugitua?

Xerraseneko pasteleriara sartu zen. Usainak ia urtu egin zizkion belaunak. Hiru bezero hitz eta pitz: herriak laster izango omen zuen martiri bat, Sanson Azpeitia koitadua, bonba batek zartatu omen baitzizkion gorputz-adar guztiak eta trenez ekarri berri zuten etxean hiltzera, ohorezko guardia eta guzti, Silvino buru.

Silvino. Bezeroak behingoz joan arte disimulatu zuen. Ezin ordaindu Joxepik maite zuen bizkotxoa, loreekin apaintzen zuten hura. Kremazko bollo xume bat enkargatu zuen, iluntzean jasotzeko, ea alardea oharkabean pasatzen zen.

Eguna joan zitzaion Joxeren berriak noiz etorriko. Txintik ere ez; ondo. Begori agindu zion Xerrasenera joateko. Bakarrik joateak beldurra eman eta lagundu

egin zion. Bueltan topatu ziren falangistekin. Ea nora zihoazen gauean. Ea zer zeramaten paperean bilduta.

Gracia guardia zibila zuten buru. Papera ireki zuen poliki-poliki, atzaparra kreman sartu eta ahora eraman. Bolloa lurrera bota, pareko ezkaratzera bultzatu eta lehenengo mailara igotzera behartu zituen. Bego negarrez, Irene lokomotora baten moduan pentsatzen: senarra tertzioan zegoela bota zien. Beasaingo Don Migel Garmendia. Don Cesar Mendoza. Don Meliton Pagola. Don Segismundo Gantxegi. Alferrik santu guztiak; etxekoandreak panorama ikusi eta izututa ihes egin zuen logelara seme-alaba txikiekin. Silvino iritsi eta faxistek algaraka hartu zuten, erotuta bezala, Bego eserarazi, Irenek bazterrean zutik begiratzen zuela, eta Graciak guraizeak atera zituen, erakutsi, hasi, tzak-tzak-tzak, motots argia lurrean, gari-eskukadak, zenbat aldiz orraztua zuen printzesaren adats zoragarri hura, ze pozik umetan hazten hasi zitzaionean, pentsatzea ere bere bizitzako minik handiena emango ziola Begori, Bego babesgabe gaixoari, eta Gracia hura gozatzen ari zen, izugarria zen haren gorroto gordina, zer egin zioten? tzak-tzak-tzak, iletxoak Begoren aurpegi bustian itsatsita, sorbaldak dardaran, baina ez zen badaezpada mugitzen, eta, halere, guraizeek bi-

rritan, hirutan, lautan marratu zioten azal zuria, lerro gorriak eta odol-tantak tarteka, eta larru-arras moztu ondoren bidali zituzten azkenean kalera, alabari buru soildua besarkatuz estaltzen ziola, etxeraka korrika, han gorde, gau osoa begirik bildu gabe eta lehenengo argiak salatu aurretik bazihoazen kamioan gora Elkanoko Etxeberriko esnezalearen atzetik, putzu jelatuak saihestuz, Joxepi ere mutu, Begoren negar isila besterik ez, txakurkumeen gisara, tipi-tapa borda txikiraino, borda edo etxola zaharra, abereentzat ere ez baitzen egokia, justu lasto pixka bat lurrean, eta bi alaba maiteak han gorde behar, auskalo noiz arte, behinik behin ihes egitea lortuko ahal zuen Joxek, bitartean haiek ezkutuan eutsi beharko, Jainkoa lagun, eutsi pixka batean basapiztia haiengandik urrun, zer gehiago egin ziezaieketen putaseme haiek, zer gehiago egin nahi zieten, nola zitekeen.

xexili

1

Azazkalak jaten hasi zen. Amonaren errietak gogoratu eta bizkarrean ezkutatu zituen eskuak. Inguruko neskek ez zuten ezer ikusi, eskerrak, denak ilaran konfesionariora begira. Gorputzeko pisua hanka batetik bestera aldatu eta berriro errepasatu zuen aitortu beharrekoa: asteartean txokolatea jan zuela eta pixka batean, oso gutxi, ibili zela dantza lotuan Marikutz lagunarekin, bezperan.

Hura aurretik egona zen; seguru dena bota ziola. Apaizak ederki estutzen zituen neska helduagoak, batik bat ederrak, baina Xexilirentzat ere, trago latza. Beti lotsagorritzen zen galdera haiekin: ea hau pentsatua zuen, ea bestea, ea hau egin... Ondotxo zekien hark zein zen beroa, zein hotza, zeinek ematen zuen, zeinek ez. Ahizpari kontatutakoaz, beraz, txintik ere ez, erabakita; bestela, agudo aterako zion dena, galleta ziztrin baten truke.

Zelatunen egin zuen bekatua, irailean igandero egiten ziren erromerietako batean. Asteasuko soinujole herrena jardun zen infernuko hauspoari eman eta

eman, neskak dantzan biraka, mutilak begira eta denak zeinek zeini noiz eskatuko. German ere hantxe zegoen, altuagoa, galaiagoa, dotoreagoa, zer ikusirik ez mutil baserritarrekin. Auskalo zer egiten zuen bera bezalako kaletar batek mendiko erromeria galdu hartan.

Marikutzek eman zuen pausoa: Xexiliri eskuetatik heldu eta lotuan hasi ziren. Harrigarria: ez zituen tximistak jo, soinujolea ez zen brausta geratu eta zurrumurrurik isilena ere ez zen aditu. Lauzpabost buelta eta laga, badaezpada ere. Pare bat mutil hurreratu zitzaizkien, eskua prest eskean luzatzeko. Xexilirengana, Ramiro Xantio: urduri, baldar, Germanen morroia ematen zuela. Atsegina izan arren, hain zen morenoa... Alde ederra Germanekin.

Neska trebe mugitu eta bizkarra eman zionean, Xantiok burumakur onartu zuen porrota. Marikutz, berriz, Zestoako luzearekin hasi zen dantzan; kuadrillakoen artean gorde zen Xexili eta German bilatu zuen begiradaz. Denbora pixka bat bazegoen, etorriko zen eta, *faborez*, eskatuko zion...

Elizatik zuzenean jo zuen etxera, txintxo-txintxo. Halere, ezinegona handiegia zen. Amonari esan zion pipak erostera joango zela, eta ez zen guztiz gezurra. Sei urteko Estik sekulako zalaparta atera zuen bera ere joan ahal izateko eta amonak, beti berdin, haren alde egin zuen:

– Eraman ezan ahizpa.

– Zergatik? Joatea bere lagunekin.

– Ondokoari lagundu beti, Jaungoikoak sarituko din eta.

Behinik behin, ez zuen ohiko “segituan igo” erantsi eta, ezkutuan, pezeta bat sartu zion patrikan.

– Tximilikuartera jolastuko? –kalean Estiri. Eta ozen hasi zen–: Bat, bi, hiru...

Umea korrika ezkutatzera abiatuta, mototsa konpondu, alkandora eskuaz lisatu eta gonatik tiratu zuen, pixka bat motz zeukala disimulatzeko. Txerrikalen aurrera egin zuen San Frantzisko kalean biratu arte. Hantxe German-eta, Valencianarenean. Belaunak ia tolestu zitzaizkion. Kasu egin gabe sartu zen dendara, hemen eta han pausatu, disimuluan betertzetik adi. Pipak ordaindu eta Ingalaterrako erreginaren moduan duin ateratzen ari zela, Esti ezagutu zuen

urrunean “pipak!” ero moduan oihuka, korrika batean eta lehoi-ileaz.

Eskua luzatu zion zorrotz; ahizpak frenatu eta hartu egin zion; eskerrak! Paketea eskaini zion; nahi izanez gero, denak jan zitzala.

Gauean, ohera sartu berritan, artean irauten zion erraietako pozak, ezinegonarekin nahasita. Ahizparen eskutxoa bilatu zuen manta azpian.

– Valencianarenean... ikusi al dun mutil altua? Gaur arratsaldean. Hori dun German. Atzo Zelatunen eskatu egin zidanan eta dantza egin geninan. Handiagotan, adiskideak izango gaitun.

Zoriontasuna sumatu zuen bularrean barrena zabalduz. Gezur zuritxo bat besterik ez zen, ezkontzean betiko desagertuko zena. Laster.

– Mutil fina ematen du –Estik, amona imitatuz.

Amets goxoa zen, inondik inora. Lo hartzeko, abentura bat imajinatu zuen. Sute bat. Salbatu dira etxeko guztiak, baina pelikuletan bezala sabaitik behera erori da habexka bat eta bera kateatuta geratu da, irten ezinik, garrak gero eta gertuago, harik eta German sartu den arte leiho batetik, bizitza arriskatuz.

Egunaren arabera, erreskatatu egiten zuen Germanek edo biak hiltzen ziren eta gorpuak mirariz to-

patzen zituzten biharamunean, suak ukitu ere egin gabe eta besarkatuta.

– Xexili... –Estik, xuxurlaka–. Esna zaude?

Ez zion erantzun, ea ahazten zitzaion.

– Xexili... ura.

Ezin ez entzunarena egin; hasperen egin zuen nekatuta. Manta energiaz baztertu eta lur hotzean jarri zituen oinak. Ateraino joan zen, isilik zabaldu. Esti ohean eserita ari zen itxaroten.

Ez zuen itxi. Nahiz eta pasilloko argia itzalita zegoen, geletako dirdirak itsutu zuen. Sukalderantz joan zen begiak ia itxita, eskuak aurretik. Egongelan, amona eta aita oihuka ari ziren. Berriro.

– Baina ez hion ezer esan? –amonak.

– Zer esan behar nion, ba? Ez daukagu frogarik.

– Haren izena. Froga handiagorik! Harena da, gutxienez erdia.

– Ez dago zer eginik –aitak, eztabaida ixteko erabiltzen zuen tonuaz.

– Ezetz? Mehatxatu, salatu, borrokatu... hirea duk! Makala haiz, gero... Ez duk Haundiyaren semea ematen. Zertarako utzi ditiat begiak? Itsu geratzeraino, alfer halakoa.

Xexilik hanka-puntetan jarraitu zuen sukalderaino. Bakarrik zegoen ama, geldi-geldi.

– Nik baino hobeto ikusten duzu, faborez –aitak.

– Ezgauza haizela, horixe ikusten diat.

Neskak ur baso bat seinalatu zuen; amak hartu eta betetzen hasi zen iturrian.

– Mendozarenak dira etxebizitza biak eta kitto.

– Bai zera! Beldurra ematen dik, ala? Don Segismundok oso maitea zuen Haundiya.

– Orain dela hogei urte.

– Berdin-berdin lagunduko dik.

Amak txorrota itxi, baina ez zen biratu. Burua makurtu zuen, indarrak batzen bezala.

– Haundiyaren memoria errespetatuko bahu, sikiera! –amonak–. Zuzen-zuzen joango zuan hura berea berreskuratzera.

– Ez dira gureak, hortxe dago koxka –aitak.

– Nola ezetz?

Ama harraskan bermatu zen. Sorbaldak dardaran zituen eta Xexiliri zulo bat egin zitzaion barruan.

Esti agertu zen, hanka-hutsik, kamisoi hutsean eta ile rubioa harrotuta. Xexilik basoa hartu zion amari. Ura bota gabe txikiari besoa sorbalden gainetik pasatu eta logelarantz bultzatu zuen emeki.

2

Ez zen liburuen artean ezkutatzen diren horietakoa; aukeran, nahiago amonaren ondoan geratu lanean. Hura gerra-garaian soldaduei uniformeak konpontzen hasi eta, esku trebeari esker, gerra bukatu aurretik pantalonera izatetik jostun izatera pasatu zen. Harro zegoen eta ez zen gutxiagorako. Irakatsi ere egiten zuen: lehenik errainari, etxean hartutakoan, eta geroago, hainbati. Arratsaldero, bizpahiru neska txintxo joaten zitzaizkion etxera; bazen Aizarnatik etorritakorik ere. Lanbide ondradua zen, eraman erraza. Gainera, jardun bitartean berriketarako aukera ematen zuen edo, behinik behin, txandaka otoitz egiteko, horixe baitzen amonarenean gehienetan egiten zena.

Xexilirentzat oztoporik ez: oso fededuna zen, eta arrosario santua errezatzean edo jakulatoriaren bat errepikatzean, ametsetan arintzen zitzaion burua, eskuak mekanikoki beren kabuz jarduten zirela. Ematen zuen bizitza osoa pasatu zela josten hasi zenetik. Zortzi urterekin, igande arratsalde batean eraman zuen amonak zeremoniatsu josteko gelara. Oihal koloretsu

bat hartu eta ertzak erakutsi zizkion, hari bertikalak eta hari horizontala, irazkiak eta bilbea. Azken horrek, nahiz eta besteak bezalakoa izan, denak ehuntzen omen zituen. Xexilik baietz erantzun zuen buruaz, kontzentratuta; amona zerbait garrantzitsua esaten ari zitzaion eta, ulertu ez arren, ez zion huts egin nahi.

Asteetan, gogor jarraitu zuen lanean, harik eta akademiako nesken maila gainera iritsi zen arte. Orduan sartu zuen amonak besteekin batera, eta geroztik bere eskuineko eskua izan zen.

Berari aitortu zion emakumeen zera berandutzen ari zitzaiola. Amonak serio begiratu zion:

– Portu aldera joan al haiz iluntzean?

Galdera espero izanagatik ere, ez zen samurragoa izan erantzutea. Burua makurtu zuen, aurreneko malkoak ihesi.

– Haragiaren bekatua egin al dun? –amonak besotik heldu eta goitik behera astindu zuen–: Erantzun, neska.

Masailak kiskaltzen, baietz onartu zuen, Ramiro Xantiori eman ziola. Ezin jakin amona zerk gogaitu zuen gehiago: bekatuak edo bekatukideak. Xexili negar-zotinka hasi zen; zikin halakoa, lizunkeriatan

ibiltzea ere... Barrutik irudikatu zuen lizuna, berdexka eta iletsua. Botalarria eragin zion.

– Utzi negar egiteari; Santa Luziaren babespean gauden eta Santa Luzia egunean hasten dun eguna luzatzen.

Tinko lotuta gidatu zuen amonak kaletik, bailararen magalerantz, Xantio baserria helburu. Lehor-lehorra zegoen kamioko lurra, arrakalatuta; udarako eguzkiak bete-betean jotzen zuen. Sabai zaharra bide-buruan ikusgai zegoela ireki zuen ahoa behingoz amonak:

– Eutsi goiari. Hemezortzi urte dauzkan; Jaungoikoak harresi guztietan zabaltzen din atea.

Arnasestuka ari zela disimulatzeko, mututu egin zen atariraino. Ahoa okertuta behatu zuen baserri zaharra. Kate-txakurrak zaunka, ahotsa altxatu behar izan zuen:

– Xantio!

Parez pare zegoen zabalik egurrezko atearen goiko orria, behekoa maratilaz itxita. Ixabel etxekoandrea irten zen, eguneroko bata soinean eta musugorrituta, atzean behien silueta handiak zituela. Ileko hariren bat grisa, mototsa txukun eta estu zeraman.

– Etxeko jauna? –amonak.

Ixabelek zorrotz begiratu eta aldamenerantz egin zuen oihu:

– Teofilo! Hator agudo!

Mutu itxaron zuten bi emakumeek, oilarren moduan elkarri behatuz eta Xexilik satorrekin gorde nahi zuela. Etxeko jauna berehala etorri zen atzealdetik, berrogei edo berrogeita hamar urte, pañelua buruan. Kendu eta izerdia lehortu zuen patxadaz. Maratila goratu zuen beheko orria bultzatzeko. Besoak gurutzatu zituenean, arreba haren atzean kokatu zen, serio hura ere.

– Esan.

– Hitz egin behar diagu.

Aurpegia atzera ere lehortu eta amona aztertu zuen:

– Goazeman barrura.

Brigidak lasaiago erantzun zuen baietz buruaz. Sukaldera igotzeko, ukuilu hotza zeharkatu behar izan zuten, behi axolagabeak ezker eta eskuin. Simaurra. Baserri handia zen, garai hobean etxekoez gain hiruzpalau morroi izandakoa. Haritzezko altzariek ematen zuten orduko berri.

Esertzeko eskaintzarik ez, etxeko jaunak paretari bizkarra emanez antxumatu zituen berriro besoak.

Amonak ez zuen ingurua kuxkuxeatzeko hanka-sartzea egin.

– Zuen mutilak sabela bete ziok –Xexili seinalatuz.

– Seguru hago?

Xexilik ezin burua kokots azpian sakonago lurperatu. Amonak ez zuen erantzun; Teofiloren sudurreko arnas hotsa besterik ez zen aditzen.

– Egin beharrekoa egingo dun.

– Lehenbailehen komeni; garaiz gaudek oraindik.

– Garaiz? –Ixabelek. Emakume handia zen, anaia bezain altua. Aurpegia, ordea, txikiegia zuen, seguru asko gaztetan atsegina. Parrokiara goitik behera lutoz joaten zen, baina behin ere ez meza nagusitan.

– Zazpikia izateko –amonak, gogaituta.

Teofilok baietz.

Ramiro Xantiori aurpegia izoztu zitzaion bisita ikustean, eta sukaldeko atea gainditu zuen ezbaian. Hemeretzi urte zeuzkan; Xexiliri, ordea, inoiz baino gazteagoa iruditu zitzaion, osaba-izebaren aldean baxua, argala, iluna.

– Bagaude denak –Teofilok.

Lau hilabete lehenago hurreratua zen Xexili lehen aldiz Xantiorenera. Ramirok abisatu zion haien aurreneko urtemuga zela-eta, San Jose egunerako opari berezia zeukala. Neskak hamaika gauza irudikatu zituen; behin ere ez mutilak igandetako trajez eta elizarako ondo orraztuta osaba eta izeba ezagutzera eramango zuenik. Aurreneko hartan isil samarrak iruditu zitzaizkion, onberak.

Teofilok ia hasieran galdetu zion ea norena zen. Xexili gogotik ari zitzaion mingainari eusten, tuntunak hitzontzi hutsak direlako.

– Manuel Palaciorena –eta, ahal bezain fin–: Haundiya zenaren semea –esperantza zuen Teofilok galduta egingo zuela keinuren bat eta Xexilik harro gehitu beharko zuen inoiz huts egiten ez zuen oharra: plantxadorarenekoa.

– Ze esaten duzu, Joxe Bizkiaren alaba gaztearekin ezkondutakoa?

Joxe Bizkia? Joxe Larrañaga zen amaren aldeko aitona. Anaia bizkirik ba al zuen?

– Hau duk hau tema hirea –Ixabelek. Eta Xexiliri–. Besterik ez du galdetzen, sinistea ere. Gehiago nahi al duzu, Cecilia?

– Etxean Xexili deitzen diote, izeba.

– Ondo duk; guretzat, orduan, hala izango zara.

“Joxe Bizkiaren alaba gaztearekin ezkondutakoa”. Ez zuen bizitzan ahaztuko. Bizkia. Eta gainera, aitona horrek gutxienez beste alaba bat ere izan zuen.

Xantiora ezkondu berritan, goiz batean Xexili gosaltzera sartu, eta Teofiloren bizkar handia aurkitu zuen sukaldean, ekonomikaren aurrean. Kafe-zopa beroaren usainak botalarria eraginda, ahoa estali behar izan zuen. Amonak eguzkia ateratzean egin ohi zuen kafea eta, esnezaleak ekarri bezain pronto, esnea berotu. Ixabelek, ordea, bezperako salda marroixka esne jetzi berriarekin nahasten zuen sutan jarri aurretik.

– Ondo? –Teofilok, kezkatuta. Maitekor eta goxo tratatzen zuen kaletarra, tripontzia kristalezkoa balu bezala.

– Bai, bai –pixka batean eseri zen flakia pasatu arte–. Goizero gertatzen zait –eta sabela laztandu zuen nahi gabe.

Teofilok talo-zati bat ahoratu, eta gosaltzen hasi zen mahaiaren beste aldean, txakurrek baino hots handiagoa ateratzen zuela.

– Nahi al duzu?

– Ez, geroago; eskerrik asko. Orain ezin dut.

Hainbeste “faborez” eta “eskerrik asko” zirela-eta, ezin saihestu finegi agertzea. Agian horregatik ez zion Ixabelek ezer egiten uzten; halere, amorrua ematen zion besteek pentsatzeak ez zuela kolpe zorririk jotzen.

Isilune deserosoa. Joxe Bizkia mahai bueltan ari zen flotatzen, kafesnearen lurrunean bueltaka. Teofilok eztarria garbitu eta ahoa lehortu zuen mahukaz:

– Zuk... zuk ba al dakizu ezer zuen aitonaz?

Xexilik ezetz, jakin-minetik beldurrera.

– Frankistek... –burua astinduz. Lotsatuta eta urduri, alde egin zuen.

Frankistek zer, ordea? Kuadrillan hiru bazeuden osaba edo lehengusuren bat gerratean galdu zutenak. Soldadu hilko ote zen aitona? Orduan, zergatik “frankistek” hura? Gorriekin joango ote zen? Horrelako familiak ere ezagutzen zituen; zama ikusezin bat zeramaten, baina inork ez zituen sekula santan plantxadorarenekoak seinalatu.

Jakin beharrekoa zekien, eskolan eta kalean ikasia: bi bando egon zirela, anaia anaiaren kontra jardun zela. Eta aitak etxetik ihes egin zuela Francoren alde borrokatzeko, San Inazio tertzioan. Urtean behin bes-

terik ez zuen aipatzen, Orioko Marrotarekin bazkaldu aurretik, hain zuzen. Amonaren aurrean nabarmentzen zuen harrotuta, konturatu gabe amari irabazitako desafio bakarrak ageriago uzten zituela galdutako beste guztiak.

Edonola ere, Marrotak salbatu omen zion bizitza, Zarautzen zaurituta zegoela. Frontean luze jardundakoak uxo-pasan bezala erortzen omen ziren, goiz edo berandu; Marrotak aholkatu zion sendatu bitartean txofertzan ikasteko, eta horrela bukatu ahal izan zuen gerra kamioi-gidari.

Egongelan, amonaren ezkontza-erretratu bat bazegoen, aitonaren beste bat, gazte-gazte mahukak bilduta harritzar bat leporatzen. Gurasoen ezkontzaz, berriz, ezer ere ez, gerra zela eta. Horixe jakin-minaren panazea: “gerra etorri zunan”, “gerra zegonan”, “gerran ezin”. Auskalo gerrak zer egin ote zion amari.

Ezkonduta ere, amonarenean josten jarraitu zuen, arratsaldero. Ederrak ziren lauzpabost orduak, mundua otoitzen marmarrera geldotuta, kontutxoren bat arin-arin eta amona, lasaitasunaren zaindari. Pandora-

ren kutxa irekita, ordea, josi eta josi, baina burutik ezin uxatu beste aitonarena.

Behin batean, aitak ohi baino lehenago bukatu zuen erronda lagunekin. Xantiorenera itzuli aurretik, hari muxua ematera joandakoan, Xexilik bakarrik topatu zuen egongelan. Seinalea.

– Aita, zer gertatu zen gerratean? –gizonari berehala tenkatu zitzaion irribarrea bibotetxoaren azpian–. Aitona Joxerekin –izenik ere ez zeukaten amaren aita aipatzeko.

– ¿Quién te ha dicho? –ezinegonez.

Zer axola zeinek esan zion? Aitak begirada jaitsi eta ezpainen ertz zurituak garbitu zituen, zerbait kontatzear zegoenean bezala. Damututa, keinu motza egin zuen buruaz:

– Gerra oso gaiztoa izan zunan... denentzat. Hobe bakean uztea.

Haserre gorde zen logelan.

3

Isiltasuna Xantioko sukaldean. Gaubeilan zeudela ematen zuen, goizeko ordu txikietan zeresana iraungi eta indarrak arrosarioari eusteko juxtu-juxtu iristen direnean bezala. Ai, Arantzazuko ama: Ramiro behingoz itzultzen bada, mila pezeta eramango dizkizut.

Agertu ez, ordea.

Bezperan, ohera sartu partez kaleko arropa jantzi zuen. Lehenengo aldia ez zenez, Xexilik galderaz sastatu eta, azkenean, onartu zion Narrosko jauregi gainean zabaldu nahi zuela ikurrin bat. Noiz eta haurra jaiotzear zela, burugabe halakoa.

Ixabelengana jo zuen Xexilik, Teofilorengana. Alferrik; sugeak limari hortzaka bezala. Ramiro joandakoan, sutondoaren aldamenean eseri zen, larri. Ixabel laster bildu zitzaion, gero Teofilo, eta gosea baino luzeagoa egin zitzaien gaua. Oilarrak jo aurretik irten ziren sorgorretik, sutondoa hauspotu. Hilerrian bezain isilik, hori bai, ez baitziren errezatzekoak etxe santu hartan. Lastima; hainbeste kontsolatuko zituen...

Teofilok eutsi ez eta, behiak jezteko aitzakian, sutondoan abandonatu zituen emakumeak. Berea zen errua, berak berotu baitzion burua Ramirori gizon-hitz handiez: aberria, askatasuna, demokrazia. Eta itsuak ikusi egin nahi. Nork kutsatu zion, bestela, Joseba Elosegirekiko miresmen ustela? Ramirok bere aitak berak egin izan balu bezala errepikatzen zuen Artzain Onaren katedraleko inozokeria, 75 metroko dorrean ikurrina zintzilikatu zuenekoa. Zertarako, ordea? Kartzelan bukatu zuen eta!

Istorioak. Trabajadoreetako lan behartuetatik bueltan, 1944an, sei urteko Ramirok ikusi omen zuen urrutian eskale argaldua, baldar zihoala kamioan gora. Ixabelek trapua behin eta berriro bihurrituz itxaron zuen atarian, iloba hanken atzean ezkutuan.

– Hementxe gauden.

– Ongi etorri zure etxera, Teofilo.

Arrebaren formaltasunak pitzatu zion poza gizonari:

– Aita?

Ixabelek ezetz egin zuen buruaz:

– Hogeita hamazazpian.

– Eta hire gizona?

– Baita. 41ean, harri koskorrak egosi behar izan genituen jateko.

Negarrez hasi zen Teofilo, haur txikien moduan aurpegia estutuz. Ixabelek trapua luzatu zion aurpegia lehor zezan.

– Luze iraun zinan 41ak, orduan. Eta hau, zein dinagu?

– Ramiro, senarra zenaren iloba. Umezurtz geratu zuan; orain etxekoa diagu.

Teofilok burua laztandu omen zion irribarrez. Ez zen makala izan Ixabelen lasaitua: Martin Aragonesaren seme-alabak ziren bai senarra, bai umearen ama. Kastillanoak.

Pare bat egun geroago errepikatu omen zen eszena: umea atarian eta Teofilo kamioan gora, baina orduan lau hankatan eta odoletan, kartzela edo trabajadoreetatik iritsi berrientzako aparteko saria kobratuta. Behin ere ez zituen argitu jipoitu zutenen izenak, herrikoak ziren arren. Edo, agian, herrikoak zirelako. Urteetan ez zen kalera itzuli.

Gauza jakina zen bekatu ilun batek zikintzen zuela Ramiro; herrian ez zioten alferrik *mojakumia* esaten.

Nobiotan deskubritu zuen Xexilik irainak gezurra zuela oinarri, Martin Aragonesak alaba haurdun zegoela sartu omen zuelako komentura, ez lehenago. Eta, egia izanda ere, ze erru Ramirok?

Nerabezaroaren gaiztakeriarekin, *mojakumia* gero eta sarriagotan aditu behar izan zuen gizajoak, bestela Herrero abizena edo Aragonesa. Kaletik zeharo kopetilun itzuli zen batean, Teofilok eskutik tiraka igo zuen baserri atzeko muinotxora. Xantioreneko mugarri guztiak seinalatu eta sorbaldak estutuz izendatu zuen maiorazko, abizenak abizen, Ramiro Xantio.

Astebetera, eskolara iristean, *mojakumia* ozen batez agurtu zuen gelakide batek, merituak biltzeko gogoz. Ramirok entzungor egin eta, hurrengo aukeran, makila potolo bat puskatu zion bizkarrean.

Argi eta garbi, handik zetorkion erokeria, umeaz erditzeko hilabetea falta ez zuela. Parez pare zeukan Ixabel, biak oilarraren kukurrukuen zain eta hizketagairik ez izateagatik deseroso. Berez, emakume alaia zen: kantari ematen zuen eguna, hasi kopla zaharretatik eta bukatu *Angelitos negros*-ekin. Langile nekaezina, etengabe ekarri ohi zituen mundu honetatik joandakoak gogora, batik bat Pello Xantio aita eta Ramon Herrero senarra, esaldi gehienak haiei aipu eginez bu-

rutzen zituela: “gure aitak zioenez”, “gure Ramoni ikaragarri gustatzen zitzaion”... Aditzearen aditzez, ematen zuen atetik sartzear zeudela.

Xexili pozik ezkondu zen Xantiorenera. Ez zuen inondik inora espero Ixabelek horrelako begirasun sutsuak egingo zizkionik edozein aitzakiarekin. Egiteko eta egoteko modu bereziak zeuzkaten baserrian, ñabardurak, keinu sotilak; ezin behin ere asmatu. Hitz txarrik ez: begirasun haiek, ahoa pixka bat okertuz... Zenbat negar ezkutuan, Jainkoak bakarrik zekien. Gainera, Ramirori kexatu zitzaion batean, izebaren alde egin zuen. Normala omen zen, etxeko martxa hartu arte. Hautsa kentzen ere uzten ez bazioten, nola arraio hartuko zuen, ba, martxa?

Han bizitzen hasi eta gutxira, paperezko mantel antzeko batzuk egin zituen, sukaldeko apalak dotoretzeko, brodatuak balira bezala. Ixabelek tutik ere ez. Azkenean, oihala erosi eta brodatu ere egin zituen, letrak eta zenbakiak batean, aberea bestean... politagorik!

Ekonomikan topatu zituen goiz batean.

Argitu zuen egunak, baina Ramiroren arrastorik ez. Lanean hasi zen Ixabel eta Xexilik ere alde egin behar izan zuen: majo damutu arren, bezperan hitzemana zion amonari goizean lagunduko ziola patroi bat kopiatzen, eta joan egin behar. Kalean, jakin-minez begiratzen zion jendeak. Ala ez? Ba al zekiten?

Amonarenean, kostata itxuratu zuen aurpegi ona. Amona lanpetuta zegoen, eskerrak, eta, behingoagatik, oharkabean pasatu zitzaion Xexiliren estura. Di-da batean bukatu eta bueltako bidea hartu zuen. Ramiro han egongo zen ordurako... egongo ahal zen! Komeriak negarrari eusteko.

Nuestra Señora de Aranzazu kalean tipi-tapa zihoala, don Segismundo Gantxegiren alabetako bat ikusi zuen. Cesar Mendozaren semearekin ezkondu berria zen gazteena. Beste alabei, hirukiak ematen zutenez, “Pagoetako hiru gurutzeak” deitzen zieten. Aitarekin bizi ziren, gazte-gaztetatik itxuraz eta izanaz neskazahartuta.

Alaba nagusia zen hura eta San Antonioren kutxa zekarren besoetan, mimo handiz. Amonaren santu kuttuna zen, besteak beste galdutako gauzak bilatzen laguntzen ziolako. Behinola, Xexili artean ume, titarea aurkitu ez eta, josi ezinik, bost durokoa agindu zion

San Antoniori. Aitak topatu zuen egongelako armairuaren azpian eta Brigida pozak txoratzen eta otoizka hurreratu zen kutxara hitza betetzera, gero semeak paperezko bost durokoa fraideetara eraman zezan.

– Neronek ekarri dizut eta –aitak, serio hitz egiteko ausardiarik gabe.

– Baita zera ere! Herorrek? San Antoniok gidatu dik eskua.

Armairutxoan gordeta txandakatzen zuten santua etxez etxe; ate barruan zintzilikatuta zegoen jarraitu beharreko izen-zerrenda, paper batean idatzia. Gerratean ezabatu zuten Xantio, Ixabelen penarako.

– Buenos días nos dé Dios –goxo batez agurtu zuen Xexilik pasatzean, sabeltzarra dilin-dalan.

Bestea brausta gelditu eta bihotzak salto egin zion Xexiliri. Gorri-gorri bueltatu zen, barrabaskeriaren batean harrapatuta bezala.

Don Segismundoren hiru semeak gerrara joan eta haietako bat, Isidro, han hil zitzaion, kapitain edo auskalo ze graduazio altua zeukala. Denentzat izan zen krudela, denentzat.

– Tori, Cecilia, eraman baserrira. Eskumuinak amona Brigidari –eta kutxatxoa eskaini zion. Ondoren, Xerrasenera sartu zen, neska artean aho zabalik.

Beti berdin, pastelez lepo zegoen leihatila. Gabonetan, mazapanezko krokodilo erraldoi bat erakusteko ohitura zuten, bezeroek zatika eros zezaten. Gerraren ondoren, Venezuelan bizi ziren Basarriren bi anaia. Haietako nagusiak, Xegundok, krokodilo oso-osoa oparitu zion amari behin; ez zen gutxi komentatu! Venezuelan biziko ote zen amaren ahizpa?

Etxetik gertu, ia lurrera erori zitzaion San Antonioren kutxa Ramiro balantzaka aurkitzean: begi bat markatuta, ahotik odola zeriola eta hortz bat faltan, baina etxean.

4

Poz ikaragarria ekarri zien alabak, baina ez lasaitasuna. Denek zekiten zer egin, zer eman eta, haien begietan, Xexili neska koskor bat besterik ez zen, erditu izanagatik ere. Egiten zuena egiten zuela, bazirudien etengabe ari zela hanka sartzen. Kolikoak zirela, eztula, idorreria, negarra... Kaleko usain fina zerion eta kaletarrak ezjakin lepo-tente hutsak ziren.

Salbatzekotan, kaleak salbatuko zituen, ordea, baserriak nekez ematen baitzuen jateko lain. Hala, aitak lortu zion Ramirori don Segismundo Gantxegiren gomendioa, Alfan lanean has zedin. Hura poza Xexilirena! Harro bai harro hartu zuen aurreneko hilabete bukaeran sobre zuri potoloa. Makina bat arlote bazegoen tabernan edo jokoan jornala xahutzen zuena.

Ixabel astebetez ibili zen muturra okertuta, etxekoandre gazteak dirua manejatzea ez zelako normala. Muturrak mutur, bigarren sobrea ere berriro Xexiliri eta horrekin, legea. Bost axola baserriko martxaz ezer ez jakitea, behien beldur izatea eta inor baino azkarra-

go nekatzea artajorran. Xexilik erabakiko zuen noiz eta zertan gastatu jornal eder haiek.

Brigidarenean ere aldaketa ekarri zuen haurtxoak. Ia jaio zenetik, sehaskan izaten zuten akademiarako erabiltzen zen gelatxoan; ez zien hizketa-gai makala ematen! Eta, negar egiten zuenean, Xexili baino are arinago joaten zen amona Joxepi. Ikaragarri gustatzen zitzaion umea besoetan ibiltzea eta Brigidak ez ikusiarena egiten zuen. Ez ziren ondo moldatzen, bistan zen: Joxepi, intzan hau, Joxepi, intzan bestea, amonak agindu eta agindu, behin ere erantzunik jaso gabe, gelatik gelara haren atzetik isiltasuna berriketaz betetzen, seinalatzen, zuzentzen.

Arratsalde batean, komunera joateko aitzakian, beste arrosario bat hasi aurretik jaiki zen Xexili. Ama sukaldean zegoen, Olatz goxo-goxo kulunkatzen. Ahapeka ari zitzaion kantari, San Inazio martxa, baina testu bitxi asko batekin: *Iñaki / Jainkoak bialdua / Ludian izateko / Josuren gudarien burua*... Eta muxuka! Nolatan?

Xexili ez zegoen Olatzen jeloskor, baita zera ere! Ama jela baino hotzagoa zen, horixe, baita alabekin ere. Maitasuna sua bada, amarena aspaldi itzali zen. Hitz egiteko ere, maitatzeko adina arazo zituen: beti

mutu, begiak lurrean, mamuak bezain isila. Nahiz eta hutsunea amona Brigidak betetzen zuen, txikitan, lagunei inbidia zien Xexilik, haien amak hitzontzi eta muxuzaleak baitziren. Hazi ahala barruko jardina loratzean, are antzuago egin zitzaion amaren basamortua. Olatz txikiak aurkitua zuen oasia.

Arratsalde batean, Brigidarenera iritsi eta marmar batean topatu zuen amona bakarrik akademiako gelatxoan, aita ez zelako bazkaltzera joan. Ama, sukaldean; aurpegia argitu zitzaion biloba ikustean. Lana egiteari utzi gabe aditu zion Xexiliri goizean gertatua laburtzen, adi eta buru-keinu soilez erantzunez: pixoihala, titia, sukarra, kolikoak, anis pixka bat, negarra, pureak, arropatxoa...

Biak pasatzeko moduko atea ireki zien haurtxoak eta munduarekin bat sentitzen zen Xexili, heldu. Ixabelen begirasun txarren bat? Irribarre eta aurrera. Auzoko baserrikoentzat izenez Xantioreneko andre gaztea besterik ez zela? Seinale, txutxu-mutxuentzako arrazoirik ematen ez zuela.

Alfako sobreak gorabehera, Teofilo Xantioren izenean jarraitzen zuten kontu guztiek: zapatariarenean,

ardandegian... Ixabelek eramaten zuen txekera, nahiz eta gutxi joana zen eskolara. Zenbakiek, gainera, beldurra ematen zioten. Xexilik egiten zituen kontuak, Ixabeli birpasatzeko laga eta honek begiratu gabe itzultzen zizkion. Parra.

Ahizpak kezkatzen zuen pixka bat. Beste gizaldi batekoa zen; komunio handia ere ez zuen egin. Gainera, ez zuten Xexili bezain zorrotz hezi eta, hazi zenean, nabarmentzen hasi zitzaion okerra.

Atean giltza-hotsak eta aita sartu zen azkenean, sotilki ardo-kiratsa zeriola. Amonak goitik behera begiratu zuen, muturra luzatuta:

– Ez duk berotzea merezi –ekonomika paper batekin piztuz.

– Asturiasen greban jarri dira –aitak.

– Hori al diagu nahikoa aitzakia tabernan luzatzeko? Hobe huke lana aldatzea! Bizitza osoa langile ziztrin moduan... Bila ezak behingoz kategoriako posturen bat; alferregia haiz, ordea.

Sukaldetik atera zen Xexili. Ez zitzaion gustatzen nola jaisten zituen aitak begiak amonaren aurrean.

Asturiasen greba. Kolpetik ulertu zuen. Hilabeteak zeramatzan etxeko gizonak zelatatzen, baratzean jarduten zirenean eta goiko bordaraino hamaiketakoa

igotzen zienean. Politikaz ibiltzen ziren isilka hizketan. Egin beharra zegok. Honek ezin dik iraun. Sindikatuan esan omen ditek...

Sindikatuan sartua zen Ramiro, kalamidade halakoa. Ez ziren askoz gaiztoagoak baserria apustu eroetan galtzen zutenak. Eta Teofilok, hauspotu. Ez al zen nahikoa susto ikurrinarena? Zer zekiten, ba, Asturiasen Gipuzkoako miseriez? Hango arazoak, hangoek konpontzea.

Goiz hartan, Olatzen laugarren urtebetetzearen inguruko zerbait aipatu zionean, Ramirok kasu zipitzik ez. Urduri zegoen; egongo ez zen, ba! Gauean, ohean aurpegiratu zion, bila hurbildu zenean. Senarra mututu eta bizkarra emanda jarri zen lotara. Ez zen sindikatukoekin haserretuko!

Hiru egun geroago, iluntzean etxera Olatzekin eskutik eta kantari zetorrela, bi ilaratan zapalduta aurkitu zuen aldapatxoko belarra. Kotxe bat? Alaba besoetan hartu eta pausoa luzatu zuen. Guardia Zibilaren kotxea Xantio atarian. Bi trikornio, bi kapote eta, besoetatik gogor helduta, Ramiro, eskuak bizkarrean zeuzkala.

Nora zeramaten? Greba madarikatua... Esana zion ez sartzeko horrelako lokatzetan, burua ateratzen ha-

siak zirela, ez okertzeko. Ixabel garrasika irten eta borrokan hasi zen iloba askatzeko.

– Señora! –guardietako batek. Bultzada latz batez bota zuen lurrera.

Teofilok altxatu zuen, ahoa estututa. Ramiro kotxe atzealdera sartu zuten, kopetilun eta lotsatuta. Emazte eta alabari begiratzeko kemenik ez.

Etxeko guztiak negarrez, kotxeak atzera eta aurrera maniobratu zuen buelta emateko. Laster desagertu zen aldapan behera. Xexiliri beldurrak ez zion haserrerako lekurik utzi.

Berrogeita zortzi orduz eduki zuten preso Donostian, Manzanas izeneko bat nagusia zela. Hark konbentzitu omen zuen erokeriak behin betiko baztertzeko, eta gaitz erdi. Fabrikatik, ordea, bidali egin zuten. Ederra saria! Akabo sobreak, akabo esperantza. Bizitza osoan jarraitu beharko zuten estu eta larri, katetxakurrak baino lotuago Xantiora, baserri zaharra jetziz.

Hilabetez ere ez zion zentzu onak iraun Ramirori. Euskarazko eskolarena aditzean, hura bultzatzen sartu zen buru-belarri. Xexilik bazekien ez zela parte

oneko gauza; nola aitortuko zion amonari? Horixe bere kontzientzia: amona Brigidari kontatzea zaila eginez gero, gauza txarraren seinale.

Ezin, ordea, Ramiro konbentzitu: kontu horiek etxekoen artean erabakitzen zituzten eta Xexiliri ez zitzaion arrazoirik ateratzen, ez zuen esplikaziorik bilatzen asmatzen.

Halako batean, konspiratzaileak dirua biltzen hasi ziren; nor agertu zen prest orduan Gantxegi zaharrari zintzarria jartzeko? Ramiro heroia, Manuel Palacioren suhia izateak abantaila emango ziolakoan.

Mediku jaunari esker lortu zuen audientzia. Agureak isilik entzun zion, mehetuta eta frutaz kargatutako arbolaren moduan oker. Gero, egur noblean forratutako gelatzarra pauso zalantzatiz zeharkatu ondoren, kutxa txiki bat giltzaz ireki eta birritan kontatu zuen hogei duroko eskupekoa. Okinaren papurrak ere ez.

Frantziskotarrek gela bat utzi eta han jarri zituzten ume gaixoak. Nahiz eta alaba pare bat urte zaharragoa izan, Eskola Nazionaletatik atera zuen Ramirok, ordurako kantatzen ez zen ditxosozko *caralsola* sufri ez zezan. Horrela hasi zen ikastolan.

Maistrak jatorrak ziren, andereño Begoña eta andereño Josune; arrakastan ito ez zitezen, herriko andre batek eskaini zuen bere burua musu-truk laguntzeko, Miren Xales esaten zioten batek, eta hiruren artean gobernatzen zituzten haurrak.

Oso modu eskasean zegoen dena eta umeek ez zeukaten kartillarik, legez kanpo zeuden. Xexili beldurtuta bizi zen, egunen batean inspektorea azaldu eta lezioa euskaraz ematen harrapatuko ote zituen. Gainera, galdetuz gero, nola erantzungo zioten erdaraz, dena euskaraz ikasten bazuten?

Hori gutxi balitz, amona Brigidari kontatzeko ausardia bildu zuenean... haren kasketa! Umetan, hamaika aldiz itzulia omen zen etxera negarrez eta berobero, makina bat reglakada jasota gelan euskaraz egiteagatik. Eta aitak gerrikoa askatzen omen zuen burdinazko eraztun lotsagarriarekin itzuliz gero, baina, bestela, nola ikasi gaztelera? Munduan hanka bakarrean saltoka ibiltzera kondenatzen ari ziren ume gaixoa, euskara jasoko baitzuen etxean eta eskolan.

Uko egin zion ikastolarekin zerikusia izateari eta hilabeteak behar izan zituen errainari baimena emateko arratsalde batean umearen bila joan zedin. Joxepi pozez txoratzen zegoen; bostak hamar gutxitan kale-

ratu zen Xexilirekin eta ama-mordo bat topatu zituzten frantziskotarren aurreko plazatxoan hitz eta pitz. Atea ireki eta Miren Xales agertu zen irribarretsu, ume urduriek osatutako ilararen buruan, banan-banan agurtzen. Xexilik segituan bistaratu zuen alaba, besteak baino buru bat altuagoa eta printzesa-adats horia bistan. Estiren antza zuen, biak argiak, biak luzangak. Tira, Olatz luzea zen; Esti, handia.

Bat-batean, amak besotik heldu eta gainean zamatu zitzaion, belaunek huts eginda bezala. Miren Xalesek ere ustekabe galanta zuen, dardaran ia. Olatzi maitekor eutsita, barruratzeko keinua egin zien. Ama sartu bezain laster, besarkada estu batean lotu ziren, negarrez eta aieneka. Besoak zabaltzean, ama irribarretsu saiatu zen malko-isuria lehortzen.

– Ene! Ene! –andreak, bere pañeluarekin amari laguntzen–. Aditu ninan ezkondu hintzela eta, ikusi ez haudanez, kanpoan bizi hintzelakoan nengonan –Xexili aho bete hortz ikusita, irribarre egin zion–: Ez nekinan Joxepiren alaba hintzenik.

Xexilik baietz, ulertu gabe. Egunero ikusten zuten elkar Olatz ikastolan hasi zenetik.

– Hire amona Ireneren oso laguna nindunan –Joxepirengana itzuli zen–. Ikaragarri sentitzen dinat –ihes

egin zioten malkoek–. Juanita ahizpa eta biok Frantziara exiliatu gintunan, urteetan. Bueltan, lanak gure denda berriz irekitzen eta, ireki ondoren, ez zunan inortxo ere etorri. Hirea, baina, latzagoa izan zunan.

Eta beste besarkada batean bildu ziren.

Bigarren aldia zen amak negar egiten zuela, sentimenduren bat agertzen zuela.

Latzagoa izan zunan.

5

Ai, Esti, Esti. Hogei urte betetzerako, Xexilik ekarria zuen alaba eta hegan egina zen habiatik. Esti, ordea, bere mundu modernoan bizi zen: arropa, lagunak, hitz eta ohitura berriak. Aspaldi ez zen mezatara joaten, baina ezin konbentzitu: egoskorra zen, mandoa baino ere. Bizitzan arazo gutxi izaki, eta denei kontra egin behar? Karrera bukatu berritan bota zuen bonba atomikoa: udaran lan egin behar zuela. Gainera, itsu-itsuan esan zion aitari, aurretik eremua batere landu gabe; amonari laguntza eskatu izan balio, sikiera! Ezin gauzak horrela besterik gabe bota, baina hau ulertzea erraza zen Xexilirentzat, hogeita hamar urterekin bizitzako onenean baitzegoen, egiteko eta pentsatzeko.

– ¿En una fábrica con hombres? ¿La hija de Manuel Palacio? ¡Ni pensar!

– Zer behar daukan? –amonak–. Hik ikasi ahal izateko gastatu ditiat nik begiak.

Egia borobila. Maistra ikastearekin tematu zenean, amonak Zigordia kaleko ganbara saldu eta mahai gai-

nean ordenatu zituen billete-pilak, dominoaren fitxak bezala. Xexilik ez zuen amestu ere egin halakorik.

– Langileen egoera ezagutu nahi dut –Estik, harroputz.

– Langileen zer? –aitak–. ¿Estamos locos? ¡Una roja! –“gorri” baino irain gogorragorik ez zegoen bere ahoan. Altxatu eta kalera irten zen ateari danbatekoa emanda.

– Hori duk, ihes egin, txepel horrek –amonak, hortz artean. Pixka batean pentsatu eta goxoago jarraitu zuen–: Ea, ba: zertarako nahi dun lan egin? Kellerrenean edo Reinetarenean miseria bat pagatzen diten; gehiago emango dinat akademian hasten bahaiz.

– Zertarako ez, amona: zergatik! Eta ez dut Kellerrenean gitarrei sokak jartzen jardun nahi; gizonek egiten dutena egiteko gauza naiz eta...

Xexili salto batez tentetu zen.

– Ni banoa.

Amonak ez zion sekula santan errealik eskaini urteetan akademian lagundu arren.

Pielhoff fabrikan hasi zen Esti, zertan eta kamioiak deskargatzen, asto-lanean. Ez pentsa diruarekin

etxean laguntzea bururatu zitzaionik; seguru ordurako bazuela hurrengo erokeria buruan, baina udara erdira arte ez zuen bota. Txiripaz ez omen ziren Xantioraino iritsi aita eta amonaren builak.

Arratsaldean, irribarrez sartu zen Xexili Brigidarenera, amonaren azken ateraldia gogoan. Bezperan iritsi zen gizona ilargira eta hark, pixka bat hausnartu ondoren, sakrilegioa zela esan zuen, altuegi igoz gero, Jainkoa bera ikus zitekeelako. Okurritzea ere!

Sukaldean topatu zuen ama. Portzelanazko amonatxo bat zirudien, azal leuna eta batere zimurrik ez, baina keinua, janzkera eta airea, zaharrak.

– Parisa zoan hire ahizpa –beldurrez, ezinegonaz, eskuak elkarren kontra igurtziz.

Zerbait serio behar zuen amak hitz egiterako. Luisaren beste grazia bat? Estiren lagun mina zen. Umetatik, Luisak agindu eta Estik obeditu, Sabako erregina eta esklaboa. Nahiz eta fabrikarena Luisak proposatu, gero, kale. Baietz hura Parisa joan gabe geratu!

Bajatuta zegoen amona; garai bateko sasoiaz ez zen Esti ausartuko horraino iristera, ezta pentsatu ere.

Akademiaren gelatxoan topatu zuen. Ile luze esnezuria txirikorda batean lotuta zeraman, motots inguruan bilduta, Joxepiren modura, hark orrazten bai-

tzuen azkenaldian. Ematen zuen ondo moldatzen hasiak zirela.

Kostata erauzi zizkion informazio-adabakiak: Estiketa karrerako lagun bat omen zuten Parisen, Azpeitiko Ana zelako bat; hark hartuko zituen etxean eta hark lagunduko zien lantxoren bat topatzen, behintzat ikasten hasi bitartean. Munduko unibertsitaterik onena omen zegoen hirian; Filosofia y Letras ikasi behar zuten...

Ez zekiten ahizpa tratatzen. Kontra eginez, hauspo ematen zioten; hobe baietz esan eta, interesa galduta, mareak eramango zuen plan hura ere, umetan bezala. Orduan, ur-ertzean hasi eta hondarrezko gazteluak eraikitzen joaten zen, itsasoak eraso ahala beste bat gorago altxatzen, malekoiaren kontra bukatu arte. Ezetz Parisa joan.

Usteak erdia ustel: Ramirok eta Xexilik eraman behar izan zuten Hendaiaraino trena hartzera, Abendaño aldeko baserrikoei eskatutako *seiscientosean*, maletatzarra sokez sabaian lotuta maleteroan kabitzen ez zelako. Manuelek eta Brigidak azken unera arte espero izan zuten etxeko txikia ez zela debekua zeharkatzera ausartuko. Luisak atzera egin zuen, lehengo lepotik burua.

Gabonak hasteko astebete falta zela, etxerakoan topatu zuen Xexilik gizon bat astoaren ondoan zain, bide-ertzean. Elkanoko Etxeberri baserriko esnezalea zen.

– Barkatu –txapela erantzi zuen–. Gure aita hilzorian dago, eta esatera bidali nau –eztarria garbitu eta arnasa hartu zuen sakon–. Gure bordan hil zituzten Joxe Bizkia, andrea eta alaba –ahotsa ia isiltzeraino jaitsi zuen–. Karlistek. Su eman zioten bordari eta biharamunean gorpuak lurperatzeko agindu zieten gure aita eta osabari –arnasa bota zuen–. Esanda zegok.

Berriro baldar barkamena eskatu, eta ihes egin zuen bidean behera astoa xaxatuz, atzean Xexili aho zabalik utzita. Aitona eta amona eta izeba kendu zizkioten; autoerrukitik bilatu zituen malkoak. Lehenengo ziztada sabelean, ordea, geroago jaso zuen: Ramiro irudikatu zuen borda batean, Olatz eta bera. Eta soldaduak, haien aurpegi gogorrak, fusilak, altxatzeko keinua, hirurak horma baten aurrean ilaran, prest, destatu, sua! eta Xexili Olatz besarkatzen azken momentuan hura babesteko alferrik, zuloak bularrean eta haietatik odolarekin batera bizitza ihes egiten.

Minak makurtzera behartu zuen, enkarguetako poltsak lurrean uztera. Eta ama? Non zegoen gurasoak eta ahizpa hil zituztenean? Nola egingo ote zuen ihes?

Nola izan zen gai geroztik bizitzeko?

Ezin bikario jaunari aitortu. Kontuz sartu zen Xexili Xantion. Ez zegoen inor sukaldean. Hobe: etxeko gauzak zirenez, nahiago xantiotarrak, Ramiro barne, ez nahastea. Modu berezia zuten gerrako kontuak gogoratzeko: kokotsa harro jasota kontatzen zituzten irabazleen desmasia eta basakeriak, bukatzean mihia klaskatu. Duintasuna zen galtzaileen garaipena.

Ulertu, ederki ulertuko zuten, baina Xexiliri pudorea ematen zion familiaren tragedia hain agerian uzteak. Halere, zama banatu beharra zuen. Ez amarekin, jakina; zertarako bota gatza zaurietan? Eta ahizparekin? Nahi bai! Ederki ibiliko zen hura Paris aldean; ordura arte gutun eta telefono-dei bana, horraino bere herrimina, nahiz eta amonak aparatua propio jarri.

Bolada ona zeukaten Plantxadorarenean: aita behingoz beste lanpostu batera aurkeztu eta kapatazpostua lortu zuen Bombas Iturrenean. Marka da gero;

gutxien behar dutenei, loteria tokatu. Automobila ere erosi zuten, Seat 850 gorri bat, SS-89148 matrikula. San Tomas egunean joan ziren Hendaiaraino aita, ama eta amona, amona!, gehien-gehienez urtean bitan Donostiara autobusez joaten zena. Eta eskerrak Estik uko egin zion, bestela baietz Parisaino bila joan.

Igandean iritsi zen. Asteartera arte lagunak agurtzen okupatuta, mandatua bidali zion Xexiliri arratsaldean Olatzekin etortzeko, kasualitatez aitak eta amonak hileta batera joan behar zutenean. Gantxegi zaharrari, hilabetetan petxutik makal, bi egun lehenago elizakoak eman eta segituan hil zen.

Amona Brigidak ez zion amari hiletara laguntzeko aipamenik egin. Xexiliri galdetu bai, baina aise onartu zuen Olatzekin geratzeko aitzakia baldarra eta, horrela, hiru gizaldiek itxaron zioten Estiri isilean, lehenengoa lisatzen, bigarrena josten eta gazteena irakurtzen.

Plantxa ere berria, baporekoa, Frantzian enkargatua. Bapore-bafaden artean, Joxepi metodikoki ari zen zabaltzen senarraren alkandora bat mahai-gaineko manta zuria estali arte. Eskuekin luzatzen zituen zimurrak, erdialdetik bazterretara, poliki-poliki. Gero, plantxarekin zigilatu, kontuz tolestu eta ondoko aulkian pi-

latzen zuen txukun. Hori bai, pelikuletako robot horietako baten moduan, batere sentimendurik agertu gabe.

Brigida egonez gero, buruarekin onetsiko zuen, noizean behin zerbait atzera bota. Zeharo bitxia zen Brigidarenean Brigida gabe egotea. Esti hura baino lehen itzuliz gero, esan egingo zien. Bordakoa. Amari ere bai, jakin zezan alabak alde zituela.

Zirrara.

Irrati metaliko distiratsuaren ondoan zegoen Olatz; ederra aldea Xantioko tramankulu zaharrarekin. Nahiz eta *Matilde, Perico y Periquín* pixka bat geroago hasiko zen, badaezpada ari zen zaintza egiten, burua liburuan sartuta, *Guillermo el travieso* edo antzekoren bat. Etxe-zulo hutsa zen.

– Etorri hona –Xexilik alabari.

Neskatxoa txintxo-txintxo altxatu, soinekoa pazientziaz erantzi eta ama eusten ari zitzaiona probatu zuen, orratzekin ez ziztatzeko tentuz. Kuleroa eta barruko kamiseta zuri-zuriak zeuzkan, petatxurik gabe, behar den bezala. Amonak beti esaten zuen horrela irten beharra zegoela kalera, istripuren bat gerta zitekeela inoiz eta, medikuarenera eramanez gero, hark ikus zezan familia garbi eta txukun batekoa zela.

Non arraio zegoen Esti? Amak orratz bat mugitu zuen besapea estutzeko; bista ona zeukan. Hori bai, behin betiko epaia matriarkari zegokion.

Herriko dotoreena zen alaba. Urteberrian eta San Antonio egunean arratsalde bat ematen zuten Donostian, umeentzako dendetan kuxkuxean. Gustuko bi gauza aukeratu, Joxepik eta Brigidak ondo aztertu eta, patroia begiz aterata, josi egiten zizkioten, Xexiliri errazena bukatzeko utzita. Alaba probatzen ari zena Xexiliren oparia izango zen Erregetan; urtero bezala, baietz amonarena gehiago gustatu.

Giltza-hotsa sarrailan, azkenean.

– Han, han, han... –Xexilik. Eta alabari atea kokotsaz erakutsiz–: Hortxe duzu izeba.

Pasilloan urrats astunak, berehala agertu zen Esti sukaldean. Hango muxu-zaparrada eta hango poza! Iloba airean beso batekin eutsita, beste eskuarekin poltsa modernoan bilatu eta paper gorri bizian bildutako fardeltxo bat atera zuen. Olatz irribarrez irristatu zen lurrera, lotsagabe oparia eskutik kentzera.

– Koaderno bat! –miretsita azal gogor eta koloretsua laztantzen.

– Hemendik aurrera, zeu izango zara idazlea, maitea –izarrez apaindutako boligrafo potoloa eskainiz.

Txikitan, ilobari ipuin bat idatzi, marrazki borobilekin osatu eta Teofilok moztutako bi xafla finekin bilduz bihurtu zuten liburu. Berez, horrelako bat egitekoa zen hilero, baina Esti, Esti zen. Halere, Olatzek, koskortuta ere, beti mantendu zuen gelako apaltxoan, garaian garaikoekin batera.

Aldatuta zetorren Esti. Janzkera, hasteko: berokia, puntuzko rebeka marroia eta belaunak erakusten zituen krema koloreko gona ez zituen etxetik eraman. Ezta makillajea ere. Edo eskuetako bitxiak, ezkerreko eskuan harri gorrixka eta eskuinean berdexka.

Hitz eta pitz hasi zen, ahoak irekiarazteko gogoz: Paris zoragarria gora eta behera, ze ondo zegoen, zenbat lagun, ze polita zen bizitzeko alokairuan hartutako gela edo *xanbrea*... Zoriontasun gehiegi gauza onerako. Hamaika galdera pilatu zitzaizkion Xexiliri: zergatik ez zuen aipatzen karrerako laguna omen zen Azpeitiko Ana hura? Eta Filosofiako ikasketak?

Ahotsak etxeko eskaileretan gora. Bazetozen, eta bordakoa kontatu gabe... Noiz izango zuten horrelako beste aukera bat? Eskapada ederra, halere; trago mingotsegia zen pasatu beharrekoa.

Hotsek gorantz jarraitu zuten: auzokoak. Seinale bat. Edo ez? Berriro irekitzen diren zauriak erraz gaiz-

totzen dira. Lagunduko ote zion amari ezertan? Horrela jarraitzea izango zen onena. Agian.

– Gauza bat kontatu behar dizuet –nahi gabe hasi zen–. Aurreko batean, Etxeberriko esnezalea etorri zitzaidan, Elkanokoa –amari begiratu ezinik–. Haien borda batean gorde omen ziren aitona-eta. Joxe Bizkia –amona eta izebaren izena ere kendu zizkieten–. Soldaduek... zeratu egin zituzten. Orain arte ez omen dira ausartu kontatzera, baina aita larri dutenez...

Isiltasuna. Ama estatua bat zen.

– Basoerdirenekoan koaderno bat omen dago apal batean –Estik–. Amonarena da, gau hartan lapurtua.

Xexili txundituta: noiztik zekien? Zergatik ez zuen lehenago esan? Eta, orduan bai, giltza-hotsa aditu zuten aurrekoa baino ozenagoa. Aita eta amona Brigidaren pausoak, pasilloko kraskak.

– ¿Qué hacen todas mis flores reunidas? –Manuelek. Bilobari muxu ematerakoan igarri zuen ez zela giro.

– Donostiako obispoa ere etorri da –Brigidak–, Monseñor Argaya, hori meza ederra! Primerisimakoa. Alkateak elizan bertan izendatu du seme predilekto. Parrokia txiki geratu da, jendea kabitu ezinik.

– Ba, gaiztoa zen kab... –Estik, jarraipena isilduz.

– Ze esaten dun? –Brigidak–. Don Segismundok oso maite zinan gure Ramon, Haundiya izan aurretik ere. Haren hileta ordaindu zinan eta, kale gorrian geundenean, beste inork behatzik mugitu ez zuenean, lana bilatu zionan hire aitari.

– Bai, eta lau alabetatik hiru etxean atxilotu ditu bera zaintzeko –Estik–. Jendea beldurragatik joan da, ea zeharo hil den baieztatzera. Benetan uste al duzue ahaztuta dagoela gerra ondoren berak idazten zituela fusilatu behar zirenen zerrendak?

– Baina hik zer ikasi dun kanpoan –Brigidak.

– Ez duzu ezer ere entenditzen –aitak–, ezer ere ez.

– Aleluia! Bazen garaia alabei euskaraz egiteko... Ez dugu orain arte merezi izan, ala? Ez jarri aurpegi hori, ondotxo dakizu zertaz ari naizen. Eta, egiak esaten jarrita, noiz aldatu zenuen apellidua Jauregitik Palaciora? Haundiyak jakingo balu... –amona Brigida mutu geratu zen bizitzan lehen aldiz–. Ba, jakin zuzendu egingo dudala; laster izango naiz Estibaliz Jauregi Larrañaga... eta Larrañaga Jauregi beharko luke.

Xexilik amari eta gero aitari begiratu zien. Dardaran altxatu zen, Olatzi tiraka.

– Emaiezu muxu bat, bagoaz eta.

6

Presaka itzuli zen Esti Parisera, ia ihesi; Paradisuan ere lan egin behar, nonbait. Gabon gazi-gozoak izan ziren: amona Brigidari adituta, ematen zuen Jesusi bakarrik dedikatzeko egunak zirela, elizan sartuta goizetik gauera; aita inoiz baino beranduago etxeratzen zen eta ama, bordakoa entzun ondoren, are gehiago gotortu zen mututasunean. Ederra familia-giroa!

Halere, pena ikaragarria ematen zion Xexiliri Gabon Zaharra Xantion pasatu behar izateak. Txakurrak hanka-hutsik han ere: senide gutxi izateaz gain, nabarmen geratzen zen haien miseria, Ixabelek ez baitzuen festarako zentimorik gastatu nahi.

Hori bai, behingoagatik opari ederra: haurdun zegoen. Olatzena ia konturatu gabe gertatu ondoren, berriro ere asmatzen... zenbat lan!

Estik ez zion berri onaren gutunari erantzun. Apirilean, “Paris, France” zioen postal bat bidali zuen Olatzen hamabigarren urtebetetzerako, ia hiru aste berandu bidali ere. Eta San Pelaio bezperan deitu zuen iluntzean, dena zoragarri, dena bikain. Ixabelek,

agian, arrazoi: gehiegi estudiatutakoa zen, eta ezin kabitu herrian. Xexiliri, ordea, amorrua ematen zion onartzeak.

Nahiz eta haurdunaldia Olatzena baino lasaiago joan, gozatzerik ez. Alaba bakarrarekin estu samar bizi baziren, nola moldatu bi aurrera eramateko? Ramiro konbentzitu zuen: hurrengo ikasturtean, ikastolatik aterako zuten Olatz. Kondenatuta zegoen, jarraitzen bazuen bera baino bi urte gazteago ziren umeekin. Halere, eskola nazionalak ez ziren hobeak; azkarra zen Olatz eta Estik izandako aukera berdinak eman nahi zizkion, beldurra eman arren. Ez, Olatzek ez zuen ama abandonatuko.

Plan bat abiatu zuen. Ezkonberritako neskatxo inozente hura ikasita zegoen, indartuta, bere lekuaren jabe zen. Triste bezala aipatu zion amona Brigidari umea eskola nazionaletara aldatuko zutela, herriko astakilo guztiekin, eta hark amua barruraino irentsi: bilobak Santa Anako mojekin estudiatuko zuen, bere kontu.

Kontzientzia txarrik ez: zertarako nahi zuen hainbeste diru? Argindarraren sukarraz xahutzeko? Xantiorenean, freskera zeukaten alde laiotzeko leiho batean jarrita. Aitak-eta, berriz, egongelako muebleak berritu

ondoren, bigarren frigorifiko bat erosi zuten, lehenengoak ez zuelako nahi adina hozten. Eta telebista: Victor Pradera kaleko lehena omen zen eta etxepeko guztiak igotzen ziren ikustera. Amona Brigida harroagorik!

Neska batez erdituko zen, seguru. Izena ere, prest: Idoia. Ixabelek, berriz, mutila izan behar zuela, mutila behar zutela, mutila nahi. Xexilik ezin ulertu: ederki moldatzen zen Olatzekin, ba! Zorrotz tratatzen zuen eta, aldi berean, izugarri maitekor, intimitate bereziz. Inbidia ematen zuen biak sukaldean topatzeak, Olatz ahoa zabal-zabalik Ixabelek bere istorioetako bat kontatu bitartean. Haren arbaso baten pasadizoak izan ohi ziren, Pernando Amezketarraren moduko bat baina emakumezkoa, Miren Xantio.

Xexili erditze-minez hasi zenean, Ramirok aldeko baserrian kotxea eskatu eta ospitalera eraman zuen. San Miguel eguna zen. Mutila. Mikel.

Itzultzean, negarrez hartu zituen Ixabelek, harroharro. Txekera entregatu eta muxu eman zion Xexiliri.

Seguru asko, aspalditik zetorren amarena, baina ez zioten garrantzirik eman. Despisteak, baldarkeriak,

izenak nahastea, gauzak ahaztea. Lehenengo seinale argia, umearena. Olatz mojetan zegoela, akademiako neskak iritsi baino bost minutu lehenago eta amona Brigida dena arineketan prestatzen ari zela, Joxepi gela erdian geratu zen harrituta. Xexili esku-hutsik ikusita, lotsati egin zuen irribarre:

– Non zegon gure neska polita?

Kostata ulertu zion Xexilik Mikeltxoz ari zela. Disimulatzen saiatu zen, baina hantxe arranoa, talaiatik erresumako mugimendu guztiei adi.

– Zer esan din? Neskatxoa? Gure Mikel?

Joxepik alde batetik bestera mugitu zuen aurpegia, txolarre urduri bat.

Tximista baino azkarragoa izan zen gainbehera: burua arindu ahala, gorputza mantsotu zitzaion, ezertarako gauza ez zela geratzeraino. Hiruzpalau hilabetetan galdu zuen bere gisa ibiltzeko ahalmena. Medikuarenera eramatea, alferrik. Ez zen lehenengo amona burua galtzen zuena, baina hain gazte... Berrogeita hamar urte ere ez. Eta hain azkar.

Momentu batzuetan, argitu eta bere onera etortzen zen. Ingurura begiratzen zuen harrituta, eskuetara, ezagutuko ez balitu bezala.

– Zer dinat? –eta burua ukitzen zuen.

– Ezer ez, ama, zer izango duzu, ba? Pixka bat nekatuta zaude, horixe besterik ez da.

Gero, lasaitu eta berriro joaten zen, askotan haurtzaroko kantuak xuxurlatzen.

Halere, dena ez zen baketsua. Hirurak zeuden batean, atzetik hurreratu zitzaion amona Brigidari eta ostiko bat ematen saiatu zen. Gonak belauna frenatuta, besoak zabaldu behar izan zituen keinu komiko batean lurrera ez erortzeko.

Xexilik ezin zion amonari zama utzi; erraina gaixotu zenetik, hauskorragoa ematen zuen, zaharragoa, eta dardaran jartzen zen Joxepi “Bego!” marruka hasten zenean. Xantiora eraman zuten Gabonak pasatzeko aitzakian.

Ez zen telefonoz edo gutunez kontatzeko moduko gauza; etorri ondoren jarriko zuten Esti jakinaren gainean. Abenduaren hogeita hiruan hots egin zien esateko ezin izan zuela oporrik hartu eta zoritxarrez ez zuela etxera joaterik izango.

Ezer aipatu ez bazen ere, Xantion jarraitu zuen Joxepik. Bere ama balitz bezala zaintzen zuen Ixabelek: jantzi, jaten eman, garbitu, sutondoan epel-epel jarri, eguzkitara atera mantetan ondo bilduta. Eta amak, geroz eta gerra gutxiago. Ezin jakin ea ulertzen zuen;

erantzunik ez. Harekin eramango zituen sekretu guztiak. Pena guztiak.

Esan egin beharko zitzaion Estiri; gai zen, bestela, egunen batean aurpegiratzen hasteko. Pelikuletako bizitzan jarraitzen zuen, ordea, eta Sodomaraino joan behar kontatzera. Don Josemaria Astigarraga bikarioak ez zuen kutsatzeko arriskurik ikusi. Amarena esateaz gain, ahizpa salbatzeko balioko zuen bidaiak, salbatzerik egonez gero. Horrek eman zion indarra telefonoz hots egiteko, iragartzeko. Bidaiaz hausnartu izan balu, ez zen hurbiltzera ere ausartuko.

Jende mordo bat presaka eta emakumeak erretzen, horixe Paris santua. Eta modernoegi jantzita, nonahi azala eta belaunen basoa. Hango mugimendua! Kotxeak, kamioiak, autobusak, motorrak... Ausardia behar zen, gero, zirrikituetatik arriskatzeko. Semaforo batean geratu zen motor bat. Gidaria, gizonezkoa; atzean, emakume gazte bat hankak zabal-zabalik eta ia lotsak bistan.

Tren-geltokian jaso zuenetik, Estik zeraman paseoaren lema, isildu gabe, batik bat argazkietatik ezagutzen zuen Mikeltxori buruz. Urtebete pasatxo etxeratu

gabe; zertan ari zen, familiarenganako bat-bateko interesa asetzen?

Txartelak ateratzerakoan, Xexilik franko batzuk bazituela esan eta ordaintzearekin tematu zen. Estik protesta gutxi: prezioa esan eta gaiz beste egin zuen.

Zeharo aldatuta zegoen. Begiak pinturaz nabarmentzeak ondo egiten zion. Argalagoa eta altuagoa ematen zuen, beharbada beroki estuagatik. Berria zen hura ere, gorria eta izter erdirainokoa. Handik belaunetaraino, amildegia, hanka biluziak bota beltz luzeen gainetik. Eta, beroki azpian, are motzagoa zen minigona koadroduna.

– Hoztu egingo haiz, neska –hitzetik hortzera, nahiz eta bere buruari mila aldiz agindu ahoa ireki aurretik den-dena ondo pentsatuko zuela–. Ilea gustatzen zaidan.

Gezurra: flekilloa bekainetaraino zuzen moztua zuen, belarrietatik hiru behatz eskasetara. Zer esan behar zion, ordea? Ezezagun batekin zegoela iruditzen zitzaion, deseroso eta hizketa-gairik gabe. Marka zen, hainbeste esateko zegoenean.

Autobusean bukatu zitzaizkien hitzak; Esti kanpora begira. Ondo mugitzen zen hirian, hangoen moduan. Xexili lasai zegoen: baietz haren laneko hotele-

ra eraman eta, han, nagusiak gela txiki eta txukun bat utzi.

Koitadu halakoa! Kale gris batean jaitsi eta aldapan gora joan ziren ezkaratz zahartu baten parean geratu arte. Egurrezko atetzarra; gaztelu batentzako zen giltza handia. Kiratsa: gatzatutako esnea eta lizuna. Hotza. Estik arin-arin igo zituen eskailerak maleta besoetan, Xexili atzetik, erraietan korapilo bat.

Azken solairuan, ate ziztrin bat seinalatu zion: komuna. Pasilloan aurrera jarraitu zuten. Baldosek izkinak faltan, kuxidadea. Azken atea zen xanbre famosoa; komuna kanpoan, orduan?

Pipiaren zulatua baino handiagoa ez: ohea, mahaitxoa eta, horman sartutako barra batean, arropa zintzilik. Tabakoa airean. Mahaitxo gainean, kartoizko kutxa txiki batean, sei margarita ziztrin, seguru asko bezperan ekarriak. Alaitu beharrean, mina ematen zuten; gelako gabezia handitzen zuten lore hil haiek. Esti ere konturatu zen.

Non ote sukaldea? Eltzeen arrastorik ere ez. Bazterrak arinegi txukunduta, ohe azpikoetan arropa-korapiloak zeuden, hauts-bolak. Hura zen hura zuloa! Eta ez pentsa Esti poztu zenik paketea jasotzean: periodiko-paperetan bilduta, Xantioko txorizoa, solomoa

eta gazta. Behinik behin etxeko usain errealak gozotuko zuen gela.

Lotsatuta zegoen, ilun eta uzkur. Ederra aldea bi urte lehenagoko Gabonekin; hango aberastasuna eta hango erakusketa! Ahizpa han egoteak gogaitu egiten zuen.

Ohea konpartitu beharrean, Estik pijama jantzi eta manta bat zabaldu zuen lurrean, toalla bat burko.

– Lehertuta nago; egun osoa eman dut lanean.

Gogor eutsi behar izan zion Xexilik negarrari; biharamunean izango zuen barrenak husteko aukera.

Kafetegi batean gosaldu zuten, Xexiliren poltsikotik. Udaberriko egun zoragarria zen, neguko hotzean. Jarraian bildu zitzaien Ana, Azpeitiko hura. Harremanfalta nabarmena zuten; zenbat eta gehiago esan, orduan eta ageriago. Gainera, kaleetan barrena pasieran, berriketa besterik ez, zurikerietan. Haiek ere jabetu arren, isiltzea deserosoegia zitzaien.

Anarena ere ordaindu zuen Xexilik; ez zuten euskaldunak ematen: mutu onartu zuten biek, kortesiazko protesta xumerik ere egin gabe. Xexiliren kontura bapo bazkaldu ondoren, Anak erlojua disimulurik gabe begiratu eta, bat-batean berandututa, ospa egin zuen.

Justifikatzeko-edo, Estik kontatu zion Ana behartuta omen zegoela Parisen: senargaiak purgazioak kutsatu eta, medikuarenera joan ondoren, herrian zabaldu zen, seguru asko mediku jaunak berak kontatuta. Hanka egin behar izan zuen gaixoak.

Gaixoak, horixe baietz, aingerutxoak. Ba, batere penarik ez; mando bakoitzak bere zama. Haien familian ere, dozena bat elefante kargatzeko moduan zeuden. Lastima; ezin zuen besterik gabe amarena atera.

– Ana hori ez dun hire lagun-laguna, ezta?

Sudurretik bota zuen arnasa Estik, nekatuta.

– Nire lagunak ezagutu nahi? Goazen, ba.

Itxaron gabe abiatu zen. Hiru arlote eta *neskagaldu* batengana eraman zuen, neska bizi zen xanbrera. Estirena baino pixka bat handixeagoa zen; horretan ere, ahizpa ergelena. Mariluz delako hark ahizparen adina zuen, aingeru-aurpegia, bekaturako gorputza. *Marie* esaten zioten. Beharrik ez Esti bezain moderno janzteko: etorri egingo zitzaizkion gizasemeak eta koitadu hura txoratzen. Inozo halakoa: lorez lore xahutzen du indarra erle alferrak. Hor konpon; ahizparen bila joana zen, ez artzain-txakurrarena egitera.

Sebastian izeneko bat bazegoen, txilenoa, baina Orive abizenez; Raul bat, kastillanoa, eta Lopes dela-

ko portuges bat, haien antzera txikia eta beltza. Espainiako mugatik gertu jaio zenez, hizkeran andaluza ematen zuen.

Eta Esti, Esti ez izan arren: noiztik erretzen zuen? Hango zigarro-jana! Antsia batean, batzuk txandapasan eta gehienak behatz-koskorretaraino kiskali beharrean. Ahizpa probokatu nahian ari zen. Azeri zaharrak, ordea, zepo guztiak ezagun.

Laster trinkotu zen giroa. Azkura begi eta eztarrian, Xexilik pixka bat edan zuen ez zezaten arlotezat hartu. Txorizoa atera Estik, plater baten gainean moztu eta eskaini egin zien. Zorri alaenak: finezia guztiak ahaztuta, presaka sartu zuten eskua.

Begirada urduriak Estirengan, harik eta buruaz baietz egin zuen arte. Txilenoa eta Marie zigarroak biltzen hasi ziren barretxo txikiak eginez. Zer uste zuten, Xexilik ez zuela inor erretzen ikusi? Segituan zabaldu zen usaina: goxoegia, indartsua. Ze tabako...?

Pare bat zupada eta pasatu egin zituzten zigarroak. Bihotzak salto egin zion Xexiliri: eta berak ere erretzen bazuen? Ezin hain zaila izan; zupada bat besterik ez, etxekalte haiei muturrean emateko.

Iritsi zitzaion txanda. Nola hartu zigarroa? Haren erdia errautsa zen. Dardaran aurreratu zituen beha-

tzak, mantso ahora eramateko. Maria Jesusen ama, baina zertan ari zen? Eskua zakar baztertu eta erraustsa puskatu zen. Gona gainean erori zitzaion; zulo egingo zion! Oihu egin eta garbitzen hasi zen bi eskuekin, konturatu gabe artean eskuinean zeukala zigarroa... Hura barre-festa. Zirkuko pailazoa zeukaten eta debalde, gainera. Aurpegia gorri-gorri, zigarroa ondokoari eman eta begiak jaitsi zituen, umilduta.

Denak lurrean zeuden, Esti txilenoaren aldamenean eserita, ia bere gainean etzanda. Konfiantza gehiegi; senargaia? Zirrarak goizeko ur hotzaren moduan esnatu zuen Xexili: horregatik ez ote zen azkeneko Gabonetan etxera itzuli? Horregatik idazten zuen gero eta gutxiago, gero eta motzago?

Kastillanoa beste aldean: hark ere ukitzen zion hanka ahizpari, honen eta horren aitzakiarekin, batere lotsarik gabe, eta Estik lasai asko erantzun, pozik gainera.

Eztabaida bukaezinetan izen batzuk errepikatu zituzten behin eta berriro, tarteka euskaldunak: Cortazar, Guevara, Allende. Mago delako hark ahoan besterik ez: Allenderen justizia, Allenderen proiektuak, Allenderen borroka. Xexilik bazekien zerako presiden-

tea zela hura; Xantioraino ere iristen ziren periodikoak.

Zer ikusten zion Estik txorimalo hari? Belarra bezain eskasa zen, eta, gainera, zikina: galtza-barrenak mantxaz beteta, lauzpabost eguneko bizar soildua... Zer esango zuen amona Brigidak? Amak, behinik behin, ez zuen ezagutuko; gaitz erdi.

Haserre atera zen handik Esti, auskalo zergatik: ahizpak etxera eramateko eskatzeagatik, Parisa joan izanagatik... Takoi-hotsak espaloian, Xexili ia korrika haren atzetik, alaba txikia amari jarraitu ezinik.

– Ez dut zure epairik behar –Estik, bat-batean buelta emanda–. Naizena naiz eta nahi dudan moduan biziko naiz.

– Ukuilu batean?

– Zerorrek esatea ere! Behinik behin, hemen nahi dudana egin dezaket.

– Gauzak aldatzen hasi ditun herrian –Burgosko juizioarenak kanpoan pasatu zituen Estik, eta hobe: karretera jenerala mozten zuten egunak joan eta egunak etorri, herriko neska bat baitzegoen Burgosko atxilotuen artean, Arantza Arruti.

– Herrian... Euskal Herrian? Elosegi ero horrek bere buruari su eman ziolako Francoren aurrean?

Xexilik zirraraz irudikatu zuen Elosegiren emaztea sukaldean, afaria prestatu bitartean, irratiko esatariak senarraren berri ematen zuela: mantso, ofizialki, burlati ia. Ez zen makala izango koitadu haren estura: ordu luzeak ospitalean, poliziaren galdeketak eta bakardade latza esperoan, beti esperoan.

– Zer lortu zuen, ordea? –Estik–. Agure bat beldurtzea; Francok aspaldi ez du ezer ere pintatzen. Ohean hilko da, lasai asko.

Ibiltzeari ekin zion. Hobe gaia aldatzea, tentsioa baretzeko.

– Zer moduz unibertsitatean?

– Utzi egin dut –eta, Xexiliren ama-plantak gogaituta, erantsi zuen–: Ez duzu ulertzen, burges mordoa besterik ez dira eta...

– Zertan ari haiz hemen, orduan?

– Bizitzen, orain arte ez bezala –eta itzuli egin zen, sagu-zulorantz.

– Esti, ama... oso gaixorik zagon.

– Ez da inoiz oso sano egon –geratu eta aztertu egin zuen–. Hori esatera etorri zara? Esana dago, ba.

Harroputza... Gogor eutsi behar izan zion belarrondoko bat emateko tentazioari.

– Gauzak ahazten zitinan hasieran, izenak... Behin, enkarguak egitera irten eta ez zinan etxera bueltatzen asmatu. Buruko gaitza zaukan. Xantiorenera ekarri dinat zaintzeko, baina gero eta okerrago zegon. Dagoeneko ez din inor ezagutzen.

Estik ezpainak estutu zituen. Negar egiteko zorian al zegoen?

– Informazioa estimatzen dizut –eta kalean gora jarraitu zuen.

Informazioa estimatzen dizut, fabrikako nagusiak langileari bezala.

Biharamunean, lana zela-eta, goizaldean desagertu eta juxtu-juxtu itzuli zen geltokira eramateko, uzkur. Bagoi aurrean ere, hitz handirik ez. Besarkatu eta txilibitu-hotsarekin batera igo zen Xexili, malkoengatik itsu-mustuan. Elkarrekin itzuliko zirela sinestea ere...

Pasilloan, ahizpa bilatu zuen nasako figura lausoen artean. Alferrik; ez zen pelikula bat. Alde egina zen

presaka, Xexili eta haren mundua atzean uzteko. Berea ere bazen, ordea.

7

Goiz batean, amak uko egin zion ohetik jaikitzeari. Astebetean joan zen, bizi bezala, ondoan Xexili eta Ixabel zituela. Esti ez zen hiletara ere iritsi; biharamunean azaldu zen negarrez, sei maleta aldean. Ura pasa eta gero, presa egin.

Bueltan hasi ziren komeriak: printzesa triste zegoen magiaren erresumatik bidali zutelako. Printzesak ez zuen lan eskean ibili nahi. Printzesak nahiago zuen herriko edozein gauzatan lan egin Donostiako eskoletan baino. Printzesa aspertu egiten zen. Printzesa desesperatu egiten zen. Printzesak ez zion ahizpari barkamenik eskatu ama zaintzen bakarrik uzteagatik.

Halere, arkumea beti seme prodigoaren omenez sakrifikatu. Don Josemaria Astigarragarekin jardun zen hortaz luze Xexili, alferrik. Jeloskeriak itsutzen omen zuen; zeren jeloskeriak, ordea? Ez zen justua, eta kitto. Elizako doktore guztiek ez zuten konbentzituko: alaba prodigoaren aitak ez zuen alaba zintzoarekin gizalegez jokatu.

Brigidak obratu zuen miraria: Estiren tituluak pregoilarien moduan lau haizetara ereinez, azkenean ernaldu zen aukera. Ikastola gero eta handiagoa, irakasle berriak kontratatzen hasiak ziren. Haietako bat luzerako gaixotu zenean, galdezka joan zitzaizkion Estiri, ea txikiei eskolak emateko prest egongo ote zen. Bat-batean, amona harro bai harro: Olatz ikastolan hasi zenean astoarenak bota ondoren, Espainia osoan ez omen zegoen kolegio hoberik.

Baina, pobrearen poza... Amona sinetsita zegoen lanean hasteak Parisko erokeria guztiak sendatuko zituela. Inozenteagorik! Astebetean pasatu zen Esti etxean gotortzetik etxera ez sartzera. Lana, bilerak... Eta lagun horiek? Herriko bihurrienak ziren, Luisa haien aldean santu bihurtzeraino: kontzentrazioa hemen, manifestazioa han, parranda hemen, festa han. Eta amona gaixoa, tripak jaten.

Santu Guztien bezperan, abisatu gabe azaldu zen Esti Xantion, auskalo nork eramanda kotxez. Etxean bezala, ukuilua zeharkatu zuen sukaldera igotzeko. Bost axola Olatz eta Ixabel ere hantxe egotea; lasai asko bota zion Xexiliri:

– Amonak galdetuz gero, hemen geratu naun lotan, bale? –denen aurrean egin zion hikaz, nahiz eta

jakin ahizpa oso urduri jartzen zela bere moda berri harekin. Muxuak erruz partitu ondoren, lagunen kotxera itzuli zen.

Nora joan ote zen? Zertara? Broma gutxi brigada politiko-sozialarekin. Burgosko juizioarenak Parisen pasatu zituen; ez zeukan ideiarik Polizia nola ari zen, Ramiroren garaietan baino are gogorrago. Gau batzuetan, Etxe Zabalako kuartelean atxilotutakoen oihuak eta marruak aditzen omen ziren kaletik. Eta hori Zarautzen bertan.

Amak zerutik bidalitako oparia izan zen bi egun geroago berarekin topo egitea gaueko mezatatik irten berritan. Estiren muxu eta poza eskuaz frenatu zituen:

– Egon al hintzen Larraitzeko akelarrean? –haserre biblikoz.

– Enteratu haiz –ustekabez harrapatuta, baina ez damuz–. Non aditu dun?

– Sermoian aipatu din Don Josemariak, pentsa.

– Nire izena?

– Izenik ez, eskerrak. Txindokiren magalean jendetza bildu zinetela eta Ez Dok Amairuko gazte horiek kontzertua jo zutela...

– Haietako batzuek.

– Bost axola! Eta gero... zerak –baxuago–: orgiak.

Karkaila sakon batek ihes egin zion Estiri:

– Txorakeria galanta! Zer uste dun naizela?

– *Amodio librea* ahotik kentzen ez dunanez...

– Ederra zegonan gaua amodio librea praktikatzeko.

– Ez zaidan batere gustatzen gezurretan aritzea eta oraindik gutxiago hire abenturak estaltzeko.

– Ez zakinat amonak nola sinistu zinan ere, Santu Guztien bezperan eta urte erdia ez ama joan zitzaigunetik...

– Ez huen ezer ere egin behar; galdetuz gero, baietz esatea, horixe besterik ez.

– Ba al dakin ze gau pasatu ninan hi han hengoela? Ez hidan txintik ere esan.

– Ez urduritzeko, ezagutzen haut eta.

– Amonak atzotik beste gairik ez, akelarre santua gora eta behera.

– Laster izango din, ba, beste kezka bat: etxe bat alokatu dinat Luisarekin, Santa Marina kalean.

– Isilik egon hadi...

Hegan ikasitako txoriak habiara itzuli nahi ez. Nahiz eta Brigidarenean bizitzea zaila izan, nondik ateraldi hura?

– Hurrengo astean hasiko gaitun han bizitzen.

– Jesus, Maria eta Jose! Zer egin behar duzue bi neska gaztek bakarrik etxe batean? Zer esango din jendeak? Ume txikiekin lan egiten dun eta.

Hura eskandalua! Xexilik uko egin zion ardi galduen etxera joateari, baina zorretan zegoen ama zenarekin. Ezin hari beste maite bat galtzen laga eta, arratsalde batean, kasualitatez bezala egin zion bisita ahizpari. Bakarrik zegoen etxean, ateratzeko prestatzen. Barre handien artean kontatu zion kalean askok beste aldera begiratzen zutela haiek pasatzean eta ez zirela gutxi iluntzean etxeko txirrina jotzen zuten gizasemeak. Non zegoen grazia, ordea?

Janzten bukatu eta liburu bat hartu zuen apalategitik.

– Irakur ezan –Estik–. Poesia dun; atera hadi hire kobazulotik.

– Nora hoa ordu honetan?

– Lagun batekin gelldituta nagon.

Azkenaldian, bolo-bolo ari zen aipatzen “Aldalur” izeneko bat, behin ere izena argitu gabe. Kanaberarekin atera zion muxikarra zela, ELA Berrikoa eta hitzaldi batean ezagutu zutela elkar.

– Senargaiarekin?

– Lagun batekin.

Berokia jantzi eta ia etxetik bidali zuen.

Larunbata zen. Eguerdian, Esti mamuak bezain zuri sartu zen Xantioko sukaldera, Ramiro eta Teofilo garotan zirela.

– Jexus, neska –Ixabelek, zirikatzeko doinuan–, hain gogorra izan al dun seietako sermoia?

Astuna zen, gero! Bost axola Olatz eta Mikeltxo aurrean egotea; ez zuen aukerarik galtzen gogoratzeko Esti ez zela mezatara joaten. Haien artean zeukaten bat-bateko tratu estua ere ez zen normala; Xexilirekin ez zuen inolaz ere horrela jokatzen. Ez zen emakume txarra, baina kalera oso gutxitan joan arren, herrian gertatutako guzti-guztiaren berri zuen, astebururo joaten baitzen inguruko baserrietara bisitan.

– Gaizki esaka ari ditun ikastolaren kontra –Ixabelek, serioago.

– Zer, gurutzearena? –Estik.

– Eta bestea.

– Hori ere aditu al dun? –Estik. Eta Xexili haria galduta ikusita–: Guraso batzuk kezkatuta zauden, haien

seme-alabei ez omen diegulako gurutze egiten irakasten. Hori gutxi balitz, astakeria pila bat ari ditun zabaltzen, esaterako ikastolako andereño batek bi ume biluztu eta elkar zirri-zarraka jarri omen dituela larrua nola jotzen den erakusteko. Seguru nagon udaleko zerri horiek asmatu dutela.

– Zerri horiek beraiek eman zizuen baimena Zinema frontoian kantaldia egiteko –Xexilik.

– Zakurraren putza! German Mendozak eman zigunan; Luisak konbentzitu zinan –Estik, eta ezpainak estutu zituen, damututa. Ixabelek irribarre egin zuen, ihes egindako informazioa hausnartzeko gordeta–. Halere, ez naun horregatik etorri. Ez duzue sinistuko.

Haren aurpegi serioa ikusita, Xexilik itxaroteko keinua egin eta kanpora bidali zuen Olatz umearekin. Adin zailean sartzeko zorian zegoen, eta ez zuen arazorik nahi. Ahizpa gai zen bere letra-zopa eroa gonbitoka hasteko: LCR, ELA, EAJ, ETA, troskoak, maoistak, Etxe Zabalako jipoiak... Nahikoa aditzen zuen, bestela, alabak.

– Atzo Basoerdirenean egon nindunan, Luisarekin.

Lotsa gutxi behar zen pailazoak baino pintatuago horixe esateko.

– Ba al zegonan inor barruan? –Ixabelek.

– German Mendoza eta.

Xexilik burua jaitsi zuen urduri. Beste gairik ez al zegoen?

– Ze ordutan? –Ixabelek.

– Berandu. Afalondoren.

Ez zen ordua, ez, gizon ezkondu bat tabernetan ibiltzeko. Haren semeak gizonak ziren ia-ia, hamalau eta hamabost urterekin. Eredu txarra.

– Luisa Germani kasu egitera joan eta ni Basoerdirekin geratu nindunan. Badakizue nolakoa den: segituan jarri zunan barra gainean, txakurren antzera lerdea dariola... Atzealdeko apalak lepo zauzkan: oinetako pare bat, antiojo zahar batzuk kristalak txikituta...

– Batek zakin –Xexilik.

– Dakitenak ez zauden bizirik kontatzeko –Ixabelek.

– Koadernoa erakusteko eskatu nionan eta txundituta begiratu zidanan, zerbait susmatuko balu bezala. Ez zidanan inorekin lotzen, bazakinat. German Mendozak bai, baina Luisarekin okupatuta zegonan –eta eskua altxatu zuen besteen galderak geratzeko–: gero kontatuko. “Etorri hadi bila” esan zidanan Basoerdik, eta nik erantzun “kontuz, amodio librearen apostoluak omen gaituk-eta” –Ixabelek eta Xexilik batera egin

zuten gurutze–. Pixka bat kikildu zunan, zerri ahobero hori. Sinistuta zegon Paul Newman dela...

– Halaxe zunan, ba –Ixabelek–. Gerra aurretik, “Silvino” esaten ziotenan, aitonarengatik. Haren aitak egiten zinan lan Basoerdirenean; jatorrizko Basoerdi hiltzean, taberna eta izena hartu zizkinan. Langile porrokatua zunan hura, baina Silvino... etxekalte hutsa. Gerra ondoren, Madrilen eta Valentzian jardun omen zunan lanean eta, agidanean, kartzelan ere egon omen zunan.

– Orain gixajo musugorri bat besterik ez dun –Estik, eta mahai gainera bota zuen koadernoa.

– Amatxo maitea! –Xexilik–. Zer ez ote dun egin behar izan horren truk.

– Hartu eta korrika irtetea –haserre.

Luze aztertu zuten, Santa Teresaren beso usteldu gabea balitz bezala. Larruzko azala gogortuta zegoen; tabako-kiratsa zerion. Larruzko lokarritxoaren korapiloa askatu zuten. “Irene Garmendia du Peyrer, 1937” jartzen zuen txukun eta letra handiz. Behean, trazu ezberdinez, “Hartu eta izan lekuko. Miren X.”. Hurrengo orrian, tinta-zipriztinak eta ur-tanta moduko mantxa batzuk. Besterik ez koaderno osoan.

Mikeltxok barre egin zuen, gertu; hura isiltzen saiatu zen Olatz. Xexili bote batez tentetu eta eskailera-hasieran bertan topatu zituen, belarriak erne.

– Utzi, neska –Ixabelek, sukaldetik–. Beren familia ere bada.

Arriskua. Galdetzaile nekaezina zen alaba, txikitxikitatik, “zergatik” eta “ze ba” beti prest. Sukaldera itzuli ziren hirurak.

– Silvinoren andregaia omen zunan zuen izeba. Bego zinan izena –Ixabelek.

– Zer esaten... –Estik.

Ixabeli begiratu zion Xexilik, eta segituan Olatzi, hura babestu nahi eta ezinean.

– Egiatan, ezin duzue orduko Silvino imajinatu: Rodolfo Valentinoren bibotea utzi eta mutil askok kopiatu ziotenan.

– Tira –Xexilik, jakinda Olatz adi-adi zegoela–, ez dago inor gerra sufritu ez zuenik –amorratuta zegoen Ixabel zaurian piko egin nahian ari zelako.

– Izango ez da, ba! –Ixabelek–. Batzuek ederki baliatu zuten gerra patrikak betetzeko; hamaika adibide dauzkagu. Hemendik bidali zituztenak, berriz, gehienak ez ziren itzuli, adibidez zuen amonaren koinata, Paki. Bilbon hil omen zuten.

Koinata. Hil. Listua irentsi zuen Xexilik; gezurra behar zuen, ez zen posible.

– Badun ordua zorrak kitatzen hasteko –Estik–; ez dinagu ezer ere barkatuko.

– Begia begi truk, eta mundua itsu utziko duzue –Xexilik–. Gainera, arrasto guztiak haizatzen ditin denborak, ezabatu nahi direnak salbu.

Begirasun gogorra egin zion Estiri, behingoz isildu zedin. Bide batez, hura al zen Parisen barra-barra espainolez egiten zuena, *ismo* hitzak gora eta behera? Pare bat hilabetean, txalupaz aldatu eta, zabala da itsasoa! Hasia ez zen, ba, marmarka herria inoiz baino erdaldunago zegoelako? Pare bat hilabetean.

– Orduan German Mendoza eta hire lagun hori... –Ixabelek.

– Umeak –Xexilik ahizpari mehatxuka.

– Nazka-nazka eginda nagon. Ia gauero etortzen dun bisitan, ea dena ondo dagoen kontrolatzeko aitzakian.

– Jesus, Maria eta... –Xexilik. Hamaika aldiz galdetu zion Estiri zorioneko ugazaba zein arraio zen, alferrik.

– Luisa sinistuta zegon emaztea lagako duela.

– Koitadua –Ixabelek–. Germanek ez din emaztea bizi-alargun egingo, Segismundo Gantxegiren alaba da eta. Hori bai, ostikoka jardungo dun hura hilobian; ederra zunan, ba! Germanen aita ere, don Cesar Mendoza, ez dun makala. German bizi den plazako etxebizitza hori zuen aitona Joxerena zunan; zuek alokatu duzuena, Paki eta Xebas Bizkiarena. Denon aurrean lapurtzera ausartu bazunan, zer ez ote zinan atzetik egingo!

Amona eta aita diskutitzen, ama negarrez. Altxatu egin zen bere malkoak frenatzeko. Estiri keinua egin eta hura ere zutitu zen umeei muxu emateko. Aterainо lagundu zion Xexilik:

– Tori –mantaleko poltsikoan zeraman liburua itzuliz.

– Irakurri al dun? –letren bitartez ari zen ahizpa ilunpetatik atera nahian.

– Ez zaukanat ia astirik: baserria, umeak, akademia... Zer moduz Aldalur?

– Ondo. Hemendik hara, badakin.

Bizikleta hartu eta pedalei indartsu eraginez urrundu zen, handiegi traste zahar hartarako eta ile hori fina haizean kulunkan.

Getariako bi anai-arreben poesia-liburua zen, Mikel eta Amaia Lasa. Estik markatutako orrietako bat irekia zuen behin eta hautsa geratu zitzaion ahoan, ardo txarra edatean bezala. Hustuta zegoen aurreko urtean ama zaindu ondoren, eta orain Esti ere zaindu behar. Mikel txikia ere bazeukan. Olatz zoragarria. Etxean zegoen Xantiorenean behingoz, Ramiro lasai... Orduan, zergatik mugitu zizkion erraiak hitz-segida horrek?

Ez emakume
ez ama
ez eme
ezin izanik.
Emakumetasunean
amatasunean
galduak
libertatearen ordez
segurantzari helduak.

8

Gaizki hasten denak gaizki bukatzen du. Luisa eta German Mendozaren artekoa ez zen parte onekoa: gizon ezaguna zen, ezagunegia kontzejal postua heredatu zuenetik. Eta ezkondua, bi semeren aita. Benetan uste al zuen Luisak apartatu egingo zirela German eta andrea? Kaskarinaz gain, inuxentea.

Udarako sustoak zirela eta, herrian ez zen giro. Abuztuko Amabirjinetan, su eman zioten turismo-zentroari, agidanez ETAkoek. Pena zen herrira dirua ekartzeko saiakerak zapuztu nahi izatea. Xantiotarrek txalotu egin zuten, amonak-eta espantuz eta amorruz hartu.

Bost egun geroago, golfekoa. Langile batek topatu omen zuen kasualitatez paketea, eztanda egin aurretik. Txiripaz saihestu zuten triskantza. Edo sarraskia.

Gutxi balitz, grebak: baten txingarrekin pizten zen hurrengoa. Halere, herriak bizi zuen tentsioak ez zion inori ere eskubiderik ematen Luisari egin ziotena egiteko. Pilarica egunez izan zen. Kalean zihoala, Basoerdireneko atarian zegoen gizon-talde batek puta deitu

omen zion. Ozen. Luisak aurrera jarraitu zuen negarrez; ezin jakin zeinek oihukatu, eta zeinek egin zion barre. Eskerrak Esti ez zegoen, buelta emango baitzuen mutur-joka hasteko.

Ez omen zion Germani kontatu nahi; Estik, ordea, hurrengo gauean bota zion, atea ixteko ere astirik eman gabe. Sekulako iskanbila izan omen zuten, Luisak ez zekiela zeinen alde egin. Azkenean, Germanek hogeita lau orduko epea eman zien etxetik alde egiteko.

Donostiako familiarekin gorde zen Luisa; nork lagundu behar zion Estiri etxebizitza husten? Tuntunak! Lapurren pare maletak iluntzean jaisten... hura lotsa. Ahizpa Xantiora ekartzea beste erremediorik ez. Ezin zion huts egin, merezi arren.

Xantiotarrak txoratzen: astebeteren bueltan, Xexili baino are etxekoago zuten. Euriko ura baino gardenagoa zen, pentsatu gabe edozer gauza botatzen duen horietakoa; horregatik maite zuen jendeak. Hura Xantion bizitzen jarri eta errotik aldatu ziren hizketagaiak: eliza desagertu zen, politika itzuli.

Eta ikastola. Estiri adituta, gogoa ematen zuen udaletxe aurrera manifestazioan joateko; hain zen sutsua! Probintzian eta Euskal Herri osoan azkenetakoa

omen zen Zarauzkoa legalizatu gabe, don Cesar Mendozaren oposizio sutsua zela eta. Aitaren ezpalekoa, Germanek haren bandera jaso omen zuen eta ikastola kinka larrian zegoen.

Guraso-elkartea buru-belarri aritu zen koskak berdindu nahian eta, besteak beste, erabaki zuten haietako bat, Imanol Murua, kontzejal postura aurkeztuko zela familia-tertziotik, udalean infiltratzeko.

Legalizazioarena ez zen bataila bakarra; ikastola berria eraikitzearen auzia ere puri-purian zegoen: proiektua finkatzeko, eraikin bakarrean bildu behar zituzten ikasle guztiak, ezinbestez. Umeak herri osoko gela ziztrinetan sakabanatuta, eskaleen modura ibiltzen ziren irakasleak izkina batetik bestera saltoka.

Xexilik, ordea, bazeukan bere guda. Sator-lan sakonen bidez, Brigidareneko eta Xantioreneko sukaldeak lotzen ari zen Urtezaharretako afaria elkarrekin egiteko. Ospatzeko. Amildegi bat zen ditxosozko gerra, herria erdibitzen zuena. Batak eta besteak mahai beraren bueltan esertzea lortzen bazuen, zauria itxi egingo zen, orbandu, hala Espainiakoa nola etxekoa. Ama gaixoak behingoz deskantsatuko zuen bakean.

Brigida konbentzitzea, erraza: mesedea egiten ari zen, berak ez zuen eskatzen, bera nagusi. Xantion, berriz, komeriak. *Horiek* etxean hartu? Irailaren hogeian, aurreneko ilaran jartzen ziren beti, zela mezan, zela kalejiran, zela sokamuturrean, herriko liberazioa ospatzeko...

Barkamenaren karta jokatu zuen Xexilik: bakarrik barkatzen du ahal duenak. Miseriak miseria, xantiotarrena zen azken garaipena, azken hitza.

Gogoz kontra onartu zuten, Olatz eta Mikeltxorengatik.

Menua erabakitzea ere ez zen erronka makala izan. Arkume bat prest zeukatenez, Ixabel haragia erretzearen aldekoa zen, baina Xexili mokofinak legatza nahiago. Eta arrain-zopa, restauranteetan bezala. Majo ordaindu beharko zuten eta etxeko kutxan, armiarma-sareak besterik ez.

Bukatzeko, gelarena. Sukaldea etxeko bihotza izan arren, neguan epel zegoen leku bakarra, txikiegia zen gonbidatuentzat, ukuilutik gertuegi. Azkenean, lehenengo solairuko sala zaharra aukeratu zuten, hamarkadetan ireki gabekoa.

Sekulako lana Ixabel eta Xexilirentzat: garbitzea, mahaia osatzea, antigoaleko mantelak zuri-zuri uztea

eta, batik bat, berotzea, gelak ez baitzeukan ez tximiniarik, ez hura jartzeko modurik. Afaria amesten emandako gau luzeetan, Xexilik butano-estufa bat irudikatzen zuen, berri-berria. Maiatzean Zumaian izandako butano-eztandaren ondoren, nola konbentzitu, ordea, xantiotarrak? Ezta dirua harri baten azpian aurkituta ere.

Teofilo, behinik behin, laguntzeko umorean zegoen. Aldeko baserrikoei desmuntatuta zeukaten estufa zaharra eskatu, instalatu eta hormari zuloa ere egin zion, biharamunean trastea itzuli behar bazuen ere. Beti besteen petatxuekin estaltzen.

Komedorea izenez birbataiatuta, baserriko bonbillarik onena jarri zuten, baina, nonbait, kontaktu txarren bat zela medio, ez zen beti pizten eta piztuta uztea erabaki zuten, funditu gabe eutsiko ziolakoan.

Ontziekin ez zuen Xexilik amore eman, ezin, txerrien moduan ari zirelako jaten. Linternero Txikirenera joan eta ontziteria osoa erosi zuen epeka, pagotxa ikaragarria. Halere, hori ordaintzeko lain ere ez eta mirari bat bilatu behar izan zuen. Urtero, ezkondu zenetik, amonarekin batera joaten zen Errege aurretik Donostiara, Avenida de Españako Gantxegi mertzeriara. Deskontuak aprobetxatu eta urte osoko arroparen

oihalak erosten zituzten. Zentimoz zentimo joaten zen hilabetez hilabete dirua aurrezten, eta Brigidak beti gehitzen zuen koxka bat. Haien tradizio txikia zen, baina dena ezin. Amonak ulertuko zuen. Ulertuko al zuen diru-premia lotsagarria zutela?

Ia gauero sufritu zuen Xexilik amesgaizto berdina: zela Teofilok hasita, zela Manuelek, zela Brigidak, gerra zibilean bukatzen zuen afariak.

Mahai bueltan biltzea ez zen nahikoa: afariak ondo atera behar zuen. Kanaango ezteietakoa baino mirari handiagoa eskatzen ari zen.

Afari-bezperan, zalantzak Brigidarenean. Aitak, ea zer nolako agurra komeni zen. Xexili larritu egin zen; aita gai zen edozein astakeria botatzeko. Azkenean, “muchas gracias por abrirnos las puertas de vuestra morada” formula neurritsu eta elegantea aukeratzeko konbentzitu zuen. Ausardiarik ez euskaraz egin zezan erregutzeko. Espainolez barra-barra egiten zuen horietakoa zen Manuel, euskaraz baino dezente ozenago, gainera, eta Teofilo, berriz, irmo-irmoa horretan. Ezin ahaztu Olatzek neskatxo erdalduna ekarri zuenekoa. Santa Anako mojetan sartu ondoren, bi lagun min egin

zituen: Mertxe, auzoko Zabalegi baserrikoa, eta Marifer, guardia zibil baten alaba. Behin ekarri zuen hura Xantiora eta, jakina, bazkaltzera geratu zen; Lazaro altxarazteko gauza zen Olatz! Hori bai, denek espainolez egin behar, deseroso, barregarri eta zeremoniatsu bezala, baina Teofilok ezetz. Joateko ordura arte, Mariferrek begiak zabal-zabalik behatu zuen aitona, harrituta hitz egiten ez zekielako, Babelgo maldizioak jota edo.

Kosta ahala kosta saihestu behar zuen afaria zapuztu zezakeen edozer.

Zortzi-zortzietan, Seat 850aren argi indartsuak kamio hasieran. Inbidiaren ziztada sumatu zuen Xexilik: aurrera zihoan mundua eta haiek etxe zahar hartan ainguratuta. Bolada motz batez amestu zuen bizkien etxebizitzak berreskuratu eta, Santa Marinakoa salduta, plazakoan jarriko zirela bizitzen. Ramirori ere aitortzera ez zen ausartu. Boteretsuegiak ziren mendozatarrak, eta xantiotarrak hutsaren hurrengoa. Gainera, German saltsan zebilen. Jainkoak jakingo zuen zergatik ematen zien batzuei hainbeste.

Baserri atarian ari ziren itxaroten. Teofilo, igandeko trajez, duda-mudan txapelagatik: eskuan morroi, buruan arrotz. Ixabelek señora bat ematen zuen man-

tal eta batarik gabe, nahiz eta beroki beltzak urteak zituen. Eta Estik, behingoagatik, ez zuen atentzioa ematen. Gabonetan edozer gauza gerta daiteke.

Amona mantso jaitsi zen, zeremoniatsu, eta begirada sumindu batez seinalatu zion semeari aurrea har ziezaion, eta hura urrats txikitan hurbildu zen, aurpegi serioz bezain barkaberaz, Franco ematen zuela. Seinalea ote? Adostu bezala, Teofilok jaso zuen, eskua irribarretsu luzatu:

– Gabon Jainkoak deizuela. Ongi etorri Xantiorenera, Manuel; ongi etorri, doña Brigida.

Amonari aurpegia argitu zitzaion, eta pixka bat makurtu zen Mikeltxori mila muxu emateko.

Manuel zeharo lotsatuta zegoen. Baietz bere traje berriak *kaxero* gaixo haiek umildu. Itxoinzak, nola zuan agurraren hasiera? Las puertas, las puertas... Kaka zaharra! Adinkideari eskaini zion zekarren poltsa:

– Ezin esku hutsik etorri...

– Xanpaina! Ez zuan beharrezkoa, motel –Teofilok.

– Cava duk, cava. Frantsesek aditzen bazigutek... Haiei baino, hobe gureei jaten ematea, ezta?

Xexilik ia konortea galdu zuen. Beldurrez begiratu zion Teofilori, baina hark ez zuen ikusi. Gizonak segun-

do batez hausnartu eta irribarre egin zuen, santu guztiek konbentzituta, isilik.

Barrura sartu ziren. Xexili urduri; aspaldiko partez, aurreneko aldi haren sudurrez usaindu zuen: simaur eta animalien kiratsa, lur hezea. Ingurugiro ederraren abantaila itzalita, errealitatea biluzik: etxola batean bizi ziren. Amonarentzat baieztapena izango zen mertzeriarena.

Eskailera estuek inoiz baino burrunba handiagoa eragin zuten, maila guztiak solte eta oker. Behintzat, Zeruko Jaunari esker, komedorea epel zegoen eta eguerdiko argitan bezala. Bonbillaz gain, bazter guztietan zeuden bildumenak. Nahiz eta eliza-itxura ematen zioten, inork ez zuen txintik esan.

Matriarkak mahaiburuko ohorea naturaltasunez onartu eta artzainen moduan aztertu zuen artaldea, Haundiya zenaren makila eskuartean. Hara! Plater eta ontzi politak. Buruarekin onetsi zuen eta Xexili pixka bat lasaitu zen. Eskerrik asko, Maria Jesusen ama. Mertzeriarena aipatu ezean, gogoratuko al zuen? Nola ez, ba, Brigida Plantxadorak?

Sukaldera itzuli zen presaka, zerbitzatzen hasteko. Eutsiko al zioten elkarri mokoka hasi gabe?

– Ondo? –Ixabelek.

Hain nabarmena zen bere kezka? Ezin behingoagatik baretu eta gozatu.

Lapikoak kontrolatu zituen: arrain-zopa, azalorea eta legatza. Ixabelek arratsalde osoan prestatutako ahiek sekulako itxura zeukaten; hortaz gain, postrerako konpota ere bazegoen. Hura zen hura banketea!

Harro zegoen Ixabel eta Olatzekin osatutako taldeaz. Freskeratik mahatsak atera, bi plateretan banatu eta keinu bat egin zien zopa zerbitza zezaten. Zopa-ontzi berria. Sakrifizioak merezi izan zuen. Ene, hori hotza sukaldetik egongelara! Diru pixka bat izanez gero, benetako estufa bat erosi ahal izango zuten neguan sukaldetik atera ahal izateko.

Futbolaz ari ziren gizonak, Realak Burgosi emandako sei eta bateko jipoiaz. Pilotara aldatu eta Manuelek bi sarrera eskaini zizkien Galarretan Managuako kaltetuen aldeko partidua ikusteko. Teofilori antzeman zitzaion ez zuela halakorik espero; pozik onartu zuen. Xexili gogor ahalegindu zen memorian idazten, hurrengo astean aitari gogoratzeko: ohitura zuen zirenak eta ez zirenak hitzeman eta gero ahazteko.

Denak eserita, isildu egin ziren. Berriz ere negar egiteko premia: ama besterik ez falta. Teofilok eskuarekin oparitu zion Manueli otoitza gidatzeko ohorea.

Afaria hasi gabe ere dirdiratsu zituen begiak, sudurra gorri. Halere, ondo bete zuen eginkizuna eta, behin lasaituta, basoa ere bai.

Agur 72ari: 34 urte egin behar zituen Xexilik. Konturatu gabe ihes egiten du bizitzak.

Isilune luzea, tregoan bezala. Hiru gai prest zeuzkan Xexilik elkarrizketa politikatik aldentzeko; bat bera ere ez zitzaion etorri. Izu-ziztada: zerbait esan beharra zegoen; isiltasuna ere arriskutsua zen, mesfidantza elikatzen baitzuen.

– Hildakoak jaten jardun omen ziren Andeetako gaixo haiek –inprobisatu zuen. Aitak sagardoa hartu eta luze eman zien bere iritzi aditua, Teofilok harekin bat egin eta, bidea hasita, handik aurrera ez ziren geratu.

Benetako protagonista, ordea, Olatz izan zen, ordurako hamalau urteko neska koxkorra. Aho zabalik utzi zituen gizonak bere argumentuekin eta emakumeek petxua puztuta aditu zioten, disimulatu ezinik. Horrelako gazteek mundua jango zuten.

Ikasle bikaina zen, matematikak gorabehera, eta izebaren bidea hartu nahi zuen irakasle bihurtzeko, baina ez bakarrik Magisteritza ikasiz, baizik eta Filosofia y Letras, hura baitzen Estiren ametsa. Umeen

gelak utzi eta ikastolako goiko geletara igo nahi zuen. Parisen pentsatu izan balu!

Ditxosozko ikastola: Xantion buruz zekizkiten ikasle guztien izenak, irakasle-zerrenda, zuzendaria, *plaieroak* antolatzen ere jarduten zen Joxeantonio Azpeitiaren ateraldiak, Manolo Urbieta irakaslearen abestiak... Mikel txikia txoratu egiten zen Olatzek eta Estik bi ahotsetan kantatzean.

Baserria irauli arren, ematen zuen behingoz bakean zegoela Esti, eta gaitz erdi. Halere, inoiz baino isilago zegoen gau hartan, ez?

Mahatsak jateko ordua zenbat eta hurbilago, orduan eta larriago Xexili. Topa eginez borobildu nahi zuen afaria eta ez zekien ze desio proposatu. Aukera emanez gero, Francorentzat osasuna eskatuko zuten Brigidarenekoek, eta xantiotarrek, Euzkadiren independentzia edo, auskalo, ETAko ero haiekin lotutako zerbait. Bakea opatzeak, berriz, gai delikatu gehiegi hurbilduko zituen eta osasuna denontzat opatzeak, ama.

Hark, zegoen lekuan zegoela, indarra bidali eta cava ekarri orduko bururatu zitzaion. Geroz eta sarria-

go aipatzen zuen Estik senargaia: Aldalur Derioko apaiztegian egona zela, Aldalurrek Filosofia eta Teologia ikasi zituela, Aldalurrek pare bat urte eman zituela ordenatuta... Eta, astiro-astiro, Xexilik bilatzen zuen informazio kezkagarria: Aldalurren gurasoek bertatik bertara ikusi zutela Gernikako bonbardaketa, Aldalur klandestinitatean ibiltzen zela, Aldalur hirutan egon zela atxilotuta eta bi urteko kartzelaldia bete zuela.

Behinik behin, ahaztuta zeukan Parisko txiletarra, aztia. Aldalurri esker ez zuen Estik Txileko bidea hartu, Allende eta gorrien paradisua eraikitzen laguntzeko.

– Ea aurten ezkontza daukagun! –kopa altxatu zuen irribarretsu, baina, besteen ustekabea ikusita, koldartu egin zen. Isiltasuna. Zurrut egin, aingeru-aurpegia jarri eta Estiri galdetu zion–: Zer moduz zuen liburua? Umeena.

Barruko bonbilla piztu zitzaion ahizpari azkenean. Sutsu adierazi zien umeek beraiek idatzitako ipuinekin ari zirela liburu bat osatzen, *Haurra ipuin denean* izenburuz, idazlan ikaragarriak zirela, talentu handikoak... Xexilik, ordea, alaba balu bezala ezagutzen zuen. Zerk kezkatzen zuen? Ez zirudien senargaiarekin zerikusia zuenik: zer ote zen?

Denek Manueli muxu eman bitartean, bakarrik geratu zen amonarekin, besotik helduta.

– Avenida de España cinco –Brigidak, bilobari zapladatxoak eskuan emanez–. Asteartean.

Bihotzak salto egin zion Xexiliri.

– Ezingo dut, amona... –aitzakiarik bururatu ez.

Matriarkak arrano-aurpegiz arakatu eta, eskumuturra estutuz, zorrotz xuxurlatu zion:

– Joan egingo gaitun. Dirua nire kontu.

Negarrez hasi zen, zoriontsu: ez zuen familia hori merezi.

Denak ohera presaka bidali eta sukaldean geratu zen bakarrik, poza gozatuz. Plateretan janaria geratzen zen artean, beste afari bat egiteko lain. Papurrik ez zuen utziko amak! Gogora ekarri zuen ezkutuan erretiluko hondarrak jaten, ezin zuelako ilar bat bera ere zakarrontzira bota. Gaixoa, ama; zenbat sufritu zuen. Xexiliren ahaleginei esker, kontsolamendua ari zen azkenean lortzen.

Logelara joaterakoan, atentzioa eman zion Estiren ate azpiko zirrikitu argituak. Sudurra garbitzen ari zen. Heldulekua jaitsi zuen kax-kax samur egin bitartean, baina irribarrea erori zitzaion: ohe gainean eserita,

Estik begi gorrituta ixteko agindu eta negar mutuan jarraitu zuen, zotin eta zotin, eskuekin ahoa isiltzen.

– Zer dun, neska?

– Ikastola berriaren proiektua baztertu diten. German Mendozaren aginduz.

– Ze ba?

– Andereñoak ez omen gaitun taxuzkoak, baina nitaz ari da. Gorroto naun, eta guraso-elkartekoek bazakiten.

Zer erantzun horri?

– Gainera... Guraso batzuei ez zitzaienan ondo iruditu Luisarekin bizitzea... Esaten al zienat nik nola bizi behar duten?

Negarrez jarraitu zuen; Xexili, isilik.

– Berarekin hitz egingo huke? –Estik, ahotsa hari fin bat besterik ez.

– Norekin?

– Germanekin.

Odola borborka igo zitzaion aurpegira Xexiliri, zer erantzun ez zekiela. Gogoan zuen! Zenbat urte izango zituen orduan Estik, bost? Sei? Eta berak hamar gehiago. Luzeak, gero, gezurtxo haren sustraiak.

Oraindik ere, lotsatu egiten zen haren aurrean. German zen Ramirorengatik sakrifikatu zuen guztiaren izena.

9

Amonaren erosketa-poltsekin zamatuta irten zen kooperatibatik. Ai, ama: udaletxeko atean zegoen German, beste gizon batekin zerbait garrantzitsua diskutitzen. Biak trajez, ministroen pare.

Burua izoztuta, hankek aurrera jarraitu zuten arkupetik, Linternero Txikirenera joan beharra zeukalako. Ezin buelta eman; Germanengana zihoan, hiru negu lehenago jositako gona soinean, ama zenaren berokia, lutoz bizi diren neskazaharren moduan.

Zenbat eta gertuago, orduan eta zatarrago, xumeago, baldarrago. Ze urruti Zelatungo erromerian hanka-puntetan dantzatzen zen oilanda!

Euria ari zuen, baina indarrik ez aterkia irekitzeko. Buru-makur gurutzatu zuen kalea eta, dendan sartzean, babesean sentitu zen azkenean. Negar egiteko puntuan, zeharo ahaztuta zuen erosi beharrekoa. Nola esango zion Germani ezer?

Iluntzean, goiz oheratu zen Esti, txoriak baino gutxiago janda. Ixabel ere kezkatuta, Xexilik ez zuen kemenik izan ahizpari aurre egiteko.

Hurrengo goizean, amonari bisitatxo bat egitera igo zen, ohi zuen bezala kalean erosketak egin ondoren.

– Hire ahizpa horrek! –amona Brigidak, atea aditzean eta nor zen ikusteko itxaron gabe. Ez zegoen akademiako gelan, baizik eta sukaldean kaiolatuta, atzera eta aurrera urduri. Besotik heldu zion Xexiliri–: Lana laga ez din, ba!

– Ikastola?

– Baietz, ba! Esan berri zidaten; txoriburu halakoa... Joan hadi etxera eta konbentzitu ezan, burutik zegon eta. Horrelakorik!

Ez zen bazkaltzera etorri, ezta arratsaldean ere. Aldalurrekin ibiliko zen negarrez, edozein bazterretan sartuta. Etxeratu zenerako, zortziak jota. Xexili korrika igo zen haren logelaraino. Atea zabaldu eta ohean eserita harrapatu zuen, buru-makur.

– Zer moduz? –Xexilik, faltsu.

Estik poliki altxatu zuen burua:

– Gogoratzen iaz Arrasateko ikastolan kaleratu zituzten irakasle haiek?

Gogoratuko ez zuen, ba! Arrasatera joan zen Esti, manifestaziora, eta beste gazte batzuekin hasi omen zen zubi bateko barandan harriekin joka. Protesta ba-

ketsuan, agidanean. Auskalo zertan ibiliko ziren; ez zen batere harritzekoa grisek eraso izana. Astakirten horiek, gainera, aitzakia gutxi behar zuten. Biharamunean deskubritu zizkion Xexilik besoko arrastada eta hankako ubeldura. Bereak eta bi bota eta printzesa traizionatuaren plantak eginez erantzun zion Estik; egoskorragorik! Hiru egunez ikastolara joan ezinik; marka da, besteen lanpostua defendatzeagatik, norberarena arriskuan jartzea.

– Ederra hartu huen... bi astez herrenka, izterra more-more –Esti mutu, idien modura aurrera begira tinko, hausnarrean–. Zer dun, neska? –eztanda egiteko zorian–. Zer egin diten oraingoan?

Ahizpak nahi zuena esatea zeukan, baina makina bat izugarrikeria adituta zegoen irakasle haien bizimodu libreaz. Eredugarria behar du izan irakasleak; *hermano* salletarrak eta mojak beti izango ziren egokiagoak, inondik inora.

Gainera, gauzak esaten hasita, ederki zegoen kanpokoen kontuez kezkatzea, baina, faborez, etxekoak ahaztu gabe. Xantiora etorri eta gutxira eskaini zuen Estik zerbait ordaintzea, aho txikiz eskaini ere. Normala denez, Xexilik ezetz, ezin ziola ahizpari dirua hartu etxean bizitzeagatik. Ez al zuen ikusten, ordea, premia

gorrian bizi zirela? Eta berak, platera bete otorduro, gela txukun, arropa garbi... hotelean baino hobeto. Ez kolpe zorririk eta ez zentimorik; eskuak beti bero patrikan, lotsagabe horrek, eta ez zuen eskaintza errepikatu; hain zen temosoa nahi zuenean!

– Haietako batek Adela Ibabe zuen izena.

– Eta? –baietz atzera hartu ikastolan Adela santua; ea horrela Esti konturatzen zen. Luisaren modukoa izango zen: berak harria bota eta beste batek masailekoa jaso.

Estik hitz egiteko saiakera egin zuen alferrik; aurpegia estali eta negarrez hasi zen. Inuzente halakoa... ez zuen egiatan pentsatuko Xexili horrela samurtuko zuela.

– Ikastola laga omen dun.

– Ikastola eta Aldalur, duela bi hilabete.

– Erotu al haiz derrepentean? Zer egin behar dun orain?

– Ez zakinat. Pentsatuko dinat –hitzetik hortzera erabakitakoa al zen?–. Zerbait bururatuko zaidan.

– Lana gustuko huen, ordea...

– Enbarazu egiten badinat hemen, esan besterik ez daukan.

Harroputza, gainera! Bat-batean etorri zitzaion bestea gogora:

– Orduan... hemen lo egiten ez dunenean... non geratzen haiz? Norekin?

Buruaz ezetz erantzun zuen Estik.

– Zer pentsatuko dute xantiotarrek?

– Neure gorputza dun; zer esan zinaten heuri? Ez-kondu aurretik eman hion-eta Ramirori.

Eta logelatik egin zuen alde, baserritik. Egin korri, bai, kalamidade hori. Xexili itsututa hasi zen orrien kaosean miatzen. Larrialdi bat zen, gerran eta amodioan araurik ez. Koaderno koloretsu bat hartu eta markatutako orri batetik ireki zuen. Non irakurriak zituen lehen lerro horiek?

Ezin izan
ama, hiritar,
emaztea, euskaldun,
emakumea: pertsona:
isila,
otzana,
ona.

Ezin estutu
hitzen barruan.

Ezin izan
hitzak hilkutxak diren
munduan.

Ordu txikitan itzuli eta astebetez geratu zen bere gelan, Olatzek eta Ixabelek otorduak eramaten zizkiotela. Xexilik, barruan sumendia: Xantiotik bidali nahi zuen; ez zeuden alferrak mantentzeko moduan. Ezta buruarinak ere.

Birritan gertatu zitzaion: erabaki, ateraino joan eta, ate itxiaren parean zegoela, barruko zotinek ito zioten asmoa.

Goiz batean bueltatu zen Esti sukaldera, mejoratuta. Kalera jo zuen, bueltatzeko ordua argitu gabe. Xexili kezkatuta; ondo egongo ote zen? Zer egiten jardungo ote zen? Afaltzeko itzuli zen pozak txoratzen eta ikasten jarraitu behar zuela bota zien, zer eta Euskaltzaindiaren D titulua lortzeko. Xantiotarrak aho zabalik:

– Euskarak ez du etxeko hizkuntzarekin nahikoa: hitz berriak behar ditugu egungo bizitzako gauzak

izendatzeko, zientzian erabiltzeko, telebista bezalako asmakizun berriak izendatzeko...

– Bai, urrutizkina eta beribila; handik pasata gaude. Ba al dakizu Txirrita handiaren azken agurra, Basarriri txapela eman ziotenean? –Teofilok–: *Larogei urte gaiñean ditut,/ nago anketako miñez. / Donostiara etorria naiz / erren aundia egiñez. / Bi bastoirekin txit larri nabil / pausorik eman eziñez. / Euskera ia aaztu zait eta / erderarikan jakin ez./ Maisu batekin eskolan laster / asi bear det latiñez* –urteen poderioz, ahots-indarra galdu eta, gainera, mantsoegi kantatzen zuen Teofilok, baina, bukatutakoan, petxua harrotu zuen–.

– Euskarazko eskolak eman ahal izateko behar dut –Estik, mihiari eutsiz

– Txorakeria galanta –Teofilok–. Nire aitonaren aitona euskalduna zen, eta horrela haren aitona eta haren aitona, Adamenganaino –gero eta ozenago–. Euskalduna nintzelako joan nintzen gudari, euskalduna naizelako zapaldu naute bizitza osoan eta, egon seguru, euskaldun hilko naiz!

– Ez dauka zerikusirik –Estik–. Euskara batua ikasi nahi dut; euskara salbatuko badugu, batuari esker izango da. Batuak lagunduko digu gure literatura erai-

kitzen... Joan, bestela, Ondarroara edo Maulera, ea hangoekin elkar ulertzen duzun...

Xantion izandako errezeloak ikusita, Brigidarenean, saiatu ere ez. Amonari esan zion denbora pixka bat behar zuela etorkizunaz pentsatzeko. Gero, lasai entzun zuen haren zaparrada, itsasoak euria jaso bezala.

Xexili jakinaren gainean zegoen: batua delako hori intelektualen asmakizun arraro bat zen. Plastikozko engendro hori ikasiz gero, desikasi egingo zuten euskara. Alferrik, ordea, ahizpa egoskor hori konbentzitu nahi izatea: pazientzia berria erakusten zuen, besteak ulertzeko txepelegiak balira bezala.

Dirua ba omen zuen lanean hasi arte bizitzeko. Eutsi horri, ba. Arropa erosi ere egin zuen; bitartean, Xexilik ezin Olatzi ekarri aspalditik eskatzen ari zen modako galtza bakeroak.

Hirugarren aldiz bildu zuen kemena etxetik bidaltzeko eta, aingeru guardakoak abisatuta, han agertu zen bat-batean Esti galtza famosoekin Olatzi oparitzeko. Ez zuen pentsatuko opari ziztrin batekin aurreko guztia barkatuta zegoenik.

Gauzak zer diren: azkenean, Xantiorenean eta Brigidarenean unibertsitateko diploma baten moduan ospatu zen D titulu famosoa eta akademiako neskek isilean aditu behar izan zioten amonari euskara batuaren beharraz jarduten. Non zegoen karlisten alkandorak goiz eta gauez josi zituen Brigida? Eta, handik gutxira, gau-eskolan irakasle hasi zenean, haren poza! Ez zegoen lan beharrezkoagorik; Xexilik maila jaistea zela pentsatzea ere...

Alaba prodigoa. Tarteka besterik ez zuen lan egiten. Eta kobratu ere, hala moduz, San Judas Tadeok agindutakoan. Bitartean, parranda, erre ezkutuan, iji eta aja. Ez al zuen etxeko beste inork ikusten?

Pazko-igandekoa ere izugarria izan zen. Teofilo trabajadoreetatik itzuli zenetik tradizio bihurtuta, bazkari inportantea egiten zuten, Ixabelek jositako ikurrin zaharra mahai erdian, janariari armairuko naftalina-zaporea kutsatzen. Kafearekin batera animatzen zen Teofilo gerraz kontatzen zuen pasadizo bakarra gogoratzera: Durango aldeko bonbardaketetan, mendian gorde eta hegazkin bat bueltaka ibili omen zitzaiola, babes hartua zuen haritz sendoa metrailatzen, Jerikoko tronpetak baino ozenago, taka-taka-taka. Balak hustu ondoren, tontorra txikitu beharrean jardun

omen zuten bonbaka, danba eta danba, alferrik. Bukaeran, bonbak gordetzeko egurrezko kutxekin asmatzen ere saiatu omen ziren, horraino gorrotoa.

Patxaranak, berriz, sentibera jarri eta negarrez kantatzen zuen Basarriren trabajadoreetako sorta: Nork egin du gure galde? / Aiako Arritan gaude / baina beti bezain trebe lara la / lanean gogoz aritzen gera / soldatarik jaso gabe. / Berrehun nagusi badaude / gure artaldean jabe / guk umore ona halare...

Otoitzak irekitzen ohi zuen bazkaria. Teofilo hasi zenean, ordea, Estik moztu: Txikia gudaria gogoan hartzeko eskatu zion, mainontzi eskatu ere, ederki baitzekien nahi zuenean. Txikia hori aurreko ostegunean Algortan hil zenetik, besterik ez zerabilen ahoan.

– Esti, faborez –Xexilik–, bandoleroa zunan –eta hiltzailearena isildu zuen mahaiari errespetuagatik.

– Gudari bat –Estik, Teofilo eta Ramirori tinko begira–: Iaz, Precicontroleko nagusia bahituz langileen baldintzak hobetzea lortu zutenean, ETAkoak ez ziren bandoleroak. Eta gauza bera aurten Huarte lapur urde horrekin.

– Burdinez hiltzen duena... –Xexilik–. Ezin dun gizasemea hil.

– Orduan Francoren txakurretako bat hil beharra zegon: lasai egingo al din lo Txikia garbitu duenak?

– Esti! –Xexilik.

– Guardia Zibilak esan zian kotxe baten barruan akatu zutela Txikia, abiatzear zegoela. Ba al hekien ez zekiela gidatzen? Giltzarik ere ez zeukan. Gerran gauden eta ez zegon erdibiderik: edo geurekin edo geure kontra.

– Bueno, nahikoa dinagu.

– Franco bera baino frankistagoa haiz.

– Jesus! Beste gairik ez dago, ala?

Teofilok solemneki bete zuen isilune deserosoa; Jose Antonio Agirre lehendakaria aipatu, gero familiako izen-zerrenda eta, bukatzeko, Eustakio Mendizabal *Txikia* gudaria.

Udaberriko eguerdi batean, postreko intxaurrekin ari zirela, kotxe bat hurreratu zen baserrira. Ikastolako irakasleak ziren, klaxon joka; hango festa! Liburua ekartzera zetozen, umeekin batera idatzitako hura. Umeek beraiek sinatu omen zioten; hainbeste maite bazuten, zergatik ez zen bueltatzen? Lasaiago egongo

zen ordurako German Mendoza; harekin hitz eginez gero...

Kafea hartzera gonbidatu zituen Xexilik, ea, haiekin egonda, Estik ideiaz aldatzen zuen. Berehala damutu zitzaion: Xantio zaharra ez zegoen inor ikusteko moduan. Jator egin zioten uko irakasleek, arratsaldeko eskolara joateko aitzakian, eta segituan abiatu ziren, eta haiekin batera ikastola eta Esti arrastoan sartzeko ametsa.

10

Geroz eta denbora gehiago ematen zuen kalean, lanean edo auskalo zertan. Xexili lotsatuta bizi zen, txutxu-mutxuren bat noiz iritsiko. Udaran, gau-eskolako lagun berri batekin joan zen oporretara millonarioa, bestearen kotxean Holandaraino. Zer egin behar zuten bi neskak han?

Estik ez zion obeditzen, nahi zuena egiten zuen. Nahiz eta fabrikako langilea ez izan, manifestazio guztietan sartuta zebilen. Basoa sutan zen herria; lantegi bat piztu eta, segituan, aldamenekoa.

Aitarenak ere hartu zuen su. Urtebetea behar izan zuen amonak semea konbentzitzeko, hura ere mandoak baino egoskorragoa: soldata hobea merezi zuen eta mejora eskatu behar. Aranzabal jaunarekin haren despatxoan hitz egiten ari zela, lankide mordo bat agertu zen baldintza duinen eske. Manuel iraultzaileen zakuan sartu eta haiekin batera kaleratu zuten abendu hasieran, denera 80 familia.

Lur jota geratu zen aita, etxetik irten nahi ez zuela, Aranzabal jaunarekin harremanetan nola jarri jakin

gabe. Xexilik ez zuen Brigidarenera joan nahi, esplikazioak ematera behartuz aita umilduko zuelakoan. Hirugarren egunean ausartu zen, baina aitaren partez, amona aurkitu zuen hondoa jota. Nor eta Brigida Plantxadora negarrez!

– Estibaliz aztoratuta agertu dun dirua behar zuela eta dirua behar zuela –burua gorde zuen esku artera. Alanbrezko behatzak zituen, zain urdinak garden bistan–. Eta ez gutxi: hogeita bost mila pezeta.

Hogeita bost mila pezeta! Eta eman egin zizkion! Bizitza osoa musu-truk akademian laguntzen, azkeneko urteetan bera irakasle, amonari bista lausotzen hasi zitzaionetik...

– Ez zidanan zertarako behar zuen esan. Neroni baino temosoagoa dun dagoeneko, ederki dakin hik.

Amona gaixoari horrela lapurtzea ere... Beti josten eta josten, familiako txoriburuak auskalo zertan xahutzeko. Jokoan hasia zen? Jainkoak jakin; gai zen Xantio ere apustuan galtzeko!

Ez zen egun osoan etxeratu.

Hurrengoan ere ez.

Xexili goizetik gauera sukaldetik mugitu gabe, zelatan. Lotsagabea iristen ari zela harrapatu nahi zuen, sartu gabe ere epelak bota eta bidali Xantiotik, ea behingoz ikasten zuen. Urtebete berandu ari zen; ama gaixoari zor zion: norbaitek eman behar zion lezio bat Estiri.

Jesukristoren moduan, hirugarren egunean itzuli. Han agertu zen kamioko hasierako errebueltan, hamaikak aldera. Eskerrak Xexilik urrutitik antzeman zion, balantzaka eta mozkor-mozkor eginda baitzetorren. Deskuiduan Ixabelek edo Olatzek ikusten bazuten...

Sutan joan zitzaion enkontrura.

– Hik dauzkan gibelak, hik! Horrela etxeratzea ere!

Estik besotik heldu zion, bere gorputza gainean zamatu.

Alkohol- edo tabako-kiratsik ez.

– Azken tanta izan dun, aditu? Aditu?

Esti zurbil, minberatuta, besoak tripa estutzen.

– Zer dun? Gaixorik...?

– Lagundu oheraino, mesedez –ahots-hari bat–. Nahi badun, bihar joango naun –negar egiteko indarrik ere ez.

Via Crucis ederra bidean gora! Ixabel laguntzera atera zen, isilik eta aurpegia gaitzespenez garbi. Ohera sartu eta kalentura hartu zioten. Baxu-baxua, ia 34 gradu.

– Medikurik ez –Estik, maindireak baino zuriago–. Pasatuko zaidan.

– Zer egin dun?

Ahizpak hormara begiratu eta Xexili ez zen pentsatzera ausartu. Ixabelek baratxuri-zopa eta belar-infusioa prestatu zizkion, mila mantarekin babestu. Dardara barruraino sartuta zeukan.

Biharamunean, oilarrak jotzerako, Xexilik begiak zabal-zabalik.

– Hobeto al hago? –goxo-goxo.

Estik ezetz buruaz. Begi-zulo moreak zeuzkan; mamu bat ematen zuen. Kopeta hotz-hotza, dardaran jarraitzen zuen. Beldurrez altxatu zizkion Xexilik hanken aldeko mantak: maindireak odolez blai. Odol beltz-beltza.

– Ramiro! Ramiro etorri hadi agudo! –eta Estiri, lasai-plantak egiten ez zekiela–: lasai, ospitalera joango gaitun, ez kezkatu.

Pasillotik zetorren senarra, idien moduan dilindalan, ezin txepelago. Ikurrinak jartzeko, lehenengoa; etxekoengatik borrokatzeko, berriz...

– Ekartzak kotxea.

– Ze kotxe?

– Aspaldi erosi behar huena, alfer gibel-haundi horrek! –eta ahapeka, azazkalak haren besoan iltzatuz–: damutuko zaik ospitalera berandu iritsiz gero.

Hotza egiten zuen ospitaleko pasillo hartan. Edo, agian, hezurretaraino sartuta izango zuen, erizainak hemendik hara bata hutsean baitzihoazen, Ama Birjina bezain zuri, besteen tragedien aurrean itsu.

Esti esku onean zegoen; esturak, baina, barrenak estutzen zizkion Xexiliri ezin izan ziolako barrura lagundu larrialdietako atetik sartu zirenean, ez zuelako zer eginik ahizpa sendatzeko, itxaron eta otoitz egin besterik ez, ea Jainko zorrotz, gogor hura azkenean errukitzen zen.

Begiak garbitu zituen, sudurra. Ai, amatxo maitea: ez ahal zen behingoz 1973 madarikatua bukatuko!

Burua aldamenera biratu zuen. *La Voz de España* zahar bat zegoen ondoko aulkian zimurtuta, aitak erosi ohi zuen periodikoa. “Kissinger en Madrid”. Bi argazki. Antiojodun harroputza Juan Carlos printzearekin, Lopez Rodo ministroarekin. “Victoria Eugenia mañana *Las aventuras de Tom Sawyer*. Astoria. *Chacal*. Una cena en honor del señor Kissinger”. Afaria antiojodunaren ohorez. Galako jantzietan bilduko ziren elkar besarkatuz, aitonduak, burusoilduak, potoloak, dominak paparrean eta irribarretsu, ziur. Franco gorrotatzeko adorerik ez; Kissinger, Bakearen printze zuria, Carrero almirantea, hori beti aparretan, generalisimoaren delfina, antzinako etorkizuna, irabazle betiko, inbutuaren alde onean etengabe eta egunero ogi samurra. Zergatik ogi gogorra hortz higatuak dituenarentzat?

Arantzazuko Ama maitea, sendatzen baduzu, peregrinazioan joango naiz Estirekin. Eta Lourdesera.

Pasillo zuriko bi aulkitan eserita zeuden. Xexilik ez zituen begiak altxatzen, gehienez hulezko lurretik paretara. Arnasa hartze lasaiak salatu arren, indarrik ez Ramiro lotan harrapatzeko. Mediku bat hurreratu zitzaien, begiratzen zien lehenengoa. Haren keinu kezkatua barruraino iltzatu zitzaion: airea hartu ezinik, arnasestuka hasi zen.

olatz

1

Denak isilik zeuden parrokiako lokalean. Xabi bakarrik zegoen zutik, amorruz negarrez. Txikiren laguna zen, Gipuzkoako tontorren erdiak igoak zituzten elkarrekin.

Ederki damututa zegoen Olatz behin esan ziolako Txiki extremeñoa zela, Euskal Herriaren alde borrokatu bai, baina euskara ez zuela ikasi. Polita jarri zen Xabi; haserrea pixka bat pasatzean, suertea zuela bota zion, euskaldun peto-petoen artean jaio zelako, eta frankistek Txiki fusilatu nahi zutela traidoretzat jotzen zutelako, ezin zutelako eraman haietako bat euskaldunen alde borrokatzea.

Orduko disgustua gogoan eta mutila horrela ikusteak hunkituta, nekez ari zen Olatz malkoak frenatzen, errespetu falta ikaragarria ez erakusteko. Xabik, aurpegia garbitu ondoren ere, beldurra ematen zuen suzko begi haiekin:

– Ez duk horrela geratuko. Fusilatzen baditek... –ukabilak estutu zituen.

Hileta-umorean itzuli zen Xantiora Olatz. Arratsaldean, manifa egingo zuten, herria hankaz gora jarri. Izututa zegoen Xabik harekin panfletoak banatzea eskatu ziolako. Harro ere bai, baina harrapatuz gero... Nahikoa arriskutsua izango zen berez manifa: Polizia erotuta bezala zebilen.

Panfletoak banatzea: Xabik lokalera eraman nahi ez zuela pentsatzea ere! Bazirudien bizitza osoa pasatu zela amore eman zuenetik. Zenbat aldiz ez ote zion errepikatu hamazazpi urte bete arte ez ziola joaten lagako. Gezurra, gainera: apirilaren 9an zuen Olatzek urtebetetzea eta maiatz bukaeran ezer ez, Koldo Arriolarena gertatu arte.

Ez zen neska bakarra izan; Mertxe, Olatzen lagunik onena ere hantxe zegoen, Karmelorekin zebilelako. Auskalo zer ikusten zion tipoari: pailazo hutsa izateaz gain, ez zen geldirik egoten, barra-barra esaten zituen txorakeriak...

Aulkiak zirkuluan jarri zituzten. Xabi-eta eztabaidatzen hasi ziren ETA militarra eta ETA politiko-militarra banatzearen benetako arrazoiaz. Olatzek ez zuen ulertu “fronte militarra hobestea” zer arraio zen; galdetu eta Xabik laser izpiak bota zizkion begiekin, huts egin

izan balio bezala. Eta egia zen: biak bakarrik egonda galdetu behar zion, ez besteen aurrean, ergel baten moduan.

Berriketan jarraitu zuten besteek pixka batean, baina argi zegoen Xabik zerbait zeukala eta laster isildu ziren. Txisteratik bezala atera zuen panfletoa:

– *Estado de excepción*-ari buruzko notiziak dauzkat.

– Hi, nola esaten duk *estado de excepción* euskaraz? –Karmelok, Filologia ikasten ari zela erakutsi nahian.

Zeinek handiagoa bota hasi ziren mutilak: egurrezko egoera, estatu poliziala, torturatu mesedez... Olatzek “salbuespen-egoera” proposatu nahi zuen, izeba Esti gogoan, baina mihiari eutsi zion badaezpada ere.

– Egun grisak! –Karmelok.

Barre algarak entzunda, Xabi desesperatu egin zen:

– Hi bai grisa! Zenbatetan ikusi duk gris putakumeren bat herrian? Ze ostia duk Txerrimutur?

– Putakume bat? –Karmelok, aingeru-aurpegiz.

– Guardia zibila, motel –Xabik, pazientzia galduta.

Panfletoa altxatu zuen:

– Zentsura dela-eta, hauxe dugu berri-iturri edangarri bakarra –Olatzek bularra puztu zuen: hori zen hori hitz egiteko modu dotorea–. Gogoratzen Ondarroakoa? Bagenekien txapelokerrek garbitutako mutilak ez ziela erasorik egin. Hemen dio cou bukaerako afalondoan etxera zihoazela kantari ikasle batzuk eta, kuartel aurretik pasatzean, txapelokerrek haietako bat atzeman zutela. Luis Arriola. Koldo. Tiro bat aditu zuten segituan. Hurrengo goizean, gurasoei esan zieten istripuz hil zela, gorpua deposituan zegoela.

Urduri irentsi zuen Olatzek bazkaria, disimulatzen. Etxekoek ez zekiten manifara joatekoa zela. Ordurako ez zien ezer kontatzen; ez zuten ulertuko. Xantiorenekо sukaldean senargaia egin zuela aitortzean, hango poza eta hango muxuak! Mutilaren izena argitu ondoren, berriz, isilune glaziarra. Amak eskutik hartu eta arrastaka eraman zuen baratzera, bekatu kapitalen aurpegiz.

Xabiren abizenei besterik ez zien erreparatzen: Mendoza Gantxegi; ezin zuen ahaztu izebak Xabiren aitarekin izandako tirabiratxoa. Zenbat urte lehenago? Faborez!

Etxeko gizonek lan egiteari laga zioten, txundituta. Elizan bezala irentsi zuten amaren erretolika. Gero, aitak aitzurra hartu zuen atzera, mutu. Zer esan behar zion, ba? Pixka bat harrotuta zebilela Donostiako Usandizaga institutura batxilergoa estudiatzera bidali zutenetik? Edo arraroa zela gau-eskolan ikastearen kontu hura? Ez ziren garai errazak, ez: zenbat eta okerrago Franco, orduan eta zakarrago itsasoa. Eskerrak Mikel seme-alabetan gazteena zen, eta ez alderantziz.

Ezberdina zen Xabi eta agerian utzi zuen zinemako aurreneko hartan. Mertxek proposatu zuen kuadrillan azkeneko funtziora joatea, gaueko hamar eta erdietan, eta ez ohi bezala zazpietan. Sekulako negoziazioen ondoren, denek lortu zuten baimena. Larunbatean, txiten moduan sartu ziren Modelo zinemara eta Mertxek gidatu zituen erdiko pasillotik zuzenean lehen lerrora. Bigarrenean, formal zeuden Xabi-eta, nesken txutxu-mutxuei entzungor eginez bezala. Argiak itzalita, berriz, iletik tiraka eta sorbaldan atximurka hasi zitzaizkien. Neskak txoratzen: buelta eman, errieta egin, haserre-plantak... Olatz izan ezik: behin besterik ez zuen burua itzuli, Xabiri begiratzeko. Denen aita

ematen zuen, NODOari adi, ume-jolasen gainetik. Burua mugitu eta begira-begira geratu zitzaion.

Atera ondoren, Xabik jendetzaren artean bilatu eta buelta bat eman nahi zuela esan zion, galdetu gabe, proposatuz bezala ea biok ideia bera eduki zuten. Olatzek irribarre egin zuen, lotsatuta. Etxera itzuli behar zuen, ordea, eta hurrengo arratsalderako geratu ziren.

Orduak behar izan zituen arropa erabakitzeko, zalantzak torturatuta mutila agertuko ote zen, ahaztuta edo damututa edo auskalo. Xabi ikustean, haizearekin joan ziren beldurrak, haizearekin beste batzuk etorri: zertaz hitz egin? Ze distantziatara ibili? Nola jokatu?

Malekoiaren bukaeran eseri ziren itsasoari begira. Xabi luze egon zen isilik; gero, eskutik samur hartu eta Donostian gertatutakoa hasi zen kontatzen: bi gazte, Tupa eta Tanke, ETAkoak. Kontrol batean geratu omen zituen poliziak, kotxean zihoazela. Zuzenbide fakultate parean izan zen, jende pila baten aurrean.

Gazteak, armak kotxean utzita, korrika atera ziren mendirantz. Poliziek metrailetekin apuntatu eta tiro egin zieten. Ta-ta-ta-ta. Biak erori ziren lurrera. Tupari buruan eman zioten.

Kontakizuna bukatzean, Xabik muxu eman zion. Paseatzen itzuli ziren, eskutik helduta, eta nahasita

etxeratu zen Olatz. Alde batetik ondoeza: nola zitekeen Poliziak inpunitate osoz jendea metrailatzea? Eta, bestetik, ezinegon goxoa: Xabi, Xabi, Xabi.

Ezin zituen bi sentimenduak banatu.

Arropa erosoarekin jantzi zen, amak eta Ixabelek ez zezaten asmatu Xabirekin egotekoa zela. Gainera, manifestazioan agian... Ez, ez zen ezer pasatuko. “Aio!” oihukatu eta bixi-bixi irten zen baserritik, berandu iritsiko zelakoan. Kanposantuko bidegurutzean itxaron zuen, Xabik esandako lekuan. Bost minutuz, hamar, hogei. Non zegoen? Leku txarra zen. Txerrimutur kapaz zen harri baten azpitik agertzeko, eta orduan... Capitantrueno ere ez zen makala. Txerrimutur ezizena ez zekien zeinek asmatu zuen, baina bestearen ohorea Karmelori zegokion, guardia zibilen kapitaina harroputz hutsa baitzen, tente-tente beti, askotan zaldiz. Halere, Olatzi ez zion Txerrimuturrek adina beldur ematen.

Motorraren zarata, eskerrak. Halere, ez zetorren errepidetik, baizik eta kanposantuko aldapatik. Ziztu bizian jaitsi zen Xabi, Olatzek oparitutako makuto polita aldean.

– Nondik etorri naizen ez duzu ikusi –Xabik, konplize-irribarrez.

Olatzek muxu eman zion. Ohiko zirrararen partez, urduritasuna sabelean. Nerbioak normalak omen ziren lehen ekintzan. Atzean eseri eta abiatu ziren, makutoa eskuineko belaunean kolpeka. Dena azkar pasatzea nahi zuen.

Plaza lepo, manifestazioa hastear zegoen. Norbaitek ikusi omen zuen Capitantrueno kuartel aurrean metraileta prest, zaldi gainean. Jendeak eutsi egin zion, ordea, Txikigatik, Otaegigatik. Eta Tupagatik ere. Olatzek lurrean irudikatu zuen, ahoan tiroa zuela eta odol-putzu baten erdian.

Oihuak: gora ETA! Giroa gero eta beroago; noiz egingo zuten ekintza? Berandu baino lehen azalduko ziren guardiak egurrean eta orduan... Poliziaren partez Karmelo eta Mertxe agertu ziren, karakola eta barea, goraetaka, baina barrez lehertzen, zirkurantz bezala. Kuadrillako beste inor ez; ez ziren horrelako saltsetan nahasten. Harrituta omen zeuden Olatz eta Mertxe aspaldi ez zirelako haiekin egoten; nola, ba! Umemokoak ziren. Aurreko larunbatean Bordatxon zeuden eta, bi bikoteak afaltzera sartu zirenean, han hasi ziren barre ergeltxoarekin.

Otaegi. Zurrumurru baten arabera, ETAkoa bainoago, laguntzaile hutsa omen zen. Tupa larri zaurituta, Otaegi gaixoa hiltzera kondenatu omen zuten gutxienez bat fusilatzeko, baina ezin inori galdetu, batik bat ez Xabiri, ez zezala pentsa *derrotista* hutsa zela.

Ai, ama. Berehala egin behar zuten; Xabik, ordea, itxaroteko. John Wayne zen, lasai-lasai erasoaren aurretik. Azkenean, makutotik entziklopedia moduko sorta bat hartu eta jende artean galdu zen. Pixka bat geroago aireratu ziren han eta hemen orri-eskukadak, geiserren antzera. Makutoarekin utzia zuen Olatz, oso paskin gutxirekin. Arnasa hartu zuen, dardaran. Jendetza mugitzen ari zela aprobetxatuta, azken haiek atera eta gora! Ez al dira uxoak ere zuriak?

Beldurrak paralizatu zuen. Bat. Bi. Hiru. Txerrimutur ezerezetik azalduko zen, idi-begiak sutan...

Tiroak! Bihotzean jotzen zuten oihartzunek. Jendea korrika. Garrasiak. Plaza lehertu beharrean, sarrera guztiak itxi zituzten guardia zibilek. Ateratzean ehizatu nahi zituzten, satorren moduan. Alde batetik sartu ziren borraz joka: lasterraldiak, marruak, tiro gehiago.

Non zegoen Xabi! Bultzadak, oihuak. Nora joan? Mondragones taberna aldameneko ezkaratza ireki

egin zen; Mertxek sartu zuen eskutik tiraka eta egurrezko eskaileretatik igo ziren arin-arin. Etxebizitza batean errukitu eta barruan gorde zituzten beste hamaika lagunekin batera. Isil-isilik denak, shockean. Aurpegira begiratu arren, ezin gogoan hartu. Sarraski bat egiten ari ziren plazan; Xabi gaixoa.

Negarrez hasi zen.

2

Armairuan gordetzen zuen kutxa metaliko biribila, Danimarkako pasten urdin horietako bat. Barruan, altxorrak. Hiru egunkari-orri atera zituen, klip metalikoa kendu. Lehena Xabik eman zion. Igandea, 1975eko irailaren 28a. Bezperako partiduaren berri ematen zuen: Realak bat eta huts irabazi zion Españoli. Azkeneko esaldia azpimarratuta zegoen: partiduaren interesa kontuan hartuta, espero zitekeen baino jende gutxiago joan omen zen. Egun horretan fusilatu zituzten Txiki, Otaegi eta besteak; ze pena bonba atomiko batek partiduko ikusle bihozgabetuak akabatu ez izana.

Txiki heriotzara kondenatu zutenetik exekutatu arte luze joan ziren egunak. Burgoskoan baino zarata gehiago atera omen zuten: manifak, kotxeak erre, harriak bota, propaganda latz banatu... Eta poliziak inoiz baino egur gehiago: uholde berdeak, grisak, gomazko balak eta, tarteka, benetakoak. Zaurituak. Hildakoak.

Momentu batean, ematen zuen krimena gelditukо zutela, frankistak kikildu egingo zirela: Espainiako en-

baxadak erre zituzten atzerrian, protestak antolatu, aita santuak ere errukia eskatu zuen...

Alferrik. Sei boluntariok hil omen zuten Txiki. Zaila zen burutik kentzea: sei heroik eman zuten izena beste gizon bati bizitza kentzeko. Boluntario.

Bigarren egunkariko orriak bi lerrotan laburtzen zuen hileta biharamunean egin zela, Zarauzko parrokian. Ez zuten aipatzen milaka lagun bildu zirela barruan eta kanpoan, gorpurik gabe ejerzitokoek Bartzelonan hilobiratu zutelako, familiari eman gabe. Beste kontu txiki bat ere ahaztu zuten kontatzen: meza ondoren, Txikiren ama eta apaiza atxilotu zituzten, hiletan esan zuten zerbaitengatik. Ordu luzeak igaro ziren askatu zituzten arte. Gau hartan, izugarri haserretu zen amarekin. Zain zegoen baserriko atean, Olatz noiz etxeratuko. Ez “kaixo”, ez “gabon”; amak zuzenean bota zion:

– Kontuz ibili, faborez.

– Kontuz? Ni? Ez naiz ni jendea akatzen jardun.

– Horregatik.

Astunegia egiten zitzaion ama beti gainean izatea. Nota onak ateratzen zituen, ondo portatzen zen, baina ezin zuen ahaztu non bizi zen eta zer zen.

Hirugarren orria 1975eko urriaren 2koa zen. Goiko argazkian, Orienteko palazioaren aurrean espontaneoki bildutako jendetza. Beheko batean, Franco eta Juan Carlos printzea; bestean, pankarten detailea: “Franco, gaur eta bihar beti zurekin”, “Espainiako herria legearekin”.

Errotuladore beltzez, hitz batek zeharkatzen zuen orria diagonalean, Olatzen letraz: INDEPENDENTZIA.

Ordutik, xelebre-xelebre ari zen Xabi. Ez zion kontatu nahi zer zekarren esku-artean; behintzat ez zuen ukatzen. Birritan ordubete beranduago agertu eta beste batean agertu ere ez. Bakarrik esaten zion ez kezkatzeko, ez zeukala loturarik harekin, jakingo ez balu bezala egiten zuen edozein gauzak zeukala lotura Olatzekin. Banatzen ariko ote ziren konturatu gabe? Bigarren aukerak amorru handiagoa ematen zion Olatzi: Xabik babestu egin nahi zuela. Zer uste zuen, ez zela gai edozer egiteko? Akaso ez al zuen Xabiren ondoan jardun azkenaldiko manifa eta saltsa guztietan?

Logelako atean kax-kax. Ederra sustoa; hain kontzentratuta zegoen! Burkoaren azpian dena ezkutatu eta pelikulen dotoreziaz “Bai?” galdetu zuen ozen.

Aitona Teofilok ireki zuen, musugorri eta irribarretsu. Balantzaka sartu zen, denboraren poderioz alda-

ka pitin bat zabalduta, eta esku latz bat ireki zuen billetea eskaintzeko: hogei durokoa.

– Eskerrik asko, aitona –eta muxu eman zion. Asteroko zeremonia zen Ixabelen lekukoa hartu zuenetik Berdura plazako postuan. Nahiz eta baserritarra izatearen lotsa gaindituta zuen, ezinegona sortzen zion oraindik jendaurrean barazkiak saltzen jarduteak, atso haien modura, azazkaletako lurra garbitu ezinik. Tira, agian lotsa pixka bat ere bai, baina latza zen bere bokata ordaindu ahal izatea.

Atzera bakarrik, hamaikagarren aldiz nekatu zuen erlojua: bi ordu oraindik, goizegi. Irakurtzeko gogorik ez: bizi nahi zuen; sosegurik ez besteen istorioetan sartzeko. Bitxia; lehen, jan egiten zituen liburuak.

Izeba Estik, Xantiora aldatu zenean, gainezka ekarri zuen egurrezko kutxa dotore bat. Zabalik zeuzkan beti gela eta kutxa, ale misteriotsuak kaotikoki sakabanatuta. Ikaragarri gustatzen zitzaion Olatz irakurtzen ikustea; zenbat gomendio eta aholku! Adibidez, Luca de Tenaren *Edad prohibida* eskuetan harrapatu zuenean, eskolatik ekarria. Kendu eta leihotik behera bota zuen lokatzetara. Panfleto frankista omen zen, emazte fidel eta otzanak moldatzeko prestatua.

Hura hil ondoren, haren logelan babestu ohi zen Olatz, ezer aldatu ez izanak nolabait lasaituta. Mesanotxe gainean jarraitzen zuen izebaren azken argazkiak: baserri aurrealdeko zabalgunean Andu Lertxundi, Manolo Urbieta, Paulo Eskibel eta Maria Eugenia Fernandez, beso-katean kantari, Estik baino ez diola kamerari begiratzen, *Haurra ipuin denean* liburuaren ale bat harro erakusten.

Argazki ondoan, amak jarritako gurutzea eta hura estaltzeko izebak pilatutako liburuak: Franz Fanon, Sartre, Camus eta, goi-goian, Simone de Beauvoirren *Bigarren sexua*-ren bi zatiak. Bizirik zegoela, ez zuen hura ahotik kentzen.

Behin batean, lurrean eserita zegoela, aurreneko alea jaitsi zuen magalera. Espainol txukunean zegoen. Zer da emakume bat? Emakumeak definitzean, emakumea dela markatzen da lehenengoz. Gizona beti unibertsal.

Laugarren orria irekitzerakoan, ezin: ebaki gabe zegoen goian.

Kolpe batez itxi zuen, sekretuak jota.

Izebaren arropa tantaka hartzearekin konformatu zen; amona Brigidak moldatzen zion. Eta Xexilik, mutu amen, harik eta labaderotik zetorren batean, oihu

ezohiko batez agindu zuen arte Estiren gauza guztiak jaisteko.

Lasterka joan zen Olatz izebaren gelara, Beauvoirren konfidentzia ezkutatzera. Alferrik; ama enbata bezala sartu, liburu-kutxa gainean hustu armairua eta eskaileretan behera bota zuen dena, sutara. Izebaren xanbrea atzera itzuli zen baserri zaharreko beste gela hotz bat izatera.

Berandutu egin zitzaion azkenerako. Animoa ilun, bakero zaharrak erreskatatu zituen armairutik: kritikatzen hasiko zen ama, ez zirelako kalera joateko modukoak.

Modelo zinemaren aurrean, ilara ederra; Xabik besarkatu egin zuen, eta Olatzek gustura onartu: ordurako ez zion erreparorik ematen.

Xabik bi sarrera zituen, opari, eta Olatz muturtu egin zen: pribilegioak baliatzea ez zegoen ondo, eta nahi adina zituen Xabik. Ez zuen harrotasunik erakusten, baina lotsarik ere ez.

Argiak itzalita, NODOaren tronpetak hasi ziren. Madrilen feria bat zabaldu omen dute eta ez dakit zer. Elkarrekin xuxurlaka aritzeko minutuak ziren, buruak

gertu-gertu tentsio elektrikoa sumatzeko. Halere, Xabi mutu ari zen pantailara begira, ezinegonean, aulkian eroso eseri ezinik. Eta ez zen bakarra. Pelikularen erdialdean ozendu zen zurrumurrua. Tiroak Santa Ana aurrean. Zauritu bat. Txapelokerra. Polimiliek. Hilda.

Txalo bat. Beste bat. Xabi barrez hasi zen, urduri, ia histeriko. Karmelo katuka hurbildu zitzaien pasillotik.

– Txerrimutur garbitu ditek –ahopean. Eskuak bihotzera eraman eta hildakoarena egin zuen lurrean. Kurrinka hasi zenean, barre-algara izugarriek erantzun zioten.

– Alde hemendik! –Xabik–. Atentzioa ematen ari haiz, ergel hori!

– Lasai, Romeo, banoak. Semeak gorpua ikusi omen dik –eta arrastaka urrutiratu zen.

Olatzek bistaz ezagutzen zuen semea. Zer izango zen horrelako aita izatea? Aurreko urtean, aitona Teofilo Guardia Zibilaren egurraz hizketan ari zela, Olatzek heldu-plantak itxuratu eta murmurikatu zuen:

– Putakumeak.

Amaren haserrea!

– Gizaseme bat ez da putakumea guardia zibila delako, gaiztoa delako baizik.

Putakumea esan zuen lehen aldia izan zen. Eta azkena.

Gaiztoa, ordea, txiki geratzen zitzaion Txerrimuturri. Merezita zituen tiroak: putakumea.

Ezin irudikatu zer-nolakoa izan zitekeen aita tiroz jota aurkitzea.

Hogei minuturen faltan, Xabik belauna estutu eta alde egiteko keinua egin zion. Kaleko ate astunak zabaltzean, zapla, sei txapeloker zain.

– ¿Prisa? –ahots burlati batek, ezkerretik.

Begiratzeko astirik gabe jaso zituzten buruan kolpeak: Capitantrueno. Bultzaka eta arrastaka kuarteleraino, aitaren lagun batek ikusi zituen bidean. Esango al zion? Lagunduko ote zien? Adineko bikote batekin gurutzatu ziren, kanpotarrak. Beldurrez begiratu zieten, baina ez guardiei, baizik eta lapurren pare zeramatzaten mutil eta neskari.

Lapurren pare.

Bultzada batez bota zuten Olatz ziega batera. Orduak izututa: jakingo al zuten orriak botatzearena? Zer egingo ote zioten?

Goizeko ordu txikietan, botatzarren urratsak eta ate metalikoaren giltzarrapoa. Ireki eta bokadilo bat laga zion lurrean guardia zibil gazte batek. Mortadela, azeituna zatiekin. Ezin jan.

Oroitzapen lasaietan babestu nahi izan zuen. Zergatik ez zen kuadrillakoen antzekoa? Politikan sartzeko tentaziorik gabe, buruhauste arruntekin...

Botak bueltan: altxatzeko. Zaharragoa zen guardia hura, biboteduna. Zakarra. Besoa estutuz gidatu zuen eskaileretan gora. Neska bat garrasika, minez. Guardiak aitorpen-ahotsez xuxurlatu zion Ibarrako bikote batek ere hartua zuela gela hotelean. Tolosan ere bazuten kuartela; zergatik ekarri Zarautzeraino?

Gela batean, lau guardia eta Capitantrueno. Kantatzen hasteko. Negarrak egin zion ihes Olatzi; zer esan behar zien?

Capitantruenok keinu bat egin eta guardietako bat Olatzi hurbildu zitzaion eskua altxatuta. Norbaitek jotzerik ba al zeukan haserre egon gabe?

Belarrondoko latz bat.

Txiripaz ez zen lurrera erori. Harridurak estali zizkion minaren aurreneko segundoak; gero, taupaka hasi zitzaion masaila.

Guardiak eskua ireki eta zapla! Mina, bete-betean.

Aitortzeko dena.

Zer, ordea?

Lurrera bota, iletik arrastatu, ostiko bat, beste bat. Aulki batean pausatu zuten. Erantzuteko. Zotinka hasi zen, eztarria itxita. Hankartean, epeltasuna zabaldu zitzaion: txiza. Barreak. Burlak. Masaileko bat. Beste bat. Beste bat.

Eranzteko.

Birritan errepikatu behar, burmuinak uko egin ziolako “fuera la ropa” itzultzeari.

Gizonak irrikaz. Jertsea kendu. Oinetakoak. Galtzerdiak. Eta miraririk ez: alkandorako goiko botoia. Bigarrena. Guardietako bat hurbildu eta tiroi batez zartatu zituen gainerakoak, alkandora tiraka erauzi. Beste batek bularretakoa askatu, kendu.

Txistuak. Pareko guardia atximurka titietan. Txaloak.

Jarraitzeko berak.

Larru-hutsik amaren aurrean ere ez. Galtza bustiek azalari eusten ziotela, kremailera jaitsi zuen, begiak itxita. Jaistean, askatzeko borrokatu zen. Kuleroak ez katigatzeko kontuz, hanka bat atera, bestea; ez zekien galtza tolestu edo ez, bota edo utzi. Txiza epela izter barruan.

Jarraitzeko.

Esku librearekin irristatu zituen kuleroak beherantz, orkatiletaraino. Dardaran zegoen, negarrak bista lausotuta. Beso meheen atzean gordeta, ezin ezkutatu titiak eta alua eta dena.

Besoak gurutzean jartzeko.

Mojetan zigortzen zutenean bezala. Denak begirabegira, bera malkoz jantzita, barregarri, babes gabe, baldar, umiliatuta. Armadura zen haien uniformea.

Capitantrueno aurrera: borrarekin titiak jaso, askatu. Hanka tartera jaitsi, muturrarekin bultzatu. Birjina ote zen eztabaidatu zuten algaraka, nork lehenago bortxatu jokatu. Nahi zutena egingo zioten.

Janzteko.

Ziegaraino arrastatu zuten, dardaragatik ibili ezinik. Manta bat gainetik jarri arren, ezin gelditu lurrikara. Eta, loak amesgaiztotik askatzen hasi zuenerako, bueltan gora: Capitantruenok jarraitu, besteak ezezagunak.

Aitona Manuel bertaratu omen zen gauean, karlisten txapel gorria buruan eta gerra-dominak paparrean, tente-tente sabeltzarra disimulatu nahian. Oihuka exigitu omen zuen kapitainarekin hitz egitea, biloba askatzea, okertu egin zirela, harik eta esplikatu

zioten arte neskatxa errugabe gaixoak zer egin zuen. Burua makurtu eta lotsa-lotsa eginda joan omen zen.

Capitantruenok eskua altxa zuen, belarrondokoa prest. Dena zekiten; aitortzeko.

– Ibarrakoak! –Olatzek. Eskua frenatu zela ikusita, buruan bilatu zuen arrapaladan–. Haiek ematen zioten dena Xabiri, haiek!

Barre-algarak: Xabi aspaldi zegoen aske, aitari esker. Bakarrik utzia zuen, benetako gizonak ezagutu zitzan. Halere, Olatzek esan bezala saltsan bazebilen, segituan ekarriko zuten berriro. Saltsan zebilen ala ez?

Atzera negarrez, propagandarena errepikatu zuen, Xabik jaso besterik ez zuela egiten, haren papera arindu nahian.

Belarrondokoa. Zerbait ari zela ezkutatzen; ez bazuen esaten, zapladaka aterako zioten.

Capitantruenok iletik hartu eta altxarazi egin zuen, bere aurpegiraino hurbildu. Olatz hanka-puntetan zegoen; kapitainak orban bat zeukan bekainean.

Iletik tiratu zion gehiago. Zer ari zen ezkutatzen? Aita ekartzea nahi zuen? Teofilo? Ama? Anaia ere ekarriko zuten, horrela jarraituz gero.

Mikel gaixoa. Bere txikia. Xaloa. Txintxoa. Maitekorra.

Capitantruenok esateko behingoz, edo Xantio erreko zuten goitik behera eta Olatzek oihuka ezetz, Ibarrakoek, Ibarrakoek... Paperak, armak. Zulo bat.

Kapitainak irribarre egin zuen, ehiztaria harrapakin etsiaren aurrean.

Bazegoen bainera bat, komuneko ur arrez goraino. Muturreko bat. Lurrera bota, alfonbra batean bildu, estutu, burua besterik ez kanpoan, birikak ireki ezinik arnasa lortzeko, ostiko-zaparrada eta ahoa odolez beteta, burua zapaldu zioten, segituan airean jaso eta bainera gainean mantendu kiratsa arnastu zezan, txiza, kaka, ustela, eta abisatu gabe ur lohian murgildu zuten, aztalka egin nahi eta ezin, airea hartu nahi eta ezin, itotzen ari zen, airerik ez, txizak sudurra bete eta, ezpainak estutu arren, ahoa bete kaka, eztarria bete, birikak bete, komisarian hilko zuten Koldo Arriola bezala, ezin zion amari hori egin, amari ez, ama gaixoa, ama.

3

Amona Brigida azkenean errukitu eta German Mendozaren grazia lortu zuen. Mendozak baietz, baina baldintza batekin: Xabirengana ez hurbiltzea. Bigarren egunean askatu eta Etxe Zabala aurrean utzi zuten, arropa izerdituta eta zimur-zimur, desorientatuta. Xexilik besarkatu egin zuen; bera baino altuagoa zen alaba, baina ez zen makurtu. Erotuta bezala zegoen. Ramirok jertsea kendu eta estali egin zuen. Etxerantz abiatu ziren emeki. Goizeko hamabiak ziren eta kalea beteta zegoen. Jendeak lurrera begiratzen zuen.

Xantion zaindu zuten, *zaindu* aditzaren bi adieretan. Komunikatzeko gai izan zenean, amona Brigidari bisitan eraman zuten. Hotz tratatu zuen amonak, azterketak noiz izango zituen galdetu. Olatz blokeatuta: Usandizaga, hango ezagunak eta bizimodua, pelikula zahar baten kontuak ziren, baina amonarentzat hizpide bakarra zen kuartelera ez zeramana. Azkenean, agurtzeko musuarekin, komentario arin bat: ez izan presarik nobioa bilatzeko. Olatzek ez zuen labankada espero; ozta-ozta eutsi zion negarrari.

Institutura itzuli zuten; amak laguntzen zion geltokira, amak jaso. Eta, azkenean, pasieran bidali zuten Mertxerekin-eta. Euriak tregoa eman zuenez, malekoira joan ziren. Urrutian zein ikusiko eta Capitantrueno, zaldi gainean.

Isildu egin ziren olatuak, kaioak, lagunak: kapitainaren trosta harroa besterik ez zen unibertsoan, tok-tok tok-tok, tok-tok tok-tok. Esku zorrotzez gidatzen zuen zelaberea, gero eta hurbilago, ordurako begiak Olatzengan tinko.

Loten emaztearen antzera kristalizatzen hasi zen, paralisia belaunetik gora narrastuz igotzen zitzaiola, izterrak, aldakak, gatza larruaren partez. Hiru aste ziren kuarteletik askatu zutela.

Ile-puntaraino gorritu zen, gorputza lurrikara basati batek astinduta. Zaldia pare-parean geratu eta goitik behera aztertu zuen. Mespretxuz. Burlaz. Eta Olatz, gatzetan atxilo. Ibarrako bikotearen inguruko gezurrak, airea erosteko asmatuak. Kapitainak bazekien. Dena. Itziarren semeak ez du laguna salatzen.

Barrutik ere biluzi zuen Capitantruenok.

Amak guardia pixka bat jaitsita, parrokiako lokalera ihes egin zuen. Apostoluak eserita zeuden, Xabi zutik; kuarteleko bataioaz ari zitzaien hizketan. Agerpen bat. Sermoia etenda, mutilak deseroso altxatu eta burumakur joan ziren.

Gela ziztrin bat besterik ez zen lokala: mahai eta aulki merkeak, horma biluziak. Ez zekien Xabi musu batez agurtu ala ez. Besarkada bat behar zuen, bakez inguratzen duten horietako bat. Amildegia zen banatzen zituen metroa. Astebetez izan zituzten Ibarrakoak Etxe Zabalan, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi egunez. Jakingo al zuen Xabik Olatzen gezurrarena? Gorrotatuko ote zuen?

– Zer moduz? –Xabik, gorrituta. Neskak sorbaldak jaso zituen, begirada jaitsi–. Eseriko gara? –ahotsean dardara. Behintzat, ez zuen poza edo normaltasuna antzeztu.

Aulki banatan jarri ziren, parez pare. Xabik eskua hartu zion, estutu. Olatzek ez zuen ezer sentitu.

– Gu... zera... gu erori eta biharamunean egin zuen alde Karmelok. Iparraldera.

Olatzen begirada paretako gotelean zegoen, koskatxoen gogorra sumatzen. Baietz erantzun zuen buruaz, mantso.

Minutu bat. Bi minutu. Hiru minutu.

Xabiri arnasketa azkartu zitzaion. Malkoak masailetan. Burua umiliatu zuen, begiak eskuen atzean ezkutatu. Negar-zotinka hasi zen. Lurrean belaunikatu eta burua sartu zion magalean Olatzi, haren belaunak besarkatzen:

– Aitak... ez dakit zer egingo didan –zotinka–. Nik... nik... Karmelorekin... –Olatzek burua laztandu zion. Ume bat–. Geuk pasatu genuen Txerrimutur garbitzeko informazioa... Sentitzen dut haiek...

Torturatu izana. Bi hitz baino ez, eta ez zituen esan.

Haiek. Gizasemeek. Izeba Estik kontatu zion Victor Jararena. Torturan, eskuko behatzak moztu omen zizkioten jakin zezan, mirariz bizirik irtenda ere, ezingo zuela atzera gitarra jo.

– Lehenago edo geroago atxilotuko naute berriro –Xabik–. Capitantruenok ez dit bigarren aldiz joaten lagako... Bestaldera joan behar dut.

– Ni zurekin –xuxurlaka. Mahaspasa bat zuen bihotzaren partez, hilabete lehenagoko maitasuna lehor–. Noiz?

– Gaur gauean. Orioko bidean elkartuko gara, hasierako errebuelta horretan. Zortzietan.

Inor ikusi gabe sartu zen baserrian Olatz. Makutoan arropa pixka bat sartu ondoren, orri mutur bat bilatu zuen. Institutuko estutxea. Mertxek dekoratu zion mateko ordu batean. Lagunen izenak kanpotik, barrutik "XABI" handi bat eta hainbat bihotz gorri txiki. Sorgortuta zegoen: aurreko bizitzako ezerk ez zuen mugitzen.

Bic bat hartu zuen. Zerbait arrotza zen bere eskuan. Zer idatzi?

bestaldera jun ber det barkatu

Luze egin zuen negar, konturatu arte etxeko norbait sar zitekeela gelan. Mezua sukaldeko azukre-ontzian ezkutatu eta Xantiotik aldendu zen ezkutuan. Auskalo noiz itzuliko zen, noiz ikusiko berriro gurasoak, Mikeltxo anaia, aitona-amonak...

Negarrez iritsi zen herri-bukaeraraino, Xabi baino lehenago. Iluntzen hasia zen. Ezker-eskuinera begiratu zuen: poliziak ezkutuan egongo ote ziren? Hots horiek... zaldi-trostak al ziren? Eta argiak, txapelokerren linternak?

Sasien artean ezkutatu zen, eta eskerrak: kotxe-patruila bat igaro zen Orio alderantz, poliki. Susmotan? Kuarteleko oroitzapenek kolpatu zuten, lotsak. Xabi harrapatu ote zuten? Gizajoa...

Ordu erdi geroago, kotxe-patruila Zarautzerantz.

Bi orduz itxaron zuen. Zerbait gertatu zitzaion Xabiri, argi zegoen, eta ezin Xantiora itzuli; hantxe izango zituen zelatan. Ospa egin zuen kamioetan alderrai; konturatzerako, Xantio atzeko borda zaharrera ari zen igotzen. Lurra umel ez zegoen bazter bakarrean eseri zen, loak hartu arte. Esnatu zenean, begira-begira zuen.

– Bahoa –aitona Teofilok.

Hunkituegi zegoen ezer galdetzeko. Donostiaraino eraman zuen mantso-mantso Vespa zaharrean, mugalari baten kontaktua lortu, autobusaren ateraino lagundu. Besarkadan, bere usainaz bete zion sudurra. Patrikatik billete-sorta bat atera zuen, kontu handiz tolestuak eta sokatxo batekin lotuak. Musugorrituta zegoen, negarrez bera ere. Dirua eman eta autobuserantz bultzatu zuen emeki:

– Hendaian haizela, bilatu herrikoren bat.

Karmelo! Eguzki-izpi bat, behinik behin.

Inuzentea; ezin esan argi askorik ekarri zionik. Komeriak hura topatzeko eta, noizbait haren etxera iritsi zenean, harrera abegikorrik ez. Serio, lurrean lo egin beharko zuela bota zion, ba omen zirela hamabi lagun han.

Gogorra zen jendaurrean bakarrik sentitzea. Aitonak emandako billete-sorta berehala bukatuko zitzaion; eta gero?

Hirugarren egunean, Alfontso izeneko bizkaitar bat agertu zen pisuko biren bila. Planta onekoa, gizon ederra. Olatzengan erreparatu eta haiekin joatera gonbidatu zuen. Olatzek baietz, edozer baitzen etxe hura baino hobea.

Haren kotxean eraman zituen Nafarroa Beherera, Bidaxune izeneko herrira. Sarrera ondoan, gain batera igo eta gailurreko baserrian geratu zen. Leku ederra zen, inguruko bailara lauarekin lotua belarrezko alfonbra trinko baten bitartez. Faroa zirudien garia gordetzeko dorretxoak; han eta hemengo muino biribilduek, enbatako katxopak. Xantio zuloan zegoen, baserri hura goian. Bizitza berriaren metafora izango ahal zen!

Formazioa ematen zieten militanteei, batik bat militarra eta politikoa, baina baita frantsesa eta euskara ere. Sobratzen zitzaien denboran, diskrezioa lege.

Oskol malenkoniatsu batean ezkutatu zen Olatz, laiotzean. Non zegoen Zuberoa idiliko eta euskalduna? Ez al zen horrela Iparralde osoa? Parrokiako lokalean, zenbat buelta Benito Lertxundiren disko hari! Marratzeraino. Baserrian, ordea, espainola barra-barra eta giro arrotza, esajeratuegia, baikorregia. Bazirudien, baserrikoei pistolak emanez gero, di-da batean erauziko zietela Euskal Herria Espainiari eta Frantziari.

Nahi bai: Olatz iritsi aurretik, errefuxiatuz betetako furgoneta bat metrailatu zuen Guerrilleros de Cristo Rey talde paramilitarrak. Txiki eta Otaegiren aldeko manifa batetik zetozen, bederatzi lagun hala moduz pilatuta, eta, txiripaz, bi besterik ez ziren zauritu. Ordura arte, baserri banatan bizi ziren; muino behekoa utzi eta goikoan batu ziren. Nahiz eta bi orduko zaintzak egin, gau eta egun, behe-lainoari itsatsita geratu zen mehatxua.

Franco azkenetan omen zegoen. Zurrumurruak gero eta ozenagoak, besteak beste Radio Nacional de Es-

paña hasia baitzen berri onak tantaka ematen. Itogina ahituta, Frantziako irratiak eta BBC London heriotza aipatzera ausartu ziren.

Baserrian, gau osoan sintonizatu zituzten Radio Pirenaica eta Radio Paris. Goizeko seietan, txupinazoa piztu zuen zaintzan zegoen batek. Algaraka ospatu zuten, saltoka, lapikoak joz, elkar besarkatuz, irrintzika eta musuka, gehien aditzen zen oihua “hijo de puta” zela. Kotxeetan seinaka eta zazpinaka estututa, Hendaiara jo zuten kantari, klaxonak lagun. Zortzietarako, neska-mutil gazte ilara bat zegoen Bidasoako lapurtar ertzean, Espainiarantz xanpain-botilak apuntatzen. Bat, bi, hiru... danba!

Goiz, arratsalde eta iluntze hartan, etengabe apurtu zuten atentzioa ez emateko araua. Petit Baionako karriketan, jende-kateak kantari ikustean, irribarre egiten zuten *natiboek*, urduri eta auzo-lotsan.

Olatz edanda zegoen lehen aldiz, amets bitxi batean flotatzen. Mila pertsona ezagutu zituen, hamar mila izen, milioi bat aurpegi eta, halere, ezin giroan sartu.

– Ospatzen ez dabilen euskaldun bakarra zara.

Gernikako doinu kantariagatik ezagutu zuen Alfontsoren ahotsa, bere atzetik, gertuegi. Jefeen artean bi-

zarrik gabeko bakarra zen, beti nabarmen elegante jantzita, begiak argi, irribarrea zuri.

– A, bai? –lotsatuta biratu zen, pixka bat aldendu. Ez zen hain inozentea: jatorregia zen berarekin.

Alfontsok burlati behatu zuen taberna: batzuk tragoz trago, beste batzuk abesten, denak algaraka eta erretzen. Bikote batek kanpora jo zuen eskutik hartuta. Zarautzen baino libreago jokatzen zuten neskek.

– Bederatzi hilabete barru ume pilo bat deituko da Patxi –Alfontsok. Neskak ezin aurre egin begirada sutsuari eta basoerdiko ardo txarrean ito zituen begiak–. Mutil-lagunik badaukazu? Politenak beti zaudete hartuta –ume haserreen ahotsez.

Olatzek baietz buruaz, sabelean zirrara. Nekez eutsi zion negarrari: Xabiren batere berririk ez. Alfontsok botila hartu zuen Olatzi zerbitzatzeko. Besoa pasatu zion sorbalden gainetik, erakarri.

– Hasieran gaitza da, badakit, baina askatasunaren alde borrokatzeak sakrifizioa eskatzen du –ahoa belarrira hurbildu zion–: ohituko zara, ikusiko duzu.

Olatz paralizatuta: Xabiren izena errepikatu zuen barruko zera isiltzeko; ezin onartu gorputzaren esnatzea.

– Etxera joan gura duzu? –Alfontsok, xuxurlaka.

Xantioko irudiek kolpatu zuten, Bidaxunez ari zitzaiola ohartu aurretik. Bi igandez behin etortzen zitzaizkion ama-eta bisitan, aldeko baserrikoen kotxean: hamaiketarako iritsi plazara eta bostak arte, egon. Mokadu txikiegiak goseak dagoenarentzat.

Etxera. Bost axola; handik kanpo behar zuen. Taberna hura zen mundua.

Irteeran, Alfontsok berriro jarri zion besoa sorbaldan, baina, Olatzek nahi gabe urruntzera eginda, aldea nabarmendu zuen besoak: zubiek, lotu baino, distantzia enmarkatzen dute. Pixka bat okertuta ibili ondoren erretiratu zuen eskua Alfontsok.

Kotxean, bat hitz eta pitz, bestea mutu. Olatz jaitsi eta korrika batean joan zen baserriko atetzarreraino, hartxintxarrak kras-kras. Giltzarik ez, ordea: penagarria.

Alfontsok ireki zuen. Ganbarako gela zen berea, ez beheko bat, besteekin batera. Eskutik hartuta eraman zuen ukuilura, eskaileretatik igotzeko. Pikoak ziren, estuak, okerrak. Kontuz eskalatu zituen, neska askatu gabe. Burua ia goian zeukala, Olatz izutu eta besoa astindu zuen. Estropezuka jaitsi zen, eskailera-mailak binaka eta hirunaka, bestearen barreak lagun.

Arropa erantzi bitartean aditu zituen urratsak kras-kras, kotxeko atearen danba eta motorra urrutiratzen. Bederatzi lagunek partekatzen zuten gela, ohe zein lurreko koltxoietan. Olatz bere txokoan uzkurtu zen manta azpian. Ez zekien zerk ematen zion lotsa handiagoa: Xabi gaixoa ahaztu izanak edo Alfontsoren ez hain ustekabeko saiakerak.

Hanka inurritzen denean bezala, zerbait sumatzen hasia zen. Desioa?

Askotan jorratu zuten askapen sexualaren gaia Usandizaga institutuan: hango eztabaidak! Zergatik, orduan, beldurra? Zergatik damua?

Ezinegona ere sentitu zuen, eta autoerruki lasaigarriraino iristea oztopatzen zion zerbait: epeltasun moduko bat, erakarpena, esker-ona behinik behin norbait arduratu zelako berarekin.

Halere, lo hartzean, marea bezala itzuli zen lotsa, eta dena estali zuen.

4

Zenbat negar eta zenbat ernegu haurtzaro eta gaztaroan, ditxosozko *Ximaurras* gora eta behera. Santa Anako neska finen arabera, kiratsa omen zerion Olatzi. Izeba Esti Xantiorenera aldatu ondoren, haren lurrin-tanta batzuk bota zituen behin. Alferrik: iristerako, *Ximaurras* agurra. Mertxeri ere bai, baina kalera bizitzera joateak lurrindu omen zizkion baserri-perfumea eta iraina. Olatzek, berriz, loratu arte itxaron behar. Begiek sudurra estali omen zieten mutilei eta ahoa zuritu; hitz itsusietatik lausenguetara pasatu ziren. Bidaxunen, behingoagatik, ez zion bentaja eskasa emango baserritar petoa izateak.

Serio hartu arren, hango formazio politikoko saioak idiak bezain astunak ziren. Kristalezko hitz mordo bat: langileria, justizia soziala, kapitala, plusbalioa... Begira eta begira egonagatik ere, ez zuen haien barruan ezer ikusten.

Euskarazko saioetan aspertu egiten zenez, baratzeko lanari ekin zion. Baserriko gehienak galipota baino kaletarragoak ziren eta berehala zabaldu zen

bere trebezia. Horri esker eskaini zioten Etxepare baserrira mugitzea, Mugerre izeneko herri batera. 30 kilometrotara. Bere kabuz.

Alfontsok eraman zuen Mugerrera eta hura izan zen kontaktua mantentzen saiatu zen bakarra, noizbehinkako agerpenak zirela medio.

Etxeparen, hobeto: Xalbat aita *euskualduna* zen; hiru semeak eta ama, ez. Halere, hitz egiteko behar handirik ez: Olatz barrurantz bilduta bizi zen, lan eta lan familiaren bisiten zain.

Horrelako batean, eskutitz bat eraman zioten, Mertxerena. “Querida Olach” bromaren azpian, letra borobil eta arduragabez ematen zion herriko txutxumutxuen berri, nork egina zuen bere galde, zenbat sumatzen zen bere falta... Testua hamaika bihotzez apainduta, bazter batean zekarren Olatzi irriarazi zion posdata, presaka erantsita: “Maja: iparraldean nahi adina arropa erostea daukazu. Levis pare bat lortuko, faborez? Botoidunak, badakizu”. Karmeloren inguruan txintik ere ez.

Baserrian zer egin franko zegoenez, gutxitan hurbiltzen zen Baionara, nahiz eta oinez joateko moduko distantziara zegoen. Mertxek arrazoi: mundu zabala zuen eskura; hartzeko gogoa falta, ordea.

Hizkuntzak isolatuta zegoen, nekatuta, bihozgabetuta. Gero eta ahalegin handiagoak bildu behar izaten zituen etxekoen aurrean malkoei eusteko, primeran zegoela itxuratzen jarraitzeko, are gehiago ETApm-k Aingeru Berazadi bahitu zuenetik.

Hendaiako hondartzan elkartu ziren igande hartan. Ama, aita, Mikeltxo eta Ixabel mutu; aitona Teofilok muxurik ere ez. Tregoarik gabe, brausta egin zion tiro:

– Esan berehala askatzeko! Gure Aingeru euskalduna dun, abertzalea.

Amak ez zuen kemenik izan esku hartzeko; begiekin zirikatu zuen aita, hark “osaba, faborez” ozen erregutu ziezaion.

Olatz, hitzik gabe; nola adierazi? Pendulu bat zen, inpotentziatik tristeziara, dezepziotik desesperaziora.

– Ez omen dago ezer ere zure kontra, maitea –amak, asteroko erretolika aurreratzen–. Berriro esan digute. Gainera, Franco hilda... denak hobera egingo du. Etorri etxera.

Etxera.

– Zer moduz amona Brigida? –Olatzek, ahots-hari batez.

Amak buruaz egin zuen ezetz:

– Haserre dago... baina lasai, ez da zure errua; esan nahi dut, badakizu nolakoa den. Nirekin beti izan da hain zorrotz... eta bere begietan zu ni zara, horregatik...

– Caudilloaren garaian jarraitzen dute –aitak, broma-doinuan.

Aitona Teofilok arnasa bota zuen sudurretik, pazientzia galduta.

– Ez diozue inoiz kontatu behar? –eskuaz apuntatu zuen biloba–: Hire senargai eder hori lasai asko bizi dun. Aitatxok kanpora bidali zinan noiz eta elkarrekin ihes egitekoak zineten gauean. Coruñako barnetegi batean zaukan estudiatzen. Idatzi al din?

Agurra ohi zen bisiten zatirik mingarriena. Etxekoak bizitzara bueltan eta Olatz portuan ainguratuta, txalupa zaharrekin batera. Egun hartan, bakarrik geratzean, arinduta sentitu zen. Eta triste: familiaren kontsolamendua ere ez zeukan.

Hurrengo bi igandeak, latzagoak: aitona Teofilok Aingeru Berazadi gora eta Aingeru Berazadi behera, bere laguna, bere soziedadea, bere herria. Olatz har-

tzen zuen polimilien bozeramailetzat. Marka zen: inoiz baino urrutiago zegoen ETAtik.

Astelehenean, preso mordo batek ihes egin zuen Segoviako kartzelatik. Espainiako irratietan ez zuten kopurua zehaztu. Orduak inolako berririk gabe, euforia lotsatia: lortuko al zuten?

Asteartean harrapatu zituzten haietako gehienak. Berri nahasiak: borrokak omen, tiroketak, presoetako bat hil. Ostegunean, hilda aurkitu zuten Berazadi, tiro bat buruan.

Eten bat sentitu zuen Olatzek, portura lotzen zuen txikota moztu ziotela. Bela edo arraunik gabe, itsasoaren menpe iraun beharko zuen. Iraun edo.

Hurrengo igandean, aitona ez zen azaldu; halere, bakerik ez. Ondorengoan bai. Deabruaren antzera, begiak piztuta eta masailak gorri-gorri, ezpain fin estutuek haserrea azpimarratzen zutela. Periodikoa bota zion: “Angel Berazadi, asesinado”.

Argazkikoa zen, zalantzarik gabe: txikitan ikusten ohi zuena, Gure Kabiya soziedadean. Aitona Teofilok bigarren behatzarekin zulatu zuen “Francia” hitza.

– Akordioa lortu omen zenuten –suminak totelarazita. Eta, orduan, urtu bezala egin zen–. Zergatik?

Begiak malkoz beteta, buelta eman zuen. Olatz ere, eutsi ezinik, negarrez hasi zen. Amak ez zuen berehala besoekin babestu, pixka batean ordain zezan.

– Hurrengo astean zuekin bueltatuko naiz –Olatzek, usain ezagunaren kemenaz.

5

Gau bakarra egin zuen Xantiorenean, maleta berregiteko adina. Erbestean irrikatu zituen hiruzpalau jantzi sartu eta goizaldean egin zuen ospa, dirua eskatu behar izanak umiliatuta. Plan lausoa zuen: izeba Estiren antzera Euskaltzaindiko D titulua atera eta gero... behe-lainoa: euskara-irakasle izan?

Bidearen hasiera besterik ez zuen argi: Bilbo. *Botxo* ezizenari obedituz, horma altuko zuloa zen: zabor-poltsak espaloietan, langile-auzo gristuak, eraikin zatarrak. Marka zen Iparraldeko frantsesengandik gertuago sentitzea, eta ez zen soilik hizkuntza kontua: harrokeria itsu hura, janzkera goibela, ohiturak. Auskalo; zulo barrenetik, bakarrik zuloa ikusgai.

Santutxurako aldapan aurkitu zuen ostatu merke bat eta D tituluaren azterketa prestatzen kontzentratu zen. Gainditu zuen egunean bertan, Olatzen gazteaurpegiak seguru asko errukituta, idazkariak lotsagabeki galdetu zion ea zer egiten ari zen Gipuzkoako neskatila bat Bilbo handian. Lan bila, Olatzek, eta besteak supituki eman zion Marisol Urrutiaren berri: Sodu-

pe izeneko herriño batean omen zebilen misiolari *indigenak konbertitzeko* guduka sainduan. Bizkaiko Enkarterriak izanik, hiru mila erdaldun biziko ziren, eta gehienez jota dozena bat euskaldun, haietako bi euskara-irakasleak. Beste irakasle baten premia gorria omen zeukan Marisolek.

Maleta hartuta, mistikoen fedeaz abiatu zen trenez: erronka ederra izango zen euskararen erresumarako birkonkistatzea Bizkaiko bazter hura, Kantabria, Burgos eta Arabako mugan abandonatuta.

Ia bidaia osoan ibai marroi zikina lagun, Sodupen geratu aurretik agertu zen urrutian lantegi gris handi bat, zuloz beteta, leiho txikiak puskatuta eta aurrean uztartzen zitzaizkion bi ibaiek triangeluan moztuta.

Herrian sartzean, inpresioak ez zuen hobera egin. Bilboko puskatxo bat zirudien: inguruko mendietan sakabanatutako baserriak eta eliza xumea izan ezik, bost solairuko eraikuntza merkeak nonahi, frontoia, platanondo-lerroa, Eskola Nazionala erori beharrean eta porlanezko plaza inguruan. Erdigunetik kanpo, aurpegi garbia zeukan behintzat Avellaneda eskola pribatuak. Parean, pinudi trinko batek ezkutatzen zuen jauntxoen kortijoa, eta harago, ia mugan, kanpo-

santua eta jauntxoek herriari utzitako futbol-zelaia, haien leinuaren izenez bataiatua, jakina.

Guraso-elkartearen enkarguz, Avellanedan zebilen Marisol gazteei euskara ahora sartu nahian, eta helduei gauez, eskola publikoko geletan. Bizkaiko itsaslabarretan zegoen Ea bere herria, zirrikitu batean, eta kostako kasta zeukan Marisolek. Gainera, ez zebilen bakarrik, Koro herrikidearen laguntza baitzeukan, isilagoa baina hura ere saiatua oso.

Berehala adoptatu zuten Zarauzko *neskatxue* eta aurreneko egunetik egin zioten lekua haiek alokatutako etxean. Jabea zorrotza ei zen eta, batzuetan, gaueko hamarretan ixten zien ataria giltzaz; bestela, arazo handirik ez. Auzokoen errezeloak Korok lasaitu zituen, aitaren egiten baitzuen bebarrutik irten orduko. Haserrerik handiena kulero-ilarek pizten zuten, balkoian lehortzeko zabalik.

Bigarren egunean jarri zuten lanean. Ikaratuta sartu zen gelara; Marisolek aurkeztu eta zortzi begi pareren aurrean laga zuen, Sanferminetan bezala. Halere, galdera zailik ez, dena borondate ona eta dena interesa. Antzeko erdaldunak ezagutuak zituen Iparraldean; Sodupeko haiek, behinik behin, euskalduntzeko ari ziren borrokan.

Kalean topatzen zituen aitona-amonak ziren bitxienak: fisikoa ez ezik, ezberdinak zituzten gorputzhizkuntza, janzkera, ohiturak eta espainolezko oihartzunak. Halere, jende apala zen, eta izugarri eskertzen zuten kanpoko norbait herrira laguntzera joan izana, egiten zuena, egiten zuela.

Aurreneko hilabeteetan, hodei baten gainean flotatu zuen, pentsatzeko astirik gabe: goiza di-da batean joaten zitzaion eskolak aurreratzen, enkarguak egiten eta bazkaria prestatzen; arratsaldean eskolak, gaueko hamaika eta erdiak arte. Etxerako bidean, Twist Camp tabernan gelditzen ziren hiru neskak, etxekoandreak mimoz prestatutako esne beroa edatera, whiski ttantta batek alaitua.

Ikasleak izugarriak ziren, batez ere azkeneko txandakoak: egun osoa lanean eman ondoren, hunkigarria zen gaueko hamarretan apunteak hartzen ikustea. Haietako batek Txuma zuen izena; askotan berandu eta beti trajez, gorbata poltsikoan gordeta sartzen zen. Oso sartuta omen zebilen batzokian. Horregatik, harrigarria zen Migel Garairen laguna izatea eta hain sutsu bultzatzea haren proiektuak.

Herriko medikua izateaz gain, Migel Garai bilbotarra euskal gurutzadaren burua zen. Plaza hartu ondo-

ren, hankaz gora jarria zuen herria seme-alabek euskaraz ikas zezaten tematuta. Utopia hutsa zen, ordea. Eskola nazionala gotorleku frankista zen eta Avellaneda pribatua, Bilboko gotzainarena.

Jesusen Bihotzeko mojek haurtzaindegi txiki bat zeukaten trenbideaz harago, eta haietako batzuk euskaldunak ziren. Migel Garai-eta gogotsu borrokatu ziren gotzainaren bedeinkazioa eskuratzeko eta, hala, euskarazko lerro bat zabaldu zuten Sodupeko mojek. Ikastolaren hazia izango zenez, ikastola deitzen hasi ziren herrian. Espektatibak gainditu eta ikasturte berrian espainolezko lerroan adina umek eman zuten izena euskarazkoan.

Harrotuta, Avellanedan irakasle bat jubilatu zenean, medikuak-eta gestioak egin zituzten Bilbo aldean eskolak Marisolen neba kontratatu zezan, Gorka Urrutia. Mutil jatorra zen, Zuzenbideko ikaslea; Bob Dylan zirudien, txanbergoa soinean eta poltsa txikia sorbalda batetik zintzilik. Behin-behineko kontratua egin zioten Avellanedan, baina seguru zirudien praktikaldia bukatutakoan finko egingo zutela. Beste garaipen bat: zenbat eta euskaldun gehiago herrian hobeto, hizkuntza irradia zezaten.

Bataila horietan guztietan Txuma izan zen Migel Garairen eskuderoa, beti ardurak hartzeko prest. Bileretan, idazkari-lanak egiten zituen. Aktak idazmakinan idatzi eta txukun gordetzen zituen karpeta beltz handi batean. Eztabaida beroak epeltzeko bertutea zuen. Luze eta iharra, begi urdineko oin-lanpara zirudien. Serio aditzen zuen, zuhur hitz egin; bere izena bolobolo omen zebilen EAJko alkategaia izateko, nahiz eta artean argi ez egon Madrilek noiz baimenduko zituen udal hauteskundeak.

Gaueko klase baten ondoren, Olatzi honetaz eta hartaz iritzia galdetu eta Twist Camperaino lagundu zion. Han kostata hitz egin zuen besteekin ere, euskara traketsarekin borrokan. Denbora guztia Olatzi debozioz begira eman zuen eta, etxean, Marisolek eta Korok majo zirikatu zuten neskatxue esanez Sodupera etorri berritan, laster alkate izango zela.

Amak, behintzat, tregoa: Hendaiara edo Baionara ia astero joan ondoren, Bilboraino hirutan egin zuten trenez lehenengo hilabetean, birritan hurrengoan eta, geroztik, behin ere ez. Egun bikoitietan hots egiten zion, aprobetxatu baitzuen telefonoa behingoz jartzeko baserrian.

Xabiren berri ez izatea zen, harrigarriki, min arinena eta azkarrena sendatzen. Beste arantzak, ordea, ondo katigatuta zeramatzan. Bisitan ere ez zen gai Zarautzera itzultzeko, baina bazekien denbora kontua zela. Mundua berriro ari zen biratzen. Atzean utzi nahi zuen dena behingoz, askatu eta libre hegan egin.

Goiz batean, konturatu gabe ia, pelukeriako ispilu aurrean jarri zen. Ilea moztu zuen, motz-motza. Indarrak gainezka egiten zion. Tren-geltokia berritzen ari ziren ordurako.

Behinola, bi trenbidek zeharkatu ohi zuten herria: Santanderkoak eta Leongoak, biek Bilborantz. Roblakoa zeritzen Leongo geltokiari. Ibilbidea bertan behera geratu ondoren, eskaleek okupatu zuten hilabeteetan, gau batean erre zen arte. Migel Garairi buruan sartu zitzaion horixe zela herriak behar zuena, lokal bat biltzeko, euskararen birika bat. Bonu-salmenta herrikoia antolatu zuten dirua lortzeko. Batzokia ireki berritan, eta hura ere ekarpen boluntarioen bitartez erosita, Alderdiak ez zuen ekintza onetsi. Nahiz eta jeltzaleren batek bere kabuz lagundu, ezker abertzalekoek hartu zituzten haien gain esfortzu ekonomikoa eta auzolana.

“Herriko Etxea” izendatu zuten eta poliki-poliki joan zen forma hartzen.

Diseinu-lantaldean zegoen Olatz, besteak beste Txumarekin: beharrak kalkulatu, espazioa banatu, aurrekontua estutu. Euskara irakasteko gela bat nahi zuten, batzar-gela, sukalde txiki bat, taberna, komunak...

Mahai eta aulkiak oparitu zizkieten, arbel bat eta taberna-barra eder bat ere. Horman zintzilikatu aurretik finkatu zen arbelean txisteak eta mezuak idazteko tradizioa. Hilabeteak buru-belarri eman ondoren, azkenean erabaki zuten Herriko Etxearen inauguraziorako data.

Astebete lehenago, ostiralean, ordu txikietara arte ibili ziren eztabaidatzen Twist Campen hiru euskara irakasleak. Espainia demokrazia bidean omen zegoen arren, errepresioak bere horretan eusten zion: atxiloketak, deportazioak, gero eta preso politiko gehiago, ejerzitoak kolpe militarra emango ote zuen beldurra, paramilitarren ekintzak eta bi ETA gogor, inoiz baino gogorrago. Alde ederra Sodupen bizi zuten ilusioarekin. Askatasun egarri itzela zegoen; trenbide bereko bi errail ziren Euskal Herriko independentzia eta norberarena.

Ezin esan, halere, ipuinetako giroa zegoenik: bi bloke argi zeuden, jeltzaleak eta ezker abertzalekoak; haien arteko lubakia azkar ari zen amildegi bihurtzen.

Txuma tabernara sartu zen, zubi-lanak egiten zituen bakarrenetakoa. Hurbildu eta segituan zutitu ziren Marisol eta Koro, elkarri begia kliskatuta.

Olatzekin bakarrik geratzean, izugarri urduritu zen gizona, dar-dar egiteraino:

– Beste... garagardo?

Olatzek baietz buruaz eta Txumak arinduta egin zuen ihes barrara, pentsakor. Ikaragarria zen haren esfortzua euskara ikasteko. Gurasoetako bat gutxienez kanpokoa zuten herritar gehienek, mende hasieran La Conchita fabrikara joana jutea ehuntzera. Txumaren kasuan, aita zenak, bertan jaio arren, Burgoskotzat zuen bere burua; ama hemezortzi urterekin ihes egin-da zen Palentziako gosetik.

Olatz hitzik gabe uzten zuen Txumaren euskalduntzeko grinak.

Edariekin bueltan, parean eseri zen. Eztarria bizpahirutan garbituta, arnasa bota zuen:

– Nik... niri zurekin hitz egitea gustatuko...

Ai, ama. Gizajoa ausartuko zen behingoz. Olatzek zerbait sumatu zuen sabelaldean, bularraldean. Samurtasuna.

– E... enamoratu... maitemindu naiz zutaz –begietara begira segundo batez–. Esperantzak dauzkat?

Olatzek aurpegia laztandu zion goxo. Gorputza harengana hurbildu eta besoekin erakarri zuen, besarkatu. Koitadua izututa zegoen, neskak zer erantzungo.

Hitzik ez. Olatzek muxu eman zion ezpainetan, begiak itxi gabe.

Berriro laztandu zion burua, kiribil rubioak.

– Goazen nire etxera –Olatzek.

Gauero elkartzen hasi ziren. Zerua ematen zuen Xabirekin maitasuna egiteak; Txumarekin, berriz, Lurra: izerdia, mina batzuetan, esfortzua eta, gero eta maizago, saria. Sexua zen, eta ikasten ari ziren. Ez zuen sentimenduak zapuztea nahi.

Herriko Etxearen inaugurazioan bazkaria antolatu zuten, mahaiak trenbide zaharraren gainean, eguraldia lagun. Goiz osoan, gela batetik bestera joan ziren taldeka, sinetsi ezinik, harro. Eguerdian atean bildu eta Migel Garaik xanpain botila bat puskatu zuen pa-

retaren kontra, bataiorako. Bazkal ostean dantza-saioa, iluntzean kontzertua eta, egiten zutena egiten zutela, Txuma etengabe Olatzi eskutik heltzen, sorbaldatik, beti haren ondoan, haren inguruan, haren gainean.

Nostalgiaz jaso zuen Olatzek atentzioa, baina itotzen hasia zen. Barraren atzera espazio bila sartzean, Txuma atzetik. Aukera bakoitzean hurbiltzen zitzaion, besarkatu. Azkenean, neska gordetegi txikian garagardo bila ari zen batean, Txumak txakur fidelen moduan jarraitu zion.

– Utzi behingoz bakean –oihukatu nahi ez zuen arren, horrela bukatu zuen–. Airea behar dut, lasaitu zaitez!

“Ez zaitut maite” esateak eragin berdina izango zuen gizonarengan: lur jota begiratu zion, negar egiteko zorian.

– Orduan... ez?

Olatzek arnasa bota zuen: nola esplikatu?

– Etorri –Olatzek.

Muxu eman eta besarkatu egin zuen. Sagu-tranparen gazta ari zen jaten, nahi zuenean utz zezakeelakoan.

Aste gutxi geroago konturatu zen haurdun zegoela.

6

Abortatzea izan zen aurreneko ideia. Izeba Estiri gertatutakoa gertatuta, ezin. Ez zion Txumari hori kontatu, haurdun zegoela baino ez. Negarrez hasi zen gizona, pozez txoratzen. Eta, segituan, planak: berri ona zabaldu, elkarrekin bizitzen hasi...

Bazekien Xabirena ez zela errepikatuko: irrika, energia gainezka, argia, poz eroa. Atzean geratu zen Olatz hura ere. Baretasuna ematen zion Txumak, eta horixe behar zuen. Batzuetan, ordea, gau erdian insomnioak esnatuta, bere buruari galdetzen zion ea benetan nahiko ote zuen baretasuna bizitza osorako, ez gatzik, ez piperrik.

Hurrengo gauean, haren letra ezagutu zuen Herriko Etxeko arbelean: “Txumak 1, Espainiak 0”.

Laster iritsi zitzaien barrutik biluzteko beharra. Momenturik intimoena zen eta, Olatzentzat, beldurgarriena. Aita galtzeaz hitz egin zion Txumak, ama posesibo baten menpean bizirauteaz. Trukean, Olatzek gainetik aitortu zion Etxe Zabalakoa, Ibarrakoak aipatu gabe.

– Horregatik sartu zinen... ETAn? –Txumak, ulerkor eta tentuz.

– Ez nintzen ETAn sartu; bestaldera pasatu behar izan nuen, tortura...

Txumak muturra okertu zuen. Biolentzia guztiak baztertzen zituen eta Olatzek ez zekien nola esplikatu.

Harremanaren hasieran, erronka polita izan zen bestea norberaren erlijiora erakartzea; eztabaida politiko zoragarriak izaten zituzten gauetan, asteburuetan. Olatzek independentziaz hitz egiten zuen, euskal kultura bultzatzeaz, euskara salbatzeaz, ekologiaz; Txumak autonomiaz, hezkuntzaz, euskal industria salbatzeaz. Momentu batetik aurrera, ordea, tenis partida bukaezin bihurtu ziren, ez bata, ez bestea ez zirelako zentimetro bat bera ere mugitu. Diskusioak gero eta antzuagoak, birritan haserre bukatu eta, adostu ez bazuten ere, politika tabu bihurtu zen.

Ama ez zen haurdunaldia kritikatzera ausartu. Hemeretzi urte betetzeko bidean zegoen alaba eta, Estirenaz gain, bizirik zeukan bera ama bihurtu zuen be-

katua. Ramiro eta biak, halere, hamasei hilabetez ibili ziren nobiotan, ezin konparatu.

Ez zuten Txuma ezagutu ere egiten. Alokatutako etxean bizitzen jarri eta astebetera, Sodupen bazkaltzera gonbidatu zituzten. Sukaldean harraska eta hiru su zeuzkaten, logelan koltxoia besterik ez. Gorka Urrutiak eskaini zizkien lau aulki eta mahaia, luzatzen zen horietako bat, baina Txumak ezetz: Gorka gaixoak lurrean bazkaldu beharko zuela bere etxean, agian zerbait puskatuko ziotela... Azkenean, Olatzek bazkaria prestatzearen ardura hartu eta Txuma bidali zuen Gorkari altzariak ekartzen laguntzera. Bitxia: atsegin bezain hotz jokatu zuen harekin Txumak.

Gorka Urrutia joan ondoren galdetu zion.

– Zer duzu?

– Ezer; zergatik izan behar dut zerbait? –harrituegi.

Egurrezko koilararekin apuntatu zuen Olatzek:

– Zer egin duzu?

Urtu egin zen gizona:

– Niri ez zait ondo iruditzen...

– Zer!

– Batzokikoek... Diote radikalek herria apurtu nahi dutela. Zaretela... komunistak.

– Garela –aste horretan bertan inoiz baino beranduago etxeratu zen gau batean batzokitik Txuma, beste emakume batekin traizionatu izanaren aire damutuaz–. Eta sinisten diezu?

– Ez dute zugatik esaten. Informazioa eskatu dugu... Gorka Urrutiari buruz eta komunista da, gure umeen irakaslea.

– Komunista izateagatik ezin du irakaslea izan?

– Ez zigun esan! –minduta–. Gainera... nik ez dut erabakitzen. Proban dago eta kalera botako dute.

Olatzek begiak estali zituen:

– Baina zer da hau? Franco hilda eta hilobiratuta dago! Nola ez duzu saihestu?

– Ezin dut –lurrera begiratu zuen–. Esaten dute Migel Garairi batzokiko dena kontatzen... diodala. Diziplina komitera eraman nahi naute.

– Ze esaten duzu! Batzokiko buruen emazteek kontatzen diote-eta Migeli kontsultan...

Txumak indarrez estutu zituen ezpainak, isilik. Olatzek, desesperatuta, mina egiteko beharra sentitu zuen:

– Ez garela ezkonduko esango diot amari –Txumak elizatik nahi zuen eta Olatzek ezer ez.

– Oraindik ez dugu ezer erabaki –eskuez lasaitasuna eskatuz.

– Nola ezetz? Nobiarik gabe ez dago ezkontzarik.

Ezkaratzeko txirrinak jo zuen: gurasoak. Nahiz eta bi tren hartu Zarauztik Bilbora eta handik Sodupera, espero baino lehenago iritsi ziren, bazkaria bukatu gabe zegoela. Liskar erdian.

Negar egiteko gogoak eztarria itxi zion Olatzi; zer ari zen egiten bere bizitzarekin?

Sartzean ikusi zuen amak paella. Olatzi mantala erantzi, soinekoko mahukak igo eta hondamendia makilatzen saiatu zen, hitz eta pitz. Eta eskerrak: aita altzari bat zen eta Txumak ahalegin handiegiak egin zituen jatorra izateko. Baietz amak sumatu tentsioa.

Bazkaltzera eseri ziren. Arroza gehiegi eginda eta oilaskoa gordin; gurasoek berdin-berdin goraipatu zuten oturuntza.

Halako batean, amak aingeru-irribarrea jarri eta tiro egin zuen:

– Noiz ezkondu behar duzue?

Txumak ez zuen eztulik edo ezer arrarorik egin; platerean ezkutatu zen.

– Ez gara ezkonduko, ama –bazkari osoa emana zuen azazkalak besoan iltzatuta malkoak atzeratzeko.

– Sodupeko eliza ere polita da.

– Xexili, ezetz esan du –aitak.

– Zer esango du handitan ume gaixoak? –amak, irribarrea galdu gabe–. Gainera, ezingo duzue bataiatu ez bazarete ezkontzen.

– Ez dugu bataiatzeko asmorik –Olatzek.

– Bai zera! Hau ez da zerorri bakarrik eragiten dizun gauza bat; haurtxo errugabe baten arimaz ari gara, elizaz. Bataiatu egin behar duzue –Txumari erregutu zion begiradaz.

Olatzek ezetz erantzun zuen buruaz, besoak gurutzatu.

Aitak eztarria garbitu eta suhiari bota zion:

– Hi, ederra aurreko larunbatekoa! Ikurrina atera zutela entzutea... hura emozioa! Ba al dakik Iribar zarauztarra dela? Makatzarenekoa; Makatza ziotek.

Begiak bekokitik ahora zabaldu zituen Txuma koitaduak, galduta, umiliatuta. Olatz duda-mudan: argitu behar al zion aita derbiaz ari zela? Astean zehar, barra-barra komentatu zuten ikasleek, debekuak debeku, ikurrina eskuan irten zirela zelaira Athletic eta Realeko kapitainak.

Begirada jaitsi zuen Txumak. Harekin euskaraz egiteko eskatu zien Olatzek gurasoei, baina gizajoak

ulertzen nahiko komeria eta sufritu egiten zuen erantzuten, izerditan hitz bakoitzaren bila. Eta tristeena: amak espainolera saltatzen zuen bakoitzean, lasaitu ederra Txumak.

Poliki-poliki, amak nahi zuen eremura eraman zuen gaia: euskarazko klaseengatik huskeria kobratuko zuen alabak; kontuak eginak zituen eta Xantiorenean lekua sobran zegoen denontzat. Hitz egin zezala jendeak nahi adina: alaba eta biloba etxean, bost axola. Eta suhia, jakina. Txuma saltzaile zebilen Bilboko enpresa batean; aurkituko zuen zerbait Donostian edo, bestela, aitona Manueli eskatuko zioten Bombas Iturreko enkargatu-postua baliatzeko, hori bai egingo baitzuen gustura. Txumaren amak ulertu beharra zuen: alarguna izanda, ezin lagundu, ez behinik behin Xantiotarren moduan.

Olatzek ez zion erantzun. Xexilik berriro estututa, plan lausoak aipatu zituen: etxea erosi Sodupen, Magisteritza ikasi euskarazko eskolak eman bitartean, andereño bihurtu herriko haurtzaindegian... Esti bezain inozoa!

Miraririk ez: Gorka Urrutiari ez zioten proba ondoko kontraturik egin eta neska lasaiago bat ekarri zuten ordezko. Kolpe galanta.

Avellanedan, Marisolek baino ordubete lehenago eskola ematen zuen moja umeei hasi zitzaien santuen estanpak ematen eta *detenteak* jartzen, sorginaren deabrukeriatik babesteko.

Estutxearen afera ere ez zen makala. Etxe batean arkatz eta boligrafoa erosteko lain ez eta hango alaba esku-hutsik joaten zen eskolara. Marisolek kartoizko kutxa handi bat jarri zuen gela erdian, estutxeak bertan hutsarazi eta, behar zuenak, handik hartzen zuen zuzenean. Biharamunean, zuzendaria zoratuta sartu zen, ez zirela komunistak oihuka. Kutxa hustu, puskatu eta eraman egin zuen.

Herriko Etxeko arbelak erantzun zuen: “Ladran, luego cabalgamos”. Marisol, baina, jomugan zegoen.

Haurdunaldiak bainoago, Txumarekin bizitzeak moztu zion askatasuna, samur moztu ere. Adeitsu tratatzen zuen, portzelana finezkoa balitz bezala, beti adi edozein desio betetzeko prest. Tripa gero eta puztuago, Txumak goxo-goxo eskatzen zion lana uzteko,

atsedena behar zuela, bere soldatarekin moldatuko zirela. Olatzek eutsi arren, etxera zuzenean joaten hasi zen eskolen ondoren.

Naturaltasuna galdu zuen Marisol eta Kororekin; klaseen kontuez harago, lotsatu egiten zen. Nahiz eta bi neskek ezer ez eskatu, huts egiten ari zitzaien. Gainera, Txumaren bikotekidea izateak haren aldeko bihurtu zuen; ederki zekien ze alde zen eta lagunekin eseri nahi zuen gauzak argitzeko, baina zaila zen gaia ateratzea, hitz egiten ez diren sentimenduak hitzetan sartzea.

Goiz batean konturatu zen ez zuela horrela jarraitzeko balio. Twist Campera joango zen gauean eta hirurak eseriko ziren aspaldian bezala dena konpontzeko.

Umore onean eman zuen eguna. Azken eskola gehiegi luzatu eta etxera itzuli zen presaka. Hurrengo egunean, berdin. Hirugarrenean, eskolako karpetarekin zamatuta zalantzekin borrokan zihoala, ilunpetatik atera zen Alfontso, Olatzen aurreko bizitzen puskak zintzilik.

Lan erraz bat zuela beretzat: arrain gizen baten datu batzuk konfirmatzea, ohiturak kontrolatzea.

Erakundearentzat.

Azkenaldiko atxiloketak laburtu zizkion arin-arin, Poliziarekin izandako tiroketetan zauritu eta hildakoak, paramilitarrek garbitutakoak.

Mesedez.

Inork ez zuen emakume haurdun batez susmorik izango. Ez zuen ezertan konprometituko.

Olatzek baietz erantzun zuen, pentsatzen segundo batean hutsal bihurtu zirela egunerokotasunaren arazoak. Aukera zuen berriro erabakiak hartzeko, bere bizitzako protagonista izateko.

Amaren ahotsa etorri zitzaion: “Kontuz ibili, faborez”.

7

Hauteskunde-kanpaina zela-eta, publizitatea besterik ez zen TVEn, Suarezen aldekoa batik bat. Iragarkietako batean, globo aerostatiko bat agertu zen, sokek lurrera kateatuta eta otarre handiaren inguruan zintzilik lasta-zakuak. Loturak eten, lasta bota eta arin igo zen, ihesi, aske. Zeru garbi osoa zeukan urrutiratzeko, noranahi joateko.

Olatzek, ordea, kale hartan jarraitu behar zuen pasieran, gora eta behera, hankak handituta ere. Txopoen etorbidea omen zen, baina makal altu eta estuez gain, beste mila zuhaitz zeuden, batez ere pinu sendoak. Gorroto zuen euskal mendiak kutsatu zituen pinudi-izurritea.

Ez zen txikia txalet-erakusketa, errepidearen bi aldeetan zein baino zein ikusgarriago. Nahiz eta auzoa Neguri bataiatu, hangoak beti udan.

Azkenean iritsi zen kotxetzarra. Villako metalezko ate aurrean geratu eta txoferrak bizpahirutan jo zuen klaxona, motz. Olatzek ordua apuntatu zuen disimu-

luan. Buelta ematea susmagarri, aurrera jarraitu zuen, helbururantz.

Kotxe barruan zegoen agurea: ile soildua atzeraka otzanduta, sudur luzea eta zuzena, begi ilunen azpiko zulo grisak. Aitona Manuelen aire nekatu berdina zuen.

Auskalo: eskatutakoa baino ez zuen bete nahi, kitto. Gainera, Javier de Ybarra hura bazen nor: Bilboko alkate zein Foru aldundiko presidente ohia, *El Correo Español*aren zuzendari izandakoa, leinu oligarkietako baten burua... “Putakume frankista burges bat”, horixe Alfontsoren sententzia lana enkargatzerakoan.

Neskame batek hesiraino korrika egin eta presaka bultzatu zuen atea. Uniformez jantzita zegoen; aldamenean kokatu zen, txoferrak kotxea sar zezan.

Haurdunaldiko sintomei egotzi zien Txumak aldaketa; ezinegonez ikusten zuen Olatz, beldurrez, bizipoza zimelduta. Aitzakia borobila topatu zuen Bilboko bidaiak justifikatzeko: borroka burokratiko latzean ari zen aitona Manuelen benetako abizena berreskuratzeko.

Nahiz eta ez onartu, Txuma zeharo penatuta zegoen umeak hirugarren postuan eramango zuelako abizen euskalduna, urrunegi haren Fuentes maketoa makillatzeko.

Maiatz erdialdetik aurrera hasi ziren oheratzen nezeserra eta maletatxoa prest utzita, badaezpada. Umea mugitua zen tripa barruan; gutxi falta zen. Maiatz bukaera aldeko eguerdi batean, enkarguetatik etxera zihoala, kioskoan ikusi zuen periodiko-azala: Javier de Ybarra, ETApm-k bahitua.

Aingeru Berazadi.

Aitona Teofilo.

Aldapan gora segitu zuen erosketen karrotxoari tiraka, bihotza arrapaladan. Neguriko autoa gogoratzean, atzealdean, pentsakor eta aspertuta, aitona Manuel ikusten zuen.

Sei polimili atxilotu zituzten Donostian. Aitortuko al zuten Olatz laguntzen jardun zela?

Ekainean, zegokion baino bi aste geroago erditu zen seme batez. Haritz jarri zioten izena: Gernikako arbola, Enkarterrietan euskara erein eta hazi.

Xexili joan zitzaien laguntzera, printzipioz astebeterako. Bikain konpontzen ziren elkarrekin bi andreak: hasierako kezkak eta antsietatea apaltzen lagundu zioten, etxea berriketaz saturatzearen truke.

Bi egun geroago egin ziren hauteskunde orokorrak. Miliek abstentzioa eskatzen zuten, botatzea Espainiari men egitea zelakoan; polimiliek, berriz, Euskadiko Ezkerra (EE) koalizioa aurkeztu zuten.

Egongelako mahai gainean jarri zizkion Txumak boto-paper eta gutun-azalak, lotsagarria baitzen hauteslekuan bertan hartzea: EE, sozialistak, Suarezen exfrankistak, post-frankistak, komunistak... Olatzek EAJrena hartu eta, Txuma konturatu gabe, boligrafoz tatxatu eta gehitu zuen: “Euskal Herria euskaldun eta libre”. Gero oinez joan ziren botatzera, minez artean.

Gauean, berandu baino beranduago etxeratu zen Txuma, Haritz jaio zenean bezain zoriontsu EAJk irabazi zuelako. Ohean zegoen Olatz, umeari bularra ematen. Muxuz estali zituen Txumak; ardo-kiratsa zerion. Aldamenean eseri eta hauteskundeen laburpena egin zion espainolez, pozez gainezka: sozialistak EAJtik gertu geratu zirela Euskadin, Suarez presidente aukeratu zuela Espainiak, frankismoak galdu. Garai izuga-

rriak zetozen; mundua mugitzen zuen palanka sentitzen zen.

Pijama jantzi, ohera sartu eta seko geratu zen. Haritzek beste ordu erdiz jarraitu zuen pottolo-pottolo titiari eusten, tarteka lo.

Gaueko zortziak ziren. Txuma etxera sartu eta zuzenean jo zuen logelara. Umea lotan ari zen sehaskan txintxo-txintxo. Pena ematen zuen bularra emateko esnatzeak. Zerbait oker zegoenean, marruka hasten zen indartsu, negarrez bainoago, katakumeen moduan miauka.

Txuma makurtu, eta kontu handiz eman zion muxua masail gorrituan.

Olatzek atetik behatu zituen. Bazekien zoriontasun gorena sentitu behar zuela; ezin, ordea. Zintzarrian arrain-hezur txiki bat zeukan: hozkada goxo bakoitzari ziztada zorrotz bat ordainetan.

– Non zeunden? –Txumak espainolez, konturatu zenean.

– Gela txikian –euskaraz–, apunteak ordenatzen.

– Zertarako? Bankuan egon naiz. Soldata bakarrarekin ere emango digute hipoteka.

– Irailean, gehienez urrian, itzuli nahi dut lanera.

– Eta umea? Oso txikia da!

– Irailean esan dut; hiru hilabete falta dira. Moldatuko gara.

Txumak sudurretik arnasa haserre bota eta gorbata-korapiloa estutu zuen.

– Banoa. Bilera daukagu.

– Berriro?

– Asko dago egiteko.

Amorrua disimulatu zuen Olatzek:

– Eta euskara-eskola? –aspaldi zen espainolez erantzuten ziola Txumak.

– Ez dit astirik emango.

– Gaur ere ez –ez entzunarena egin zuen Txumak, aterantz zihoala–. Kendu gorbata joateko, ez? Lasaiago ibiliko zara.

– Berdin du.

Gustatu egiten zitzaion trajez joatea. Atea itxi zenean, Olatzek eutsi egin behar izan zion “burges” oihukatzeko gogoari.

Haserrea pasatzean, kontzientzia txarra geratu zitzaion: gogorregi egin ote zion? Adiskidetzeko, patata-tortilla eder bat prestatu zuen. Hamarrak arte itxaron

zuen alferrik. Afaldu eta plater batekin estali zituen tortilla eta ogia.

Umea jaio zenetik taxuz lo egin gabe, neka-neka eginda zegoen. Halere, itxaron egin nahi zion: epelak entzungo zituen! Seme jaioberria eta goizetik gauera etxetik kanpo.

Liburu bat bilatu eta irakurtzen saiatu zen. Hamaikak pasa aditu zuen kaleko atea. Tenedore hotsak, harraska. Egongelan ibili zen, komunean eta berriro egongelan. Ia gauerdian agertu zen azkenean, aurpegi xelebrez. Ez zuen sorpresarik hartu Olatz esna ikustean. Mutu pijama jantzi eta ohera sartu zen.

– Hain serioa izan da bilera? –Olatzek.

– Alkatea zein izango den esan dute.

– *Alkategaia* izango da... hain seguru zaudete irabaziko duzuela? –haren keinu serioari erreparatu zion–. Suposatzen dut ez zaituztela proposatu –Txumak ezetz buruarekin–. Eta zinegotzirako? –berriro ezetz–. Hobe; denbora gehiago familiarako.

– Ez –muturtuta–. Batzokian lan asko dago egiteko.

Inuzentea, ergela... edo biak. Haritz negarrez hasi eta bularra ematera altxatu zen Olatz. Bueltan, itzalita topatu zuen argia.

Biharamunean, pozik bai pozik etxeratu zitzaion Txumaren ama, zekarren oparia erakusteko irrikaz. Plastikozko kutxatxo bat zen, bisita-txartelak gordetzeko modukoa: “Imprenta Pascual, Valmaseda” zioen. Barruan, kartulina txiki batzuk eta haietan, ile horizko aingerutxo bat irribarrez, ondoan letra elegantez idatzita zuela: “Haritz Fuentes Herrero, nací el trece de junio de 1977 en Sodupe (Vizcaya)”.

Bero sargoria egiten bazuen ere, hamaika aldiz errepikatu zion amaginarrebak umea janzteko. Fardel hutsean zeukan Olatzek, biberoia eman bitartean. Umeari lixiba emanez gero ez luke andreak begirasun gogorragorik egingo. Ama txarra, egoista: esnea izanda, zertarako tartekatu ur zikin horrekin?

Olatzek ez zuen berriro esplikatzeko esfortzurik egin: kate bat zen titia eman behar izatea; Txumak berdin-berdin jarraitzen zuen bere bizitzarekin.

Irratian, eguerdiko notiziekin hasi zen esataria, ahots grabez: Javier de Ybarraren gorpua topatu zutela Gorbeiaren maldan, garondoan tiro bat.

Zerbait igarri zuen Olatzek, husten ari zitzaion sabelaldearen eta semetxoaren tripontziaren artean. Zilbor-hestearen azken zatia zen, lehorra, haragizko kiri-

bil gogor bat. Txumaren amak haurra hartu zion eta, besoak hutsik geratu zen Olatz, ezkutua kendu izan balio bezala. Negarrez hasi zen.

Haritzi titia eman behar zion, baina gaixoak lo hartzen zuen erdian eta segituan esnatzen zen gosez eta berriro eskatzen zuen eta fardela aldatu eta biberoia eman eta jantzi, apapa, amaginarreba ordurako ezkaratzean zain, ezin kalera bakarrik irten, berriketa urduriz betetzen zuen denbora, behintzat herrian gertatzen zena kontatzen zion, adibidez batzokiko Sanedrinak jarraitzen zuela Marisol eta Korori ateak ixten, pazientziaz eta tinko, bata bestearen atzetik, eta batzuetan amaginarrebak gehiegi hitz egiten zuen, lezioak emanez, bizitzaz edo ama eredugarria izateaz, etxekoandre, emakume, Txumak merezi zuen, nekatuta gauean, egun osoa umearekin atxilo, amaginarreba zen konpainia bakarra eta eskerrak askotan igotzen zela, bestela ezin komunera ere lasai joan, Haritz burua jasotzen hasi zen, azkar hazten ari zen, azkarregi, dagoeneko ezagutzen zituen ama eta aita eta amama eta bizilagunak, hots txikiak egiten zituen, eta katuka hasi zenean, beste kezka bat, non dago

umea?, ezin dutxatu, ezin jan, ezin lo egin, ez esnatu Txuma, goizean goiz lanera joan beharra baitzuen eta Sanedrinak boikota dekretatu omen zuen medikuaren kontra ere, hurrengo egunean atera zituzten batzokiko umeak euskara-eskoletatik, Avellanedako guraso-elkarteak ere egiten omen zuen Marisol eta Kororen kontra, irakasle erradikalik ez, isolatu egin nahi zuten Herriko Etxea, hara joatea bekatu mortala eta don Lucasek infernuko sua hauspotu eta hauspotu, aldendu itzazue haurrak terroristengandik, zurrumurruak, gizon ezkonduen lagunak omen zirela...

Irailean, Balmasedan hasi zen Marisol lanean, institutuan, eta Koro Bilbon.

Olatzek ez zien deitu; ez zen bere kontua.

Bazen.

Traizioa.

Fardela, titia, supermerkatua, bazkaria, biberoia, kalera, fardela, titia, merienda, Txuma, afaria, biberoia, Marisol eta Koro agurtzeko gai ez.

Koldarra.

Urrian, kotxetxoarekin pasieran ari zen batean, euskara eskolen arduradun berriarengana joan zen,

lanera itzultzeko. Jokoz kanpo harrapatu zuen: itzuli? Umea seinalatu zuen eskandalizatuta; ez zuten Olatzekin ikasturte osoan kontatzen.

Etxera bueltatu zen amorratuta, baina borrokatzeko indarrik gabe. Huts egin zien Marisoli eta Korori, huts egin bere buruari. Umearentzat, behintzat, garrantzitsua zen.

Enkargu txiki bat izango zen, azkena. Kotxe-matrikula bat. Amaginarrebak pozik onartu zuen umearekin geratzea. Bilbora, itxaron, itzuli: hiru ordu.

Benetan azkena. Ezkutaleku batetik hiru giltza hartu eta pertsona bati eraman: bi ordu eta erdi.

Amaginarrebari prest uzten zion biberoia eta haren begirada garbian aldiro irakurtzen zuen aurpegiratze bat. Edo horixe iruditzen zitzaion.

Etxebizitza bat alokatu Indautxun. Ordutegia baieztatu Mungian. Gizon bati jarraitu Santurtzin. Ba-

serri bat alokatu Galdamesen. Beste pakete bat. Garaje bat bilatu.

Armiarma-sarea. Itsaskorra. Alfontsok ez zion ezetz esaten uzten. Ezin zion huts egin. Aitzakia asmatu zuen Txumarentzat: ikastaro bat.

Eta beldurra. Ezinegona. Etxean zegoenean, telefonoak noiz joko.

Ez zuen periodikoa irakurri nahi, ezin telebista ikusi. Amaginarrebak politika aipatzean hitz beste egiten zion. Txumak susmo txarra, hotz; ez zitzaion ikastaroarena batere gustatu, ez zen egokia, umea zaindu behar, baina debekatzeko ausardiarik ez, botererik ez.

Histeria. Negar egiteko gogoa. Premia. Semetxoak gehiago maite ote zuen amona? Atsoa iristean sekulako festa. Eta umea gaizki hezi. Gehiegi mimatu. Indarrik ez eztabaidatzeko, ordea. Kulpak eztarria estutzen zion. Semetxoa ito arte besarkatzen zuen. Musukatu.

Amnistiari esker, preso gehienak kalean ziren edo Europan barrena deserriratuak. Jai izango zuten handik aurrera atxilotutakoek.

Gabonetan, oasia. Txumak ez zuen ama alarguna bakarrik utzi nahi, Olatzek ezin zuen artean Zarautze-

ra itzuli. Xexilik proposatu zuen denek batera Sodupen ospatzea eta, aspaldiko partez, Olatzek zoriona sumatu zuen, sastadaka.

Negua bake faltsuan joan zen. Sanedrinak gero eta gehiago estutzen omen zuen pintza Migel Garairen inguruan. Sodupen bizitzen jarraitzen zuen Marisolek, baina indarrak Balmasedan gastatzen zituen. Medikua zen azken oztopoa, erresistentzia.

Zentzugabeko gerrak nazkatuta, Igorren plaza hartu eta maletinean eraman zituen ametsak.

Ezkaratzeko txirrina. Sukaldean zegoen, Santa Ageda bezperan. Arratsaldeko sei eta erdiak ziren; baserritar jantzita joana zen Txuma, ulertzen ez zuen letra kantatzera; giltzak ahaztuta?

Sehaskan utzi zuen Haritz. Haren protestei entzungor ateraino joan eta zelatan jarri zen. Gizon gazte bat. Urduri. Besoak gurutzatuta. Haritz builaka: etxean zeudela ezin disimulatu. Atean joka eskuarekin. Olatzek ireki: bestea izerditan zegoen, minez.

– Olatz Xantio?

Alkandora pixka bat altxatu zuen. Odola.

Sukaldera eraman zuen, Haritz negar batean, gaztea mahai gainean bermatuta, dar-dar batean, Olatzek halere lehenago trapua hartu, sarrerara itzuli, ate aurreko odol-tantatxoak azkar garbitu, itxi, Haritz ez zen isiltzen, gaztea eserita, zorabiatuta.

Zer esango zion Txumari?

Handik gutxira, giltzen hotsa, atea irekitzen, ixten, txin-txin, giltzak harrerako mahaitxoan. Olatzek arnasa hartu zuen. Txumak “gabon!”. Sukaldera txapela jantzita sartzean, belauniko harrapatu zuen emaztea gizon baten aurrean, hura hormaren kontra eserita, zurbil, alkandora irekirik, Olatz azala garbitzen ari zitzaiola.

Ezpainak estututa joan zen Txuma. Hitzik ez. Gela batetik bestera aditu zuen Olatzek, zalantzan, ohe bat prestatu behar, afaria prestatu behar, titia, fardela aldatu, umea negarrez, Txumak ez zuen sukaldera itzuli nahi.

Goizaldean, gazteak kaleko atea samur itxi orduko, Txuma eta Olatz ahoz gora zeuden ohean, zentimetro gutxiko amildegia tartean, biak esna, biak zain.

Tik tak, tik tak.

Azkenean, erlojuaren alarma. Txuma jaiki egin zen, Olatzek lo-plantak. Errutina-hotsak, kafe-aroma, gosaria, dutxa, lurrina. Aterik ez, baina. Arintzerik ez. Ez zuen joan nahi.

Sukaldera joan zen Olatz. Berriketa gutxi: Txuma hitzak ordenatu ezinik, aztoratuta, oihuak, eskuak buruan, ez zaitut ulertzen, negarra, semea jokoan, bera jokoan, arriskua, erotuta, *malamadre* eta ama txarrak ezin erantzun, ez zuen aukeratu, baina nola esan, nola ahaztu, nola moztu, nola desegin.

Barkatu. Barkatu. Barkatu.

Haritzen lehenengo urtebetetzea, kandela bat. Zarauztarrak bisitan. Amona Brigida gaixorik zegoen eta aitona Manuel ere ez zen joan.

Bene-benetan azken mesedea: poltsa bat Abandoko geltokitik taberna batera garraiatzea.

San Juanak.

San Pelaioak.

San Pedroak.

Goizeko hamaikak. Amaginarreba Haritzekin apapa atera berria. Telefonoa: Alfontso. Txakurrada doa zure bila. Bost minutu herriko beste puntaraino iristeko. Etorri edo banoa.

Zapatak jantzi. Azken begirada atzera. Bizia zerion etxeari: haurtxo-arropa pilatuta, aulki gainean lisatzeko zain. Patata, azenario eta arrautza egosiak plater batean, noiz zurituko. Labadora bueltaka. Leiho irekitik haize-bolada freskoak. Sarreran argazkia: Olatz Txuma besarkatzen, aita harroak semetxoa besoetan zuela. Fotos Argüello. Aurreko hilabetekoa. Haren azpian utzi zituen etxeko giltzak, kristal hotzaren gainean Haritzen aurpegia laztandu, zirrara, kuartela, Capitantrueno, beldurra.

Atea itxi zuen.

Damutu.

Eta beranduegi zen.

8

Iparraldean atzera ere. Alfontsoren itzalean errefuxiatu zen: hark gidatu zuen mugaz bestaldera, hark mugitu gordelekutik gordelekura. Gehienetan, ganbara txikiak ziren: ezin leihotik begiratu, ezin zarata egin, ezin argia piztu... Janaria eramaten zion, noizbehinka egunkari zaharren bat. Eta, bitartean, egon, besterik ez, atxilo, semearen absentzia lagun. Atzerabueltarik gabe.

Eternitate bat igarota, Donibane Lohizuneko etxe arrunt batera eraman zuen. Debeku bakarra, Hegoaldearekin komunikatzea. Kalera ateratzen utzi zion, baina diskrezioz eta kontuz, ingurua Espainiako paramilitarrez lepo omen zegoelako.

Beste nonbaitera joaten zen Alfontso goizetik gauera. Hasieran, harekin batera besterik ez zen Olatz kalera ausartzen. Urduri itxaroten zuen besteak metodikoki kotxe azpiak aztertu bitartean eta haren atzetik flotatzen zuen karrikan, mamu isil bat.

Enkarguek behartu zuten azkenean bere kabuz kalean arriskatzera. Alfontsori eskatu behar izan zion

dirua, baina umiliazio hark ere ez zuen mugitu; izoztuta zegoen kanpotik eta barrutik. Eta hobe: bazterrak emakume haurdunez beteta zeuden, milaka haurtxo hemendik harat, usainduko balute bezala bera ere ama zela, semea abandonatu zuela.

Gauero izaten zuen amesgaizto bera: lorategi batean, ezkutuan, txalet bat zaintzen. Bonba bat jarrita dago; ikusgai du atzera-kontua: zenbaki digital bat, gorria. Bederatzi Zortzi Zazpi eta agertu da leiho batean Haritz eta ama eta Ixabel eta izeba Esti oihuak eta katakume-marrakak Sei Bost baina Olatz ez da gordelekutik mugitzen Lau saiatu dira leihoak irekitzen Hiru Olatzi garrasika eta kristaletan kolpeka Bi Bat eztanda latza eta etxea txikitu du hautsa hautsa hautsa eta atera da aitona Teofilo Xantioko hondakinen artetik kea dariola eskopeta eskuan Olatzi apuntatzen serio suminak jota negarrez.

Egonean bizi zen, bizitzari leiho eta oroitzapen zirrikituetatik begira, etxe batetik bestera aldatzera behartuta eta denak etxe bera. Sedimentatu egin zen: flotatze hartan zenbait gauza pisutsu bereizi eta nabarmendu ziren, beste batzuk disolbatu. Oinaze gorra

zen, etengabea: horrekin ere bizitzen ikasi behar, nahitaez ikasi ere, semea eta etxekoak gogoan iltzatuta, Notre Dameko konkordunak bezala maitearen aurpegia.

Errefuxiatu gazteak ekartzen hasi zen Alfontso, Bidaxunekoen antzeko ume handiak: hiruzpalau egun pasilloan edo egongelan lotan, eta desagertu. Bi geratu ziren luze sofan txandaka, Amezketako bat eta Bermeoko bat, edo, agian, Idiazabalgo bat eta Berastegiko bat, azkenean nahasi egiten baitzituen, aurpegiak gogoratu ezinik. Haiei esker jakin zuen Alfontso ezkonduta zegoela. Donostiar batekin. Aspalditik.

Politikak bete zuen etxea, eztabaida amaiezinek. Zenbat ordu Espainiako Konstituzioaren erreferenduma aztertzen! Estatuan, aldekoek %58 lortu zuten, kontrakoek %5 eta abstentzioak %32, baina Euskadin, ai, Euskadin!, abstentzioak irabazi zien aldekoei 55-30, eta abstentzioa eskatua zuten miliek, polimiliek, eskuin espainolistak... Baita EAJ epelak ere!

Olatzek ez zuen inoiz hitz egiten. Zenbaki-dantza urruna. Zapore gabekoa. Kolorgea.

Agudo esleitu zizkioten ama eta neskame papera: garbitu, otorduak prestatu, txukundu, aholkatu, kon-

tsolatu, errieta egin. Luzeegiak ziren orduak eta motzegia zereginen zerrenda; ederra egoera-aldaketa.

Haiei, behinik behin, familiak laguntzen zien, batik bat Idiazabalgoari, baserri oparo bateko semea baitzen; iritsi zenetik, jatekorik falta ez. Haren senideen bitartez helarazi zioten lehenengo gutuna. Ama. Orrialdeak txingar-usainez lurrinduak, sukaldean berriketan arituko balira bezala.

Kontuak eta kontutxoak aletu zizkion, baina Haritzen inguruko aipamenik txikiena ere kontuz kimatuta, letra iharrak pazientziaz eskuinerantz etzanak, haizeak makurrarazitako arantzen modura.

Alfontsok aholkatu zion momentuz hobe zela ez erantzutea.

Hamazazpi urteko zarauztar bat ekarri zuen. Iritsi eta astebetera, Aljeriako botila ardo batekin etxeratu zen, Bordeleko salda garestia erosi ezinik. Egongelan ireki zuen, besteei deitu, basoak banatu. Altxa, topa eta barrura. Olatzen lehenengo tragoa haurdun geratu zenetik.

– Bazekiat! Poteoa egingo diagu! –zarauztarrak, besteek hariak lotu ezinik begira–. Goazen taberna

itxuroso batera... Mondragonesera! –sukalderantz, eskuarekin gonbita. Beste erronda bat atera zuen–. Zer moduz? –aireari–. Hi, aspaldiko! Bai, hemen, bueltatxo bat ematen. Aupa, Mikel! Ederra zegok gure kioskoa, e? Polita duk etxera bueltatzea, bai, jauna! –basoa hustu eta botilarekin seinalatu zuen atea–. Orain... Joshemarira! Olatz, taberna hori maite duzu, ezta? Kuadrillan beti ordena honetan egiten dugu: gora gu eta gutarrak!

Alfontso itzuli zenerako, denak mozkor-mozkor.

– Ez da afaltzen etxe honetan edo zer? –bromadoinuan.

– Bordatxon hartuko diagu zerbait –zarauztarrak.

Alfontsok ulertu ez zuenez, barrez lehertu ziren, baina pasatu gabe. Zenbait periodiko espainiarrek kupulatik gertu kokatu ondoren, Iribar edo Inaxio Kortabarria balitz bezala begiratzen zioten gazteek: graziak ospatu, itzalari jarraitu, zerbitzatu eta edozein esaldi aditu Mendiko sermoiaren moduan.

Orain miliak ziren. Polimiliak flakiarekin hasi eta miliekin adiskidetu zen Alfontso. Batzuetan, gau osoa ere ematen zuen kanpoan. Goizean, tabako eta alkohol kiratsak zeramatzan ainguratuta. Hegoaldean ez zen horrela ibiliko.

Sukaldera joan zen Olatz, afaria jartzen hastera. Hozkailuak triste islatzen zuen haien egoera: apal guztiak hutsik, atean bost arrautza. Patata-tortilla prestatu zuen. Biharamunean, dirua eskatu beharko zion Alfontsori. Berriro.

Oilarra itzuli eta otzandu egin zen oilategia. Ederki zekien hark jendea tratatzen, nahi zuenean. Espainolez ari ziren, xuxurlaka.

– Hankaz gora? Hori ere bai? –idiazabaldarrak.

Ekintza batez ari ote ziren? Festa-doinua ez zetorren bat, ordea.

Barreak. Atera itsatsi zen Olatz, adi.

– Gauza bat esango dizuet –Alfontsok, konfidentzian. Seguru keinuren bat egin zuela sukaldera begira, besteen konplizitatea estutuz–. Edukazio sexuala da iraultzaren zatirik onena, neskei praktika ohean ematea.

Zerri zikina. Hori al zen gizarte-eredu berria?

Tortilla hartu eta egongelara sartu zen. Segituan antzeman zioten haserrea; arrazoia ez. Isilik afaldu zuten, “emakumeak-ezin-ulertu” aurpegiak jarrita.

Neskameak platerak jaso, neskamea garbitzen hasi. Ia-ia ez zituen ikusten, hain zen handia bere amorrua.

Amorrua: lehen sentimendua aspalditik. Bizirik zegoen.

Mutilek irteteko baimena eskatu eta Alfontsok, behingoagatik umore onean, eman egin zien:

– Ez eman atentzioa eta ez egin lelokeriarik –bi aldiz errepikatu zuen.

Sukaldera itzuli zen.

– Haserretzen zarenean ez zaude hain guapa.

– Edukazio sexualik ez didate eman eta... badakizu –serio.

– A ez? –atzetik jarri zitzaion, gerriarekin Olatzen ipurdia bultzatzen. Harraskaren kontra estutu zuen. Erekzioa.

Atzetik besarkatu eta ilea baztertu zion.

– Utzi.

Lepoa musukatzen hasi zitzaion.

– Uzteko!

Buelta ematea lortuta, besoekin bultzatu zuen atzerantz.

– Zein da zure arazoa? –Alfontsok–. Banekien kristoren moja zinela...

Sorpresan ireki zuen ahoa Olatzek eta hark musu batez itxi, erakarri, besarkatu. Zerbait esnatu zitzaion barruan; nola liteke Alfontsok bero jartzea? Errabia bueltatu zion hortzaka, azazkalak iltzatuz, eta Alfontsok, hauspotuta, altxa, logelara eraman eta ohe gainera bota zuen, dardaran biluztu, ukitu, zakila sartu eta astinaldi batzuen ondoren, sabel gainean isuri.

Plazerik ez. Eta tristeena: damurik ere ez. Miraria, ordea, ondoren: Alfontsok maitekor garbitu zion mantxa, mantarekin biak tapatu eta besoekin babestu. Olatz, begiak itxita, lasaitu egin zen. Aspaldiko partez.

Alfontsoren maitale ofiziala eta, opari, haren arropa garbitu, haren arropa lisatu, haren arropa ordenatu, harekin lo egin, harekin txortan egin, harentzat erosketak egin, otorduak ordu-orduan mahaigainera-tu, hautsa garbitu, etxea txukundu eta, halere, denbora, egunak hogeita lau ordu baino gehiago balitu bezala, izugarri luzatzen zen, itsasoko uraren antzera dena urperatuz, bizitzaren hankak pisutsu, bizitzaren hankak geldo, zeren eta mugitzea ere astuna egiten zitzaion, baina are astunago pentsatzea eta are astunago sentitzea, batik bat Txumaren gutun bakarra

ekarri ziotenetik, non haien artekoa bukatutzat jotzen zuen ez ziolako inoiz barkatuko semearen bizitza arriskuan jarri izana eta harengan batere pentsatu ez izana, ezta berak sufritutakoa ere, egun oso bat, 1.440 minutu bukaezin komisarian, galdeketan, bere existentziako esperientziarik latzena eta, gainera, batere merezi gabe, justua izaten ahalegindu baitzen beti, eta, horregatik, umearentzat onena zen pentsatzea ama urrun zegoela, komunikatzeko inolako biderik gabe, eguneroko galderak bakandu ahala, gabeziarekin bizitzen ikas zezan.

Lerro guztiak espainolez, eta euskarazko bakarra sinaduraren gainean: “Ondo izan”.

Euskara-irakasle bezala ere, porrota. Alfontsok, lehen, Olatzi besterik ez zion egiten euskaraz. Saria lortuta, gero eta maizago jotzen zuen espainolera.

Bestela, kalean ere hizkuntzak isolatzen zuen, frantses txobinistak. Alfontsok etengabe goraipatzen zuen Iparraldeko jendearen laguntza, ezinbestekoa omen zelako etxeak alokatzerakoan, errefuxiatuei lana bilatzerakoan, paperak eta sostengua lortzerakoan. Olatzek ifrentzuari erreparatzen zion, esne zurizuria baitziren iparraldekoak eta beraiek, olio-tantak. Hangoa ezin izanik, ez zen hemengoa.

Alfontso mili peto-peto bihurtuta, konbertituen fedeaz larrutzen zituen lagun ohiak, haien akats estrategikoak. Adibidez, Madrilgo Atocha eta Chamartingo tren-geltokietan egindako ekintza okerraren eraginez beste turista alemaniar bat hil izana. Atzerritarrak eta garrantzi gutxiko helburuak garbituz ez zuten ezertxo ere lortuko.

Bi arerio pertsonal zituen. Alde batetik, Karmelo; ze urrun pailazo-garaiak Mertxerekin! Biak polimilien lubakian zeudenean ere ez zuen asko maite: Olatzek ez zion zehazten Karmelorekin lotzen zuen iragana. Gainera, Alfontso antolatzaile argia izan arren, Karmeloren gorpu-pilak itzala egiten zion. Entzutekoa zen Alfontsoren sumina, polimiliek pauso bat atzera egiten zuten bakoitzean: borroka armatua bigarren planoan jarriko zutela iragarri, tregoa-zurrumurruak, negoziazioak... Traidore putakumeak.

Txapela zen bigarren obsesioa. Argala aurreko urtean erailda, Txomin Iturbek bakar-bakarrik zeraman ETA militarreko aginte-makila, baina polizia gero eta estuago ixten ari zen soka. Maiatzean saiatuak ziren berriro atentatu batez garbitzen eta, hamaikagarren

aldia zenez, Alfontso lekukoa hartzearekin amesten hasi zen.

Txapelak enbarazu egiten zion; gainera, haren ondoan hutsal sentitzen zen, ez zuen ausardiarik kontra egiteko. Etxera itzuli eta epelak botatzen zizkion Olatzi, erretxinduta bestearen hitzak disekzionatuz. Txapela emazte eta alabekin bizi zenez, ez omen zion Erakundeari dena ematen, hogeita lau orduz baitziren soldadu... Txomin ere hala bizi zen, baina potrorik ez hari ezer esateko.

Ekitaldi bat antolatu zen Baionan, katedralean gose-greba egiten ziharduten errefuxiatuei laguntzeko. Alfontsorekin joan zen Olatz; polimili-multzo batean Karmelo ikusita, haren bandora gerturatu eta bi muxu eman zizkion. Alfontsok zurbil itxaron zuen urrutian, erretzen.

– Hurrengoan etxetik bidaliko zaitut –Olatz itzulitakoan.

Hotzikara. Alfontsok haserrea mozorrotu, eta bizkarreko samurrak banatzen hasi zen ezagunen artean, jator-jator.

Kotxean mututu eta afaldu arte iraun zuen zigorrak.

– Badakizu Txapelaren azkena? –Alfontsok–. Arduratuta dago paramilitarrak neska gazteak bortxatzen eta hiltzen dabiltzalako. Txapelak begiak tapatzen dizkionez ez du ikusten probokazio hutsa dela, despistemaniobra bat. Denok sufritu behar dugu, zuok emakumeok ere, baina alaba bi dauzkanez...

Mespretxuzko irribarrea azaleratu zitzaion Olatzi:

– Euskal Herria ederra lortuko duzu emakumerik gabe.

– Popatik hartzera zure emakumeekaz...

– Gainera, denok sufritu behar dugula... Ez zaitut batere sufritzen ikusten hemen, paperen artean. Herria defendatzeko barrura sartzen direnek, horiek sufritzen dute!

– A, bai? Oso erraza da ulertzen ez duzunaz berba egitea.

Putaseme halakoa! Muturtu egin zen Olatz. Etxera iritsi eta zuzenean jo zuen ohera; presta zezala Alfontsok bere afaria. Loa hartzerik ez, ordea: sumendi bat zen. Ezin ez-bizitza horrekin jarraitu. Gelatik irten eta pasilloan egin zion aurre:

– Barrura sartu nahi dut.

– Talde batean? –irribarre ironikoa aurreratu zitzaion Olatzen baietzari–. Ederto; egin bihar argazki bat. Badakizu gero nora joan.

Sofan eman zuen gaua Alfontsok, goizean ere ez zegoen. Mahai gainean utzi zituen franko batzuk, argazkilariari ordaintzeko.

Erakundekoek karnet faltsuak egiteko nahi zuten argazkia. Eta badaezpada, zerbait pasatuz gero. Aukera hor zegoen: bizitza emateko prest egon behar zuen sartzen zenak, bizitzak kentzeko prest.

Olatz azaldu eta hantxe jakinarazi zioten entrenamendu-kanpalekura joango zela Gabonetan, eta, ordura arte, beste kide batzuekin biziko zela.

Bidaiatu aurretik, errefuxiatuen mundu txikitik iritsi zitzaion oihartzuna: Alfontsoren emaztea Gabonak pasatzera joatekoa omen zen.

Entrenamendutik bueltan, geratzeko plana egin omen zuela.

9

Muga zeharkatzen ari ziren mendiz. Ederki zamatuta, arnasestuka. Lau kide komandoan: Iru zestoarra, Bilboko Agurtzane eta, Olatzekin batera, hasiberri, Karrantzako Juanmari Velarde.

Mozkote isil bat zen mugalaria, hanketako muelleei esker aldapan gora korrika zihoana eta behera, saltoka. Ziztu bizian eta halako urduritasunez egiten zion tira taldeari; gero eta zailago omen zegoen beste aldera pasatzea. Agurrek abiadurari eusteko komeriak zituenez, haren motxila hartu eta lehenago baino are bizkorrago jarraitu zuen.

Olatzi azkura eragiten zion izerdiak begietan. Nahiz eta xixko eginda joan, ez zuen amore emango. Behe-lainoa sartzen hasi zen, harresi ilun bat. Eskua luzatuta, behatz-puntak ere ez ikusgai. Eta, konturatzerako, Velarde falta.

Mugalaria kabendioska, Iruri zegokion erabakitzea, bera baitzen taldeburua. Segitzea aukeratu zuen, kosta ahala kosta, atzera egitea arriskutsuagoa

izango zelakoan. Gainera, denek ikasia zuten buruz nora jo. Aurrera, ba, herio batean.

Eguna zabaltzean, pixka bat saretu zen behe-lainoa; Velarderen arrastorik ez, ordea.

Hiru egunez itxaron zuten etxe seguruan, nerbioak dantzan, nor azalduko: edo Velarde edo txapelokerrak. Azkenean, ez bata, ez bestea. Zer egin eztabaidatzen, Iruk ez zuen garbi adierazten, Agurtzane irrikan zegoen kanpainarekin hasteko eta Olatzi berdin zitzaion. Orduantxe jarri zion “iceberg” izena buru barruan zeukan sentiberatasunik ezari. Beranduegi gogoratu zuen ur-azpian daramaten zatia ikusgai dagoena baino dezente handiagoa dela.

Kantabriara jo zuten. Colindresera garraiatu zituen kontaktu batek, Santandertik 50 kilometro ekialderantz. Badia eder baten eztarria zen, Ason ibaiarena; Santoña eta Laredo ziren bokaleko ezpainak. Errepide ondoan zegoen lortu zieten etxetxo zaharra, herri hasieran, apenas inor bizi zen eremu malapartatu batean. Luzeagoa zen ultramarinoserako ibilaldia, Laredoko Guardia Zibilaren kuarteleraino bizikletaz gerturatzea baino. Olatzen esku geratu ziren erosketak, garbitzea eta antzekoak; kuartela zaintzea, txandaka.

Bizimodu apala zeraman, bai, baina ez zien dirua eskatu behar ez Alfontsori, ez aitari, ez Txumari.

Gainera, hamaika luxu txiki zituen eskura, nahi adina txokolate erosi ahal izatetik periodikoraino. Horrela irakurri zuen Alonsotegiko Aldana tabernakoa: errepide jeneralean zegoen, herri-hasierako errebueltan; Txumak han hartu ohi zuen kafea Bilbora kotxez joaten zen aldiro. Taberna beteen zegoen larunbatgau batean, bonba batek lau lagun zartatu zituen, beste hamar zauritu. Espainiar paramilitarrak.

Negu gorria. Barrena izozten zuen itsasoko brisak; aitzakia ederra aurpegia bufanda bero batekin disimulatzeko. Zoriontasun xelebreak harrapatzen zuen goizero bizikleta gainean bideari ekitean, hainbat eta hainbat emakume gazterekin batera, kontserba-fabrikak helburu. Beste mundu bat zen, atsoak beltzez eta neskak hirurogeiko hamarkadako gona luzeetan preso. Haien modura mozorrotuta, Espainiako pelikula zaharkitu baten protagonista bihurtzen zen. Horrela entretenitzen zituen asperraldiak, txapelokerrak zenbatu eta galoien sartu-irteerak apuntatu bitartean. Mende bat bazen Ybarra espiatzen jardun zuela, mila urte *kuartelarena* egin ziotela. Horixe: oroitzapenetan hilobiratuta, “kuartelarena” zioen hilarriak.

Erabiltzeko prest zeraman pistola, beti hotz eta astun, sabelaren kontra. Hasierako egunetan zauria eragin zion, azala zaildu arte.

Iluntze batean, Iruk zapla jakinarazi zien zailegia zela kuartel horren kontrako ekintza eta hurrengo jomugara pasatuko zirela. Santanderren bertan zegoen eta, segurtasuna indartzeko, bakoitzak bere kabuz bidaiatu zuen.

Olatzek arindua hartu zuen: tentsio txikiagoz egingo zuen bidaia, komando-kideekin kexaka eta elkarri mokoka ibili gabe. Kalean, beste baten larruan eta Polizia agertuko ote zen beldurrez, garrantzia galtzen zuen momentukoa ez zenak.

Iru miresten zuen: uzkurra, hotza eta, aldi berean, eskuzabala eta zuzena, ausarta baina ez eroa. Ez zuen teoria politikoa gogoko; Trotski eta Lenin biak bizardun. Gerran ari ziren, gorrotorako lekurik gabe.

Agur, berriz, sutsua zen, sutsuegia aukeran: ahoberoa, handi-mandia, ezjakina... Bi urtez egona zen Yeseriasen preso, 1977ko amnistiara arte, eta Gregorio Mujika *Gorri* mili historikoaren bikotekidea zen edo, Agurrek behin eta berriro azpimarratu bezala, Gorri berea. Alcalako kartzelan zeukaten 300 urteko zigorra betetzen, hamalau hilabete lehenago Frantzian atze-

man eta sekretuan estraditatu zutenetik. Agurren arabera, laster aterako zen, hurrengo amnistian beste presoekin batera; independentzia gertu omen zegoen.

Olatzek ezin zuen eraman. Bazekien, gainera, hizkuntzak ere zerikusia zeukala: Iru zestoarra zen, naturala zitzaien euskara biei. Agurren mutur luzea agertzean, berriz, berehala aldatu behar izaten zuten, besteak “agur Ben-Hur” ateralditik haragoko interesik ez zuelako.

Behin batean, nazka-nazka eginda, euskaraz jarraitu zuen Olatzek, bestea sartu arren.

Santanderren, itxura ona hartuz joan zen ekintza. Laredon ez bezala, informazio zehatza zeukaten, baliagarria. Iruk egongelan bildu eta plana zehaztu zien: Olatzek gidatuko zuen lapurtutako kotxea, Agurrek zaindu metrailetarekin eta berak pistolarekin exekutatu.

Ez zen batere ideia ona, eta Olatzek halaxe esan zien: haurdun zegoela ikasi zuen gidatzen Txumarekin eta, gidabaimena izanda ere, oso kilometro gutxi eginda zegoen. Agur gelatik joan zen, marmarrez beti to-

katzen zitzaizkiolako inutilenak; Iruk ez zuen ezer erantzun.

Bezperan, Olatzek ez zuen begirik bildu. Adostutako lekura kotxea eraman eta bigarren ilaran geratu zen motorra piztuta. Eskuak izerditan eta bihotza arrapaladan, enbragea zapalduta zeukan, primera prest. Ez dadila kalatu, ez dadila kalatu...

Ispiluak txikiegiak ziren, perspektiba txarra. Semea oroitzeko tentazioa baztertu eta, hara non Xabiren memoriarekin topatu zen, aspaldiko partez: parrokiako lokalean, ETA sutsuki goraipatzen. Koitadu halakoa.

Metraileta-segida bat. Metraileta? Pistola-tiro bat. Beste bat.

Isiltasun latza.

Korrika sartu ziren Agur eta Iru; Olatz poliki hasi zen enbragea askatzen, eternitate osoa, kotxea ez zen mugitzen, ez dadila kalatu, Agur oihuka, Iru oihuka, aterahaibehingoz ostiaputajodervamos, eta kotxea mantso-mantso abiatu zen.

Arnasa hartu zuen, ia itota.

Irratiak laster eman zuen berria. Agur garaipena ospatzen hasi zen, jodetejodete. Iruk errespetua eskatu eta eztabaida itsusia izan zuten.

Llanesen ere errepikatu zuten eskema. Berriro hartu zuen aurrea metrailetak, baina, orduan, tiroketa luze batek jarraitu zion. Pistolak. Ezin ezer ikusi: emakumeak oihuka, gizasemeak. Tiro gehiago.

Atzera begiratzean, Olatzek oina nahi gabe enbragetik altxatu eta, Agur sartzen ari zela, astindu batez kalatu zen kotxea. Agurrek oihu egin zion azelera zezan eta giltza biratu zuen, motorra piztu, ia segituan altxatu zuen enbragea azeleradorea zapaldu bitartean eta motorra sutan, kotxeak bultzada bat egin zuen aurrera, baina jarraian frenatu, beste bultzada bat eta frenatu eta Agurrek pistolarekin apuntatu zion burua ero moduan builaka, juxtu hurrengo bultzadaz martxan jarri zirenean.

Iru zaurituta omen zegoen. Kalean. Pareko kafetegian gosaltzen ari ziren lau polizia nazional putakume eta haiek tirokatu zuten. Lurretik kontraeraso egin omen zien, taldekideari bizkarra zaintzeko. Txapeloker guztiak aterako ziren haien ehizan.

Ahal bezain pronto aldatu zuten kotxez, mendian lo egiten saiatu eta, biharamunean, Alfontsori hots egitea lortuta, itzultzeko agindua jaso zuten. Iru Ma-

drilen omen zeukaten, galdeketan. Ezin bi lagunekin komando hori osatu, are gutxiago bi emakumerekin.

Are gutxiago. Epelak bota zituen Agurrek! Bilbora itzuli eta haren lagun baten etxean ezkutatu ziren hiruzpalau egunez. Plan bat zeukan, muga pasatu aurretik gauzatzekoa. Emakumeak zer egiteko gai ziren demostratuko zuten. Kostata, Olatz konbentzitu zuen azañan laguntzeko.

Goizeko zazpiak. Ford Fiesta gorri xume bat lapurtu ondoren, Gran Viara joan ziren. Olatz gidari, Agur kopilotu, metraileta eta pistolak manta baten azpian. Bizpahiru buelta eman zizkioten Espainiako Gobernu Militarraren pareko plazari, Agurri egokia iruditu arte. Espaloi ondoan geratu ziren, Agurren leihoa jaitsita. Metraileta atera eta hamaika tiro jo zizkion zaintzan zegoen soldaduari. Lurrera erori zen zerraldo, atzeraka, eta horma jo zuen buruarekin.

Auskalo nondik erantzun zieten: Ford Fiesta kartoizkoa, balek txapa zulatu eta asfaltoaren kontra errebotatu zuten. Motorra erre beharrean urrundu ziren, mingainak lehor-lehor. Bilbotik Donostiarantz ateratzen den autopistan esnatu ziren eta, kontzientziarekin batera, mina, odola. Olatzek Jesukristoren moduko zuloa zeukan eskuineko eskuan, beltza eta

ertza erreta, Agurrek izter batean. Praka odolaz blaitzen ari zitzaion. Arnasestuka, botoiak askatu eta tiroi zakarretan jaitsi zuen belaunetaraino. Balak zeharka jo, eta ez zitzaion sartu. Haragi gorrixka eta muskuluak ikusgai zituen.

– Hanka moztuko didate!

Olatz isilik. Ezin zuen eskua mugitu eta taupada bakoitzean labana bat iltzatzen zitzaion.

Jertsea izter gainean jarrita ere, Agurren zauriak odoletan jarraitzen zuen:

– Ez dut hil nahi... Konortea...

Biak mutu. Mediku bat topatu behar zuten. Zarautzera heltzeko adina gasolinarik ez, Gernikako irteera hartu zuen, maila apaleko errepide bat. Laguntza eskatzea errazago izango zuen... Izango ahal zuen!

Mendi baten magaletik zihoazela topatu zuten ibilgailu-ilara, baso baten erdian.

Kontrola.

Bide-bazterrean, bi patruila-kotxe eta hiru txapeloker bistan.

– Joder –Agurrek, aho-ertzetan txistu lehorra.

– Aukera bakarra daukagu –Olatzek, nahi gabe euskaraz–. Tiroka pasatzea.

Besteak begirada galduaz heldu zion metrailetari, Olatzek pistola prestatu.

Ez zuen hil nahi.

Agur ozta-ozta atera zen. Metraileta altxatu eta ta-ta-ta ekin zion. Guardiak kotxe atzean gorde eta erantzun egin zioten. Olatzek, bere aldetik tiroka, babesa bilatu zuen zuhaitzen artean. Pentsatzeko astirik ez: min ikaragarria sentitu zuen ezkerreko izterrean eta herrenka bota zuen bere burua aldapan behera, herio batean jaitsi eta jaitsi, ihesean, begetazioaren altzora. Agur abandonatuz.

Tiro bat. Aldameneko zuhaitzean jo zuen; enborrean ponk, hostoak dardaran. Sasien artean makurtu zen, hankako minak zorabiatuta.

Mugimendua maldaren goiko aldean adituta, burua pixka bat altxatu eta beste bala bat pasatu zitzaion gainetik, larru-arras. Atzetik zetorkion, gizon bakar bat. Txapelokerrak saltaka jarraitu zuen beherantz, aurreratzeko eta ihesbidea mozteko. Olatz ez zen semearekin gogoratu, ezta ama edo etxekoekin ere. Beldurraren partez, larritasun hutsa: eskapatu egin nahi zuen, salbatu, bizi.

Etsi-etsian jo zuen tiro bat. Beste bat. Erantzuna behetik, berriro ere oso gertu. Bulto berde bat mugi-

tzen sumatu eta harantz bidali zuen hurrengo bala. Harrapatuta zegoen. Laster jaitsiko ziren goikoak. Tranpa estutu eta bertan akabatuko zuten.

Urrunetik, oihu eta tiroak. Pixka bat itxaron zuen beherantz jarraitu aurretik, arrastaka. Garo artean deskubritu zuen hanka uniformeduna, gorputza ahoz gora lurrean.

Ez zituen hogeita hamar urte. Esku zurixkekin ari zen lepoko iturria estaltzen. Taupada bakoitzak odol gorriko txorrota botatzen zuen balaren zulotik. Olatzen bala.

Emakumea ikustean, eskua eraman zuen sabel gainera, han baitzeukan pistola. Ezin hartu. Begiak estutu zituen, amore eman beharraz haserre, graziakoaren zain. Ez zion begiratu.

Olatz izoztuta. Akabatu egin behar zuen. Bestela, altxa eta atzetik joango zitzaion atzeman arte. Buruan merezi zuen beste tiro bat. Zer egiten zuten guardia zibil zerri horiek Euskal Herrian?
Zergatik ari ziren jendea bahitzen, torturatzen, hiltzen? Capitantrueno. Txerrimutur. Putakumeak.

Pistolak bi tona pisatzen zuen.

Exekutatu.

Heroiarena egiten saiatua zen guardia zibila, bera bakarrik Olatz atxilotzen, akabatzen. Ez zuen errepa-rorik izango Olatz zulora bidaltzen.

Berandu baino lehen azalduko ziren besteak; ezin denbora gehiago galdu. Geldirik, azkarrago bukatzen zitzaion indarra.

Hots batek ihes egin zion mutilari, haserre, edo gogaituta, edo beldurrez, hitz erdi bat besterik ez, “horror” agian.

Izua.

Ahoa erlaxatu zitzaion: tenkatutako ezpainak as-katuta, arnas hartze urduria lasaituz joan zen, odol-txorrota txikiagotuz. Zeharo desagertutakoan, kolore horixka marra batean igo zitzaion masailetatik bekoki-raino.

10

Ez zuten ia hitz egiten. Mamuek bezala jarduten zuen Xexilik etxeko lanetan, garai bateko kantak irentsita. Bukatzean, Olatzen ohe aldamenean esertzen zen, beti josteko zerbait eskuetan. Amona Joxepiren antza hartzen ari zen, gero eta handiagoa.

Xexilik ez zuen jakin nahi eta Olatz ez zen esplikatzera ausartzen; han egoten ziren blokeatuta, biek bala bera buruan, Ramon Perez Ocaña 28 urteko guardia zibila hil zuena. Urtebeteko alaba zuen, Sara.

Ezin jakin amak zer pentsatzen zuen, mutu, serio. Agian hiltzaile batez erditu zela. Seguru.

Olatz pixka bat osatzean hasi zen erromes-andana: izengabeak, ezagunak eta lagunen bat. Miresmena zioten, Joana Arc-ekoa balitz bezala, baina bera gehiago sentitzen zen zirkuko emakume bizarduna.

Ihesaldiaren memoria *tabula rasa* zenez, bisiten zertzeladek lagundu zioten ihesaldia irudikatzen: baserritar batek aurkitu omen zuen hilzorian basoan, etxera eraman, ezkutatu. Eskualdean gogoan zituzten Iñaki Garai eta Blanca Salegi, 1975ean Guardia Zibilak

etxean erailak bertan ETAko bi ezkutatzen zirelako. Arriskuak arrisku, baserritarrak zaindu eta Elantxobeko arrainontzi batean bidali zuen Donibane Lohizuneraino, Xexiliri abisua emanda.

Halere, erromesei zaila egiten zitzaien isilune deserosoak betetzea. Bakarra ausartu zen komentatzera Agur mirariz zegoela bizirik, erietxe militar batean. Inor ez, ordea, Olatzek abandonatu ote zuen.

ETA militarrak Jose Maria Ryan bahitu eta, orduan bai, xehetasun guztiak eman zizkioten: Lemoizko zentral nuklearreko ingeniaria zela, miliek astebeteko epea eman ziotela Madrilgo gobernuari eraikuntza gelditzeko, garaipen latza izango zela, jeltzaleak umiliatu egingo zituztela. Bisitari askok gorroto biziagoa zioten EAJri Espainiari baino.

Beste garaipen bat Gernikako juntetxean: Juan Carlos Borboikoa eta Sofia sartzean, txistuka hasi ziren ezker abertzaleko parlamentariak eta *Eusko Gudariak* kantatu zieten aurpegira. Mundu osoko telebistetan agertu zen, orain bazekiten Euskal Herriak gogotik nahi zuela independentzia.

Amnistia Internazionalak eskatu zuen Ryan askatzeko; haren emaztea ere azaldu zen telebistan bost

seme-alaba txikiak ondoan zituela. Zantzuak omen ziren, Madril amore emateko zorian zegoela.

Miliek zulatu zuten puxika. Tiro batez. Inortxok ere ez zion Olatzi aitortu Ryan exekutatu zutela; Xexilik aditu zuen enkarguak egiten ari zela.

Ez zekien aurrera egiten, ezin atzera begiratu. Gauza gehiegi zeuden gogora ekarri ezin zituenak. Pasarte txikiak bilatzen zituen, gauza xumeak, arrisku gabeak, esaterako Xantioko sukaldea. Memoriak, baina, segituan traizionatzen zuen: Marifer txikitako laguna haiekin bazkaltzen, aho zabalik aitona Teofilori begira, hura hots ulertezinak ahoskatzen ari zelako. Haren aita planta onekoa zen, lagunen aiten artean guapoena inondik inora. Etxe Zabalako kuartelaren inguruan ibili ohi zen, uniformea txukun-txukun. Mariferrek berak lisatzen omen zion goizero, bezperan eginez gero aulkiaren marka hartzen zuelako. Momentua iritsita, tiro egingo zion Olatzi, zalantzarik gabe. Eta alderantziz. Logikak ito egiten zuen.

Amak lotsarik gabe zentsuratzen zizkion egunkariak. Norbaitek *Egin* bat ohe ondoan ahaztuta, Olatzek burko azpian ezkutatu zuen geroago bakean irakurtzeko. Azalak buelta eman zion bihotzari: Joxe Arregi ETA militarreko kidea hil zuen poliziak, bederatzi egunez torturatuz.

Xabi, Etxe Zabala, Capitantrueno, Ibarrakoak.

Loak besterik ez zuen salbatzen, ez ziolako bere buruari amets egiten uzten. Gau horretan ez zuen begirik bildu. Goizeko argiekin erori zen sorgorrean.

Ama ondoan esertzeak esnatu zuen. Negarrez ari zen, zaintzera joan zitzaionetik lehen aldiz.

Eskua tapaki azpitik atera eta besoa estutu zion.

– Zer, ama?

– Ixabeli minbizia topatu diote. Tripetan.

Olatzek berriro itxi zituen begiak. Alferrik, ezin malkoei eutsi.

– Oso aurreratuta omen dauka.

Ixabel: ile grisa mototsean lotuta, gorputz handia, bata berdexka soinean, baserriko arima irribarretsua, beti besteentzat lanean. Olatzek, mirari batek ohetik altxatuta ere, ezin izango zion bukaeraraino lagundu. Etxeko guztiak ari ziren ordaintzen Olatzen erabaki pertsonalak.

– Hobera egiten ari zara –amak–, eta Ixabelek laguntza behar du. Txumarekin hitz egin dut eta hilabete bukaeran etorriko zaizu zaintzera.

– Txu...ma?

– Lau astez, Haritzekin.

Aspaldi izena aditu gabe. H-A-R-I-T-Z: sei letrak trinkotzen zituzten bakardadea, herrimina, babesik eza, nekea, beldurra eta mila miseria. Dardaran hasi zen; horregatik ez zuten juduek Jainkoaren izena ahoskatzen?

Zamak koltxoian iltzatuta, ohea sarkofago bat zen. Gainera, jendeak ez zuen Joxe Arregirena ahotik kentzen; gehiegi zen. Mundutik banatu behar zuen eta uko egin zion bisitak hartzeari. Ustekabean agertu zen azkena: Ana, Alfontsoren emaztea. Senarra oso lanpetuta omen zegoela eta bera bidali zuela kasu egitera.

Donostiako euskalki dotoreaz hitz egiten zuen, grazia naturalaz, eta sabel puztu ederra zeukan, borobil-borobila. Goxo-goxo jardun zuen berriketan, lagun minak balira bezala. Neskatxo bat nahi omen zuten, lasaiagoak baitira. Gustura omen zegoen Iparraldean; hain jator ziren denak!

Benetakoa al zen fatxada tuntun eta onbera hura? Ez, ez: seguru tripatzarra erakustera joan zela. Edo arerioa lur jota zegoela bere begiez baieztatzera.

Mando hilari, denek ostiko.

Bi astek ere ez zuten martxotik banatzen: sosegurik ez eta ezin irakurri, pentsatu, kontzentratu, urduri baino urduriago, ezinegonean, ondoezik.

Umetan, Ixabel amarekin-eta elizara joan eta kandela bereziak pizten zituzten Kandelario egunean, kiribildu horietakoak: bildumenak. Tantaz tanta urtzen omen zen argizaria, negarrez ariko balitz bezala. Horrela ahitzen zitzaizkion egunak ere Olatzi.

Azken asteko astelehenean, korrikaldiak aditu zituen etxeko eskaileretan, iluntzean. Atean kax-kax eta Xexilik ireki zuen. Bizilaguna zen, errefuxiatua hura ere. Ahapeka hitz egin zuten.

Atea itxi gabe itzuli zen ama logelara, zuri:

– Jeneralek parlamentua hartu omen dute politikariak barruan daudela. Madrilen.

Bizilagunaren irratira joan-etorrian transmititu zizkion berriak. Hotzean hausnartzea zaila zen, oso. Alde batetik, independentistentzat komenigarria izan zite-

keen gerra-egoera; bestetik, epelegi zegoen oraindik 36ko odola.

– Honezkero, hamaika bapore aterako ziren Zarautz aldetik Donibane Lohizunera –Xexilik, ordu txikitan.

– Bai zera! Ez da hainbesterako izango.

– Baietz aita paperak erretzen jardun Xantion. Badaezpada.

– Ez du ezer egin, faborez. Zeren beldur izango da, ba?

– Gerra-legean ez da ezer ere frogatu behar: tiro egin eta listo. Inork ez du benefiziorik ateratzen, gaiztoek bakarrik –pausa bat–. Miguel Garmendiarena ez dizut behin ere kontatu –Olatzek buruaz ezetz–: gure amonaren aldetik Goierriko familia aberats batetik gatoz. Miguel Garmendia gure amonaren anaia zen; gerra baliatu zuen herentzia guztia bere izenean jartzeko.

Espainiako aldamioek eutsi egin zioten bultzadari eta ostiral arratsaldean hasi zuen Txumak hilabeteko oporraldia. Iluntzean iritsi ziren. Olatzek ohetik entzun zituen amaren muxuak eta negarra, Txumaren kezka.

Behingoz zabaldu zen logelako atea: Txuma eta, haren hankapean lotsati gordeta, semea. Ia lau urte.

Umeak aurpegia estutu zuen aitaren izterren kontra. Amonak besoetan hartu zuen behin eta berriro musukatzeko. Etxe txikia bat-batean bihurtu zen kaiola ziztrin eta apal.

Hurrengo egunean, Xexiliren bila joateko aitzakian, xantiotarrak. Ramiroren seigarren eskuko furgonetan abiatu eta hamarretarako, han. Aitak eta Teofilok sasoiari eusten zioten; Ixabelek, berriz, tripa puztuan zeraman gaitza. Aurpegi horiz eta mantso hurbildu zen Olatzen ohera, mina disimulatuz:

– Berriro ikusi nahi hindudan –masailak bustita muxu ematerakoan–. Bakean hil naiteken orain.

– Zer esaten duzu! Guapa-guapa zaude eta! –irribarrea okertu zion penak.

Sukaldeko mahaia logelara eraman eta ahal bezala bazkaldu zuten. Dena poza, dena zoriona, dena faltsua: arratsaldean betiko joango zen Ixabel, auskalo noiz arte geratu Olatz.

11

Txumak, egun beteko tregoa ere ez. Semea lotan zegoela, periodiko batekin hurbildu zen: *ABC* monarkiko-frankista, otsail bukaerakoa. Azalean, jendetza: “millón y medio de personas en Madrid”.

– Zure amak utzi dit irakurtzeko –serio, espainolez–. Begira laugarren edo bosgarren orria.

Olatzen karnet-argazki bat eta epigrafea “Maria Olatz Herrero Palacio”. Izenburua: “MADRE SANGRE”. Berriaren sententzia: hamar bat atentatu, hamaika hildako, eta ez zegokion ausardia ere leporatzen zizkioten. Semetxoa abandonatu zuen hiltzen hasteko, urte batzuk lehenago Zarauzko familiarekin egin bezala. Biktimen amekin zerikusirik ez, emakume guztien lotsa omen zen, bizitza ugaldu beharrean, kentzeko irrikaz.

– Alianza Popularreko gizajo hura hil omen zenuen Santurtzin: Vicente Zorita. Bahitu eta ordubetera hil. Zortzi tiroz! Eta Espainiako bandera ahoan sartuta! –nazkaz.

Olatzek orrialdea behatu zuen txundituta.

– Ezinezkoa da; hemen nengoen, hori azaroan izan zen.

– *Hori* zer? Esan! Exekuzioa! Ez duzue horrela esaten?

– Kupulan nagoela dio... baita zera ere! Ze astakeria da hau?

– Poliziak badaki zer egin zenuen, eta gutaz ere badakite...

– Txuma, hau gezurra da! –indarrik ez periodikoa botatzeko–. Aditu: gerra da. Haiek...

– Ez! Ez dut jakin nahi, bestela, umea hartu eta joan egingo naiz –aurpegia estali zuen.

Gelatik irten eta bakarrik utzi zuen. Hurrengo goizera arte ez zen itzuli.

Haritzen presentziak ez zion espero izandako lasaitasuna oparitu: nahiz eta aitarekin zegoenean hiztuna izan, oheko emakume ezezagunaren aurrean uzkurtu egiten zen, mesfidati.

Hizkuntzak ere zerikusia bazuen: espainola zen bere aukera naturala. Ulertu egiten zuen euskara, pixka bat behinik behin, baina uko egiten zion erabiltzeari eta, horretarako estututa, “¿qué?” egoskorren

atzean babesten zen. Logikoa zen Sodupeko ume bat erdalduna izatea; ama euskalduna ondoan izanez gero, berriz...

Beste erru bat.

Hanka, behintzat, itxura ona hartzen ari zen. Mutilak iritsi eta hurrengo asterako gai zen makuluen laguntzaz etxean pixkanaka mugitzeko, lau hankako armiarma baten moduan, tak-tak-tak. Kalea urrun zegoen: hiru solairu eta, bakoitzean, hamasei eskaileramaila; agure zaharren erronka berdina. Goiz batean, ordea, besoetan jaistea proposatu zion Txumak. Hilabeteak zeramatzan marfilezko dorrean atxilo; zergatik ez?

Asteburuko txangoen modura prestatu arren, ez zuten arazo logistikorik nagusiena aurreikusi: zer egin umearekin helduak eskaileretan ibili bitartean. Pazientzia handiz esplikatu zion Txumak bakarrik egon beharko zuela, pixka bat besterik ez, aitatxu jarraian igoko zela bila. Atea ixtearekin batera, umea negarrez, Xantioko behien moduan marruka txahala kentzen zietenean.

Txumak entzungor jaso zuen Olatz besoetan. Kontaktua. Burutik burura zentimetro batzuk. Ezohiko intimitatea, garai batean bezala.

Eskaileretan behera hasi ziren poliki, Haritzen oihuek gora egin ahala.

– Utz nazazu hemen, eta ekarri –Olatzek, aurreneko eskailburuan.

– Ekarri? Hona? Eta erortzen bada? Bakarrik egoten ikasi behar du.

– Ume txikia da, oraindik ez daki.

– Badaki zer den ama galtzea.

Baietz erantzuna etxetik prestatuta ekarri. Halere, ziztada batean pozoia hustu eta otzandu egin zen Txuma. Semearen erresistentzia ere urtzen joan ondoren, Olatzek, azkenean, argia ikusi zuen. Amatxoren ohea bihurtu zen jolasgune: kamioilariak ziren, rally-pilotuak, astronautak, zaldunak... Beti asmatzen zuen aitzakiaren bat ama eserita egotea justifikatzeko.

Ibilaldiak luzatu zituzten etxetik kanpo ahalik eta denbora gehien gozatzeko, Espainiako paramilitarren mehatxua ahaztea izango balute bezala.

Kafetegi txiki bat zegoen etxe aldamenean, goizero croissant egin berrien aromaz. Azken atsedena han hartzeko legea egin zuten eta, sarritan, Olatzek, munduko kaferik onena dastatuz, oporretan zeudela fantasiatzen zuen, Hegoaldeko familia arrunt bat. Halere, zela makulu egoskorra, zela errefuxiaturen batek fran-

tses kaskarrean zerbait eskatzen zuela, esnatzeak beti mina.

Bat-batean amaitu zen hilabetea; Modelo zinematik irtetean atxilotu zutenean mendi errusiar batera igo zuten, batzuetan azkarregi eta besteetan mantsoegi, inoiz ez bere gustura. Sodupera itzuli bezperan, semeak lo hartu arte itxaron zuen Txumak. Olatzen logelako atea zabalik zegoen. Jo, eta baimena jaso arte ez zen sartu. Lurrera begira, ez zekien eskuak non jarri:

– Esan nahi nizun... saiatuko naizela hemen lan bat lortzen...

Hunkigarria zen bere buruari ere gezurra esan nahi izatea: komertziala zen, ez zekien frantsesez eta euskara hala moduz. Zer salduko zuen horrela?

Goizean, Olatzek umea jantzi eta esplikatu zion etxera itzuliko zela, tarte batez ez zutela elkar ikusiko. Haritzek ondo hartu zuen. Azken muxua ematean, ordea, amatxo zotinka besarkatu eta ez zuen askatzen. Txumak tiraka eta umeak ezetz, arrastaka eraman behar izan zuen “ama, ama” oihuka eta hirurak negarrez.

Eskaileretan behera desagertu ziren. Oso argi ikusi zuen Olatzek patuak erreserbatu ziona: leherketa ba-

tean hiltzen ikusiko zituen. Leihoa ireki zuen korrika; ezkaratzetik ateratzen ari ziren, umea builaka, Txumak bi maleta aldean eta semea besoetan. Olatz mutu, ezin hitzik egin. Bihotza belarrietan taupaka itxaron zuen: kotxera sartu ziren, ateak itxi, motorra piztu, abiatu.

Bonbarik ez. Kale bukaerak irentsi zituen. Eztandarik gabe ere, jasanezina zen min hura.

12

Ohea ez zen errukitu. Hiru egun eman zituen barruan, apenas lo egin gabe eta begi lehorrez negar batean. Ateko txirrinak behartu zuen manten azpitik irtetera. Tak-tak, tak-tak armiarma zaharra sarearen ertzeraino.

Makuluez armatuta ireki zuen. Etxeko jabea zen, Madame Marguerite, errentaren eskean. Hasierako hilabeteetan amak ordaindu omen zion, martxoan Txumak. Eta aldez aurretik pagatu beharra zegoen, bestela kalera. Ez zion inori fidatzen, are gutxiago espainolei.

Eskatuz gero, berriro lagunduko zion amak, baina gehiegi zen. Beste karga bat? Nahikoa zuen Ixabelekin.

Lorik gabeko gau batean bururatu zitzaion soldatarena. Entzunda zeukan behin edo behin barruan liberatu moduan zebiltzanei nolabaiteko soldata ordaintzen ziela Erakundeak. Iruk edo Agurrek ez zuten, ordea, inoiz aipatu. Egia izango ote zen? Zurrumurru ustel bat? Halere, zenbat eta buelta gehiago eman, or-

duan eta haserreago. Alfontso nazkante hori gai zen dirua gordetzeko! Epelak botako zizkion!

Hitzordua lortu zuenerako, zeharo damututa zegoen, baina ezin atzera egin. Alfontso beste etxe batean bizi zen. Haren emazteak zabaldu eta, behintzat, ez zen faltsukerietan ibili: isilik seinalatu zion leiho gabeko gela bat eta kalera irten zen. Olatzek aurrera egin zuen pasilloan, gelako atea emeki bultzatu. Barruan, Ho Chi Minh zirudien Alfontsok: mahaia paperez beteta, lanpara zahar bat eta belztura. Lanean jarraitu zuen, bakarrik balego bezala. Minutu batez. Bi minutuz. Olatzek eztarria garbitu zuen:

– Esan didate nire... dirua daukazula.

Harrituta bezala jaso zuen burua besteak:

– Dirua? Erakundeak behar du dirua. Gerra betean gaude; mundiala ospatu bitartean, musturrean eman behar diogu Espainiari, denen aurrean. Hobe duzu barrura bueltatu eta lagundu.

– Ez nago horretarako.

Alfontsok paperen artean bilatu zuen, orri bat erreskatatu arte.

– Beitu, lan polit bat daukat zuretzat: Xabier Mendoza Gantxegi ezagutzen duzu? Zinegotzia da zure

Zarautz maitean; diputaziora eraman gura ei dute bere anaia Josugaz.

– Josu? Jesus izango da.

– Orain baskoa da, Josu Mendoza. Horiek arin igotzen dira.

– Ez dakit –eztarria taupaka.

– Ez zara Xabiertxo exekutatzera ausartzen?

– Zinegotzia dela esan duzu, ezta? –bihotza arin-arin. Nola abisatu?–. Ez dugu inoiz politikaririk hil...

– Ezetz? Carrero Blanco ez zen politikaria?

– Baina EAJkoak...

Galdera bihurtu zen Alfontsoren begirada: norekin zaude?

– B plana, orduan: bahiketa bat –irribarre ironikoaz–. Hori ere ez? –mihia klaskatu zuen. Mespretxuz kartera atera eta hainbat billete bota zizkion mahai gainera, banan-banan, tinko begira–: Diru hau ez dagokizu; halere, eman egingo dizut... badakizu zergatik.

Ahalik eta azkarren bildu zituen Olatzek, amorruzko malkoei eutsiz.

Zapore mingotsez egin zuen alde, nahigabeak jota. Kabroi halakoa! Gainera, hilabetez eusteko lain eman zion, juxtu-juxtu. Ondoren, beste etxe batera al-

datu beharko zuen, hamaika errefuxiaturekin sardinalatan estutu. Eta, amaren lepotik ez jarraitzeko, lana aurkitu. Paperak lortzea utopia hutsa, aukera zirragarriak zituen: deklaratu gabeko neskametzak, frantsesen komunak garbitzea... Betiere hanka sendatzen bazitzaion.

Hiru egun geroago, enkarguekin zetorrela, Alfontso topatu zuen etxeko sukaldean.

– Helburu errazegia zara paramilitarrentzat.

Sartu izanak baino, Olatz gehiago larritu zuen gela berean egoteak. Ez zuen ukitzea nahi eta aurpegian igartzen zitzaion horretara ere agertua zela.

– Proposamen bat daukat –Olatzek–. Ekintza baterako.

– A, bai? –desilusioa.

– Bahiketa bat. Eta gero bakean utziko nauzue.

Taldea osatu zutenerako, bazeukan hanka muga zeharkatzeko moduan. Inozoa: hango komeriak! Azkenean, mugalariak hartu behar izan zion petatea.

Tentuz prestatu zuten ekintza. Zulo baten beharrik ez: kontaktu bat zela medio, borda abandonatu bat aurkitu zuten Lazkao aldean.

Olatzek ondo gogoan zituen Ybarra familiaburua bahitzeak zaildu zuela eskatutako erreskate-dirua biltzea; Miguel Garmendia patriarkaren partez, haren biloba hartu zuten, Ainara. Unibertsitatetik zetorrela, Ordiziako tren geltoki ondoan itxaron eta, pistola erakutsiz, kotxean sartzera gonbidatu zuten.

Senideei, milioiak eskatzeaz gain, erabateko isiltasuna exigitu zieten, neska bizirik ikusiko bazuten. Bordan giltzapetu ziren harekin, denak gela berean: zazpi egunez inkomunikazio zorrotzean, 168 orduz hiru taldekideak baserritik ezertarako atera gabe, lata hotzak jaten, tentsio mutuan, manta nahikorik ez zeukatela. Txandaka zaintzen zuten leihoen zirrikituetatik; basoak mehatxu egiten zien.

Komuna zulatu zuten bazter batean, kartoizko kutxa batzuekin horma altxatu. Laster zabaldu zen kiratsa, baina deserosoagoa zen aurpegia etengabe estalita eraman behar izatea, Ainarak ez zezan inor ezagutu geroago. Azkura, izerdia, ilea koipetsu izatearen nazka.

Asperraldietan, amets bat fintzen joan zen Olatz: Iparraldeko bere aurreneko aldian, Yoyes ezagutu zuen. Nahiz eta Erakundean goi-goian egon, Mexikora alde egin omen zuen. Olatz, berriz, kide xume-xumea zen; ez zioten oztoporik jarriko. Txumak lehengusinak zituen Venezuelan, Isla Margaritan. Giroa baretu arte, han biziko ziren, hirurak... Itxaropen gozoa zen, baserri ilun hartan izpitxo bat. Azken ekintza zen; nahikoa, kitto.

Laugarren goizean, negar isilean hasi zen Ainara. Olatz haserre hurbildu zitzaion: ez zuten gaizki jokatu harekin, mehatxurik ez, haien janari berdina jaten zuen...

– Zer duzu?

– Gaur nire urteak dira. Hemeretzi.

Familiak metodikoki bete zituen aginduak. Ainara askatu ondoren, ez polizia, ez medioak ez ziren jabetu. Olatzek taldekideak etxebizitza seguru batean utzi, eta kontaktuari dirua entregatzera joan zen, Erakundeari helaraz ziezaion. Ordiziako San Bartolome auzoan jarri zioten zita; Ainara eta Yoyesen herria. Seinale ona.

Kaletik urrun zegoen elkargunea; etxeak sakabanatuta, baratzeak, zelaiak. Neska bat azaldu zen, Ainararen adinkidea eta agian ezaguna. Perlazko belarritakoek ez zuten bat egiten janzkera narrasarekin. Olatzek eramandako kirol-poltsa hartu eta karpeta bat eman zion ordainetan, Alfontsoren partez.

Zapla. Agurtu eta segituan ireki zuen, dar-dar batean: informazioa, ekintza gehiagorako xehetasunak.

Autobusez bueltatu behar zuen. Itsu abiatu zen geltokirantz, itolarriz, intxaur-kraskagailu batean harrapatuta. Bihotzak salto: bide bazterrean, bi txapeloker ari ziren erretzen patruila-kotxearen ondoan. Atsedenalditxoa. Gazteena uniformea baino berdeagoa zen, itxura guztien arabera Vascongada errebeldeetara bidali berria; bestea hogeita hamar urteren bueltan ibiliko zen, harroputz nazkagarri bat.

Dotore jantzita zihoan Olatz, susmorik ez sortzeko moduan. Paperontzi batean utzi zuen karpeta. Taupadak ziztu bizian, herriko bidetik irten zen. Lurra, lokatza: takoi baxuak lur samurrean sartuz eta kostata ateraz jo zuen haiengana. Emakume erakargarri bat besterik ez zuten ikusten. Ergel horiek gai ziren tiroka hasteko.

Aurrean geratu eta besoak jaso zituen dardaran. Segundo bat. Bi. Hiru. Lau. Bost.

Guardiak harrituta, erabaki ezinik arazo bat ote zeukan edo barre egin nahi ote zien. Azkenean, nagusienak zigarroa cowboy-zupada batez bukatu eta bi behatzekin bota zuen airera:

– ¿Necesitas ayuda, guapa?

– Soy de ETA militar.

13

Belarrondoko bat; antzeman ere ez. Odolez beteta zeukan ahoa, begi bat zabaldu ezinik. Beste belarrondoko bat. Galderarik gabe; kolpeak eta kolpeak. Alferrik erreguak eta aitorpenak, alferrik logika: bitxiegia zen atxilotu zuten modua, susmagarriegia. Tratamendu luzearen ondoren, Rocio Juradok baino altuago kantatuko zuen.

Urrezko erlojuari erreparatu zion nagusiak: hobe alde egitea meza nagusia galduko ez bazuen. Guardietako batek atsekabez galdetu zion ea nora eramango zuten neska, hamargarren eguna baitzen. Nagusiak sorbaldak jaso zituen, dezepzio aurpegiz: *despatxatu*.

Olatz ez zen mugitu. Beste broma bat ote? Birritan jarri zioten pistola lokian, birritan katua sakatu. Klik. Ezin eldarnioa eta amesgaiztoa bereizi; denboran katigatuta zegoen. Txuma al zen ondoko ziegan garrasika aditu zuena? Egiatan emango al zuten Haritz adopzioan?

Furgoneta batera sartu, garraiatu, adreilu laranjazko eraikintzar batean utzi, emakume uniformedun batzuek aztertu eta ez ziren harritu edo bai edo auskalo, lausotan bizi baitzuen dena, gaizki enfokatutako pelikuletan bezala eta poliki-poliki joan zen errealitatea zehaztuz, pareta grisak, sabai zuria, gela, ziztadak, koltxoi nazkagarriaren gainean bere burua ezagutu zuen arte.

Okada-kiratsa, lizuna. Minak min, egote hutsa gozatu zuen. Negarrez hasi zen, zoriontsu. Bere onera itzuliko zitzaion munstro-aurpegia, eta ubeldurak horitu, azazkalak hazi, ilea berritu, ahoa garbitu. Ez zitzaizkion gehiago bila etorriko. Bukatu zen dena.

Ordiziako guardia zibilengana hurbiltzean, takoiak zeramatzan, bakeroak, jaka eta blusa zuri-zuria, balizko negozio-emakume baten modura. Ziegan, hankahutsik giltzapetu zuten, arropa beltz. Lau bat egun eman zituen koltxoian botata, sorgor eta mugimendu bakoitza masaileko baten moduan sumatzen zuela. Tarteka, plater bat bete zopa uzten zioten lurrean. Hoztu arte itxarotera behartzen zuten ezpain lehertuek.

Bosgarren goizean, bi funtzionarioren artean altxatu, dutxa bateraino arrastaka eraman eta txorrotaren azpian eutsi zioten. Tortura berritu zion urak: zauriak kolpatu, azala egosi. Burua makurtu zuen babes bila. Lurreko zulora zihoan ur lohia, kiribilean, eta harekin batera ile-matazak, odol-zati ilunak, blusa-botoi bat.

Dutxa batzuk hartu ondoren lortu zuen bere kabuz tentetzea. Biluzteko gai ere izan zenean, zarpailak garbitzen hasi zen, eskuz. Izerdi-kiratsa zerion hango toalla grisaxkari, hezetasuna. Gako batean zegoen zintzilik, dutxako guztiek erabiltzeko. Noizbait bururatu zitzaion toalla ere garbitzea.

Dutxa egunetan, biluzik itxaroten zuen ziegan, zarpailak noiz lehortuko. Arratsaldeetan, leihoko eguzkiak karratu bat argitzen zion eta mantan bil-bil eginda esertzen zen paretaren kontra, beroa aurpegian. Sugandilen modura geldi-geldirik, piztia besterik ez zen.

Memoria hutsik zeukan. Ezin zuen gogoratu, ez zuen nahi. Asteetan isolatuta, patiora irtetea baimendu ziotenean, bertigoa sentitu zuen: hain zen sakona! Sozialek begirunez utzi zuten bakean, baina tregoak ez zuen hamar minutuz iraun. Eulien antzera inguratu

zuten, informazioa emateko irrikaz, eta barre-algaraka ospatu zuten ez zekiela Basauriko kartzelan zeudela.

Gehienak prostitutak ziren, *pikulinak,* batzuk hango polizien maitale. Olatzen eskale-itxura ikusita, *collage* koloretsu bat osatu zioten bataren eta bestearen maileguez, haien artean kamuflatu nahian edo. Gorputza artean puztuta eta txandal koloretsu haiek txikiegi, ederra piura!

Hamar abortisten berri eman zioten debozioz, pare bat hilabete lehenago libre atera zirela sistema makurrarazi ondoren. Izeba Esti. Bero urrun batek hartu zion barrena. Memoria frenatzen ari zen tapoia urtu eta oroitzapen-uholdeak kolpatu zuen. Negarrez hasi zen, arnasestuka.

Mantso-mantso patioan gora eta behera ari zen eguerdi batean, guardia zibil bikote bat agertu zen: *trasladoa*. Baina, nola? Gurasoak ikusi gabe?

Gogoz estutu zizkioten eskuburdinak. Furgoira sartu zutenerako, eskumutur minduetatik ez zen odolik pasatzen.

Hiru gizon ziren: gidariaz gain, atzeko bi zaindari, Olatzen albo banatan. Hernandez eta Fernandez: Her-

nandezek bidaia infernua izango zela agindu eta Fernandezek bete: kolpeak, iletik tiratzea, oihuak, *Cara al Sol* kantarazi, ikurrin bat ahoan sartu.

Lautada antzu bat zeharkatzen ari zirela, Hernandezek furgoia geratzeko buila egin eta gidariak bide bazterrean aparkatu zuen.

– Zerbait esan nahi digu –Hernandezek.

– Zuk uste? –Fernandezek, irribarretsu. Atea ireki, jaitsi eta eskuburdinetatik tiratu zion kanporatzeko–. Ireki ahoa –pistola atera eta barruraino iltzatu zion.

Handia. Gogorra. Hotza. Mina egiten zion ahosabaian.

– Errepikatu nirekin: Ramon Perez Ocaña –Olatzek obeditu arte itxaron zuen–. Barkatu.

– Bahbahtu –zaila kanoiarekin ahoskatzea.

– Berriro. Eta argiago, ez dizut ezer ulertu.

Ez zuen tiro egiteko asmorik; ahobero hutsa zen, beste bat.

– Barbahtu.

– Ez zait gustatu –Fernandezek.

– Hau atzeratua da –Hernandezek–. Begira, guapa: orain korrika hasiko zara. Azkarra bazara, ihes egingo duzu. Bestela...

Fernandezek kolpeka bueltarazi zuen. Pistolaren asegurua kendu. Lurrezko aldaparantz bultzatu.

– Kontuz istripuekin –Hernandezek kideari eta hark algaraka erantzun zion.

Harkaitz zurixkak, muino borobilduak, zuhaixka biluziak. Baserririk ez, baratzerik ez. Lursail luzeak, goldatuak. Bele bat pasatu zen hegan.

Listua irentsi zuen Olatzek. Odol-zaporea ahoan, neka-neka eginda zegoen. Han lurperatuko al zuten? Ezin zuen gehiago. Bukatu behingoz.

Poliki-poliki biratu zen, Fernandezi lasai begiratu. Ezin zioten gehiago kendu.

– Jodeeer! –gidariak. Motorra piztu zuen–. Zuek baino gehiago da! Benga, sartu eta goazen, berandu gabiltza eta.

Iluntzean, eraikin multzo batean geratu ziren, komentu itxurakoa. Adineko moja batek hartu zituen, zorrotz. Neska ikustean, errieta egin zien guardiei, eskumuturra odoletan zeukalako.

Luxuzko ohe batera eraman zuen. Garbi usaineko maindireak. Goizean, kafesne beroa eta azukre askorekin, Ixabelek 1941. urtea gogoan prestatzen zituenen modukoa.

Beste furgoi bat, beste guardia batzuk. Bi besterik ez, biak aurrean. Isilik zihoazen; noizbehinka, kopilotuak atzerantz biratzen zuen burua Olatz kontrolatzeko. Hamaikak aldera, periodikoetan bildutako paketea erakutsi zion.

– Txorizo-bokadiloa jarri dit emazteak. Erdia nahi?

Egiatan ari al zen? Ez al zen broma izango? Edo kolpeka hasteko aitzakia?

Buruaz ezetz. Txorizo-usain koipetsua zabaldu zen. Guardiak patxadaz jan zuen, aurrera begira.

Madril. Hiritarrak pasieran, edo presaka, edo txakurrarekin, edo umeekin. Bizitzen. Furgoitik kanpo, hain gertu eta hain urrun.

Adreiluzko horma altu baten aurrean geratu ziren; kartelak “Yeserías” zioen. Alfontsorekin bizi izan zen etxeetako batean bazegoen Eva Forest-en *Testimonios de lucha y resistencia* liburua, Yeseriasen idatzia. Orduan ez zuen irakurri nahi izan.

Bi orduz furgoian zain. Enlatatua. Kanporatu eta ate batetik sartu zuten; pasatu ondoren, atea itxi zuten klin-klan. Beste bat ireki eta itxi, klin-klan, klin-klan, matriuska klaustrofobiko batean barrurago eta

barrurago, horma tarteratzen ari ziren, klin-klan, klin-klan, klin-klan.

Ihes egiterik ez. Hamar urtez. Hogei. Berrogei. Ez zen inoiz itzuliko eta, askatuz gero, askatutakoa beste Olatz bat izango zen.

Emakumezkoak ziren funtzionario guztiak. Haietako handi batengana eraman eta biluzteko agindu zion zakar. Atxiloketako arropa zeraman Olatzek soinean, trasladoaren berri jasotzean itzuli baitzien pikulinei utzitakoa. Lurrean pilatu zituen zapatak, jaka, galtzak, blusa, galtzerdiak. Funtzionarioak jarraitzeko keinua egin zion: bularretakoa, kuleroa. Alua eta ipurtzuloa miatu zizkioten. Atzapar gogorrak, izoztuak. Hankarekin bultzaka gerturatu zizkion zarpailak.

Patio txiki bat. Goiko solairura gidatu zuten. Ate metalikoen ilara bat; bigarrena ireki zioten. Argazkiak paretetan, litera bat eta behekoan eserita, emakume bat, *Eusko gudariak* txistuka. Aurpegian gaitzespena, goitik behera aztertu zuen etorri berria. Amorruz.

Agur. Oso argalduta.

– Tiratuta utzi ninduzun –euskaraz, baina mehatxua lausotu gabe.

Barkamena eskatzeko indarrik ez. Arrazoi.

14

Pikulinen modulua zegoen, *toxiena* eta politikoena. Auzo obreroen modura, bi eraikinen artean zegoen patio estu eta luzea, sukalde txikia jangelan, egongela eta ziegak, beste patio txikiago bat. Leiho guztiek barrura begiratzen zuten; adreiluzkoa zen mundua. Horma, sabaia, kutxa; patioan zerurantz begiratzea zen bista luzatzeko aukera bakarra.

Ezin loak hartu aurreneko gauean; halere, goizeko zortzietan, susto ederra eman zion txirrinak. Beheko preso guztiak bigarren solairura igo ziren, makarra begietan. Eskailburu zabalean banatu zituzten bi taldetan: GRAPOko komunista espainiarrak eta Euskal Herriko independentistak, miliak, polimiliak eta autonomoak. Mekanikoki zenbatu eta ziegetara itzuli zituzten, janztera.

Agurri jarraiki jaitsi zen Olatz jangelara. Besoa bizkar gainean jarrita aurkeztu zizkion beste miliak banan-banan. Haren klabean adituta, doinu desafinatua hartu zuten animo, muxu eta besarkadek.

Bukatu berria zuten gose-greba latza. Neguko hotzak hotz, merezi izan omen zuen: Yeseriasko emakumeek kartzeletako fronte aktiboa osatzen zuten, borroka barruan ere luzatuz.

Talde bakoitzak zeukan bere eremua, bere mahaiak. Gutxi hitz egiten zen besteekin, are gutxiago polimilien buruzagiek amore eman, eta gobernuarekin negoziatzen hasi zirenetik.

Goiz osoa jangelan pasatu ondoren, bazkalondoren ziegetara buelta eta, Agurren tregoari esker, siestatxo bat. Gero, patioa, afaria, ziegetara, *errekuentoa*, ziegetara.

Iluntasunean, norbera geratzen zen bere buruan atxilo. Torturaren harresia poliki-poliki urtzen, tantaz tanta itzuli zitzaizkion oroitzapenak, zauriak. Ixabel etorri zitzaion gogora, sukaldean amari herriko kontuez galdezka, interesa gaizki disimulatuz. Bizirik jarraituko ote zuen?

Ezin etxean egon eta, lagundu beharrean, Xantioko arazoak areagotzen ari zen.

Kemenik ez bestean pentsatzeko. Bestearengan. Hamsterraren gurpilean harrapatuta zegoen, kanpoan munduak aurrera egin bitartean.

Nahiz eta giroa erdaldun peto-petoa izan, euskara-ikastaroak antolatuta zeuzkaten. Olatzek bere burua laguntzeko eskaini zuenean, Agurrek mespretxuz begiratu zion:

– Zure euskara ez da batua. Zu, sukaldera.

Eta obeditu egin behar; alferrik zorioneko D titulua, alferrik esperientzia. Ez zegoen han irakasteko, baizik eta ikasteko, adibidez, ziegak *txaboloak* zirela. Ikasi zuen sukaldean jardun zezaketela, baina jakiak ekonomatoan erosten zirela, modulutik kanpo eta funtzionario baten bidez. Ikasi zuen nork ekartzen zizkien gutunak, nork bisitak iragartzen, nork jotzen zituen, nor zen onbera. Ikasi zuen debekatuta zutela preso sozialekin nahastea, hau da, eskulaneko tailerrik ez, eskolarik ez. Ikasi zuen modulua erortzeko zorian zegoela, udan labea zela eta neguan hozkailua, goiko txaboloetan kakalardoak zeudela eta behekoetan kakalardoez gain, arratoiak. Ikasi zuen zorua trapu zaharrez igurzten zutela belauniko eta arropa, eskuz garbitu ondoren, patiora begira zabaltzen zutela, leihoko barroteetatik zintzilik. Dekorazio hura lehen aldiz ikusi zuenean, Sodupeko kulero-festarekin gogoratu zen, muturluzeekin. Marisol, Koro. Irribarre egin zuen; tematia da bizirauteko sena.

– Maria Herrero Palacio! –funtzionario batek, patiotik. “Mariaerrero Palacio” ahoskatu zuen.

Larunbata zen; bisitak zirela-eta, jaisterik ez. Jangelan zegoen, partxis-partida bat ikusten.

– Herrero Palacio!

– Zuretzat da, Maria Olach –Agurrek.

Olatz geldi, ordea: zirkinik ez benetako izen legala errespetatu arte. Haien legalitatea zen, gainera!

Bisita izango ote zuen?

Eta ez erantzuteagatik aukera galtzen bazuen?

Nor izango ote?

Oraingoan bakarrik, badaezpada.

Bisita-gelaraino jarraitu zion funtzionarioari. Kristal luze batek banatzen zituen alde bateko zein besteko aulkiak. Senideen aldean, urduri, txiki eta lekuz kanpo, gurasoak.

Leku huts bakarrean eseri zen Olatz, haien aurrean malkoei eutsi ezinik eta bion lutuari erreparatu gabe. Ama ere ez zen gai hitz egiteko.

– Ondo hago? –aitak, txikitako doinuaz–. Zerbait behar al dun?

Funtzionarioak, espainolez egiteko.

– Neguko arropa, aita. Eta argazkiak, batik bat... –izena eztarrian katigatu zitzaion.

Funtzionarioak, bisita bukatu zela vascuencez jarduteagatik. Ramirok protesta egin zuenean, bultzaka kanporatu zituzten, atzera begiratzea eragotziz.

Lur jota itzuli zuten Olatz txabolora: kakatzarra! Mila aldiz adituak zituen debekuaren inguruko istorioak eta, halere, hanka sartu. Gurasoak kezkatu egingo ziren, eta ezin lasaitu, ezin ezer esan, auskalo noiz lagako zieten itzultzen... Horretarako 800 km egitea ere!

Negar batean sartu zen ziegara, makurtu, uzkurtu. Txikia zen, txikiegia. Agur agertu zen. Belaunikatu eta besarkatu egin zuen, lasaitu arte kulunkatu. Ez zen kontsolatzen saiatu.

Polimiliak erdibanatu egin ziren, Espainiako Gobernuarekin negoziatzearen alde ala kontra, VII. ala VIII. asanblea. Agurrek Yeseriasko VIII. asanbleako ahizpak bildu eta baikor hitz egin zien: Futbol Txapelketari esker, unibertso osoa izango zen atentatu-katearen ikusle, burua makurraraziko zien behingoz gobernuko

putakumeei, herria bero-bero zegoen, mobilizazio eta istilu latzak ari ziren gertatzen...

Ahal zuen guztietan errepikatu zuen mantra: patioko asanbleetan, otorduetan, jangelan, telebistan politikariren bat agertzen zen aldiro. Dena seinale, dena keinu. Gertu. Laster kalera. Edozein tentazio erreprimitu behar zen. Zailtasunetara zeramaten errazkeriek.

Lauk besterik ez zuten bat egin VII. asanbleako zazpikiekin. Isolatuta eta mehatxua airean, ardiak otso-taldearen aurrean bezala mugitzen ziren leku guztietara. Agurrek jipoitu egin nahi zituen, ematen ari zitzaien mina garesti ordainarazi; bi egun lehenago irteteagatik saltzen ari ziren burua faxista putakume horiek.

Olatz eta Agur eskailerak garbitzen ari ziren batean, zazpiki batek txabolotik muturra atera eta, inor ez ikusita, denak ausartu ziren kanpora. Bi miliak belauniko zirri-zarra deskubritzean, segundo batez egin zuten zalantza, beheraka jarraitu aurretik.

Agurrek ez ikusiarena egin zuen, igurtzi eta igurtzi. Azpian zeudenean, baldeko ur grisa bota eta bete-betean harrapatu zuen azken neska, tolosar bat. Besoak ireki zituen gaixoak, ukondo eta behatzetatik ur-jauzi

grisak. Kankailu lasaia zen, hitz gutxikoa. Begiak estutu eta gainerakoen atzetik abiatu zen, idien antzera.

Tregoarik ez. Biharamunean, bazkaltzen hasi ziren denak, talde bakoitza bere erresuman. Agurrek patxadaz itxaron zuen ordu erdiz, funtzionarioa zigarroa erretzera irten zen arte. Sukaldeko zaborrontzi handian listua bota, bizkarrera igo eta atzetik hustu zion tolosarrari gainean: bezperako garbantzuak eta fruta-azalak, mila zigarro-mutxikin, errautsak, kafe birrinduaren hondar hezeak, likido zurixkak...

Handikoteak burua jaitsita eutsi zion. Dutxa fekala bukatuta, ahal izan zuen moduan eskuekin garbitu, eta txabolora erretiratu zen, besteek platerak presaka zeramatzatela.

Agurrek Olatzi keinu bat egin eta bien artean txukundu zuten zerrikeria. Jangelan, isilune glaziarra.

Ekaitz aurreko barealdian joan zen larunbata. Bisitak egon ziren, baina ez zuten Olatzen izena aipatu: zigortu egin ote zuten? Gurasoak Madrileraino joan eta kartzelan bertan ohartaraziko ote zieten alabak baimenik ez zuela?

Agurrek ez zuen familia-bisitarik jasotzen. Gurasoak aspaldi hilda, izeba zahar bat besterik ez zitzaion geratzen Bilbon, EAJko atso bat Ensancheko bere hiru

etxebizitzak Alderdiari herentzian oparitzeko tematuta.

Gorriren argazkiek tapizatzen zuten txaboloko horma: handiak, txikiak, koloretakoak, zuri-beltzezkoak, Gorri bakarrik, lagunekin, hirian eta mendian, baina behin ere ez Agurrekin.

Alcalako espetxean zeukaten orduan; ia lau urte elkarrekin egon gabe. Nahiz eta senar-emazteek vis a vis intimoak egiteko eskubidea izan, uko egin zioten, horrek ezkontzera behartzen zituelako, eliza edo estatuaren autoritatea onartzera.

– Zergatik ez duzu onartzen? Ikusi egingo zenuke, behintzat –galdetu zion Olatzek iluntze bukaezin batean.

– Zeditu zentimetro bat eta hamar berreskuratu beharko dituzu.

Egunak joan, egunak etorri, laxatu egin zen zazpikien lepo inguruko lazoa. Existituko ez balira bezala jokatzen zuten besteek, izan polimili, autonomo edo mili. GRAPOkoek, berriz, bereizketarik ez: hitz urriak denei, keinu hotzak, begirasunak. Stalinen klausuramojak.

Kanpoko lagun batek egiten zizkion Agurri zubilanak Iparraldearekin eta Gorrirekin. Maiatzeko azken larunbatean eman zioten kartaren abisua. Txaboloan ireki eta biraoka hasi zen.

Ezer galdetzeko astirik gabe, bisiten izenak esaten hasi ziren kanpoan eta Olatzek “Maria Herrero Palacio” harrapatu zuen. Zeruko kerubinek ere ez zuten izena gozoago esango! Korrika batean jaitsi zen bisita-gelara, hantxe aita eta ama. Berastegiko mili bat ba omen zegoen bisitak isilik sufritzera kondenatuta, amak ez zekielako espainolez. Joan eta elkarri begira egoten ziren denbora agortu arte.

– ¿Qué tal?

Zarauzko berri onak braust: dena pozgarria, dena polita. Ama berriketan zoriontsu, aitak irribarretsu buruaz lagundu. Ze aktore txarrak.

– Zer moduz Ixabel?

Ziplo isilik. Amak aurpegia estali zuen, aitaren besarkada onartu. Hura ausartu zen:

– Hilabeteak ditun... –buruaz ezetz–. Urte erdiz eutsi zionan hi berriro ikusteko itxaropenaz. Mediku jauna ere harrituta, pentsa!

– Ba al dakizu gure Mikeltxo bertsotan hasi dela? Sekulako afizioa dauka!

Gurasoak bistatik kendu zizkiotenean, agudo agertu zen frenatutako negarra. Berrogei minutu pozez eta auskalo noiz arte ondoezik; halere, merezi zuen. Hari haiek lotzen zuten zentzuarekin, bizitzarekin.

Bueltan txaboloan, Agurren arrastorik ez. Ezin literan etzanda geratu; kandela bat bilatu zuen Ixabeli omenaldia egiteko. Etxean bildumen zeuzkaten, meheak eta luzeak, ohol berezi batzuen inguruan bilduta, argizaiolak. Bildumen, argizaiola, mantelina... magiaz kargatuta gogoratzen zituen hitz horiek Ixabelen ezpainetan. Haren haurtzaroko parrokian, emakume guztiak bazter batean esertzen omen ziren familiaren sepultura gainean eta neska koskorrek bildumenen argizari beroaz luzatzen zituzten azazkalak.

Mundualdi gogorra izan zuen Ixabelek, eta Olatzek ez zion batere eztitu. Gurasoei ere, kale. Zer ez zuten jasango berari dirua kartzelako kontuan sartzeko, ekonomatoan bizio txikiak eros zitzan.

Agur atzera txabolora sartu zen.

– Gutunez esan didate polimilien komando oso bat harrapatu dutela Madrilen, VIII. asanbleakoak. Dena instalatzen ari ziren Espainiako Mundiala behar bezala ospatzeko. Salatu egin dituzte, seguru nago!

– Polimiliak besterik ez dira –Olatzek, mespretxua antzeztuz.

– Zu ere bazinen eta zure Alfontso eta Apala. Inor ez da honetan sartu sigla batzuk defenditzera: Euskal Herria askatu nahi dugu; poltsa berean gaude polimiliak, gu eta autonomoak... eta, nahi baduzu, grapoak ere bai. Denak hasten badira amore ematen eta besoak jaisten, zertarako borrokatu gara orain arte?

Literara igo zen Olatz, sabaiari begira etzan.

Porlanezko zerraldo batean atxilo zegoen. Bizirik.

15

Amaren arabera, sekulako jaia egin zen Zarautzen Realak bigarren liga irabazi zuenean, azken partiduan zein eta Athletic menderatuz. Hango poza! Mundua Espainiara begira jarriko zen ekainaren 13tik uztailaren 11ra arte. Ez zuen aipatu ekainaren 13an bertan bost urte beteko zituela Haritzek.

Bizitza erreala gero eta gehiago zen pelikula bat: futbol-kopa arrakastaz bukatu zen eta, ospatzeko, VIII. asanbleako polimiliek ia hogeita hamar bonba jarri zituzten uztail erdialdean, koordinatuta.

Kartzelan, berriz, egunero zen egun bera. Abokatuen bisitek ekarri zieten saltsa pixka bat, abuztuko Amabirjinetan. Milien artean, Agurrek jaso zuen lehena. Beste gose-greba bat antolatu beharra zegoen, politikoa; eguna ere finkatu zuten: irailaren 27a, Txiki eta Otaegi gogoan.

Presoek patioko batzarretan eztabaidatu zuten nork hartuko zuen parte.

– Gure txaboloak bai –Agurrek. Begiekin bilatu zuen boluntario gehiago, eta berehala topatu: lau, bost, zazpi, hamar.

– Nik ezin dut –Iruñeko Miren Egañak. Bigarren urtea ari zen betetzen zortzitik–. Haurdun nago.

Txaloak, besarkadak, zorionak. Martuteneko kartzelan zeukaten senarra; ederki baliatu zituzten vis a visak! Azken asteetan, petoak eta jantzi zabalak hasia zen janzten; nola ez ziren konturatu?

Olatz ondoezik, jakina. Ama izatera ausartuko zen kartzelan. Umearekin bizi. Hazi. Abandonatu gabe. Nahiz eta gurasoek isildu herrian bolo-bolo zebilena, bazekien: haurtxo bat izan arren, tiroak jotzera sartu zela, ama txarra zela. Alferrik gogoratzea Txomin eta Txapela aita zirela, Txikia ere izan zela. Ordurako, berak ere sinesten zuen: ama txarra.

Nola bete denbora? Nola ito burua lanean? Mirenen tripak disolbatu zizkion ezkutu guztiak: egiten zuena egiten zuela, burmuineko hemisferio oso bat zebilen semearekin pasatutako garaian arrantzan. Haritzen irudiak, Haritzen ahotsa, Haritzen usaina.

Txarrena gaua zen, argiak itzali ondoren: errealitatea saihesteko babesik gabe, loak askatu arte egiten zuen negar. Galdua zuen Haritz.

Lau argazki ekarri zizkion amak. Bat: gurasoak bakarrik. Bi: Mikeltxo San Silvestre iluntzean korrika. Hiru: gurasoak, Ixabel, aitona Teofilo eta Olatz bera, umetan. Lau: Olatz nerabea amona Brigida besarkatzen, aldamenean aitona Manuel eserita zegoela, lehenengo Gabonak elkarrekin Xantiorenean. Literako paretan itsatsi zituen, mantaren alturan, ohean sartuta soilik ikusteko.

Greba hasi zuten. Egunetan ezer ez jan. Asteetan. Energia aurrezteagatik, gehienetan, txaboloan geratzen ziren etzanda; eguzkiak jotzen zuenean besterik ez ziren jaisten. Asperdurak gogorragoa egiten zuen gosea. Agurrek diskurtsoka ematen zuen denbora, txaboloan eta kanpoan. Sarri aipatzen zuen Crespo Galende izeneko grapo bat, *Kepa* ezizenez, euskal herritarra eta hiru hilabeteko gose-greban hila. Eta Bobby Sands. Hiltzean, zubi bat altxatu omen zuen kartzelako hormen gainetik. Malvinetako gerra bukatuta, Sands eta beste bederatzi IRAkide presoen sakri-

fizioek gehiago lortu omen zuten Argentinako diktadurak baino.

Goiz batean, petateekin zamatuta desfilatu zuten zazpikiek. Sarrerarantz. Poz-izpirik ez; tolosarra negarrez. Berandu ulertu zuten besteek: ETApm-k disoluzioa iragarria zuen, VII. asanbleakoek behintzat, eta Euskal Herriko kartzelaren batera zeramatzaten, edo zuzenean etxera. Moduluko ateak sekulako danbatekoa egin zuen egun horretan.

Dar-dar egiteko indarrik ere ez zuen Olatzek; nahiz eta hiru manta gainean pilatu, Ipar Poloan zegoen. Gurasoek bazekiten grebarena; Xantioko sukaldean egongo zen ama, bijilian. Egiten zuena egiten zuela, amari min, Ixabeli eragin zion bezala, aitari, aitonei, amona Brigidari, Mikeltxori... Sodupekoei.

Bere esku zegoen suizidio hura etetea; ez zen hain erraza, ordea. Joan eta esplikatu Agurri amore eman nahi duzula. Olatzekin maitekorra zen eta, ama-papera hartuta, mantak txukuntzen zizkion, ura ekarri, burko hobea lortu... *Kwai ibaiko zubia* pelikularen doinua irribarrez txistukatzen zuen etengabe, bera ere greban ez balego bezala.

Ziegatik kanpo, halere, sarjentua atera eta izenzerrendak errepikatzen zituen letanietan: ekintzetan eroritakoak, espainiar talde paramilitarrek eraildakoak, Poliziak hildakoak. Hauteskunde orokorrak izango ziren urri bukaeran; mezu argia bidali behar zitzaion herriari, botoekin ere garaitzeko. Denok bat. Kaleko mobilizazioek aterako zituzten presoak kalera.

Hamaseigarren egunean, gaueko errekuentoaren ondoren, razzia: zarata eta oihuak, kolpeak hormaren kontra, negarrak. Txaboloz txabolo ari ziren. Badatoz. Burrunba gero eta ozenagoa, ondoan zeuden. Espero arren, ezin beldurra uxatu.

Giltza sarrailan. Ostiko batez ireki zuten; danba! Hiru polizia sartu ziren korrika, tregoarik ez: Olatz iletik tiraka bota zuten literatik lurrerantz; Agurrek oihu egin, eta gizona bultzatzen saiatu zen. Olatzek ahoarekin jo zuen porlana eta kanpora arrastatu zuten, ezpain eta hortzak odoletan. Agur borrekin astindu zuten, makurrarazi, lurrarekin berdindu. Gero, koltxoiak irauli, mugitu, arropa miatu, desordenatu, zapaldu, argazkiak paretatik erauzi, txikitu.

Biafrako emakume bat zen Agur: besoak alanbre, indarge. Zutitzeko esfortzua egin zuen, baina albo batera erori zen. Literen barrei eutsita eskalatu eta Ola-

tzen bila irten zen urrats ahulez. Eskua luzatu zion altxatzen laguntzeko; Olatzek ezin. Ondoko txaboloan ere jipoia: kolpeak, oihuak. Ez zen beste inor pasilloan: guardiek haiek han topatuz gero, beste errepaso bat emango zieten. Laster pasatuko ziren hurrengo txabolora, baina Olatz xixko eginda zegoen.

Aurpegia hartu zion Agurrek, ilea kopeta bustitik laztan batean baztertu. Kwai ibaiarena hasi zuen, xuabe-xuabe, masail bat more-more. Olatzek barre egin eta goiko ezpainak arantza-akorde bat itzuli zion.

Bat, bi, hiru, eup. Poliki-poliki sartu ziren ziegara. Argazki pusketak lurrean; Agurrek ez zuen txintik ere esan. Ile izerditua itsatsita zeukan hegal batean, bestean harrotuta. Konketan freskatu zion aurpegia, ahoa enjuagatzeko ura eman. Kolpea handitzen ari zitzaion. Baietz azkenean aurpegia zeharo deformatzea lortu, kabroi nazkagarri horiek.

Ispiluan, berrogei urteko atso bat; 24 besterik ez zituen. Kartzela, deserria, tiroak, mina. Bizitzaren zigarroari zupada sakonegiak, nonbait.

Bere koltxoia bultzatu zuten litera ondoraino. Ezin bien artean ere jaso. Burdinazko azpiegituran bermatu zen Olatz arnasa berreskuratzeko. Hantxe amak ekarritako lau argazkitxoak, biluzik koltxoi faltan eta

mirariz beren horretan. Mimo handiz kendu, musukatu eta kulero barruan ezkutatu zituen.

Agur bere koltxoitik ari zen tiraka, amorruz. Nondik ateratzen zuen kemena? Lortu zuen igotzea, lortu zuen ohea taxuz egitea. Olatzi seinalatu zion:

– Sartu.

– Zurea da. Non...?

– Lurrean, beste koltxoian. Itzultzen badira... zuk ezingo duzu aguantatu.

Manta batetik tiratu eta lurreko koltxoian etzan zen. Hasperen egin zuen, hilda bezala geratu.

Eztulak ere ez ziren aditzen; razzia pasata zegoen. Olatz Agurren ohiko literara sartu eta torturako atsedenaldietan sumatzen zuen plazer berdina itzuli zitzaion. Eta hutsunea. Dar-dar batean ari zen, hoztuta.

Sentiberegi zegoen Haritzengan pentsatzen kontsolatzeko; Ramon Perez Ocaña etorri zitzaion gogora. Parean izanez gero, hamaika tiro joko zizkion.

Gorrotoak energia gehiegi eskatzen zuen, loak ere bai. Sorgor arin batera irristatu zen azkenean, furgoian zegoen eta Ramon Perez Ocaña zen gidari, bokadiloa eskaini zion eta Zarauzko hondartzan gelditu ziren dunetatik paseatzera, marea behe-behean zegoela, txikitan bezala, aitarekin hondartza muturreraino

ibiltzera joaten zenean, baina han beste gizon bat ikusi zuen semearekin, Ramon Perez Ocaña bera zen eta Haritz zeraman eskutik helduta, biak Kwai ibaiarena txistuka...

Biharamunean, ordubetez eraman zuten Agur zuzendariarengana, mesedez greba utz zezan. Harro itzuli zen politikariak urduritzen ari zirelako. Hauteskundeetan asko omen zegoen jokoan.

– Maria Herrero Palacio!

Astelehena zen; bisita? Kristalaren alde zabalean abokatua aurkitu zuen, zain. Lau sumario omen zeuzkan zabalik; saiatu ere ez zen egin krimen guztien aurretik “ustez” gehitzeko: atxiloketan guardiak tirokatu zituen, Txerrimuturren hilketan kolaboratu, kupulatik gertu jardun, dinamita-lapurretak... Eta hildakoak: Ramon Perez Ocaña, Vicente Zorita Alonso, Jose Manuel Perez Perez, Eladio Gorriaran Seto, Segundo Ferro Yañez.

Ainara Garmendiaren bahiketaz, arrastorik ez. Sumarioko epaiketa bana egingo zioten eta, arruntena ez izan arren, bat izan ezik, denak jarraian egingo zizkioten.

Ziegan bueltan, Agurri kontatu eta hark hartu zuen erabakia: greba utziko zuen Olatzek, epaiketarako joan-etorriek akabatuko ez bazuten.

Pozik bai pozik obeditu zion. Mediku baten kontrolpean, pureak jaten hasi zen. Polimili batzuek prestatzen zizkioten, eta sukaldean hartzen zituen, Agur ez molestatzeko. Halere, itzultzean, janari-kiratsak jarraitu egiten zion. Txabolora sartzen zen aldiro, besteak begiak ixten zituen isilik.

Txandal zaharrak ziren Amak Xantiotik ekarritako jantziak; bestela ere ez zeukan kabitzen zitzaion gaztetako ezer. Zer jantzi epaiketan? Agurrek kolekta bat agindu zuen. Olatz, kaleko baten moduan mozorrotuta, beste pertsona bat zen.

Goizeko errekuentoa egin ondoren etorri ziren bere bila. Furgoian zeharkatu zuten Madril, sigi-saga zakarretan, hainbat patruila-kotxeren sirenak zarataka, Juan Carlos Borboikoaren segizioan bezala. Eskuburdinak behinik behin eroso, gela batean itxi zuten luze, areto barrura bota aurretik. Bota-edo: kristalezko kaiola batera sartu zuten, txikia, aulki bat erdian, guardia bat tente.

Publikoan, jendea barra-barra zirkua noiz hasiko. Lehenengo lerroan, gurasoak, Mikeltxo gizonduta eta

aitona Teofilo, traje zaharraz duin eta Olatzek begiratzen zuenean adi irribarre egiteko. Egunero 800 kilometroko erromesaldia.

Epaile jauna togaz iritsi zen, serio, garrantzitsu, bele zahar. Don Fermin Beloqui Montalban zuen grazia, 1952tik epaile eta frankismoko zenbait epaiketa sonaturen buru. Defentsako abokatua urduri, fiskala irrikaz. Lehenengo egunean, ez zioten galderarik egin, nahiz eta desiratzen zegoen Ramon Perez Ocaña nola hil zuen kontatzeko.

Akusazioak bezain faltsua zen antzezlan guztia; inolako lotsarik gabe eman zuten frogatutzat Olatz egon zela inoiz egon ez zen mila lekutan, egin zituela bereak ez ziren beste mila krimen. Noizbehinka, beste ETAko batzuk ere ekarri zituzten kaiolara, baina hitz egiterik ez.

Behinik behin, periodikoetan kanpaina elektorala arintzeko balio izan zuen: milien kupulan giltzarrietako bat omen; Ramon Perez Ocaña guardia zibil heroikoa lurrean torturatu eta errematatu omen; gupidarik gabe beste bost biktima errudun odol hotzez eta odolgosez erail omen; kotxe-bonba batek gutxigatik huts egin omen; semetxoaren bisitarik ez omen nahi; frigida omen; ninfomana omen... Eta epaileak, amen:

lehen aldiz ezarri zitzaion emakume bati gizaseme baten besteko zigorra, 413 urte.

Olatzek zigorrik luzeena hartu eta balizko deskontuak aplikatu zituen: gehienez 20 urtez espetxeratuko zuten. 44rekin irtengo zen, 2002an. Haritzek 25 urte izango zituen. XXI. mendea, hurrengo milurtekoa; beste galaxia bat ematen zuen.

Epaiketa guztiak amaitu eta bueltan espetxeko egunerokora, eskeleto tankera hartu zion Agurri. Olatzen mundua ere, horrelakoa: geroz eta meheagoa, ahulagoa, kolorgeagoa. Hilkutxa barrutik ari zen aditzen nola botatzen zuten lurra hilobira, hilarria nola finkatzen zuten.

Grebalariak gehienetan ohean, besteek kanposantua baino isilago mantentzen zuten modulua. Olatzek patioan paseatzeko ohitura hartu zuen, gehienetan polimili argal bat lagun. Argiñe, Villabonako musikamaistraren alaba, sei hilabetez kartzelaldi prebentiboan, auskalo noiz arte. Gorputz-atalak txori-hanka antzekoak, hain neska delikatua eta isila izanda, harrigarria zen adreiluzko tiradera hartan topatzea. Oso abila zen bonben kableak konektatzen. Ustez.

Moduluko bi eraikinek mugatzen zuten patio luzea eta beste muturrean horma altu bat zegoen. Hango garitako zaindariek Radio Nacional de España jarri ohi zuten, behetik ere aditzeko moduan. Arratsalde batean, berriz, piano baten melodia iritsi zitzaien.

Argiñek ezpainak estutu, brausta frenatu eta negar mutuan hasi zen:

– Chopin... Bigarren nokturnoa, opus bederatzi.

– Pena ematen al dizu? –besarkatzera ausartu gabe.

Behatz finak luzatu zituen Argiñek, airezko teklatu baten gainean jo.

– Nire kanta maitea da. Egunen batean ateratzen banaute, ezin izango dut inoiz aditu pareta zahar hauen artera bueltatu gabe.

16

Enbarazuan zegoen nonahi Miren Egañaren sabeltzarra: sukaldean, jangelan, errekuentoan, patioan. Ziegak bermatzen zion babes bakarra, eta han Agur zegoen, egunetik egunera ahulago eta zuriago, dardar batean, hiltzeraino jarraitzeko tematuta.

Birritan agertu zen zuzendaria. Vis a vis politikan salbuespena egiteko prest zeuden Gorrirekin elkar zedin. Agurrek tinko ezetz, ez zuela pribilegiorik onartuko. Bestea, erdi erreguka: hil egingo zela, alferrik izango zela, beste kartzela batzuetan bertan behera utzi zutela greba, azkenean bera zuzendari-postutik bidaltzea ere lortuko zuela eta hurrengoa zorrotzagoa izango zela.

Ezetz.

Astebete geroago esan zioten Gorrik minbizia zuela. Gezur zikinak omen ziren, konbentzitzeko. Lagun batek idatzi zion berri txarra emateko; gezurra hori ere, zuzendariaren beste trikimailu bat.

Hauteskunde goizean, irribarretsu esnatu zen, itxaropenez. Olatzi eskatu zion txaboloa barruko kon-

ketaraino laguntzeko, aurpegia toalla busti batekin garbitzera. Ez zen gai izan txabolotik irteteko, baina, behintzat, irribarrea ez zuen egun osoan kendu.

Biharamunean, funtzionarioak euforiko: aldaketa gauzatua zen, sozialistek gehiengo absolutua, frankistak zulora betiko. Bat-batean, denak demokratak.

Agurrek ez zituen begiak ireki, ospitalean hiltzeko etsita dagoen amonaren moduan.

– Ezkerrekoak dira –Olatzek, animatu nahian.

– Horrek edozertarako baimena ematen die. Neofrankistak egitera ausartu ez direna, hauek egingo dute ezkerraren izenean.

Momentu batetik aurrera, ezin izan zuen jaiki, hitz egiteko ere komeriak. Ahoz gora zetzan, begi zorrotzak zabal-zabalik.

Larri omen zegoen Gorri. Zuzendaria bera joan zitzaion Agurri esatera, nahi izanez gero anbulantzian eramango zutela ikustera, ezeren truk, keinu humanitario bezala.

Ezetz.

Grebalariak tantaka hasi ziren amildegira hurbiltzen, tantaka atzera egiten. Hurrengo asteetan, bi

berri mota besterik ez zituzten jaso: edo Gorriren parte medikoak, gero eta okerragoak, edo izenak, izenak, greba utzitakoenak.

Yeseriasko azkena geratu zen; atzera-bueltarik ez zeukan puntutik gero eta gertuago. Ez zuen bisitarik onartzen; Olatz zuen erizain. Gau batean, errekuentoaren ondoren ireki zuten atea. Funtzionario bat sartu zen, moja itxuraz, serio. Gorri hil zela goizean, Alcalan. Sentitzen zuela. Gutunak eta paperak utzi zituela eta biharamunean haren ziegakidea etorriko zela ematera. Eta mesedez konturatzeko arau guztiak ari zirela puskatzen, ea behingoz burugabekeria hura uzten zuen.

Bukatutakoan, Agurrek burua biratu zuen pareta aldera.

– Gracias –Olatzek.

Funtzionarioa joan eta argiak itzali zituzten.

– Eskertu egiten diozu, gainera? –Agurrek–. Gezurra da. Norbaitek kontatuko zidan nola edo hala.

– Agian mina aurreztu nahi zizun.

Begirasun amorratua egin zion Agurrek:

– Benetan hil bada, orduan akatu... –negarrak moztu zion, berak ere aukera hori sinistu ezinik.

– Jar nazazu txukun –Agurrek goizean, bere gainean Olatzen mugimenduak sumatzean.

Ez zegoen gauza handirik egiterik. Ileak faltsua ematen zuen; argal-argal, hazpegiak urtu egin zitzaizkion. Burezur baten antza zuen. Momia bat.

Eguerdia baino lehen gizona ekarri eta bakarrik utzi zituzten. Artilezko jertse gorrixka potolo-potolo bat zeraman soinean, bestela oso itxura normala zuen. Eskuartean zekarren fardeltxo bat, gutun pila bat, periodikotan bilduta eta zelo zabalarekin mila buelta emanda.

Buruaz agurtu eta mutu geratu zen ate ondoan. Agurrek doluzko isilune bat itxaron zuen:

– Ondo ezagutzen zenuen.

– Intimitatea azkar hazten da ziegan, bai.

– Eta miretsi egiten zenuen. Ezinezkoa zen ezagutzea eta ez mirestea, baietz?

– Apartekoa zen –eta Agurren begirada finkoak behartuta, gehitu zuen–: Zaila zen...

– ... ez maitatzea. Egia! Egia! Neuk ezagutzen nuen inork baino hobeto; bere konfiantza osoa neukan.

Julenek baietz erantzun zuen buruaz. Argituta bezala zegoen Agur, manta grisaren azpitik bakarrik burua ikusten zitzaiola.

– Haren laguna zinen –Agurrek–. Beharko, paketea eman bazizun. Zurekin hitz egin dezakedala sentitzen dut; behar ikaragarria daukat. Zeuk entzun zenituen haren azken hitzak... –arnasa hartu zuen kostata–. Bere mailan egon naiz. Ez da harrokeria... Bai, bada: harro nago inork baino hobeto ulertu nuelako; berak ere esan zidan!

Malkoekin borrokan ari zen. Begiak itxi zituen, ezpainak estutu. Julenek zalantza egin eta delikatuki utzi zion fardeltxoa manta gainean, gutxi gorabehera Agurren sabela zegoen lekuan.

Ahots-hari batez jarraitu zuen Agurrek, Julen ondoan belauniko. Gorri Iparraldean ezagutu zuela. Taldekideak izan zirela. Askok ez zutela haien harremana aprobatzen, Gorri goikoa baitzen eta bera, inor ere ez.

– Zorte handia izan dut, eta zoriona. Gehiegi tarte batez eta orain, gutxiegi bizitza osorako.

Literan agontzen saiatu zen. Julenek ez zekien lagundu ala ez.

– Oroitzapenak geratzen zaizkigu; bestea joan egin da: promesak, handitasuna, bihotza.

Malkoz beteta zeuzkan begiak, baina ez ziren erortzen.

– Maila eman zuen bukaeran ere.

– Eta ez nengoen berarekin –ahots apurtuaz–. Berak baino gehiago sinesten nuen berarengan. Nire beharra zuen.

– Azken momentura arte izan ninduen ondoan –lurrera jaitsi zituen begiak–. Hil aurretik... zure izena esan zuen.

Agurrek irribarre egin eta begiak itxi zituen, buruaz baiezka. Malkoak erortzen hasi ziren azkenean.

Klin-klan, atea ireki zuten. Julenek buruaz agurtu eta serio-serio joan zen.

Beso bat atera zuen manta azpitik Agurrek. Atso beltz txiki bat; zainak sumatzen zitzaizkion. Olatz gerturatu eta besarkatu egin zuen.

– Oso umezalea zen –Agurrek, negar batean azkenean.

Hezur eta azal zen, pixka bat estutuz gero erraz puskatzekoa, eta, halere, begiradan indar berria zeu-

kan. Hiltzeraino jarraitu nahi zuen. Olatzi zirrarak sastatu zion sabela:

– Joan ospitalera, mesedez. Arriskutsuagoa zara bizirik hilda baino.

Agurrek mantso bota zuen arnasa, begiak itxita. Gero baietz erantzun zuen buruaz, esfortzuz.

– Gorrigatik.

Errege-bezperan, kabalgatatik ekarrita bezala, eskutitz bat Maria Herrero Palaciorentzat. Gutun-azalean, letra luze eta fina. Ai, ama: Jesus Maria Fuentes.

Batere testurik gabe, auskalo poliziak edo Txumak berak zentsuratuta, bi argazki. Bietan ala bietan, Haritz txikia. Batean etxeko egongelan moketan eserita, praka motz gorria soinean, alkandora koadro zuri-urdinduna, tiranteak. Eskuan, kamioi berde bat, amatxok Iparraldean oparitua.

Bestean koskortuta agertzen zen, etxepeko Caja Ruraleko petrilean zutik. Baserritar jantzita, Xexilik jositako *mendigoizalea* soinean, txapela, mahoizko galtzak eta abarkak, Olentzeroren atzetik irteteko prest.

Horrelako zenbat mugarri, xume zein handi. Urtebetetzeak. Hortzak erortzea. Bizikletan ibiltzen ikastea. Irakurtzea.

Ama ezagutu gabe ari zen hazten.

Sekulako aldaketak jarri zituen PSOEk martxan: euskarazko gutun-trukeak onartu zituzten, kanpotik libururen bat jaso ahal izatea. Bisitak ordubetera arte luzatu eta hilean bi telefono-dei egiteko baimena eman zieten, hamar minutukoak. Ustekabez onetsi zuten *Egin* periodikoko bi kazetarik hainbat kartzelatako euskal preso politikoak elkarrizketatzea. 1983ko otsailaren hasieran joan ziren Yeseriasera. Olatz bi argazkitan azaldu zen, kasualitatez bietan polimilien artean.

Sasi-tregoa onartu zuten polimilien VIII. asanbleako zuzendaritzakoek. Ordurako, ordea, grazia-neurriak eskatzeko epea bukatuta zegoen. Patioaldi batean, Argiñek negar egin zuen: horrela ibiltzeko, hobe zazpikiekin alde egin izana.

Alaba polit batez erditu zen Miren Egaña, lore bat zementuan. Sarri hurbiltzen zitzaion Olatzi galdezka, esperientziadun bakarra baitzen. Gainera, Olatzen besoetan hartzen zuen lo errazen. Umea amari itzuli on-

doren, urduri sartzen zuen eskua patrikan semearen argazkiak ukitzeko, estanpak balira bezala. Hilero bidaltzen zion bat Txumak.

Apirilean, gosaldu aurretik sorpresa: moduluko ate aurrean bildu ziren polimili gehienak, haien gauzak poltsetan. Funtzionario batek zabaldu eta isilean irten ziren. Argiñe delikatua, Argiñe iharra: grazia-neurriak eskatu, baina ez zion Olatzi aitortu. Atzera begiratu gabe joan zen.

Kolpe latza izan zen, batik bat ezer eskatu ez zuten azken bi polimilientzat. Pare bat egun geroago ekarri zuten Agur bueltan. Zergatik mantendu zuten bi hilabetez erietxe militarrean eta zer egin zioten, ezin jakin, Agurrek ez zuelako txintik ere esan.

Olatzek prest zeukan oparia: razzian puskatutako argazkien puzzlea; gehienak txukun samar geratu ziren.

Agurrek ahoa okertuta hartu zituen:

– Lagun berriak egin dituzu, e? –zakar.

Iritsi berria zen; nola...?

– Zer da hau? Pixka bat uzten zaituztet eta...

Bi asterik behin egiten zuen hots Olatzek Xantiora eta Mikeltxok kasetean grabatzen zion elkarrizketa amari. Deirik ez zegoen asteetan, bisita. Ama beti, txandaka aita edo aitona Teofilorekin. 60 minutu, natural hitz egiteko aukerarik gabe. Gauza onak errepikatzen zizkioten, konturatu gabe Olatzi eguneroko martxa ezkutatuz etxetik aldentzen zutela. Jostorratzak murtxikatzea zen harentzat, amari zerbaitek noiz ihes egingo. Eta orduan, tzak: ziztada. Aitona Teofilorena ere horrela izan zen.

– Zer moduz aitona Teofilo?

Amak, irribarre urduria:

– Oso ondo.

Olatzek zorrotz begiratu zion aitari, nahikoa hark aitor zezan:

– Badakin nolakoa dun. Zahartzen ari dun... Baratze bazterrean ematen din eguna, Mikeltxori begira; hark bai sasoia!

– Eta?

– Aurreko batean zera... tematu zunan atzealdeko muinoaren hasierako aldapa segatu behar zuela laguntzarik gabe, garai batean bezala. Lehenengo orduan, bakarrik joan eta erori. Aldaka puskatu din.

– Ez da ezer ere –amak–. Segituan pasatuko zaio.

Ezin etxean egon. Lagundu. Eta kanpoan, bizitzaren erlojuak aurrera jarraitzen zuen.

Tik.

Tak.

Tik.

Tak.

Barruan, eternitatea bisitatik bisitara, deirik deira, Txumak bidalitako argazkitik argazkira. Pentsatzeko denbora gehiegi; batzuetan hasi eta leku beldurgarrietan bukatzen zuen. Beste era batera entretenitu beharra zegoen burua, denbora probetxuz pasatu. Ikasiz, adibidez; ze urrun Usandizaga institutua! Ez zion Agurri aitortuko badaezpada; baimena lortuz gero konbentzituko zuen. Maiatz erdialdean, funtzionario bati esan zion zuzendariari helaraz ziezaion: unibertsitatera sartzeko azterketa egin nahi zuen. Azkar tramitatuz gero, garaiz zegoen ekainean egiteko. Zer ikasgai prestatu beharko zuen? Aspaldiko partez, presa.

Biharamunean, urduri itxaron zuen erantzuna; behar izanez gero, deietako bat gastatuko zuen amari hots egiteko, liburuak lehenbailehen eskuratu eta ekartzeko.

Inuzenteagorik! Elefante handi bat zen kartzela. Hilabeteak behar ziren edozein tramitetarako, jakin

gabe zuzendariak jaso ere egingo ote zuen. Isiltasun administratiboa arau, erantzuna jasoz gero, pazientzia agortuta izaten zen ordurako.

Halere, itxarotea balitz zigor bakarra! Miliek bake-negoziazioak iragarri zituzten eta gobernuak gezurtatu, gobernuak eskaini eta miliek baztertu. Itsasargiaren fokua zirudien esperantzak, jira eta bira gauean, orain bai, orain ez. Bueltaz buelta, gero eta beltzagoa zen iluntasuna.

Eman ezazue denek pixka bat gutxi batzuk kartzelan usteldu ez gaitezen. Santa Anako mojak, umetan, hortaz ari ziren ditxosozko entrega gora eta behera: pentsatu gabe ematea, mugarik gabe, atzera bueltarik gabe. Moja koitaduak; haiek ere, oinutsik.

Egunkari-zatiak eraman ohi zizkion amak. Funtzionarioek, eduki arriskutsuak moztean, leihoak zabaltzen zituzten irudimenerako. Horietako orrialde baten atzealdean kolatu zen Xabiren argazkia: Xabier Mendoza Gantxegi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Industria Saileko zuzendari txit agurgarria. Ederra saltoa parrokiako lokaletik! Orduko amodioa nerabea zen, ergela ia, eta zinemako itzaletan hozten zuten desioa,

haztamuka eta muxu azkarrez. Argazkiak, berriz, 27 urteko trajedun dotorea zekarren. Erakargarria.

Parean irudikatu zuen, gorbata askatzen ziola, alkandorako botoiak, gorputza laztandu, eta Xabik irrikaz erantzuten zuela, blusa altxatu, galtzak presaka jaitsi, erauzi ia, eta Olatz gainera igotzen zitzaiola eta gainean eseri.

Kraska batez itzali ziren argiak, gauero bezala. Agurren arnasketa erregularra. Kanpoan, funtzionario baten urratsak. Argazkia sabel gainean laga eta begiak itxi zituen. Poliki, eskua jaitsi eta kuleroen azpitik sartu zuen. Epela. Kizkur gogorren artean bilatu zuen koskatxoa. Handituta, sentibera. Behatz-puntak busti, beste eskuarekin kuleroko kanpin-denda altxatu eta igurtzika hasi zen.

Hankak dar-dar basatian, ezin eten eztandara iritsi arte. Bere garaian, institutuan hamaika kartel zintzilikatu zituen “Masturbazioa da soluzioa” ziotenak, emakume bat eskua aluan. Noizbehinka egiten zuen, baina, han barruan imajinazioa ere atxilo, ordura arte ez zuen hainbesteko eszitaziorik sumatu.

Xabi. Gazteak baleki, zaharrak baleza... Putzura erori zen Olatz, ohi baino altuagotik.

17

“Haritzek faltan botatzen dio bere amari”, Txumak argazki baten atzealdean. Olatzek segituan hartu zuen papera erantzuteko: “Ikusi besterik ez dut nahi”. Ez zekien zer gehiago erantsi. Kamustuta zeukan mihia, ezin sentimenduak adierazi. “Munduan gehien maite dudana da”. Eta sinatu egin zuen.

Zergatik ez hots egin? Gogor eutsi zion tentazioari. Buruz zekien telefonoa, baina Txumaren oniritzirik gabe ez zen ausartu. Eta beste emakume batek hartzen bazuen?

Bi astetara iritsi zen erantzun-gutuna. Txuma idazten irudikatu zuen, egongelan, telebista aurreko mahaitxoaren gainean: bisitatzeko baimena tramitatzen hasia zela zioen eta, dena ondo bidean, Haritzen seigarren urtebetetzeko opari berezia izango zela.

Semearen marrazki bat atxikita: eskuinean, Olatz irribarretsu eta eskutik Haritz pozik. Betaurrekoekin! Ezkerraldean, dragoi bat sekulako ñabardurekin egina: ezkata beltzak, ahutz zorrotzak, atzapar erraldoiak, suzko bafada izugarria. Eta, halere, beraiek zoriontsu,

elkarrekin. “Amatxorentzat” zioen izenburuak letra txarraz; “h” sinatzen zuen, hatxeren makilatik lore bat hazten zela.

Olatz zorabiatu egin zen minez. Bizitza ere emango zuen une hartan semea besarkatu ahal izateko.

Geroztik, beste berririk ez. Orriak bete zituen semearen izenarekin, Haritz Haritz Haritz Haritz Haritz Haritz Haritz Haritz Haritz Haritz... Harik eta konturatu zen arte irakurtzearen irakurtzeaz ez zuela zirrararik sumatzen eta nahiago zuela sabeleko kalanbrea.

Ekainaren 11 zen larunbata, urtebetetzea baino bi egun lehenago. Goizean, ilea elkarri mozten jardun zuten hainbatek, baina Olatzek nahiago izan zuen beste baterako laga. Bihozkada, agian.

Bisitak hastear, “Maria Herrero Palacio”-rik goxoena. Ama-eta izango ziren edo... Badaezpada, txandalik gabe zegoen, txukun jantzita; eskerrak! Txuma eta Haritz ziren. Ia konortea galdu zuen: altu-altu zegoen umea, flekillo horia ondo orraztuta, alkandora zuria eta praka motz urdinak soinean, betaurreko metaliko handien atzetik lotsati bezain jakin-mintsu, hortz handiak oker.

Olatzek eskua jarri zuen kristalean, eztarrian tapoia.

– Opari bat ekarri dizu –Txumak urduri. Haritzek kartulinekin enkoadernatutako liburu bat erakutsi zion: Amatxoren liburua–. Zu ondo?

Olatzek baietz, hitz egin ezinik. Ez zuen negar egin nahi.

– Maitea...

– Etorri da bide osoa zutaz gauzak galdezka.

– Tenemos que hablar en español, Txuma.

Haritzek haurtzaindegia bukatu eta irailean hasiko zen Avellaneda eskolan, EGBko lehenengo mailan. Txumak pena zuen haurtzaindegian euskaraz ikasi ondoren, espainolez jarraitu beharko zuelako, baina beste aukerarik ez.

Irribarretsu tentetu zen umea. Aitak xaxatuta, segituan kontatu zizkion amatxori mila gauza, hitz eta pitz, hainbat kanta barne, *Aldapeko*tik Athleticen ereserkiraino.

Gurasoen bisitetan, adi kontrolatzen zuen Olatzek kronometroa, jakin eta esan nahi zuen guztia dosifikatu ahal izateko. Semeari begira erlojua ahaztu eta funtzionarioak dekretatu zuen bukaera, bat-batean, goizegi. Txumak Haritz jaso behar izan zuen besoetan, amari agur egiten ziola eskuaz, negarrez. Kristalaren bestaldean bakarrik utzi zuten, arnasestuka, sabelal-

dean min zehatza, zorrotza eta puntaduna zuela. Ia ito beharrean, belaunikatu egin zen arnasa hartzeko.

Semearen oparia entregatu zioten eta papera busti zuen. Hiru orri ziren, erditik tolestuta eta grapatuta, 6 orrialdeko ale potoloa osatuz. Hiru atal, izenburua ezkerraldean eta eskuinaldean marrazki bana. *Itsasoa*: Amatxo eta Haritz Zarauzko hondartzan toldo zuri-urdin baten azpian. *Sodupe*: Amatxo eta Haritz plazako platanondoen itzalpean. *Xantio*: Amatxo eta Haritz baserri aurrean. Denetan eskutik hartuta, denetan zoriontsu.

Bakerik ez: azken bi polimiliak mugitu nahi omen zituzten Lleidako kartzelara. Miliengandik banatzeko maniobra zen eta denak matxinatu ziren, barrikadak altxatu koltxoiekin, aulkiekin, sukaldeko mahaiekin.

Napoleon ematen zuen Agurrek, postu batetik bestera korrika, posizioak zuzentzen, animoak ematen. Denek zekiten, ordea, ezingo zietela aurre egin. Guardiak jo eta su etorriko ziren laster, egurrean.

Isiltasuna hedatu zen moduluan, Gerra Handiko lubakietan erasoaren aurretik bezala.

Indarrez sartu zen uholde berdea, ezkutuak, kaskoak, borrak, gas lakrimogenoak, fusilak. Erraz puskatu zituzten barrikadak, hondartzako gazteluen moduan.

Miren Egañaren txaboloan gorde zen Olatz, harekin eta alabatxoarekin. Guardiek dinbi-danba, ondo baino hobeto zekiten nor astindu; ez zuten haien atea ukitu ere egin.

Errepresaliak: bisita guztiak bertan behera utzi zituzten. *Sine die*.

Eta hurrengo hilabetera arte luzatzen bazuten debekua? Zer pentsatuko zuen semeak? Beste hutsegite bat.

Askoz lehenago hartu zuen erabakia, seguruenik Haritz bisita-gelan ikustean, baina hurrengo aukera kolokan ikusi arte ez zen jabetu. Bizi egin nahi zuen, bizi, eta barkamen eske idatzi zion Txumari: bizitza korapilatzeagatik, traizionatzeagatik, arriskuan jartzeagatik, baztertzeagatik. Globoak, zama-zama eginda, lurra jo zuen. Indarrik ez herriaren izenean sakrifikatzen jarraitzeko. Berekoia izanez eragingo zien min gutxien maiteenei.

Gau oso bat eman zuen negarrez eta, malkoek barrenak garbituta, energiaz beteta esnatu zen, edozeri

aurre egiteko prest. Topatuko zuen leku bat hondartzan, mareatik kanpo. Gauza mordo bat zeukan egiteko. Eskerrik asko, ama: bisitaz bisita, paketez pakete, dei, gutun, periodiko. Olatz putzura erori zen bakoitzean, haren kateak eutsi zion, haren katetik igo zen.

Ez zuen, ordea, Agurrekin kontatzen. Bazkalondo horretan, txaboloan zegoen eta susmo txarra hartu zion Olatzen irribarre berriari, kemenari. Begira-begira geratu zitzaion, pentsakor. Olatz dardaran hasi zen.

– Eta txima horiek? –Agurrek–. Ez duzu orain ilea luzatzen utziko, ez?

Aipatu arte, ez zeukan batere asmorik.

– Esan didate unibertsitatera joan nahi duzula... joan edo. Zergatik?

Olatz izerditan: zer zekien? Sorbaldak altxa zituen mantso, paralizatuta.

Agurrek begirasunaz arakatzen jarraitu zuen:

– Ez ikasi abokaturako; Espainiako justizia gezur bat da.

Beste hiru baja izan zituzten, hirurak epaitu ondoren askatutako prebentiboak. Agurrek indizio gehiegi ikusi zituen: gobernua konspiratzen ari zen azken greba eta

istiluetan erakutsitako indarra apaltzeko. Diskurtsoka hasi zen patioaldietan: borrokaren beharraz, damutuek presoei egindako minaz, sakrifizioaz, garaipenaz. Aljer, Txina, Errusia, Kuba, Nikaragua, El Salvador... Ze herrik eskuratu du askatasuna iraultza edo gerrarik gabe?

Funtzionario batek ekarri zion Olatzi unibertsitateko sarrera-proba egiteko baimena. Liburuak eskatu eta, behingoagatik, azkar helarazi zizkioten. Pozik ordezkatu zuen partxisa; matematikaren erresuman borrokatzea... hura plazera! Eta historia, fisika, filosofia. Kanpoko helburu bat zuen, bizitza arrunten modukoa.

Agurrek ere horrela ulertu zuen: ihesbide bat zen, taldetik bereizi nahi zuen Olatzek. Klausura-komentuko ama nagusiaren grinaz hasi zitzaion jazartzen, nobizia haragiaren bekatutik aldentzeko. Xinplea zen ekuazioa: Olatzek ez zuen gogoan ez Erakundea, ez borroka, ezta herriaren askapena ere; beraz, bere burua ari zen aurretik jartzen.

Eta arrazoia zuen. Nerabeen modura ari zen aldaketa bizitzen: harriduraz, bere dimentsio eta aukera berriek beldurtuta. Txaboloan geratzeko aitzakia oparitu zion ikasteak. Urteak ziren bakar-bakarrik egoten ez zela. Bere kabuz, isilean; musika ederragorik! Gai-

nera, liburuek paperezko zuloak zabaldu zizkioten horman, haietatik ihes egin zezan, txorien antzera. Eta txoriak, eskolako gelan hegan, umeak aztoratu.

Bi hilabete luze joan ziren bisitak atzera baimendu arte. Denbora sobran beste proiektu bat aurrera eramateko: liburuei denbora kenduz, igeltsuzko maskara bat egin zion Haritzi. Pintatu ere egin zuen, kolore biziz.

Txumak aldez aurretik abisatuta, larunbat hartan soineko loreduna jantzi zuen, amari propio eskatua. Agurrek aurpegi zinikoa jarri zuen:

– Semearen aurrean seduzitu nahi duzu Txuma? Txima horiekin?

Erantzunik ez. Beldur zen bero sargoriak ez ote zion izerdia besapeetan nabarmenduko.

– Maria Herrero Palacio!

Bihotza taupaka: bularrean, lepoan. Adituta zegoen vis a visak gela batean egiten hasiak zirela: denek ikusgai, ia pasilloan bertan, mahaia, sofa zahar bat eta ohea, baina gela bat. Lehenengoa omen zen maindirerik gabe zihoana.

Atea ireki eta umea korrika sartu zen, besoak zabal-zabalik. Salto egin zion gainera, besarkatu, musukatu. Hain txikia zen! Eta delikatua, baina aldi berean indartsua, erreala. Olatz negarrez hasi eta besoekin inguratu zuen Haritz, begiak itxita. Txumak biak besarkatu eta kopetan eman zion musu.

Haren lurrina.

Minak min, maite zuen Txumak, merezi ez arren. Zergatik?

Lasaitu beharra zuen, bisita negarrez ez itotzeko. Eskerrak semea mainati hutsa zen: magalean eseri zitzaion, burua bularraren kontra.

– Oso guapa zaude ile luzearekin –Txumak, eta gorritu egin zen.

Olatzek paketea hurbildu zion semeari.

– Zer da? –irekitzen ari zela–. Norena? Zergatik?

Horrelako jakin-minik! Umeak.

– Aurpegia estaltzeko. Inauterietan –ze tonu ibili hitz egiteko?

– Ipiniko diogu soka bat –Txumak–. Eta kolgatuko dugu zure gelan.

Semeak pentsakor aztertu zuen.

– Jon Xantiok horrelako bat erabiltzen zuen –Olatzek, Ixabelen kontakizunak gogoratu nahian.

– Nor da Jon Xantio?

– Mutil bat. Heroi bat. Pixka bat zure antzekoa. Ez esan Jon Xantioren abenturarik ezagutzen ez duzunik? –umeak ezetz–. Kontatu beharko dizut, ba. Jon Xantio Mollarriko erresuman bizi zen eta... eta... –kartzelako hormaren kontra jo zuen memoriak.

– Badakizu zer? –Txumak–. Zergatik ez diogu amatxori eskatzen ipuin hori idazteko? –eta Olatzi–: Gau guztiak irakurtzen dugu bat.

– Ze ideia ona! –Olatzek–. Gutunez bidaliko dizuet. Eta orain –kilimak egin zizkion–, txiribueltekin hasiko gara!

Muxuak, besarkadak. Haritzek pozik ematen zuen.

– Batzokian jarraitzen... laga dizute? –Olatzek.

– Oso zibilizatuak dira, ez... dizute inoiz esango ez joateko.

– Orduan?

Txumak ezetz egin zuen buruaz:

– Astirik ez. Ezin dut etxera joan gaueko hamaiketan –arnasa bota zuen etsita.

– Eta?

– Badakizu hango batzuk: zenbat eta astoago, orduan eta gorago.

– Alderdi guztietan gertatzen da.

– Beharbada, baina hau da nik ezagutzen dudana. Alderdian sinesten nuen, Franco hil aurretik eta gero. Migel Garairi hori egin...

– Diziplina-komitera eraman zintuzten azkenean?

– Bai. Abisu bat eman zidaten, baina ordurako berdin zen: zu joan ondoren, oso kritika erraza zeukaten beti. Ezin nuen eztabaidatu, hitz egin; etarraren senarra nintzen.

– Sentitzen dut.

Txumak beste aldera begiratu eta eskuineko sorbalda bat altxa zuen; ez zion axola.

Pospolo baten moduan kontsumitu zen ordua: zenbat eta gutxiago falta, hainbat eta gehiago erre. Azken besarkada; ez zuen aurreikusi aitorpenak orduan ihes egingo zionik:

– Reinsertzioa eskatu behar dut –xuxurlaka, lotsatuta.

– Benetan? Hori oso berri ona da!

– Ez diot inori esan; ez ditut etxekoak kezkatu nahi.

– Asko pozten naiz –beste besarkada bat, musua buru gainean.

– Eskatu ere ez dut egin oraindik.

– Konfiantza daukazu nigan? –Olatzek baietz–. Aldatu behar duzu abokatua. Eta tramiteak hasi... uf! –emozioak gainezka egin zion–. Utzi nire esku; ondo aterako da, ikusiko duzu!

Bisita moztu zuen funtzionarioak. Umea eta Txuma desagertzean, Olatzek esan zion zuzendariarekin hitz egin nahi zuela. Reinsertzioa eskatzeko.

Buru-keinu soil bat jaso zuen ordainean, ez alarmarik, ez tirorik. Eta munduak biraka jarraitu zuen.

18

Gauza bakarra gogoratzen zuen Ixabelen kontakizunetatik: zoragarriak zirela. Mollarri mantendu, baina, Espainiako fartsa gogoan, erresumarena kendu zuen: Asterixen antzeko zerbait nahiago, Zarauzko zertzeladez. Herrikoak haritz nagusiaren inguruan bilduko ziren erabakiak hartzeko eta Jon Xantio protagonista gazteak sekulako abenturak biziko zituen errege, sorgin eta injustizien kontra, maskararen atzean superheroien antzera ezkutuan. Amona Brigida aditu zezakeen: “ondokoari lagundu beti, Jaungoikoak sarituko din eta”.

Biolentziaren kontuak ikaratzen zuen: Ramon Perez Ocañari buruz hitz egin beharko zuen inoiz semearekin; artean, ez semea ez bera ziren gai. Aukera bakarra, beraz: *Mollarriko legendak* ipuinotan, inteligentziari esker garaituko zuen Jon Xantiok.

Idazteari ekin zion, ekin bazion. Bitxia bezain goxoa, Zarautzera bueltatzen zen paperaren gainean, noren eta semearen eskutik.

Apunte artean ezkutatu zituen orriak, Agurren beldur. Gerra hotza zegoen haien artean. Ia ez zioten elkarri hitz egiten; Olatzek, otorduez gain, ikasten ematen zuen denbora. Patioaldietan, inor ez zitzaion hurbiltzen berarekin batera paseatzera, baina berdin zion: aspaldiko partez ez zegoen bakarrik, kanpora ateratzea lortua zuen bere barruko zerbaitek. Lehen, ezin zuen bere burua iraganeko memorietan gorde, minberegiak baitziren; etorkizunik ere ez zeukan. Haritzen bisitek eta proiektuek irauli zuten dena: semearen bizitza irudika zezakeen eta, urrutitik izanda ere, horren parte izan. Etorkizuna itzulita, iraganeko arantzak kamustu ziren.

Ipuineko gaiztoarena egiteko “Filipa” izena asmatu zuen, Espainiako presidentea gogoan. Ez zuen gutunen zentsurarekin arriskatu nahi eta beste zerbaiten bila ibili zen egunetan, harik eta goiz batean Agur ate danbateko ikaragarria emanda joan zen arte. “Agur” “Salve” bezala itzuli, eta jatorria iluntzeko, “Salbe”n utzi. Bagdadeko kalifa maltzurra izango zen. Halere, sekretu bat asmatu behar zion, kriptonita, egunen batean Jon Xantiok deskubritzeko eta behin betiko garaitzeko.

Beldurra zen Agurren sekretua. Beldurra bizitza kimera batean desaprobetxatu izanari, beldurra oker egoteari. Horregatik egiten zien denei hain gogor.

Tertius, guardiako kapitain zintzoa, nahiz eta kalifaren abusuez jabetuta egon, ez zen derrokatzera ausartuko, aldaketaren beldur. Alferrik saiatu zen Amadea sortzen, traidorea, bere aukera esplikatzeko; ez zuen pertsonaiarekin aurreratzea lortu.

Salbek probapean jarriko zuen Jon Xantio, Samarkandara misio zail batean bidaliz. Abentura gehiago idatzi zituen: Petra, Damasko eta Xanadu. Haritz txoratzen; hurrengo bisitetan, komeriak beste gauza baten inguruan hitz egiteko. Bitartean, egunak joan, egunak etorri, kartzelako zuzendariaren erantzunik ez.

Bien artean idazten hasi ziren. Batek erdia egin, postaz bidali eta besteak bukatzen zuen. Hilean behin bi dei, bat amari eta bestea semeari, bisitatik bi astera, harengandik hamar minutuz gertuago sentitzeko adina, gauza txikiak entzuteko, kezkak, pozak...

Deia bukatutakoan, ezin ondorengo hutsunea bete. Pena beltzak hartzen zuen, eta segidan izuak: zabalduko al zen grazia-neurriak eskatu zituela? Eta ematen ez bazizkioten? Ekilibristen sokan zegoen eserita, lurretik urrun. Zenbat eutsiko zion? Agudo asko

kaleratuak zituen gobernuak polimili batzuk, zama handiagoa izanagatik.

Halako batean, Txuma bakarrik agertu zen bisitara: semea barizelarekin egon arren, ezin eskema trinkoa apurtu. Ofizialki ezkonduta zeuden; bat-batean, gela baino handiagoa bihurtu zen ohea.

Txuma totelka: Haritzek Mollarriko ipuinetako bat entregatu omen zuen berea bakarrik balitz bezala; irakaslearen ohar miretsiari esker konturatu zen. Olatzek irribarre egin zuen. Inoiz bizitza normala egiten bazuten, nola egingo zion errieta? Bizitza normala... Zer zen ere ez zekien eta!

Txuma ez zen hori kontatzera joan, ordea. Abokatua aldatzeak kristoren zalaparta ekarria zuen, ordura artekoa baitzen preso gehien eramaten zuena, baina itxaropentsu zegoen gobernuak keinuren bat egingo ote zuen. Halere, ez omen zen sozialistekin fio. Gerra betean zeuden: atentatuak hiru egunean behin eta, Iparraldean, eulien moduan jarraitzen zuten errefuxiatuak ehizatzen. Hori gutxi balitz, nahiz eta frankotiratzaile batek Txapela alabaren aurrean garbitu, Frantziak, ez ikusiarena.

Bitxia zen Txapelaren izena Txumaren ezpainetan, Olatzen bi munduak uztartuz. Txapela: Alfontsok familiarekin bizitzeagatik kritikatzen zuen, Olatzek miretsi. Haren hilketak mendekua ekarriko zuen, eta mendekuaren mendekua. Ezin zuten gerra hura irabazi. Txumaren aurrean disimulatu eta notizia gero hausnartzeko irentsi zuen.

Familiaz ere hitz egin zion, xantiotarrek ahal bezala eusten ziotela ekaitzari, eta, azkenean, mingots aitortu zion vis a visen aurreko katxeoan biluztu egiten zutela, umearen aurrean ezgai eta galtzaundi iraindu...

Bisita osoa zutik eman zuten, kontu handiz ohera hurbildu gabe.

Arratsaldean, urakan baten pare sartu zen Agur txabolora:

– Zer ari zara!

Alferrik disimulatzea:

– Abokatu hau oso ona omen da; azken sumarioa falta zait...

– Eta? Ez zara libratuko... Herriak ateratzen ez bagaitu, hemen ustelduko gara. Denak!

Halere, etsita zegoen, erretxinduago, fisikoki ere meheago, txikiago, beltzago. Tunel batean zihoan aurrera, aspaldi atzenduta nondik eta nora, ilunpean; aurrera besterik ez, inertziaz. Sinestea besterik ez zitzaion geratzen, sinestea garaipena eskura zegoela, garaipenak justifikatuko zuela jasandako sufrimendua, eragindakoa. Trainerua martxan mantendu beharra zegoen, hutsuneak hutsune, kosta ikusi gabe ere.

Agur jangelara joanda ere ez zen Olatz lasai geratu. Ulertu egiten zuen eta Agurrek bera ez. Edo agian bai, eta horregatik jokatzen zuen hain...

Mollarriko legenden azken ipuina idaztera jarri zen, Salberen heriotza, baina ezin. Txanponaren bi aldeak ziren Jon Xantio eta bera. Ez dago zuria bereizterik beltzik gabe. Agurren ondoan bakarrik merezi zuen Olatzek beste aukera bat.

Berekoikeria berriro ere. Beldurra bezala, hain zen gizatiarra!

Gabonak. Zuzendariak erantzunik ez, keinurik ez. Hiru urte kartzelan; neskazahar bat zen, amildegi-ertzean. Maiz esnatzen zen gauean negarrez, ito beha-

rrean. Ametsetan ere zelatatzen zuten txaboloko behatxulotik. Aspalditik, amets guztiak ziren gaiztoak.

Noiz iritsiko zitzaion Agurri reinsertzioarena? Zer egingo zion?

Errutina: telefonoz hots egin, hilean bi bisita. Kuku motzak ziren; sekulako mesedea eta sekulako mina.

Patioaldi batean, funtzionario batek denen entzungai oihukatu zuen: “Maria Herrero Palacio, dirección!”. Agurren begirasunak ilea laztu zion. Eta, halere, urakanak eraman zuen arrastaka, hanka bat altxatu eta gero bestea, eguzkitik hotzera, funtzionarioaren atzetik, giltzarrapoak klin-klan eta labirintotik Minotauroaren bulegora, gizona serio-serio, batzuetan ironiko, eta segituan aipatu zizkion mafiako *pentiti* edo damutuak, askatasunak ezin baitzuen gratis izan egindako guztiaren ondoren, zerbait ordaindu behar, itzuli, konpentsatu, nahiz eta kaltea inoiz ez zen konponduko.

Olatz isilik, hitz bat burmuinean iltzatuta: ordaindu?

Informazioa beharko zutela, pentsatzeko eta berriro deituko ziola.

Ez zuen argitu noiz.

Patioratu bezain pronto inguratu zuten kideek, galdezka.

– Diskurtsoa –Olatzek, mespretxuz.

Ohikoak ziren zuzendariaren filipika eta erretolika frankistak. Agurrek hotz aztertu zuen, mutu eta zezenen moduan sudurretik ozen arnastuz.

Informazioa: Alfontsorentzat Bilbo aldean alokatutako etxe seguruak. Arma-zuloak. Iparraldean nor jarduten zen zer egiten. Saldu egin behar zituen lagunak eta arima, zer erosiko zuen jakin gabe.

Otsailak lau egun zituela, ETA militarrak Mikel Solaun preso ohia garbitu zuen, emaztea eta alabaren aurrean. Salataria zelakoan.

19

Burua okupatzeaz gain, opari ederra egin zion ikasteak, unibertsitateko sarrera-froga gainditu baitzuen. Baimena eman zioten Filosofiako matrikula tramitatzeko UNED urrutiko unibertsitatean; irailetik aurrera hasiko zen.

San Juan bezperan, zuzendari jaunarengana eraman eta izenak bota zizkion, lekuak, kopuruak, helbideak. Espero baino hotzago, espero baino zehatzago. Trukean, buruko mugimenduak baiezka; besterik ez. Traidore izateaz gain, tuntuna eta ergel hutsa zen.

Alfontsori iritsiko zitzaion.

Agurri.

Udara beste berririk gabe eman zuen hilkutxan. Irail bukaeran, patioaldi sargori batean, bilerara deitu zuen Agurrek. Pasiera eten behar izan zuen Olatzek, pareta batetik bestera eta buelta, eta buelta, eta buelta. Haserretzeko lanik hartu gabe, taldeko borobilera gerturatu zen, ea ze ostia nahi zuen.

Agur, diskurtsoka: GALek lau errefuxiatu hil omen zituen bezperan Baionako hotel Monbar-en. Sartu, eta

tiroka hasi omen ziren. Deklamatzen ari zela, Olatzi hurbildu zitzaion, eta borobila automatikoki soildu zen haien inguruan. Dilista ustela, orain nabarmenago.

– ...eta gure heroiek bizitza ere ematen duten bitartean, beste batzuek, egoista nazkagarriek, Espainiarentzat egiten dute lan, gure lepotik, zorrien moduan gure odolaz elikatzen.

Kolpatuko ote zuen? Eskuak itxi zituen Olatzek, tentsioan eta prest edozein eraso desbideratzeko. Agurrek, ordea, bizkarra eman zion:

– Hau da fronterik gogorrena eta herriak badaki metraileta daukatenak bezain kementsuak garela hemen eusteagatik, arazoak sortzeagatik. Estatuari min egiten diogu barrutik. Traizioa da irtenbide pertsonala bilatzea, traizioa da borroka uztea, traizioa da... –eta, ustekabean biratuta, eskuaren atzealdeaz kristoren belarrondokoa eman zion Olatzi.

Odola ahoan, ezpaina minez taupaka.

Agurrek paper-puskatxo eskukada bat bota zion aurpegira; zatitxoak mila norabidetan sakabanatu ziren beherantz, kiribilak eginez. Argazki-papera. Semearen aurpegia ezagutu zuen, urratuta.

– Saldu egin gaituzu, txibata putakumea...

Iletik heldu zion Agurrek, muturrekoa jo, burua leiho baten barroteen kontra jo, paretaren kontra, lurraren kontra, ostiko, ostiko, ostiko, *tevoyamatar*, eta hil egin nahi zuen, baina handik aurrera Olatzek minik ez, marruak besterik ez, Agur besteak jotzera behartzen, traidore bat da, saldu bat, baina kolperik ez eta Agurrek orrazi puntaduna atera zuen, idi-probetako zirien antzekoa, txikitan aitona Teofilorekin ikusita zegoen nola xaxatzen zituzten idi erraldoi gaixoak ezten zorrotzez zirikatuz, gero Xantiora itzuliko ziren bazkaltzera, eta atzealdeko muinotik baserriko teila gorriak ikusten ziren, konpondutako zuloak kolore biziagoan markatuta, *tetengoquematar*, hiltzeko beharra zuela edo behartuta zegoela edo auskalo, ziria eskuan, ziztada bat besterik ez bihotz gainean eta akabo sufrimendua, akabo kartzela eta berdin du...

Esnatzean, minak konortea galarazi zion. Hurrengoan, pixka bat luzeago esnatu zen: areto zuri bat. Dena ilundu zen atzera. Argialditik argialdira sumatu zuen enfermerian zegoela, hainbat hezur puskatuta zeuzkala, saihetsen bat. Zulorik ez.

Agurrek ez zuen hil.

Ahora ematen zizkioten pureak, Haritzi txikitan bezala. Bi argazki ekarri zizkion zaintzako funtzionarioak, norbaitek garaiz gordeak. Ez zuen izenik aipatu. Txumak bidalitako lehenengoak ziren, maiteenak.

Erizainak, mutu. Osatu ondoren, txabolora itzultzean, berriro barkatuko ote zuen Agurrek?

Zalantzak janda eman zituen egunak, asteak, telefono-dei eta bisitarik gabe, idazteko ahulegi. Ohatilan bermatuta hasi zen poliki-poliki ibiltzen; leihotik beste bi moduluren patioak ikusten ziren, hango emakumeak pasieran edo lurrean eserita.

Txandalak ekarri zizkioten janzteko. Horrek esan nahi zuen laster jaitsiko zutela Agurrengana.

Goiz batean, anbulantziako ohatilan etzanarazi eta, bidean ordu mordo bat egin ondoren, erietxe batera sartu zuten. Kalean, zirimiria ari zuen.

Osasun-azterketaren ondoren, Basauriko kartzelara. Aldatuta zegoen. Pikulinak beste batzuk ziren, nahiz eta betiko istorio eta miseriak kontatu. Olatz ere

ez zen lehengoa. Yeseriastik egina zuen ihes, baina ezin pozik sentitu.

Bakarrik jarri zuten ziegan. Bere liburuak pilatuta zeuden bazter batean; ohea eta komunaz gain ez zegoen beste altzaririk. Ohitzeko astirik gabe, funtzionario bat etorri zitzaion bila. Ondo ahoskatu zuen Olatz: euskalduna ote? Ahots leunez esan zion mesedez jarraitzeko eta gela batera eraman zuen.

Ez zen larunbata, ezin vis a visak egiteko erabiltzen zutena izan. Txikiagoa zen, gainera, iluna. Mahai metaliko bat zegoen, bi aulki. Eta Basaurikoa horrelakoa bazen?

Eseri eta itxaron egin zuen. Handik bost minututara, atea ireki eta emakume bat sartu zen, beltzez jantzia eta aurpegia zurbil. Hitz egin aurretik asmatu zuen Olatzek zein zen; bost urte zeramatzan lutoz, eta bazirudien betiko jarraituko zuela.

– Rosa naiz, Ramonen emaztea –espainol neutroz hitz egin zuen, mantso. Mahai ondoan geratu zen zutik–. Etorriko zinela entzun nuen. Barakaldokoa naiz, eta hemen bizitzen jarraituko dut.

Zenbat urte izango zituen? 30? Eta halere, askoz zaharragoa ematen zuen. Adinekoen gaitasuna zuen sufritzeko, sinesteko, fidela izateko. Segurtasunez be-

giratu zion, goitik behera, sakon, zintzo. Tente zeraman burua, penak harrotuta. Halere, bat-batean, mahaian bermatu zuen eskua; oso berria zeukan mina, berriegi.

Olatz dardaran hasi zen, beldurrez.

– Zu zara, orduan –Rosak, gorrotoaren partez, errukia.

Olatzek jaitsi egin behar izan zituen begiak.

– Nola izan zen?

Zer erantzun, ordea? Zer jakin nahi zuen? Sorbaldak jaso zituen, galduta, burua astindu:

– Tiroketa...

Ez zen begirada altxatzeko gai.

Rosa isilik geratu zen tarte batez, Ramonen azken momentuak errepasatzen arituko balitz bezala.

– Ondo portatu zen?

Olatzek baietz. Burua bularrean iltzatu zuen, eztarria garbitu:

– Zaurituta zegoenean topatu nuen eta... –begiak itxi zituen malkoak frenatzeko. Hiltzaile deituko zion, bukaeran lagundu ez izana leporatu–. Bere azken momentuetan...

– Berarekin zinen? –poz harrituaz–. Esan zidaten bakarrik hil zela. Bakardade horrek ez nau...

– Azkenera arte.

Rosa pixka bat hurbildu zen, aurpegian distira, gelan falta zen argia hantxe kontzentratuko balitz bezala.

– Zerbait esan zuen?

Isildu egin zen. Senarraren azken minutu agoniko haiek lotzen zituzten. Indarrak bildu zituen berriro:

– Entzun zenuen? –Olatzek baietz buruaz, begirada lurrean–. Errepika ezazu –xuxurlaka–. Zerbait... zerbait behar dut... bizitzeko. Nik... nik...

Mamu bat zen Olatz. Arnasa hartu zuen. Ez zen ausartuko.

– Zu... zu... zure izena.

Oihu egin zuen Rosak, ikaragarrizko poz eta minez.

– Banekien! Seguru nengoen!

Arinduta, negarrez hasi zen, aurpegia eskuetan ezkutatuz. Olatzek beldurrez begiratu zuen sabaira, paretetara. Ez zen ezer gertatu. Malkoak lehortu zituen; ez zeukan eskubiderik Rosaren aurrean negar egiteko. Burua umiliatuta itxaron zuen.

– Ez zaitut gorroto –Rosak–. Baina hemen usteltzea opa dizut. Justizia egingo da.

Atera hurbildu eta birritan jo zuen ukabilaz. Atzera begiratu gabe irten zen.

Hiru aste eman zituen desorientatuta. Txotxongiloak ziren denak: esnatu, jan, paseatu, lo. Eta, ia abisatu gabe, ia konturatu gabe, egun bateko baimena eman zioten, Sodupera joan eta buelta, proba moduan.

Kalera.

Ez zuen gutxitan liberazioa irudikatu: makutoa aldean, Txuma, Haritz eta gurasoak atean, noiz besarkatuko. Askoz ere itsusiagoa izan zen: hamarretarako itzultzeko agindu eta kalekoz jantzita utzi zuten ate nagusiko beste aldean. Txumak oparitutako larruzko poltsa txikia zeraman zintzilik. Inor ez inguruan.

Euria ari zuen. Dardarka eta hoztuta, pribilegio hutsa zen bustitzea. Kale sakonetan, ez zuen inork ezagutu eta bera edozein zen. Ez zekien ze autobus hartu Bilboraino joateko eta, lortu ondoren, galduta zegoen han ere. Blai eginda iritsi zen tren-geltokiraino.

Sodupe. Ez zitzaion hain gris, hain txiki, hain itsusi egin. Semearen herria. Bere bizitzako zati bat goza-

tu zuen han, eta majo sufritu ere. Esperantza galduen zeukanean, itzuli. Prest ez zegoenean.

Ibaiaren korronte marroixka, apar zuriko irlak. Hori ez zen aldatu. Amaginarreba zuen geltokian zain; ze ordutatik ariko zen itxaroten? Andreak besarkatu eta besotik heldu zion. Urrats txikitan gidatu zuen, zubia gurutzatu, fabrika zaharraren aurretik igaro, elizan biratu eta Txumaren kalea hartu, haien etxera zeraman aldapa.

Begiak jaitsita zihoan, inor ez ezagutzeko. Ezkaratza, berdin-berdin. Eta etxeko atea. Barruan, dilistausain epela, babesa: Olatzen argazkia, semearen absentzia eta, nonahi, bizitza-zantzuak. Etxe bat.

Amarekin hitz egin zuen telefonoz, amona Brigidarekin. Amaginarreba huskeriez ibili zen, biak sukaldean kafe zoragarri banaren aurrean. Gaixoa lotsatuta zegoen ez ziolako bisitarik egin kartzelan.

Haritz uzkur iritsi zen eguerdian; segituan piztu zuten amamaren galderek. Txumak ere etortzeko modua bilatuta, familia-bazkaria egin zuten. Etxeko gizonak joan ondoren, hitz eta pitz jarraitu zuen amaginarrebak. Bai, emakume ona zen.

Bostetan, umea eskolan jaso eta plazako kolunpioetara eraman zuten. Bien artean errazagoa zen beste

amen begiradei ez ikusiarena egitea, lasaitasun-plantak antzeztea.

Hurrengo baimenean, bakarrik laga zuen amaginarrebak arratsaldean, enkargu bat zela eta. Bokadiloa prest itxaron zuen sarreran eta kontu txikiez hizketan joan ziren, umea harro bere eskutik. Plazan, semea beste umeekin biltzean, banku batean eseri zen Olatz. Bakarrik. Segituan bete ziren gainerakoak. Harengana ez zen inor hurbiltzen. Ibai marroiko apar zuriko irlak.

Ordu erdira azaldu zen agure argal bat, haur txiki bat zekarrela. Inguratu eta ondoan eseri zitzaion. Berehala kontatu zion biloba nagusia Haritzen gelakoa zela, ziklista amorratua, eta egunero eramaten ziola eskola-ateraino arrastaka trialsineko bizikleta. Serafin Vivanco zen eta lehengusu txikia zuen Txumaren aita zena.

Beste bi gelakideren amak bildu zitzaizkion, segituan hirugarren bat. Elkarrizketan kontzentratuz eutsi zion negar egiteko gogoari. Haurdunaldian baino are aztoratuago zeuzkan emozioak.

Bi egun geroago izan zuen Haritzekin bakarrik bazkaltzeko aukera.

– Jan, maitea –haren plateraren hondarrak erdira bultzatuz.

– ¿Por qué?

Ezin gehiago esan, hain “zergatik?” soilarekin.

Konfiantza irabazi ahala, semea aukeratzen hasi zen noiz izan maitekor, noiz gaizto. Jendearen aurrean, batzuetan, kristoren kasketak harrapatzen zituen eta Olatzek apaltzerik ez. Etxean, berriz, negaratakeak, mimoak eta mainak, amaren *aupitan* egoteko premia bazkaria prestatzen ari zela edo zerbait urgentea bukatu behar zuenean. Eta Olatzek ez zeukan ez armarik, ez ezkuturik.

Aurreneko astean, ama perfektua izaten saiatu zen; gero, etsi: umeak nahi zuena jaten zuen, nahi zuena mahaira eraman, nahi zuenean tentetu. Izaera apaleko irakaslea zen Olatz, kasu pitorik egiten ez zion gela erdian. Amama bertan zegoela, ordea, txintxoa zen Haritz, lasaia. Kemenik ez amaginarrebari eskatzeko egunero haiekin egon zedin. Gerra galdu batean harrapatuta zegoen, egunero Haritzen mendekua sufritzen.

Amaginarrebak notiziak: Amparok laguntza behar omen zuen mertzerian, etxe ondoan. Hiru pezetaren truk, egia da, baina nahikoa eguneroko baimena eskuratzeko.

Hirugarren graduarekin, gogotsu lotu zitzaion errutinari: Sodupera iritsi, bazkaria prestatu, mertzerian lanean ordu bata arte, semearekin bazkaldu, ordu eta erdiz ikasi, mertzeria, han egon bitartean merienda eman eta kartzelara lotara.

Atentzioa ez ematen saiatzen zen, jasotako gutxiesteak ahazten. EAJkoek terroristatzat zuten; euskara-irakasle xumearen garaietan ere, nahiz eta Txuma batzokikoa izan, juxtu-juxtu agurtzen zuten. HBkoek, egun zoriontsuagoetan ikasle eta lagun, agurtu ere ez: beste alde batera begiratu, ez ikusiarena edo ziplo isildu Olatz denda batera sartzean. Txibatoa.

Erresumako lumarik gorenetako batek jarri zuen Olatz atzera modan. Eta estatu-afera bihurtu zen argazkilari trebe batek harrapatu zuenean semearekin eskolatik irribarretsu ateratzean. *Telediarioan* ere polemika aipatuta, ez zekien zer egin. Alfontso ez zen

ahazten zuen horietakoa, baina, ETAZ gain, GALen jomugan ere jartzen ari ziren, damua nola interpretatu.

Zortzi egunez iraun zuen enbatak. Haizea zeharo aldatu zen *Cambio 16* aldizkariak Yoyes azalera ekarri zuenean, Donostian libre bizi zela zabaldu.

20

Haritzen eskolako paper zaharrak nostalgiaz ordenatzen ari zela, atentzioa eman zion testu bat euskaraz egoteak; biok batera asmatutakoak ez beste guztiak espainolez idazten zituen. Letra oso txarra kontuan hartuta, kartzelara bisitak egiten hasi aurrekoa zen.

“Bazen behin neska bat Zarauzkoa zena eta Ama zuen izena. Ona zen baina poliziak persegitzen zuen eta Iparraldera eskapatzen zen eta bizi zen pisu txiki batean liburu askorekin. Semea zen dragoi baten laguna, dragoi oso jakintsua eta handia. Dragoiak Ama hartu zuen eta gaztelu gorri handi batera eraman zuen, izena Yeserias eta gero ere semea eraman zuen eta aita eta denak. Hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Sodupeko plazan”.

Yeseriasen behin, autonomo batek ohartarazi zion askatasunik ez zela, emakumeek kanpoan beste kartzela bat zutela zain, mundua ez zela horretan batere

aldatu. Eta arrazoi. Iparraldean, sofa partekatzen zuten Txumak eta umeak. Sodupen, berriz, senaremazte oheaz gain, Haritzen ohetxoa besterik ez zegoen, eta egongelako sofa, txikiegia. Laster emango zizkioten asteburuko baimenak; zer egin, orduan? Txumaren aurrean burua makurtzea. Haren ohean sartu beharko zuen?

Zalantza, beldur eta hutsegiteen gainetik maite zuen Txumak, baina ezin izan hark nahi zuen pertsona. Betiko zegoen markatuta. Zamatuta.

Ez, Olatzek ez zuen maite eta ezin aukeratu; nahi bai! Semeak behar zuen lehentasuna, urteak ziren baztertzen ari zela, ama txarra izaten. Bide errealista bakarra irekitzen zitzaion Haritzi egindako mina sendatzen hasteko.

Bizi osoko zigorra: ez zen inoiz bere gorputzaren jabe izango; nola izango zen, ba, bere bizitzarena?

Goiz batean ez zioten ateratzeko baimenik eman; ezin gauera arte hots egin abisatzeko. Biharamunean ere ez. Astebete geroago komunikatu zion abokatuak hirugarren gradua erretiratu zitzaiola. Arrazoirik ez.

Larunbat hartan ez zuen inor espero. Bisita-gelara eraman zutenean, ustekabe bikoitza: nor eta aitona Manuel. Gogoratzen zuenetik agure-itxuraz, ez zen asko zahartu. Kopeta pixka bat luzatu, begi azpiko poltsak puztu, sudurra eta belarriak handitu, zaintxoz bete. Txukun zihoan, belarriko ileak eta bibote grisa ondo moztuta, alkandora zuriaren lepoak distiratsu, marra ondo lisatuta galtza zein mahuketan. Eta ezkontza-eraztuna, behatza itotzen.

Behin ere ez zuten patxadaz aurrez aurre jardun; aitona ere deseroso. Hizketan hasi zen: amona Brigidak ez omen zuen barroteen atzean ikusi nahi, eta ez zela etorri, baina esateko ez zuela gogotik kentzen. Ia bi urte aitona jubilatu zela; errutinak bizi zuen. Erosketak berak egiten omen zituen, aspalditik; amonari, eskailerak luzeegi. Eta, bestela, paseoak, erronda lagunekin, karta-partida.

– Mutilzaharren moduan –broman hasi eta mingots bukatu.

– Nirekin haserre zaude oraindik? –Olatzek.

– Haserre?

– Edo minduta edo...

Begirada baztertu zuen Manuelek, sorbaldak altxa.

– Buelta dezente eman dizkiot eta ni... ez naiz inor juzgatzeko. Neroni ere jardun nintzen tiroka gerran.

– Ez zenuen kartzelan bukatu, ordea.

– Horixe dauka gerrak! Teofilo egon zen, kartzelan eta trabajadoreetan. Egin al zuen nik egin ez nuen ezer?

– Gerra galdu.

– Hitzak –buruaz ezezka–. Bala berdinekin tiratzen genuen, haragi berdinera –arnasa bota zuen nekatuta, begirada horman pausatu.

– Ez duzu zeure burua haien mailan jarriko, ezta? Herriaren kontra altxa zineten.

– Ez da hain erraza.

– Bada, bai.

Isilean geratu ziren, elkarri begiratu ezinik. Azkenean, hitz egiten hasi zen aitona, minetik:

– Momentu batean, egoerak gainezka egin zidan. Ezin nuen tiro gehiago jo eta beldurrak ito egiten ninduen. Lemoan geunden, don Jose Belate kapitainarekin. Gizon ausarta zen, taxuzkoa. Metraileta batzuen aurrera ateratzeko agindu ziguten, beste konpainia batek sorpresan atzetik erasotu ahal izateko. Manio-

bra suizida zen. Posizioa birritan irabazia genuen egun hartan, birritan galdu. Banan-banan agurtu gaitu Belate kapitainak, isilik itxaron du seinalea eta han igo dute kementsu lubakiko aldapatxoa. Dute. Neronek ezin; izuak paralizatu ninduen. Metraileten tiro-segidak aditu nituen, oihuak. Irurtzungo mutil bat ordu erdiz jardun zen garrasika, errematatu zuten arte.

– Eta konpainiako besteak?

– Hilda –negarrarekin borrokan. Ezkerreko eskua erakutsi zion, artikulaziotik hiruzpalau zentimetrotara zeukan orban itsusia, Olatzen modura–. Tiro jo nion nire pistolarekin, ospitalera eraman nintzaten. Badakizu nola bukatu nuen gerra.

– Bizirik irten zinen, behintzat.

Irribarre egin zuen tristeziaz, burua astinduz:

– Zerorrek baino dezente zama handiagoa daramat bizkar gainean.

– Nahiago nuke eramango ez banu.

– Beranduegi. Bizitzak, batzuetan, bide zailak jartzen ditu gaizki egin dugula ikusarazteko. Gerra... gaiztoa da oso. Bukatuta ere, soldaduskan segitu behar izan genuen. Halako batean, lizentziatu eta etxera itzuli nintzen. Ba al dakizu zer egin nuen? Biharamunean lanera joan. Gerra aurretik Orion ari nin-

tzen. Bizikletaz, goizeko seietan. Negarrez egin nuen bide osoa.

– Aitona Teofilok-eta ez zuten aukera hori ere izan... –amorruari eutsiz.

Begiak malkotan zituen aitonak. Poltsikotik atera zuen tentuz tolestutako mukizapia, aurpegia lehortu. Olatz mutu; ikasia zuen vis a visetan korapiloak baztertzen, zauri txikienak ere gaiztotzen baitziren ziegako ordu luzeetan.

Aitonak eztarria garbitu eta hasperen egin zuen:

– Beldur diozu...?

– Inork zerbait egiteari? Garbituz gero, akabo sufrimendua. Pena, zuentzat.

– Justiziarekin zorrak kitatuta irtengo zara. Ezin dizute ezer ere aurpegiratu.

– Justizia... –irribarre ironikoa–. Hutsik dago hitz hori. Bihar lege bat aterako balute zure bibotea debekatuz, kartzelara ekarriko zintuzkete. Legala bai; justua ez. Aterako naute halako batean, eta nik baino min gutxiago egin duten askok barruan jarraituko dute.

– Eta gehiago egindako beste batzuk, berriz, sartu ere ez.

Pentsakor geratu zen aitona beste zerbait aitortzeko, baina irekitako ahoa itxi, burua astindu eta irentsi egin zuen.

Irailean, semetxoarekin eta beste ume batekin paseatzen ari zen Yoyes, Ordizian. Herriko jaiak ziren. Gizon bat hurbildu zitzaion: tiro bat izterrean, tiro bat bularraldean. Lurrera erori zen; tiro bat buruan.

Ordurako, etsita zegoen Olatz: nahiz eta reinsertzioa erregutu, nahiz eta kideak saldu, zigor osoa beteko zuen. Fronte guztietan porrot.

Hilabete geroago itzuli zuten hirugarren gradura; ezein periodikok ez zion berriari kosk egin eta laster hasi zen errutinarekin: goizean goiz Sodupera, gauean Basaurira. Lehenengo asteburuko baimena ere etorri zen, bigarrena, hirugarrena; astero jasoko omen zuen. Denak Sodupen eman zituen, ez baitzegoen artean prest Zarautzera bueltatzeko. Eretza mendira igotzea maite zuen, horizontera begiratzea oztoporik gabe: Zalla, Otxaran, Galdames, beste bizitza batean eus-

kaldundu nahi zuen Enkarterri osoa. Gauean, Txumari egiten lagatzen zion.

Handik agian haren paranoia. Goizero aztertzen zituen kotxe-azpiak eta, Olatzekin ezkaratzetik ateratzean, ezker-eskuinera begiratzen zuen larri. Bere buruak gehiago beldurtzen zuen Olatz: ederki zekien zer egin zuen; ez, ordea, zer egin zezakeen, zer egiteko prest zegoen.

Ramon Perez Ocaña askotan gogoratzen zuen, batzuetan Rosa eta Sara alaba. Zortzi urte izango zituen. Gerrako biktima zen, gerraren mamia. Gainera, atzera bueltarik ez; damuak bere buruari besterik ez zion laguntzen, egindakoa bere buru aurrean disimulatzen, zuritzen.

Ezin Haritzi sendatu eragindako zauriak.

Baziren hamaika urte Xantiotik ihes egin zuela. Bilbora joan aurreko gau motz hartan besterik ez zen itzuli. Haizatu behar zuen iraganeko azken mamua.

Sanpelaioak ospatu ohi ziren Zarautzen. Festak hasteko, gauerdian, herri osoak Pelaio zaindariaren ereserkia kantatzen zuen. Haritzi oparitu nahi zion zarauztarra eta euskalduna izatearen poza, sustraiak.

Asteazken batean izango zen gauerdiko kantaldia, ezin astegun buruzuri batean kartzelatik kanpo lo egin, baina agian, ostegunean... Asteak hartu zizkion hiru gauetako baimen berezia negoziatzeak; lortzear zegoela, ETA militarrak 21 pertsona hil zituen Bartzelonan, Hipercor supermerkatuan, eta beste hainbat zauritu. Pikulinek kontatu zioten eta azkar-azkar gehitu zuten, beldurrez eta tentuz, ETAk abisua eman omen zuela eta poliziak ez omen zuela supermerkatua hustu nahi izan. Olatzek baimena besterik ez zuen buruan, kinka larrian zegoela.

Sei egun geroago hasiko ziren Sanpelaioak.

Bost. Lau. Hiru. Bi.

Etsien zegoenean, miraria: eman egin zioten. Trenez bidaiatu zuten ostegunean, iluntzean iritsi ziren. Jendetza zebilen pareko San Pelaio baselizaren inguruan. Olatzek poz urduria sumatu zuen sabelean, nerabezarokoa, hantxe katigatuta geratu izan balitz bezala.

Urrutian, Karmelo. Traje handiegian gizen. Ez al zebilen aholkulari Espainiako gorteetan? Bi kankailu zeramatzan atzean, liktore. Ederra katea hura ere.

Aitona-amonen muxu-festaren ondoren, zuzenean abiatu ziren Xantiora. Aitona Teofilo ate aurrean,

tente-tente hurritz-makilari esker. Mikelek bertso bat bota zion. Olatz, gogotik saiatu arren, negarrez hasi zen; ezin aditu. Ikaragarria zen: etxean zegoen semearekin, etxean.

Baserriko usain ezagunetan blai, sakon egin zuen lo bere gela zaharrean, umetan bezain lasai, bitartean mende bat igaro izan ez balitz bezala.

Berandu esnatu, eta, gosaldu ondoren, kalera joan ziren bizikletaz, batean amona Xexili, bestean ama eta Haritz. Nahiz eta euskaraz hala moduz moldatzen zen, konfiantza zuen senideekin, Txumari esker.

Amona Brigidari bisita, hasteko. Ustekabean harrapatu zuten aitona Manuel eta azpiko kamiseta zuria soinean ireki zien atea, tiranteak tripontzi azpian pintzazko galtzei eusten. Pixka bat makurtu zen, besoak zabal-zabalik:

– ¿Dónde está mi gigante?

Olatzek amorrua frenatu eta, muxu ematean, belarrira xuxurlatu zion:

– Euskaraz, faborez.

– Bai, bai. Hi, atera ezak bola! Eneee! Laster Supermanen pare ibiliko haiz, ikusi al duk pelikula? –patrikatik bizpahiru galletatxo atera eta banan-banan luzatu zizkion, txanponen moduan.

– Paxientziak!!! –Haritzek, poz-pozik.

Lixiba-usaina airean, amona Joxepiren garaietan bezala. Memorian baino txikiagoa zen etxea; sukaldeak geruza sotila zuen, zahar eta oliotsua. Salan zegoen Brigida, sofan eserita leiho ondoan, eguzkitan. Laurogeita hemezortzi urte, burua erloju bat. Erdi itsu eta ilea zuri-zuria, urratsak aditzean, zutitzen saiatu zen, irrikan.

– Ama, zer egiten duzu? Ez altxatu, mesedez.

– Isilik egon hadi! Nahi dudana egiten diat, orain-dik nire semea haiz-eta –eta begien ilunpetan Olatz bilatuz–: etorri hona maitea, etorri amonarengana.

Bizikletak Brigidaren etxe azpian aparkatuta, oinez abiatu ziren udaletxe-plazarantz. Kaleak lepo zeuden; zer izango zen hura! Plazara iritsita, Makatzareneko izkinan, bihotzekoak jo zion Olatzi: Zigordia kaletik zetorren dotore, lerden, irribarretsu, heldu, nor eta Xabi. Ipuinetako printzesa zen emaztea; haien aurrean, seme praka-motza eta alabatxo begiztaduna, bien arropa oihal berarekin josia.

Beranduegi tximak txukuntzeko. Gainezka egin zion lotsak; hainbeste denbora pasata, ezagutuko al

zuen? Jende inportantearen airea zerion, gustura zegoen bere buruarekin, agian perfekzioan pittin bat preso. Kasu egin nahi zion, baina nola, emaztearekin arazorik sortu gabe? Ez zuen ezer jakingo haietaz.

Xexilik lepoa tentetu, plazako animazioari bizkarra eman eta Zigordia kalerantz bultzatu zuen alaba. Olatzek astirik ez Modelo zinema ikustean memoria mingarriak ekartzeko: bazterrean, Alfontso zegoen, udarako epelean jaka gris bat soinean. Amaren eta semearen artean kateatuta, aurrera jarraitu behar izan zuen.

ESKER-ONA

Iban Auzokoa, Joseba Ariznabarreta, Gari Berasaluze, Pello Esnal eta Koldo Iztueta

Lourdes Agirre, Aritz Alava, Iñaki Anasagasti, Arantxa Araukua, Juan Bengoetxea, Pello Bergara, Ana eta Beatriz Eizmendi, Mikel Elortza, Xabier Etxabe, Antton-ni Eizagirre, Rufina eta Florentina Fueyo, Arantza Gabilondo, Nahikari Gabilondo, Marijose Garabieta, Aloña Garmendia, Manolo Gigosos, Loli Gonzalez, Alex Gurrutxaga, Amagoia Gurrutxaga, Benanzio Iñurrieta, Mikel Iriondo, Mari Irurtia, Gorka Izeta, Egoitz Iztueta, Eider Landaberea, Asun Landa, Josu Landa, Miren Tere Landa, Anjel Landaburu, Piedad Landaburu, Mikel Laskurain, Josu Larrinaga, Marikruz Lazkano, Anjel Lertxundi, Garbiñe Malaxetxebarria, Elixabete Manterola, Mariasun Mozo, Marije Mugika, Jose Luis Peña, Elixabete Perez Gaztelu, Fernando Rojo, Jesus Mari Olaizola “Txiliku”, Galder Unzalu, Ion Zaldua eta Iñaki Zubeldia.